

# EUSKAL KANTAK



# EDUKIA

104 (M-n ezten) .....	24
25. ARTIKULUA (Idoia Asurmendi) .....	2
500 URTE (Bizardunak).....	3
564 (Hertzainak) .....	4
8D (Mikel Moreno).....	5
A FISHING TOWN (Beti Mugan) .....	6
ABERRIAREN MUGAK (Txomin Artola) .....	7
ADAN (Joxe Ripiau).....	8
AGUR, ANNA (Kerobia).....	9
ADIOS MAITIAK (Pantxo eta Peio).....	10
AGUR ESKUAL HERRIARI (Urko) .....	11
AGUR XIBERUA (Etxahun Iruri) .....	12
AGURE ZAHARRA (Lluís Llach / Xabier Lete) .....	13
AHAZTEAREN LEZIOA (Bide Ertzean) .....	14
AINGURA (Beti Mugan) .....	15
AINGURA HEGODUNAK (Anari) .....	16
AITA SEMEAK (Oskorri) .....	17
AITORMENA (Hertzainak).....	18
AITORREN HIZKUNTZ ZAHARRA (Urretxindorrak).....	19
AITZAKIA (Urtz).....	20
AIZU (Negu Gorriak).....	21
ALDAPAN GORA (Huntza).....	22
AMA (Mikel Laboa) .....	23
AMA EUSKAL HERRIA (Xalbador & Anje Duhalde) .....	24
AMA HIL ZAIGU (Mikel Laboa).....	25
AMAIERATIK HASI (Izaki Gardenak) .....	26
AMAPOLA (Gari) .....	27
AMAREN BESOETAN (Sorotan bele).....	28
AMARI HITZAK (Deabruak Teilatuetan).....	29
AMERIKETARA JOAN NINTZEN (Herrikoia) .....	30
AMETS (Gari) .....	31
AMETS BAT (Alaitz eta Mainer).....	32
AMETS PREFABRIKATUAK (Hertzainak).....	33
AMETSAK AMETS (Ganbara).....	34

AMETSEN ERAISTE NEURTUA (Anari) .....	35
AMETSETAN (Julio Kageta) .....	36
AMODIOZKO POEMA (Benito Lertxundi).....	37
ANTOINE NAHASIA (Joxe Ripiau) .....	38
ANTTONI ETA ANTTON (Sakabi) .....	39
ANTZEKOTASUNAREN DESBERDINTASUNA (Julio Kageta).....	40
ANTZINAKO BIHOTZ (Mikel Laboa) .....	41
APAR URRUNAK (Gari) .....	42
APUR DEZAGUN KATEA (Mikel Laboa) .....	43
ARGAZKIA (R) .....	44
ARGI IBILI (EH Sukarra).....	45
ARGIA (Izaro).....	46
ARGIAREN HIRIA (Sorotan Bele) .....	47
ARGIZIRRINTAKO KOPLAK (Ganbara).....	48
ARI NAIZELA (Pello Errota / Txirrita) .....	49
ARKIMEDESEN PRINTZIPIOA (Anari) .....	50
ARMADURA HERDOILDUKO GERLARIA (Beira).....	51
ARMAGABETZEA (Anari) .....	52
ARMEN KULTUAREN AURKA (Joxe Ripiau) .....	53
ARRAINAK EIJER BEGIAK .....	54
ARRATSALDE HONETAN (Sorotan bele).....	55
ARRAZA GABEKO ZAKUR (Pasadena) .....	56
ARROSAKO ZOLAN (EHZ).....	57
ASABA ZARREN BARATZA (Lizardi / Antton Valverde) .....	58
ASKATASUNAREN SEMEEI (Benito Lertxundi).....	59
ASKATASUNEZKO BAKEA (Euripean Sua).....	60
ASPALDIKO LOREAK (EH Sukarra) .....	61
ASTELEHENAK (Izaro) .....	62
ASTEROIDEEN ANTZOKIAN ARTISTA ERAHILA (Kerobia) .....	63
ASTIRO ETA AMORRUZ (Gari) .....	64
ATALAIA (Sorotan Bele).....	65
ATHARRATZEKO GAZTELUKO KANTA (Benito Lertxundi).....	66
ATZERA BEGIRA (Bap!!) .....	67
ATZO (Bide Ertzean).....	68
AULKI JOKOA (Idoia Asurmendi).....	69
AURKITU GENITUEN (E.T.S.) .....	70
AURRERA ALTSASU (Pello Reparaz/Jon Maia) .....	71

AURRI GARA (Izaki Gardenak) .....	72
AUTOKUTSATZEN (Hertzainak) .....	73
AUZO TRENEAN (Ruper Ordorika).....	74
AZALAK EZIN HARTU (Izaki Gardenak) .....	75
AZKEN DANTZA (Peio ta Pantxoa).....	76
AZKEN EGUNA (Urtz).....	77
AZKEN MUXARRAREN TESTAMENTUA (Ganbara).....	78
AZKEN TXANPA (Urko).....	79
AZKENEKO ANARKISTA (Bap!!) .....	80
BADA HIRI GORRI BAT (Lorelei) .....	81
BADAKIT (Bide Ertzean).....	82
BADATOR EGUNA (Bide Ertzean) .....	83
BADIRA HIRU ASTE (Mikel Urdangarin).....	84
BAGA, BIGA, HIGA (Mikel Laboa).....	85
BAGARE (Bittor Kapanaga / Gontzal Mendibil).....	86
BAINA BERDIN DIO (Mikel Markez).....	87
BAIONATIK BILBORA (Imanol) .....	88
BAKARRIK BAHAGO NEGUAN (Bide Ertzean).....	89
BAKARRIK NAGO (Beti Mugan).....	90
BAKARRIZKETAN (NIA).....	91
BAKARTIA HONDARRIBIAN (Negu Gorriak) .....	92
BALADA IHESLARIA (Bide Ertzean) .....	93
BALDIN BADA (Baldin Bada) .....	94
BALDINTZAK (Beti Mugan) .....	95
BALDORBA (Benito Lertxundi) .....	96
BALE IHIZI (Jean-Baptiste Otxalde / Imuntzo eta Beloki).....	97
BALEAK (Izaki Gardenak).....	98
BALEAREN BERTSOAK (Benito Lertxundi) .....	99
BALLADE DE JOHNNY JANE (Serge Gainsbourg).....	100
BALOREAK (Elkartasuna).....	101
BALORETAKO ESKALA (Julio Kageta).....	102
BANPIROEN HIRIA (Izaki Gardenak) .....	103
BARATZE BAT (Pier Paul Bertzaiz) .....	104
BARRE ALA NEGAR (Don Inorrez).....	105
BASATZETAN GARBI (Katamalo) .....	106
BATASUNA (Peio ta Pantxoa) .....	107
BATZUK BABILONIA (Joxe Ripiau).....	108

BATZUTAN (Julio Kageta) .....	109
BAUTISTA BASTERRETXE (Herrikoia) .....	110
BAZKAL OSTEKO KAFAA (Mikel Urdangarin) .....	111
BAZTAN (Mikel Laboa) .....	112
BEDEINKATUA (Mikel Laboa) .....	113
BEGIAK PARREZ PARREZ (T. Artola-A. Zubiria) .....	114
BEGITARA BEGIRA (Vendetta) .....	115
BEGIRATU ALA IKUSI (Biren) .....	116
BEHIN BATEAN LIOLAN (Bilintx / John Denver) .....	117
BEHIN BETIKO (Imanol Urbietta) .....	118
BEKAITZ (Anje Duhalde) .....	119
BELDURRAK AHAZTUTA (M-n Ezten) .....	120
BELDURRARI BELDURRA (Beti Mugan) .....	121
BEMIDJI (Peiremans +) .....	122
BENETAKOA (Hertzainak) .....	123
BENTARA NOA (Mikel Laboa) .....	124
BERANDU (Bide Ertzean) .....	125
BERANDU (Izaki Gardenak) .....	126
BERANDU DABILTZA (Ruper Ordorika) .....	127
BERANDU NATOR (Bide Ertzean) .....	128
BERDIN IZANEN DA (E.H. Sukarra) .....	129
BERE TXISTEAK (Don Inorrez) .....	130
BERETERRETXEN KANTHORIA (Mikel Laboa) .....	131
BERRIRO GALDU ZERA (Beti Mugan) .....	132
BERRIRO OHERA (Mal de Ojo) .....	133
BERRIZ ARNASTEKO GERTU (Leire Etxezarreta) .....	134
BERRIZ BERPIZTU NAIZ (Bide Ertzean) .....	135
BESAMOTZA (Tapia eta Leturia) .....	136
BESTERIK EZ (Izaki Gardenak) .....	137
BESTERIK EZ NAIZ (Zea Mays) .....	138
BESTERIK EZAGUTU EZ ETA (Mikel Laboa) .....	139
BETAZALAK ERAUZTEN (Katamalo) .....	140
BEXAMELA ETA PASTELA (Maixa ta Ixiar) .....	141
BI MINUTUERO (Hertzainak) .....	142
BI MUXU (Rafa Rueda) .....	143
BIDEA ETA DENBORA (Anari) .....	144
BIDEAN (Txuma Murugarren) .....	145

BIDE ERTZEAN (Bide Ertzean).....	146
BIDE LUZEA TERNUARAT (Tadusak).....	147
BIDEGURUTZEAN (Gari).....	148
BIGARREN GEZIA (Lorelei) .....	149
BIHAR HELDUKO NATZAIZU (Bide Ertzean).....	150
BIHOTZ BERRIAREKIN, MUNDU BERRIRA (Euripean sua) .....	151
BIHOTZ TAUPADA ETA LABANA (Pasadena) .....	152
BIHOTZA GALDU DUT (Anari).....	153
BILUTSIK AZKENEAN UR BAZTERREAN (Ganbara).....	154
BISAI BERRIAK (Berri Txarrak).....	155
BIZITZA TRISTE ETA EDERRA (Joxe Ripiau).....	156
BIZITZAK (Gari) .....	157
BIZITZAK (Izaro).....	158
BIZITZAREKIN DANTZAN (Urtz) .....	159
BIZKAIA MAITE (Benito Lertxundi) .....	160
BLUESAREN HERRIAN (Juan Carlos Perez) .....	161
BOGA BOGA (Delirium Tremens) .....	162
BORDA ZAHARREAN (Erramun Martikorena) .....	163
BORISENA (Txuma Murugarren) .....	164
BORREROAK BADITU MILAKA AURPEGI (Negu Gorriak).....	165
BOULEVARDEKO ERLOJUA (Urtz) .....	166
BRODATZEN ARI NINTZEN (T. Artola-A. Zubiria) .....	167
BRUNCH IN THE LODGE (Don Inorrez) .....	168
B.S.O. (Negu Gorriak).....	169
BURDIN JANTZIA (Izaki Gardenak) .....	170
BYE, BYE, GIZONTXO (Ruper Ordorika) .....	171
CALIFORNIA 1930ean (Ganbara).....	172
CLASH ETA PISTOLS (Itoiz) .....	173
DAMA GAZTE XARMANT BAT (Benito Lertxundi).....	174
DANTZAN EGIN LASAI, NORMAN (Joxe Ripiau) .....	175
DARDARA HURA (Don Inorrez) .....	176
DEI BAT (Mikel Moreno).....	177
DE MÁS (Izaro).....	178
DENA (Izaki Gardenak) .....	179
DENA ALDATZEN DA (Julio Numhauser / Inés Osinaga) .....	180
DENA EZ DENEAN EZER (Beira) .....	181
DENA OSKOL (Izaki Gardenak) .....	182

DENAK ALA INOR EZ (Mikel Laboa) .....	183
DENBORA (Anari).....	184
DENBORA GELDIAN (Beti Mugan).....	185
DESERTUA (Anari).....	186
DESITXURATUZ (Jon Gurrutxaga).....	187
DESNÚDAME, DESDÚDAME (Anari).....	188
DESOLATIO (Itoiz).....	189
DISTIRA vs. ITZALA (Don Inorrez).....	190
DOLUA (Mikel Moreno).....	191
DONOSTIAKO HIRU DAMATXO (Herrikoia).....	192
DUINTASUNEZ EUTSI (Des-kontrol).....	193
E. JAUNA (Don Inorrez).....	194
EBAMIRENTXU JOAN ZEN (Fórmula V / Drindots).....	195
EGIA (Benito Lertxundi).....	196
EGIA BAT ESATEAGATIK (Gabriel Aresti / SS-77).....	197
EGIA DA (Oskorri).....	198
EGIN KONTU (Ruper Ordorika).....	199
EGUN ARGIAN (Mikel Urdangarin).....	200
EGUN BATEZ (Benito Lertxundi).....	201
EGUN DA SANTIMAMIÑA (Mikel Laboa).....	202
EGUN MOTELA (Itoiz).....	203
EGUNERO (Hertzainak).....	204
EGUNETIK EGUNERA (Hertzainak).....	205
EGUNSENTIAN (Benito Lertxundi).....	206
EGUZKI ARGITAN (Eñaut Elorrieta).....	207
EGUZKIA (Mikel Markez).....	208
EHUN MILA JUNKIE (Beti Mugan).....	209
EHUN KILO (Ehun Kilo).....	210
EH SUKARRA (EH Sukarra).....	211
EH TXO!! (Hertzainak).....	212
EIDER (Izaro).....	213
EKAITZEN ARRAZOIEN BILA (Izaki Gardenak).....	214
ELEKTRIZATEA (Zea Mays).....	215
ELURRETAN (Itoiz).....	216
ENE BEGIEK (Ruper Ordorika).....	217
ENE MAITIA BARDA NUN ZIRA (Erramun Martikorena).....	218
ENE MAITEA NAUZU (Iñaki Eizmendi).....	219

ENTZUN ZAZU (Benito Lertxundi).....	220
EPERRA (Anje Duhalde).....	221
ER(H)ORI (Izaro).....	222
EROMENAZ (Bide Ertzean).....	223
EROMERIAN (Tapia eta Leturia).....	224
ERRAUTSEN ARGIA (Don Inorrez).....	225
ERRE ZENITUZTEN (Xabi Solano).....	226
ERREFUXIATUENA (Izaro & Mikel Urdangarin).....	227
ERREPIDE HURBILETIK URRUN (Izaki Gardenak).....	228
ERREPIDEAN (Zetak).....	229
ERROTA ZAHARRA (Xabier Lete/Lourdes Iriondo).....	230
ESAIDAZUE (Joxe Ripiau).....	231
ESAIOK (Hertzainak).....	232
ESALDI SINPLE BAT GALDERA HANDIEGIRAKO (Kerobia).....	233
ESAN BAIETZ (Juan Carlos Perez).....	234
ESAN BARE (Bide Ertzean).....	235
ESKALEOK (Izaro).....	236
ESKEAN (Katamalo).....	237
ESKUTITZA (Hemendik at).....	238
ESNATU BAINO LEHEN (Mikel Moreno).....	239
ESNATU NAIZ (Kerobia).....	240
ESPALOIAN (Itoiz).....	241
ESPERANTZARA KONDENATUA (Gari).....	242
ESURI 1099 (Kemen Lertxundi).....	243
ESZEPTIKOARENA (Anari).....	244
ETA NI BANOA (Gari).....	245
ETORKIZUNA (Izaki Gardenak).....	246
ETXE ERORIAK (Sasoi ilunak).....	247
ETXEKO ANDRE (Anje Duhalde).....	248
ETXERUNTZ (Juan Carlos Perez).....	249
ETZERA (Mikel Markez).....	250
EURIA (Olatz Salvador).....	251
EURI TANTA BAKOITZEAN (Betagarri).....	252
EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ (Oskorri).....	253
EUSKAL HERRIKO LUR MAITIA (Pantxoa eta Peio).....	254
EUSKAL R&R (Niko Etxart).....	255
EUSKAL HERRI NEREA (Xabier Lete).....	256



EUSKAL PIZKUNDEA (Benito Lertxundi).....	257
EUSKARAREN TXANTXANGORRIA (Sarriegi/Artola).....	258
EUSKARAZ BIZI NAHI DUT (Esne Beltza).....	259
EUSKO GUDARIAK (Jose Maria Garate).....	260
EZ BALETOR INOR (Deabruak Teilatuetan).....	261
EZ DA ONDO ATERAKO (Nøgen).....	262
EZ DA POSIBLE (Ruper Ordorika).....	263
EZ DAGO ILUSIO FALTSURIK (Hertzainak).....	264
EZ DAKIT (Txuma Murugarren).....	265
EZ DUT BILATZEN (Peio ta Pantxoa).....	266
EZ DUT EZER ESAN NAHI (Bap!!).....	267
EZ DUT NAHI (Berri Txarrak).....	268
EZ, EZ DUT NAHI (Julen Lekuona).....	269
EZ GAITU INORK GELDITUKO (Urtz).....	270
EZ GARA HIL BEHAR (Pasadena).....	271
EZ NAUZU IZANGO BERRIZ (Doctor Deseo).....	272
EZ OHILDU (Sara Azurza).....	273
EZEKIELEN PROPHEZIA (Itoiz).....	274
EZER EZ DA BETIKO (Ken 7).....	275
EZIN AHAZTU (Oskorri).....	276
EZIN LEIKE (Delirium Tremens).....	277
FENNEH (Lurra).....	278
FESTARIK FESTA (Tapia eta Leturia).....	279
FILOSOFI ALDAKETAK (Beti Mugan).....	280
FOISIS JAUNA (Itoiz).....	281
FORMAK (Benito Lertxundi).....	282
FORJARIEN KANTA (Oskorri).....	283
FURRA FURRA (Oskorri).....	284
GABERAKO ATERBEA (Mikel Laboa).....	285
GAIZKI PENTSATZEN (Hertzainak).....	286
GALDERAK 1 (Anari).....	287
GALTZAILEAK (Beti Mugan).....	288
GANORABAKO (Urtz).....	289
GARAI POSTMODERNOAN (Don Inorrez).....	290
GARUNA ETA GORPUTZA (Kerobia).....	291
GASTEIZKO GAUA (Zarama).....	292
GÂTEAU BASQUE (Ganbara).....	293

GAUA ETA NI (Benito Lertxundi) .....	294
GAUEKO ARGIAK (Ken 7) .....	295
GAUEKO BORROKA (Pikutara) .....	296
GAUEKO BURUKO MINA (Zarama).....	297
GAUEKO ELE IXILEN BALADAK (Benito Lertxundi).....	298
GAUEKO ILUNEAN (Herrikoa) .....	299
GAUERDIAN (Gaizkiñe).....	300
GAU ILUN (Urtz).....	301
GAUR (Gari&Maldanbera).....	302
GAUR (Zea Mays).....	303
GAUR EURIA EGIN DU (Deabruak Teilatuetan) .....	304
GAUR EURIPEAN (Don Inorrez) .....	305
GAUR GOIZEAN (Juan Carlos Perez) .....	306
GAURKO IRAULTZAILEAK (Julio Kageta) .....	307
GAUR NI NAIZ (Zea Mays) .....	308
GAZTELUGATXE (Oskorri) .....	309
GEREZI BEGIAK (Joxe Ripiau / Eric Donaldson) .....	310
GERRA BAINO LEHEN (Bide Ertzean) .....	311
GIZON ARRUNTAREN KOPLAK (Xabier Lete).....	312
GAZTETASUNA ETA ZAHARTASUNA (Mikel Laboa) .....	313
GEOGRAFIA (Eñaut Elorrieta).....	314
GOIAZEN (Eitb telesaila).....	315
GOGOAK (Esne Beltza) .....	316
GOGOAREN BAITAN (Anje Duhalde).....	317
GOGO ETA GORPUTZAREN ZILBOR-HESTEAK (Mikel Laboa).....	318
GOIBELA ARNASTEN DUTE (Pasadena).....	319
GOIZEKO EURI ARTEAN (Txomin Artola).....	320
GOIZIAN GOIZIK (Benito Lertxundi).....	321
GOIZUETAN (Mikel Laboa).....	322
GORA GURE BIHOTZAK (Modus Operandi).....	323
GORA HERRIA (Negu Gorriak).....	324
GORA TA GORA BETI (Oskorri).....	325
GORPUTZ ADAR-MAMUA (Izaki Gardenak).....	326
GUK EUSKARAZ (Urko) .....	327
GURARIKA (Katamalo).....	328
GURE BAZTERRAK (Mikel Laboa) .....	329
GURE BIDE GALDUAK (Benito Lertxundi).....	330

GURE ESKU DAGO (Kirmen Uribe/Eñaut Elorrieta-Kepa Junkera).....	331
GU GERA JENDEA (Beti Mugan) .....	332
GURE HITZAK (Mikel Laboa) .....	333
GURE JAUN KAPITAINA (Ganbara).....	334
GURE MUNDUA (Anari).....	335
GURE NAHIA (Goazen!!).....	337
GURE OROITZAPENAK (Mikel Laboa) .....	338
GUREA (Bide Ertzean).....	339
GURETZAT (Oskorri).....	340
GUZTIAK LEHERTU ARTE (Gari) .....	341
HABANERA (Xabier Lete).....	342
HABIAK (Anari) .....	343
HAIEK GU (Izaki Gardenak) .....	344
HAIKA MUTIL (Mikel Laboa) .....	345
HAINBESTE (Izaro).....	346
HAIZEA (Ken 7).....	347
HAIZEA DATOR IFARRALDETIK (Mikel Laboa) .....	348
HAIZE EZA (Dut) .....	349
HAIZEA GARIZUMAKOA (Ruper Ordorika).....	350
HAIZE, HAIZE (Ganbara) .....	351
HAIZE HEGOA (Mikel Laboa).....	352
HAMABOSTEAN BEHIN (Ruper Ordorika) .....	353
HAMAIKA HOLAKO (Alaitz eta Maider) .....	354
HAMAR URTE GARTZELAN (E.H. Sukarra).....	355
HAREAGO (Anari).....	356
HARRIAK (Anari) .....	357
HAU BERUA (Juan Carlos Perez).....	358
HAU DA ENE ONDASUN GUZTIA (Deabruak Teilatuetan) .....	359
HAUR BATEN BEHARRA (Oskorri) .....	360
HAUR KANTA II-III (Imanol) .....	361
HEGAL EGITEN (Itoiz).....	362
HEGAN (Bulego).....	363
HEGAZTI ERRARIAK (Mikel Laboa) .....	364
HEL NAZAZU ESKUTIK (Ken 7) .....	365
HELDU DA GARAIA (E.T.S.).....	366
HEMEN ERE (Beti Mugan).....	367
HEMEN NAUKAZU (Urtz) .....	368

(H)ERRA KANTA (Anari).....	369
HERRI PUTA MAITEA (Pottoka).....	370
HERRIA ETA HIZKUNTZA (Mikel Laboa) .....	371
HERRIBEHERA (Benito Lertxundi).....	372
HERRIMINA (Ganbara) .....	373
HIBERNAZIOA (Izaki Gardenak).....	374
HIESA (Bap!!) .....	375
HIK LAN ETA NIK JAI (Tapia eta Leturia) .....	376
HIL EZ DENAK (Gari) .....	377
HILIK (Baldin Bada) .....	378
HILZORI II (Itoiz).....	379
HIRE EMANEN DIZKINAT (Bide Ertzean) .....	380
HIRIA IRENTSI (Izaki Gardenak).....	381
HOMO HOMINI LUPUS (Beti Mugan) .....	382
HORMA ETA HAIZEA (Izaki Gardenak).....	383
HURRENGO MAIATZA (Kerobia) .....	384
HUTSUNE (Pasadena).....	385
IA DENA (Bide Ertzean).....	386
IHES (Zea Mays).....	387
IHESA ZILEGI BALITZ (Mikel Laboa) .....	388
IHESI DOA II (Bide Ertzean).....	389
IHINTZA (Izaro) .....	390
IKASTOLEN ERESERKIA (Pantxoa eta Peio) .....	391
IKUSI ARTE (Berri Txarrak).....	392
IKUSI DUT DENA (Beti Mugan).....	393
IKUSI ETA IKASI (Delirium Tremens).....	393
ILARGIA (Ken 7).....	394
ILARGI, NON ZAUDE? (Mikel Errazkin) .....	395
ILUNABARRA (Izaki Gardenak).....	396
ILUNABARRAK (Luis Eduardo Aute / Iker Lauroba-Jon Martin).....	397
ILUN IKARAK (Imanol) .....	398
ILUNA DENERAKO (Benito Lertxundi).....	399
ILUNDU AURRETIK (Sorotan Bele).....	400
ILUNETAN (Zea Mays) .....	401
ILUNPETAKO GIZONA (Benito Lertxundi) .....	402
ILUNTZEAN (Maixa eta Ixiar) .....	403
ILUNTZEAR DIHOANEAN (Juan Carlos Perez).....	404

IN ILLO TEMPORE (Ganbara).....	405
INTSUMISOARENA (Oskorri / Jon Sarasua).....	406
IÑAKI, ZE URRUN DAGON CAMERUN (Zarama) .....	407
IPARRALDEKO NESKA (Bob Dylan / Anari).....	408
IRAGANA BETI JARRAIKA (Jon Gurrutxaga) .....	409
IRAGANA HIL BAINO LEHEN (Urtz) .....	410
IRAUNTZEN (Beti Mugan).....	411
IRAUTEN (Hertzainak) .....	412
IRIX NAIT (IRISH NIGHT) (Sorotan Bele).....	413
IRRIBARRE BERRESKURAEZINAK (R).....	414
IRRI EGITEN DUENARI (Pirritx, Porrotx eta Marimotots) .....	415
IRTEN (Izaki Gardenak).....	416
IRUNTZI DANA (Katamalo) .....	417
ISBURT (Kerobia).....	418
ISLA (Anari).....	419
ISPILU AURREAN (Alaitz eta Maider).....	420
ISPILUAREN AURREAN (Hertzainak).....	421
ITSASARGIAK (Izaki Gardenak).....	422
ITSAS LABARREAN (Mikel Moreno).....	423
ITSASLAMI (Mikel Moreno) .....	424
ITSASOA (Zea Mays).....	425
ITSASOA GARA (Ken 7).....	426
ITSASOA LAINO DAGO (Urko) .....	427
ITSASOAN URAK HANDI DIRE (J. Lekuona/ X. Lete).....	428
ITSASOARI BEGIRA (Benito Lertxundi).....	429
ITSASONTZI BATEN (Kaxiano) .....	430
ITURINGO AROTZA (Mikel Laboa).....	431
ITXAROPENA (Su ta Gar).....	432
ITXOITEN (Negu Gorriak).....	433
ITZALAK ZUTIK (Izaki Gardenak).....	434
ITZALTZUKO BARDOA (Benito Lertxundi) .....	435
ITZIARREN SEMEA (Peio eta Pantxoa) .....	436
ITZULI (Pasadena) .....	437
ITZULIKO NAIZ (Izaki Gardenak).....	438
IXIL IXILIK DAGO (Oskorri) .....	439
IZAN LITEKE (Don Inorrez) .....	440
IZARREN HAUTSA (Mikel Laboa) .....	441

IZAR TXIKIA (Joxe Ripiau) .....	442
IZOTZ ONDOKO EGUZKI (Lizardi/Xabier Lete).....	443
IZUA (Biren).....	444
JABETASUNA (Benito Lertxundi).....	445
JAKIN NAHI NUKE (Ruper Ordorika).....	446
JAUN BARUAK (Benito Lertxundi).....	447
JAUN ZURIA “ERINGO PRINTZEA” (Ganbara).....	448
JELOSKOR NAGO (Beti Mugan).....	449
JE T´AIME MOI NON PLUS (Serge Gainsbourg).....	450
JOANA (Urtz).....	451
JOAN ZINEN (Peiremans +).....	452
JOAN ZINETENETIK (Bide Ertzean).....	453
JO EZAK BERRIRO, SAM (SS-77).....	454
JOHN ZAHARRA (Mikel Markez).....	455
JOXE MIGEL (Herrikoia).....	456
KAIXO (Delirium Tremens).....	457
KAIXO (Urtz).....	458
KALANBREAK (Gozategi).....	459
KALEA HUTSIK (Hertzainak).....	460
KANDELA (Karkaxa).....	461
KANTA ABERRIA (Peio ta Pantxoa).....	462
KANTARI GOAZ (Alaitz eta Mainer / Deabruak Teilatuetan).....	463
KATALINTXU (Gorka Knörr).....	464
KATEDRAL BAT (Berri Txarrak).....	465
KATTALIN (Oskorri).....	466
KANTU BATEN BILA NABIL (Olatz Zugasti).....	467
KANTU EROA (Juan Carlos Perez).....	468
KANTUZ (Anje Duhalde).....	469
KANTUZ (Mikel Laboa).....	470
KANTU ZAHAR BAT BEZELA (Juan Carlos Perez).....	471
KANUTO (Oskorri).....	472
KATEAK (Jon Gurrutxaga).....	473
KATUEN TESTAMENTUA (Oskorri).....	474
KEA (Zea Mays).....	475
KILLIN (Mikel Urdangarin).....	476
KINKIRI KUNKURU (Oskorri).....	477
KOILARAK (Izaro).....	478

KOLORE KOLORE (Mixel Ducau&Zaldibobo) .....	479
KOLPEZ KOLPE (Kortatu).....	480
KONPLIZE DITUT ETA (Mikel Markez / Uxue Alberdi).....	481
KONTRAPAS (Bernat Etxepare / Xabier Lete) .....	482
KOPLA BERRIAK (Imanol) .....	483
KOPLAK (Imanol) .....	484
KORAPILATZEN (Olatz Salvador) .....	485
KRISTOREN GONBIDAPENA (Don Inorrez) .....	486
KUKUA ETA PRIMADERA (Imanol) .....	487
KUKUTZA III (Zea Mays) .....	488
KUNBIA SOL MINORREN (Joxe Ripiau) .....	489
KUPELA (Epelde eta Larrañaga) .....	490
LA DÉCADANSE (Serge Gainsbourg) .....	491
LA FELICIDAD (Izaro).....	492
LAGUN ETOR GUREKIN (Guk).....	493
LA JAVANAISE (Serge Gainsbourg) .....	494
LAINO ILUNAK (Delirium Tremens) .....	495
L'ANAMOUR (Serge Gainsbourg).....	496
LANIKAN EZIN EGIN (Mikel Laboa).....	497
LARRU BELTZAK (Hertzainak).....	498
LASTER ARTE, LAGUNA (SS-77) .....	499
LAU TEILATU (Itoiz) .....	500
LAZTANA (Latzen) .....	501
LEHEN NEGUA (Mikel Moreno).....	502
LEMAK, AINGURAK (Berri Txarrak) .....	503
LEPOAN HARTU (Peio eta Pantxoa).....	504
LIBRE (Izaro) .....	505
LILIAN (Bide Ertzean).....	506
LILI BAT (Mikel Laboa).....	507
LILULAREN KONTRA (Mikel Laboa) .....	508
LISBOA (Anne Lukin & Gorka Urbizu) .....	509
LIZARDI (Mikel Laboa).....	510
LO (Joxe Ripiau).....	511
LOA, LOA GARIA (Joxe Ripiau) .....	512
LOKARRIAK (Olatz Salvador).....	513
LONDRESEKO PIZZERIAN (Gari).....	514
LORE SORTU ORDUKO (Mikel Laboa) .....	515

LOREAK UDAN IHINTZA BEZALA (Bilintx).....	516
LORETXOA (Benito Lertxundi).....	517
LUIZIA (Anari).....	518
LURRUNDUKO DIRA (Izaki Gardenak).....	519
MADDALEN (Tapia eta Leturia).....	520
MAGGIE DICKSON (Izaki Gardenak).....	521
MAITASUNAREN URTAROAK (Ganbara).....	522
MAITASUN AROAK (Anje Duhalde).....	523
MAITASUN HITZAK (Egan / J.M. Serrat).....	524
MAITASUN NORTASUN (Anje Duhalde).....	525
MAITATZEN ZAITUDALAKO (Tapia eta Leturia).....	526
MAITE DUT (Urtz).....	527
MAITE EDERRA (Mikel Garikoitz).....	528
MAITIAK GALDE EGIN ZAUTAN (Imanol).....	529
MAKURTU GABE (Kortatu).....	530
MALEN (Ken Zazpi).....	531
MALKOAK (Negu Gorriak).....	532
MARAVILLAS (Berri Txarrak).....	533
MARGARITA (Joxe Ripiau).....	534
MARIA SOLT ETA KASTERO (Benito Lertxundi).....	535
MARTXA, NESKAK ETA 68ºKO EDARIAK (Pottoka).....	536
MARYLIN (Itoiz).....	537
MARINELAREN BAKARDADEA (Mikel Markez).....	538
MARINELAREN ZAI (Sorotan bele).....	539
MARTIN LARRALDE (Ruper Ordorika).....	540
MARTXA BATEN LEHEN NOTAK (Artze / Laboa).....	541
MASTURBAZIO (Julio Kageta).....	542
MATALAZ (Benito Lertxundi).....	543
MEA CULPA (Julio Kageta).....	544
MENDEKUA (Ehun Kilo).....	545
MENDIAN GORA (Imanol).....	546
MEREZI OTE (Gontzal Mendibil).....	547
MIKELE (Maixa ta Ixiar).....	548
MINAREN FUNTSA (Anari).....	549
MIN HAU (Katamalo).....	550
MUNSTROAREN HEZURDURA (Julio Kageta).....	551
MOZTU ILEA (Beti Mugan).....	552



MUGAK GUGAN DAUDE (Beti Mugan) .....	553
MUNDUAREN ESKER ONA (Mikel Laboa) .....	554
MUNDURAT EMAN NINDUZUN (Benito Lertxundi).....	555
MUÑAGORRIREN BERTSOAK (Benito Lertxundi).....	556
MUSIKAREN DOINUA (E.T.S.).....	557
NAFARROA ARRAGOA (Xabier Lete) .....	558
NAHIAGO NUKE (Benito Lertxundi).....	559
NAHI GENUENA (Katamalo).....	560
NAHIZ ETA HERIOTZA (Mikel Laboa) .....	561
NAIZENEZ GERO (Benito Lertxundi) .....	562
NAO ES TU, FACULTADE DE SENTIR (Mikel Laboa) .....	563
NAPARTHEID (Kojon Prieto y los Huajolotes) .....	564
NATURA (Pikutara) .....	565
NAUFRAGOAK (Anari).....	566
NEGUA DATORREAN (Urtz).....	567
NEGUA JOAN DA TA (Zea Mays) .....	568
NEGU HURBILAK (Mikel Laboa) .....	569
NEGUPRENOA (Izaro).....	570
NEKROPOLIAN (Don Inorrez).....	571
NERE AITAK AMARI.....	572
NERE HERRIA (Juan Carlos Perez).....	573
NERE HERRIKO NESKATXA MAITE (Benito Lertxundi).....	574
NERE JUANETEA (Mikel Laboa) .....	575
NERE MUNDU POLI TXIKI HONTAN (Xabi Solano).....	576
NESKA SOLDADUA (Hiru Truku).....	577
NESKATOA HAUR BEHARRETAN (Jojo eta Ramuntxo).....	578
NIGARRA BEGIAN (Benito Lertxundi) .....	579
NI NAIZ (Izaki Gardenak) .....	580
NI NAIZ (Xabier Lete / Doctor Deseo).....	581
NI NAIZ NAIZENA (Delirium Tremens) .....	582
NI POETA KAXKAR BAT NAIZ (Imanol).....	583
NIREKIN (Gozategi) .....	584
NIRE FURGOI BELTZA (Ruper Ordorika).....	585
NIRE POESIA (Rogelio Botanz) .....	586
NI ZAIN GERATUKO NAIZ (Deabruak Teilatuetan).....	587
NOIZ ITZULIKO ZARA (Hesian).....	588
NOLA GALDU (Anari).....	589

NON DA MUGA? (Biren).....	590
NON GERATZEN DEN DENBORA (Mikel Urdangarin).....	591
NOR DA? (Ruper Ordorika).....	592
NOR NORI NORK (Gozategi).....	593
NORA (Izaro).....	594
NORA (Nøgen).....	595
NORAEZEAN (Izaki Gardenak).....	596
NORBAITEK DIO (Anje Duhalde).....	597
NORK DAKI (Morau).....	598
NORK ERRATEN DU (Mikel Markez).....	599
NO TIME FOR LOVE (Jack Warshaw / Hertzainak).....	600
OASIA (Izaki Gardenak).....	601
ODOLAK SU GABE DIRAKI (Beti Mugan).....	602
OI AMA EUSKAL HERRI (Benito Lertxundi).....	603
OIES ERRONDAN DABIL (Mikel Laboa).....	604
OIHUAK (Beti Mugan).....	605
OI KANTA BERRI (Anje Duhalde/Benito Lertxundi).....	606
OI! PELLO PELLO (Mikel Laboa).....	607
OINAK LURREAN (Izaki Gardenak).....	608
OINUTSIK (Lurra).....	609
ORAIN (Peiremans +).....	610
ORAIN BAI (Sorotan bele).....	611
ORBAIZETAKO ARMA OLAREN KANTUA (Benito Lertxundi).....	612
OREINAK (Anari).....	613
OREKA EZINA ZEN INDIBIDUO BATEN AZKEN PENTSAMENDUAK (Kerobia).....	614
OREKARIA (Mikel Moreno).....	615
ORFIDENTALAK (Anari).....	616
OROIMENeko PORTUA (Imanol).....	617
OROITZEN ZAITUDANEAN, AMA (Mikel Laboa).....	618
OSPAKIZUN GAUEAN (Benito Lertxundi).....	619
ORREAGA (Benito Lertxundi).....	620
OSTATUKO NESKATXAREN KOPLAK (Oskorri / Joxe Austin Arrieta).....	621
OSTONDU SAKON POZA (Katamalo).....	622
OTZANAK (Anari).....	623
PAKEAN UTZI ARTE (Hertzainak).....	624
PARADISU ZINEMA (Joxe Ripiau).....	625
PARIS (Izaro).....	626

PASAIKO HERRITIK (Herrikoia / Mikel Laboa).....	627
PEDRO MAYO (Joxe Ripiau).....	628
PELLO JOXEPE (Herrikoia).....	629
PILOTA EUSKAL JOKOA (Erramun Martikorena).....	630
PIRATARENA (Joxe Ripiau) .....	631
PIROMANIA (Anari).....	632
PIZTIEK SOMATU GAITUZTE (Izaki Gardenak).....	633
PIZTIEKIN (Bap!!).....	634
PORNOGRAPHY (Beti Mugan).....	635
POSITIVE BOMB (Joxe Ripiau).....	636
PRIMADERAKO LILIAK (Benito Lertxundi).....	637
RADIO MARÍA (Peiremans +).....	638
RASTAMINTXO (Pikutara).....	639
ROCK ETA ROLLIN´ (Errobi).....	640
SAGARROIA (Izaki Gardenak).....	641
SALDA BADAGO (Hertzainak) .....	642
SAN SIMON ETA SAN JUDA (Xabier Lete) .....	643
SARRI SARRI (Kortatu).....	644
SCACCIAPENSIERI (Bap!!) .....	645
SEGIKA DITUT (Don Inorrez) .....	646
SEI SEGUNDU (Elurretan).....	647
SEND FLOWERS (Peiremans +).....	648
SET DRUGS FREE (Hertzainak).....	649
SIGARRILLOS AMARILLOS (Hertzainak) .....	650
SIMA (Pasadena).....	651
”SING-SING-ATI”KO FOLK&ROLLA (Sorotan Bele) .....	652
SI VIS PACEM PARA BELLUM (Hertzainak).....	653
SORGINDU NAHI NINDUZUN (Joxe Ripiau).....	654
SORTERRIKO KOBLAK (Mikel Laboa) .....	655
SORTIRRIA (Anje Duhalde) .....	656
SOUS LE SOLEIL EXACTEMENT (Serge Gainsbourg).....	657
SUA AMAITZEAN (Nora Peña / Herrikoia) .....	658
SU EMAN (Unidad Alavesa) .....	659
SUMENDI MAGALEAN (Pasadena) .....	660
SUSTRAIAK HAN DITUENAK (Mikel Laboa) .....	661
SUTEA (Izaki Gardenak).....	662
TABERNAKO ARGIAK (Mc Onak) .....	663

TATUATU ZENIDAN ZERUA (Lorelei) .....	664
TAXI HORIAK (Itoiz).....	665
TA ZER EZ DA BERDIN (Hertzainak) .....	666
TRECE ROSAS ROJAS (Bide Ertzean) .....	667
TRENA IRISTEN ARI DA (Lorelei).....	668
TRISTE BIZI NAIZ ETA (Bilintx) .....	669
TTURRUKUTTUKUTTU (Bap!!).....	670
TXALAPARTA (Gorka Knörr).....	671
TXANPON BATEN TRUKE (Alaitz eta Maider).....	672
TXANTXETAN (Hertzainak) .....	673
TXATXAMATXALINATXU (Mikel Urdangarin).....	674
TXATXO (Zarama).....	675
TXINAURRIA (Mikel Laboa).....	676
TXORIA TXORI (Mikel Laboa) .....	677
TXORI TTIKIA (Benito Lertxundi) .....	678
UDABERRIA (Iker Lauroba) .....	679
UDABERRIKO AZKEN MUGAN (Don Inorrez).....	680
UDAZKEN KOLORETAN (Benito Lertxundi).....	681
UKATU EGIN BEHAR NIZUN ZORIONA (Katamalo) .....	682
UNE ETENGABEAK (Hertzainak) .....	683
URAK DAKARRENA (Benito Lertxundi) .....	684
URPEKONTZIAK (Izaki Gardenak) .....	685
URTAROA FALTA DUGU (Katamalo).....	686
URRUNDIK HELDU NAIZ (Benito Lertxundi) .....	687
URTSUAKO KANTA (Mikel Laboa) .....	688
URTXINTXAK (Pantxoa eta Peio).....	689
ÜRZO APAL BAT (Haizea).....	690
USO XURIA ERRAZU (Txomin Artola/Amaia Zubiria).....	691
USTELA (Itoiz) .....	692
UXO ZURIA (Sorotan Bele).....	693
UZTAREN GARAIA (Juan Carlos Perez).....	694
VINU, CANTARES Y AMOR (Anari / Nacho Vegas).....	695
XALBADORREN HERIOTZEAN (Xabier Lete).....	696
XORI ERRESIÑULA (Mikel Laboa) .....	697
XORIAK (XORIEN IHESA) (Mikel Laboa) .....	698
XORIERI MINTZO ZEN (Erramun Martikorena).....	699
XUMEA (Txuma Murugarren) .....	700

XURIAN XURI (Ganbara).....	701
YANKEE GO HOME (Hertzainak).....	702
ZAHARRA ZARA BILBO (Gari).....	703
ZAINAK ZAIN (Izaki Gardenak).....	704
ZAINDU MAITE DUZUN HORI (Ruper Ordorika).....	705
ZANGALATRABA (Izaro).....	706
ZATI TXIKI BAT LAm-EN (Itoiz).....	707
ZAUDE LASAI (Mikel Laboa).....	708
ZAZPIAK OHIAL BATETIK (Xalbardin / Laja eta Mikel).....	709
ZEBRA (Anari).....	710
ZEINEN EDERRA IZANGO DEN (Zetak).....	711
ZENBAT GERA? (Benito Lertxundi).....	712
ZENBAT MIN (Ken 7).....	713
ZERBAIT GARRANTZITSUA (Katamalo).....	714
ZERGATIK (Imanol / Georges Moustaki).....	715
ZERGATIK UTZI KANTATZEARI (Benito Lertxundi).....	716
ZER GARA GU, NOR GARA GU, GUAYTARRAK GARA GU (Peiremans +).....	717
ZINGIRAK (Izaro).....	718
ZINTZILIK (Olatz Salvador).....	719
ZOAZ EUSKAL HERRIRA (Zarama).....	720
ZORATZEN NAIZELA (Hertzainak).....	721
ZORTZIAK BAT (Peiremans +).....	722
ZORTZI ORDUKO EKAITZA (Sorotan bele).....	723
ZUBEROA I (Benito Lertxundi).....	724
ZUBEROA II (Benito Lertxundi).....	725
ZUBIAK (Anari).....	726
ZUEN EGUZKIA (Izaki Gardenak).....	727
ZUENTZAT (Deabruak Teilatuetan).....	728
ZU, BI MUNDU ARTEAN (Beti Mugan).....	729
ZU EZ BAZAUDE (Beti Mugan).....	730
ZU GABE (EH Sukarra).....	731
ZU ZAITUT ZAZPIEN ARTEAN (Ehun Kilo).....	732
ZUGANAKO BIDEAK (Anari).....	733
ZUK ESAN (Bide Ertzean).....	734
ZURE AMAK BADAKI (Sorotan Bele).....	735
ZURE BEGIEK (Mikel Laboa).....	736
ZURE BEGIEK (Mikel Markez).....	737

ZURE ERTZA (Anari).....	738
ZURE EZPAINEN ITSASOAN (Izaro) .....	739
ZUREKIN BATERA (E.T.S.).....	740
ZUREKIN DANTZATU NAHI NUKE (Bide Ertzean) .....	741
ZURETZAKO HITZ EDERRAK (Peiremans +).....	742
ZURI BEGIRA (Izaro) .....	743
ZUTIK IRAUN (Peiremans +).....	744
ZUTZEAN (Izaki Gardenak).....	745

## **104** (M-n ezten)

Zuregana iristeko bidea  
 ikasia eduki arren  
 diru exkaxiaren mixeriak  
 baztertzen nau bainauzu erren  
 zuretzat dudan paradixua  
 ez da dirutzarekin neurtzen  
 zureganako dudan grina  
 ez zait bihotzean kabitzen.

Zure begien dizdirek  
 nigan argitzen dute  
 104 ilargi betek hainbeste.

Palaziorik ez izateak

ez nau ni batere kezkatzen  
zure maitasunaren arrazoia  
zergatik ez didazu azaltzen  
bikote arteko erlazioa  
urrez baduzu zuk asetzen  
beste panpin bat bila ezazu  
maitasun hori ez baitut ulertzen.

## **25. ARTIKULUA** (Idoia Asurmendi)

Zeinen zaila den etxe bat sortzea  
beste etxe guztiak hor daudenean,  
aspaldi, betidanik;  
lekurik ez eraikitzeke zerotik hasten den ezer.

Nork ez du merezi aukera bat  
lau hormaz harago doan etxe  
batean bizitzeko;  
sutondo baten epeltasun goxora itzultzeko.

Zalantzaren lurraldean  
oinak elkarlotuta dantzatzera  
kondenatu zituztenei.  
Paperezko harresien eta  
etengabeko guda baten menpe bizi direnei:  
herri hau denona da, zuek gu gara.

Zeinen zaila den etxe bat sortzea  
beste etxe guztiak hor daudenean.  
Batzuentzat eraikitzen,  
baina denontzat dago lekua hemen.  
Babestu dezagun elkar.

Zalantzaren lurraldean...

## **500 URTE** (Bizardunak)

Mendi berdeetan nahiz zelai horietan edo kutsatutako  
asfaltoan.

Kateatuak izan ginenetik 500 urte luze pasa izan dira.  
Nafar eztarri nazionalak berriz oihuka dezan,  
dituen ahots desberdin guztiekin bortizki, Eh! garrasi  
berbera.

Zorupeak dakarren ur korrontea, mendez mende isuritako  
bera.

Zuhaitz zaharrek errotzen dute, herri hontako askatasun  
nahia.

Nafar eztarri nazionalak berriz oihuka dezan,  
dituen ahots desberdin guztiekin bortizki, Eh! garrasi  
berbera.

Eraitsitako gazteluetatik aterpeak eraiki genituen.  
Belaunikaldiek utzitako zuloetan landatuko ditugu haziak.  
Nafar eztarri nazionalak berriz oihuka dezan,



dituen ahots desberdin guztiekin bortizki, Eh! garrasi berbera.

Mendi berdetan nahiz zelai horietan edo kutsatutako asfaltoan.

Kateaturik izan ginenetik 500 urte luze pasa izan dira. Nafar eztarri nazionalak berriz oihuka dezan, dituen ahots desberdin guztiekin bortizki, Eh! garrasi berbera.

## **564** (Hertzainak)

Hotz amaigabe bat, baino latzago,  
ta urteak egun baino geiho.  
Bostehun eta hirurogeitalau ohe huts,  
Samiña zabaltzen.

Batzuen ustez ordaintzen,  
dagokien zigorra.  
Maite dutenentzat berriz,  
askatasun Haizea.

Baina hori nork ulertarazi,  
etxean zai bakarrik denari.  
Bostehun eta hirurogeitalau taupada,  
gehiago gure bihotzean.

## **8D** (Mikel Moreno)

Entzun dut aspaldi atzerrira joan zinela  
bihotzan erdia eramana ekipoan,  
bestea etxekoentzat utziaz.

Laurogehita pikon, hogeitalau ginen gelan.  
Zubitik jausteko boluntario danak ginen  
jausgailurik gabe ere.

Esaidazu mamurik agertzen den  
oraindik ohean betazalak  
amore eman baino lehen.

Mantentzen dezun behin  
ezagutu nuen umea,  
ala joaten utzi zenion.

Ez ahaztu inoiz, 8Dn izan zinen.  
Ei lagun! Erdu, nola zauden jakin nahi dut.

Udazken gehiegi zure berri izan gabe,  
esan noiz gera gaitezke?

Esaidazu mamurik agertzen den...

## **A FISHING TOWN** (Beti Mugan)

A fishing town up in the north  
where there's nothing going on.  
Smoking joints to kill some time  
and watching girls just passing by.  
And I know, nothing going on!!  
and I know, a fishing town up in the north.

Old same faces in the bars  
remind you of where you are.  
What you see is what you get  
it's not enough but could be less.  
And I know, nothing going on!!  
and I know, a fishing town up in the north.

Oh!! Oh!!

No more tuna for this year  
once more winter time is here.  
No more tourist on the beach  
fucking fags fucking pigs.

A fishing town up in the north  
where there's nothing going on.  
Where everybody is just a name  
and no one has nothing to say.

## **ABERRIAREN MUGAK** (Txomin Artola)

Nire aberria lurra bezain zaharra da,  
baina ez da lurra bakarrik.  
Haizeak bezala inguratzen nau eta  
lotzen, askatzen naularik.

Nire aberria suaren antzekoa da,  
beti bera, berria beti.  
Epeltzen nau kanpoan hotz dagoenean  
ta erretzen ere badaki.

Aberriaren mugak, euskararenak  
gure baitan daude gehienak.  
Euskara zabalduaz lau haizeetara  
zabalago egiten gara.

Nire aberria harrizko herria da,  
hitzezkoa eta hitzekoa.  
Altzairuzko txakolin, ardo zurezkoa  
eta hondar anonimoa.

Nire aberria burdin bihurria da,  
oroimenean arindua.

Itsaslaminen baten herdoilezko kantu  
etorkizunez fosildua.

## **ADAN** (Joxe Ripiau)

Adan Adanek dana nahi zuen, nahi zuen.  
Adan Adanek dana nahi zuen, nahi zuen.  
Adan Adanek dana nahi zuen, nahi zuen.  
Adan Adanek dana nahi zuen, nahi zuen.

Zilbor polit bat, nahi zuen.  
Sagarra jan, nahi zuen.  
Poterea akatu, nahi zuen.  
Zurekin dantza egin, nahi zuen.

Adan Adanek dana nahi zuen, nahi zuen.  
Adan Adanek dana nahi zuen, nahi zuen.  
Adan Adanek dana nahi zuen, nahi zuen.  
Adan Adanek dana nahi zuen, nahi zuen.

## **AGUR, ANNA** (Kerobia)

Nire zain dago unibertsoa,  
espaziontzian aterako naiz.  
Zaratarik gabe izango da  
nire desagertzea.

Agur Annabel, faltan botako zaitut.  
Esan besteei: “gauzak ondo egin ziren”.  
Gaurko egunean, nire fusilamenduan,  
goruntz begiratuko dut.

Zerua oskarbi dago,  
azken gabean, bizitzari eutsi diot.  
Zaila da prestatzen agur erromantiko bat  
baina Annabel, faltan botako zaitut.

Esan besteei: “saia hobeak izaten”.  
Gaurko egunean, nire fusilamenduak  
ez du gehiegirako balio  
baina Annabel, zerua garbi ikusten dut.  
Ontzia piztu komandante.

## **ADIOS MAITIAK** (Pantxoa eta Peio)

Adios maitiak, adios lagunak!  
Etorri da urrun joaitia  
baina ere agian berriz itzultzea.

Pietunak ekarri zuenean  
armadarako galdea,  
ez nakien nola gorde  
bihotzeko ilun betea.

Hor utzi behar baintuen  
aita-ama haurriden xokoa  
ta horiekin batean  
zu neure maitia.

Adios maitiak...

Bihar zuetarik urrunduta  
trenez joanen naizenean,  
badakit oraindik  
zer duketan nik gogoan.  
Asteko lan dorpea utzirik,  
gazte lagun guziak plazetan  
ta ni, berriz, hantxetan,  
kaserna barnian!

Adios maitiak, adios lagunak!  
Etorri da urrun joaitia

baina ere agian berriz itzultzea,  
berriz itzultzea.

## **AGUR ESKUAL HERRIARI** (Urko)

Zazpi Euskalerriek bat egin dezagun  
guziak beti, beti, gauden gu euskaldun.

Agur eta ohore Euskal Herriari:  
Lapurdi, Baxe-Nabar, Zibero gainari;  
Bizkai, Nabar, Gipuzko eta Arabari,  
zazpiak bat besarka lot bitez elgarri.

Haritz eder bat bada gure mendietan,  
zazpi adarrez dena zabaltzen airetan.  
Frantzian, Espainian, bi alderdietan:  
hemen hiru ta han lau, bat da zazpitan.

Mairu beltza zelarik Espainian nausi,  
Nabasen Eskualdunak egin zion jauzi.  
Hark ekarri gateak han gintuen hautsi  
eta hilez bertzeak igorri ihesi.

Ekialde-Iberian noiz ote sortua?  
lau mila urte huntan hunat aldatua;  
hain handi eta azkar lehen izatua,  
orai gure haritza zein den murriztua!

Orduan gure alde oihuz zauden oro:  
"Bere lurretan nausi Eskualduna bego,  
Frantziak, Espainiak, bai orai, bai gero  
deus kendu gabe dute gerizatu gogo."

Gure haritz hau, azken mende hautaraino,  
zaharturik ere zen eder bezain sano.  
bere lur hoin garbian oso zagoeno  
ainetik zoakona behar zen arrano.

Gureez gure lehen hain libro ginenak  
ezin ahantziz gaude orduko zuzenak.  
Zer ametsak ditugun! Zer oroitzapenak!  
Jaungoikoak bakarrik badakizka denak.

Hi haiz, Eskual-Herria, haritz hori bera,  
arrotza nausiturik moztua sobera.  
Oi! Gure arbasoak, ez otoi, ez beira  
zein goratik garen gu jautsiak behera.

Ez bahaiz Eskualduna, lehen bezein handi,  
apaldu gabe xutik bederen egoadi,  
odolez eta fedez beti berdin garbi,  
beti tink atxikia hire eskuarari.

Gureak ziren lehen bazter hauk guziak,  
arbasoek utziak, hek irabaziak.  
Guri esker Frantziak eta Espainiak  
daduzkate dituzten eremu handiak.

Zuri gaude otoitzez, jaungoiko maitea,  
lagun zazu zerutik Eskualdun jendea  
begira dezan beti lehengo fedea,  
zor zaizkon zuzenekin, ardiets bakea.



# **AGUR XIBERUA** (Etxahun Iruri)

Agur Xiberua, bazter güzietako xokhorik eijerrena.  
Agur sor lekhia, zurekin ditut ene ametsik goxoenak.  
Bihotzan erditik bortzetan elki deitadazüt hasperena;  
zü ützi geroztik bizi naiz trixterik, abandonatürik,  
ez baita herririk, Paris ez bertzerik, zü bezalakorik.

Sor lekhia ütziarik gazte nintzalarik,  
Parisen sarthü nintzan korajez betherik.  
Plazerez gose eta büruan hartürik  
behar niala alegera bizi.  
Bortzetan geroztik, nigar egiten dit, Xiberua zuri.

Palazio ederretan gira alojatzen,  
eta segur goratik aide freska hartzen;  
Gain behera soginik beitzait üdüritzen  
Orhigainen nizala agitzen, bena ez dira heben  
bazterrak berdatzen, txoriak kanthatzen!

Ametsa, lagün nezak ni Atharratzerat,  
ene azken egüen han iragaitera,  
Orhiko txoriaren khantüz behatzera,  
pharka ditzan nik egin nigarrak, hots, xiberutarrak,  
aintzinian gora euskualdün bandera.

# **AGURE ZAHARRA** (Lluís Llach / Xabier Lete)

Agure zahar batek zion bere etxe aurrean  
goizean goiz lantokira irteten nintzanean:  
Ez al dek, gazte, ikusten gure etxola zein dan?  
desegiten ez badugu, bertan galduko gera.

Baina guztiok batera saiatu hura botatzera,  
usteltzen hasita dago-ta, laister eroriko da.  
Hik bultza gogor hortikan, ta bultza nik hemendikan,  
ikusiko dek nola-nola laister eroriko dan.

Baina denbora badoa, nekea zaigu hasi,  
eskuak zartatu zaizkit, eta indarrak utzi.  
Usteltzen badago ere, karga badu oraindik,  
berriz arnasa hartzeko esaigun elkarrekin:

Baina guztiok batera...

Agure zaharra falta da gure etxe ondotik,  
haize txar batek hartu ta eramán du hemendik.  
Haur batzuk ikusten ditut eta inguraturik,  
aitona zaharraren kanta nahi diet erakutsi:

Baina guztiok batera...

# AHAZTEAREN LEZIOA (Bide Ertzean)

Bai erraza dela  
“dena ahaztu” esatea, ahaztu dena.  
Oraino ez dakit iragana nola ahantzi;  
inork ba al daki?

Nik ere ahazten ikasi nahi nuke,  
lehen baino lehen ahazten ikasi nahi nuke.

Erori ta altxa,  
hori da orain artean egin dudana.  
Baina bada ikasgai bat hartzeko daukadana,  
ahaztearen lezioa.

Agurra, distantziaren atari,  
bihotzetan mila euri eramangarria zait.

Baina orain ahaztea falta zait  
Ez dut besterikan nahi,  
ahaztea falta zait.

## **AINGURA** (Beti Mugan)

Maite zaitut, ziur zaude,  
zure odola edango nuke.  
Patuaren, beldurrez,  
ez nazazu utzi hemen.  
Itsasopean betirako ahaztua,  
geratuko naiz bestela.

Maite zaitut, ziur zaude,  
zure odola edango nuke.  
Patuaren, beldurrez,  
ez nazazu utzi hemen.  
Itsasopean betirako ahaztua,  
geratuko naiz, azkenean.

## **AINGURA HEGODUNAK** (Anari)

Erri banaiz ere, gorantz erri naiz,  
nola urazalaratzen arrainak hiltzean.  
Oroimena da orain urperatzen naun beruna.  
Ta ametsa berriz, gorantz naraman zama astuna.  
Aingura hegodunak.

Erortzeko beldurrez garelako eusten diogu elkarri.  
Oinez ikasi orduko, hegan egiten ahantzi.  
Ta zu zara orain urperatzen naun beruna.  
Beste dena berriz, gorantz naraman zama astuna.

Aingura hegodunak.

Baina erortzen bagara ere,  
amets berriei helduz gorantz erortzen gara.  
Arrain hilak bagina, hondoratu orde urazalaratzen gara.  
Gorantz jaitsiko gaituen aingura hegodun horri eusten,  
eusten gara.

## **AITA SEMEAK** (Oskorri)

Aita semeak tabernan daude,  
ama alabak jokoan...

Aita semeak tabernan daude,  
ama alabak jokoan...

Berriz ikusi beharko dugu,  
behi gizona auzoan.  
Berriro ere ez da faltako,  
trapu zaharrik kakoan.

Hondamendia gertatu zaigu,  
geure etxean hórrela.  
Guztiok bizi nahi dugu baina,  
nola biziko bestela.

Geurea dugu erru guztia,  
geurea dugu osoa.  
Ez inori ba errua bota,  
Euskal Herria hiltzean.

Baina gaztea naiz eta daukat,  
etorkizuna eskuan.  
Ez zaigu hilko Euskal Herria,  
ni bizi naizen artean.

## **AITORMENA** (Hertzainak)

Ez dira betiko garai onenak,  
azken finean gizaki hutsak gara.  
Barearen ostean dator ekaitza,  
udaberri berririk ez guretzat.  
Denborak aurrera etengabian,  
ta orain ezin eutsi izan giñana,  
rutinaren morroiak bihurtu gara,  
laztana lehen baino lehen aska gaitezana.

Bai zin dagizut, ez dizudala inoiz gezurrik esan eta  
zaude ziur ezin izango zaitudala ahaztu inoiz,  
aitortzen dut izan zarela ene bizitzaren onena,  
baina orain, maitia lehen baino lehen aska gaitezana.

Ohartu gabe arrunt bilakatuta,  
ohartu gabe heldu gara mugara.  
Mundua jautsi zaigu gainera,  
maitia lehen baino lehen aska gaitezana.  
Ez dakigu non dagoen hoberena,  
bila dezagun beste lekuetan.

# AITORREN HIZKUNTZ ZAHARRA (Urretxindorrak)

Aitorren hizkuntz zaharra  
nahi degu zabaldu.  
Munduaren aurrean  
gizonki azaldu;  
baldin gure zainetan  
odolik badegu,  
euskaldunak euskaraz  
hitzegin behar degu.

Zein hizkuntza ederra  
euskera guria,  
inun ez det aurkitzen  
beste bat hobia.  
Usai goxodun hizkuntz  
txukun ta argia,  
biraorikan ez duan  
hizketa garbia.

Gora euskara maitea  
zoragarriena,  
euskaldunen artean  
maitagarriena.  
Munduan sortu zanik  
hikuntzik zaharrena,  
gora ta gora euskaldunak  
eta gure euskara.



## AITZAKIA (Urtz)

Zelatan egun latzak igaro ondoren, oren  
sarritan galdetzen dut ea negua datorren, orren  
Oh!! Goizegi da? Aitzaki bat, oh!! aitzaki bat...  
Oh!! Berandu da!

Bizitzarekin dantzan itzalen artean  
zu nigan eta ni zukan, maitaleen antzera;  
Oh!! Goizegi da? Aitzaki bat, oh!! aitzaki bat...  
Oh!! Berandu da!

Hiri gris honetatik bagindoazela  
bart amets egin nuen gauero bezela  
baina honetan ere... oh!! ekaitzaren garrasiak  
itzuli nau zuregana.

Azken eguna bihotzean,  
ez diren gauzak oroitzean;  
Tristurak ez du oinazerik  
gero arte batez agurtzean.

## AIZU (Negu Gorriak)

Hirurogei eta hirurogeita lau  
urteen artean jaio ginen biok.  
Heroinaren sarreraren kolpe zuzena  
jaso genuenetakoak adituen ustez.

Hirurogei eta hemeretzigarren urtean  
agindu zuten krisialdi ekonomikoak  
punk-rocka musika entzuten  
gu biok ere harrapatu gintuen.

Era berean "arrisku taldean"...

Aizu... oinazera kondenatua.  
Lagun... luze hitz egin bizitzaz.  
Aizu... sakontzea estimatzen dut.  
Lagun... emaguzu osasuna.

"Gaua ez zen inoiz hain luzea izan,  
ezta egunsentia hain urrun egon".  
Giza-egiturak jotzen gaituenean  
negar egiteari utzi behar diogu.

Ez aukeratu auto-bazterketa,  
ez bilatu elbarritasuna.  
Gure gaitasuna gutxiestea baita  
bizkarrezurra okerturik izan arren.

Duintasuna soberan baduzu...

Aizu... begietara so egin.  
Lagun... erlantza duzu oraindik.  
Aizu... gelditu hemen gurekin.  
Lagun... gure semeak entzun nahi dizu.  
Aizu... oinazera kondenatua.  
Lagun... erlantza duzu oraindik.  
Aizu... luze hitz egin bizitzaz.  
Lagun... gure semeak entzun nahi dizu.

## **ALDAPAN GORA** (Huntza)

Mendian gora burua galtzen dut maiz.  
Herriko kaleetan sarritan galdu izan naiz.  
Nork bereizi zituen kultura, lurra, sua eta ura?  
Gizakion arteko lotura, ere ez al da natura?

Aldapan gora, pausorik pauso.  
Aldapan behera, auzorik auzo.  
Gaztainondo ta pago eskultura arraro.  
Kaleak edo mendiak, zer galtzen gaitu gehiago?

Berriro galduta gabiltza, hau da hau marka.  
Ezin da ulertu aurrean daukagun mapa.  
Euskaldun peto peto bai baina ardi galduen pare.  
Nahiago det ibili halare, norabiderik gabe.

Aldapan gora...

# AMA (Mikel Laboa)

Maitatua sobera, nintzelarik haurra,  
Ez nekien nik zer zen, amaren beharra;  
Bortu batean orain naiz bakar bakarra,  
Amaz orhoit orduko heldu zaut nigarra!  
Bortu batean orain naiz bakar bakarra,  
Amaz orhoit orduko heldu zaut nigarra!

# AMA EUSKAL HERRIA (Xalbador & Anje Duhalde)

Delikatua baitut egungo suieta,  
hasi aintzin egin dut zonbait gogoeta,  
gure arteko asko ele entzun eta,  
euskaldun agertzea ez baita josteta.

Ama Euskal-Herriaz naiz nahigabetua,  
uztera doalakotz betikotz mundua,  
bere seme alabez abandonatua;  
nork barka dezaguke gure bekatua?

Badakit askoz ere nukela hobia  
nehorri ez agertu ene dolarea;  
odolaren mintzoa eduki gordea  
nahiko nuke, baina ezin dat ordea.

Bata dela eskuina, bertzea ezkerra,  
euskaldunen artean dugu herra,  
ahantziz, Ama, zure maitasun ederra;  
horra zure seme hok dautzugun eskerra.

Baztertu dugulakotz zure maitasuna,  
desegin da betiko gure batasuna;  
gu baitan aditzen da gudu oihartzuna,  
hau da zuri bizia hekendu dautzuna.

Lehen sartu zitzauzun ezpata zorrotza  
zure etxe nagusi jartzean arrotza;  
halere etzitzauzun gelditu bihotza;  
etxekoen eskutik duzu heriotza.

Hil hobi huntan noizbat norbait badabila,  
zure izaiterearen herrestoen bila,  
lurpetik entzunen du deiadar bipila:  
hernen dago ama bat bere haurrek hila!

## **AMA HIL ZAIGU** (Mikel Laboa)

Nere ama hil zait lanak itota;  
lanaren amoreagatik hil zait.  
Zertarako dan bizitza  
jakitera iritsi gabe...  
Zertarako dan bizitza  
jakitera iritsi gabe...

Izeba ere hil da,  
era berdinean, hilda izeba...

Izeba ere hil da,  
era berdinean, hilda izeba...

# AMAIERATIK HASI (Izaki Gardenak)

Galtzeko ezer gutxi daukagunok  
ibiltzen gara beldur gabe.

Basamortu eta lugorri erreenak,  
zeharkatuaz denak,  
aurkituz erantzun zailenak.

Uuu, amaieratik hasi,  
uuu dena aldatzeko.

Ei, ei, ei, ei, ei,...

Ahazteko gauza asko daukagunok  
bizi gara lo egin gabe.

Basamortu...

Gezi guztiak bizkarrean sartuta  
arrastaka goaz.  
Hesi berriak etengabe gaintituz  
geldiezin goaz, ez etsi. Bagoaz!

## AMAPOLA (Gari)

Agertzen zaizkit loreak gorri deigarri,  
beste bizitza batekoak dirudite.  
Gerturatzen naizenean ximeldu egiten dira,  
urruntzen naizenean loratzeko.

Ematen du joan direla hamar urte,  
ematen du joan direla beatzi hilabete.  
Atzo izan zela ematen du, hor daude.

Lore gorri, lore zuri, lore zure  
desertuko lore, putzuko nenufare  
bihar lehor, atzo sutan, gaur bare  
lore guztiak nire baitan dare.

Zaldiak ikusten ditut nire erraietan bazkatzen.  
Zeruetatik eta infernuetatik tiraka amildegietara  
eramango nauten zaldiak dira, zaldiak dira.

Amapola zelai bat daukat barrenean  
Amapola zelai bat daukat barrenean.  
Amapolek baretu itten naute  
pizten naute, izorratzen naute.  
Amapolek baretu itten naute  
pizten naute, izorratzen naute.



# AMAREN BESOETAN (Sorotan bele)

Oinez zelai berdean,  
itsaso bazterrean.  
Gailurrak ditut maite,  
ta kresal usaina.

Itsas bazterreko  
ur gazi guztietan,  
garbitzen dut arima  
ametsez betea.

Euskal herri osoko  
mendi guztietan,  
etxean aurkitzen naiz  
amaren besoetan.

Lurrean etzanda  
goruntz begira,  
ni ohartzen naiz,  
zu maite zaitudala.

## **AMARI HITZAK** (Deabruak Teilatuetan)

Orain diotsut guzti hau, ama,  
haur nintzela zure ezpainenatik ikasi nituen  
hitz eztiak bezain dultzeak  
Itzuli nahi dizkizudalako, itzuli...

Nik, poeta izaten ahalegintzen naizen arren,  
Ez daukat hitz gozorik, errazik,  
gardenik, amoltsurik, zuk, ama laztana, laztana  
obatu ninduzuneko hitzak bezalakorik.

Eromena da agian amodiozko hitzak  
gatibatzeko eta zuretzat kantu bat  
osatzeko ahalegin hau.  
Bizitako bizitza pobreak agian  
lehortu dit samurtasunaren iturria  
eta horregatik dira hitz hauek.  
Sukarria bezain lehorrak.  
Begiratu, begiratu, ez daukat, ez daukat hitzik,  
baina bular osoa betetzen didan zotina daukat.

# AMERIKETARA JOAN NINTZEN (Herrikoia)

Ameriketara joan nintzan  
zentimorik gabe.  
Handik etorri nintzan maitia,  
bost milioiren jabe.

Txin txin, txin txin,  
diruaren hotsa.  
Harexek ematen dit maitia,  
bihotzian poza.

## AMETS (Gari)

Amets, zatoz jada nigana  
kolorez jantzia zatoz nigana,  
nigana, beldurrik gabe nigana.

Zuk jarriak daude bideak,  
zuk jarriak ere ilusioak.  
Behin eta berriz ari naiz  
zutaz galdezka.

Amets...

Neu naiz neu bizitza,  
itxaropena neure giltza.  
Hala ere beti derrigorrez,  
baina zutaz galdezka.

Ezin ahaztu nondik natorren,  
ezin ukatu zer naizen.  
Beharbada galtzailearen  
urratsean nago beharbada...

Ilusioz josia asmoz betea,  
odol gorria, bihotz zuria.  
Ametsaren bidean  
noiz agertuko ote zaren itxaropenean.

Amets...

# AMETS BAT (Alaitz eta Mainer)

Amets bat izan nun  
eztizko amets bat, aha.  
Zure besotan babesturik  
maitasuna eskeiniz, aha.

Argitasunarekin ikasi nun  
amets egiten, aha.  
argitasunarekin zu maitatzen  
milaka hitz goxoren artean, aha.

Baina fabriketako keak  
zapuzten zun bitartian  
lurrak urak irentsi zizun.  
Baina, fabrikako zikin ta keak  
zapuzten zun bitartian  
lurrak urak irentsi zizun.

Behinola egin nun amets  
betirako lokartuz  
zure ametsa izan nahi bainun  
iluntasuneko lur-ur hezean.

# AMETS PREFABRIKATUAK (Hertzainak)

Erabakitako programari jarraituz  
buruko minak hil zuen andrea.  
Jazarraldi instituzionala ta  
hutsik gelditu zaigu izki na.

Prefabrikatutako ametsetan estadistikaren zeruan  
borondatea itoa izan da kontsumoaren feri an.

Beldurrak batu gaitu ziutatean  
funtzioa beti aurrera.  
Biziko gara aski urrutiatuak  
elektrogailuek zainduta.

Prefabrikatutako ametsetan...

Behin dena nahi zuten hoiek  
bere buruekin konformatzen.

Ardo batzuk eta ideiak zarrapastaka  
hiltzen dira jaio baino lehen.

Behin dena nahi zuten hoiek  
dagonarekin moldatzen.

## **AMETSAK AMETS** (Ganbara)

Ilunak ilun begi bietatik  
zorionaren sua darizula  
ez dakit nik sekula aitortu dizudan  
amets hutsa dirudizula.

Laztanak laztan, zorion betean  
zelatan dago beti ezereza;  
hitzegizu, hitzegin, sinistra dezadan  
den-dena ez dela ametsa.

Ametsak amets baldin balira ere;  
egin nazazu zure;  
kixkal nazazu zure su-garretan,  
urtu nazazu, maite,  
zuregan su izan nadin arte.

Muxuak muxu, hasperen doi batez  
esan didazu bakar-bakarrikan  
su guztien suaren itxarongeletan  
ez dela hitzen beharrikan.

Jolasak jolas, zalantzak pindar bat  
eratxeki dio su festa honi:  
nire ametsen ametsa ez ote zaren zu  
ta zure ametsen ametsa ni.

Ametsak amets baldin balira ere...

## **AMETSEN ERAISTE NEURTUA** (Anari)

Mundu mailako gerra intimo eta latz batean  
beste behin zeure buruari biziraun diozunez.  
Behingoz erabaki duzu zauden lekuan geratzea  
zure ametsen eraiste neurtuari ekitea.  
Zuk horrenbeste denboran eta horrenbesteko afanez  
gordeak ez duela zuk uste adina balio onartzea.

Ze zu beti bizi izan zara behin-behineko egoeran  
aukerakoa zirudien etengabeko noraezean.  
Ez zenuela nahi honaino iritsi baino beste inora ere ez.

Zalantzarekin etengabeko persekuzio bat zen,  
ihes egiten diozun eta jarraitzen duzun  
horren artean zabilta itzal arrotz baten jabe.  
Ez zara besteek uste dutena, agian zeuk uste duzuna ere ez.

Oraindik ez hura bihurtu zen denborarekin honezkero ez.  
Zeure aukeren gaintetik amestu behar izan zenuen,  
irteera zen zulo hartatik aterako bazinen.

Horregatik erabaki dut nire amets denak eraistea.  
Hobe duzu momentu batez ni bakarrik uztea,  
zure begiei begiekin eutsi eta elkarri amore ematea.  
elkarren ondoan, ilargiak buelta bat ematen digun bitartean.

Goiz gorri eta eder batean neure barrutik salto egin  
eta neure buruaz beste... bat egitea.



# AMETSETAN (Julio Kageta)

Ametsetan ez ditut zapaltzailerik aurkitzen.  
Ez dut kontsumitzen ezta ere konpetitzen.

Poteak mozkortzen nau eta honek nire helburuak  
betetzen ditu ez dut botilaren beharrik.

Ametsetan inork ez nau hizkuntza bat in posatzen,  
ezta zenbaki bat ipintzen, ametsetan bai hala da.

Ametsetan ez dut kolpearen pedagogiaz ikasten.  
Ez ditut herri zapaltzailerik aurkitzen.

Ezta larruaren koloreagatik inork inor despreziatzen.  
Ametsetan bai hala da. Ametsetan bai hala da.

Ametsetan ez dira eszedenteak erretzen,  
Ezta inor gosez hiltzen.  
Ametsetan ez dut ametsik egin behar  
zoriontsua izateko.

# AMODIOZKO POEMA (Benito Lertxundi)

Gu, dantzari zuberotarrak ginen Estuerdoen kortean  
eta ez ginen haien hizkuntzaz mintzatzen.  
Horregatik, egun guztiz, oihuz genuen dantzatzen.

Haien ondoan inguratutako hegaluze saldo bat ginen.  
eta zuk, autobideko neskatxa maitea,  
egunsenti-arte kantatuz laztandu ninduzun,  
urriko gau epel batean harrapatutako einara nerea.

Egun hartara itzuli nahi nuke emeki-emeki  
itsasoari begira, begi itxiz, jiratutako itzulian barrena.

Neure behatzez gure herriko belarra bilatzen,  
haizean gure herriaren erortea.

Zarauzko zinetan begirada trixteko eta buruan  
aluminiozko xederadun neskatxa bilatzen,  
gure herriko plazetan Otsagiko "boboa"  
pelikula mutuetako ereduak.

Japoiko portabioietako lumez laztandu ditugu,  
tibueroien hortz eta haginaren barrena ibili behar izan dugu,  
geure seme-alabak itsas-ertzean eduki ditugu  
aingira eta itsas-trikuen eskumenean.

Odolezko ohetan lo dugu egiten eta atzerriratzen gaituzten  
trenetako komunetan negar egiten.

Bainan ez izu, maite, gure etxera inor ez dator orain,  
Gorbeian urtzen ari den elurra da  
ibaiak harrotuak jausten dira, itoko al dituzte?

## **ANTOINE NAHASIA** (Joxe Ripiau)

Berriro sentitzen zaitut, Antoine, nahasia, nahasia.  
Nora ezean zabilta, Antoine, nahasia, nahasia.  
«Gizarte honetan inor ez ote da ohartzen  
benetan oinarrizkoa dena ez dela ikusten?»

«Video game» kultura honetan  
ortopedia nagusitu da.  
Sentimendu protesikoak  
mundu autista honetan.

Berriro sentitzen zaitut...

Tabernak hutsik, kaleak hutsik.  
Jendeak ez du irtetzeko beharrik.  
Sarean daude konektaturik  
Interneten bidez psikiatra bisitatzen.

Berriro sentitzen zaitut...

## **ANTTONI ETA ANTTON** (Sakabi)

Anttoni! Anttoni! Zure atean nago ni.  
Ai, Antton! Ai, Antton! Ate ondoan, hor konpon.

Hormatxoriak negu gorrian ez du atsegin elurra:  
zerua goibel, kabia hotza eta janari gabe lurra.  
Ai, maite, nire bihotzak duen zure hotzaren beldurra!  
Biontzat kabi bat berotzeko bilduko nuke egurra.

Anttoni! Anttoni!...

Enarak ez du behin egindako kabirik inoiz aldatzen:  
urtero beti kabi haretan umeak ditu bazkatzen.  
Baina zu, Antton, enara txarra zaitut niretzat bilatzen;  
jai bakoitzean nexka berria ikusten zaitut maitatzen.

Anttoni! Anttoni!...

Enarak ere bere kabia galduta badu ikusten,  
biderik gabe, haruntz eta honuntz kabitik du aldegiten.  
Egarri dagoen nire bihotza, zuk eman ezik edaten,  
berriro ere ibiliko da gogorik gabe nonbaiten.

Zure bihotza egarri dela esan didazu bertsotan;  
neronek ere ikasia dut arrazoi duzula hortan.  
Zu beti zabiltz edari bila, ikusi zaitut askotan,  
baina neurritz gain egarri hori itotzen duzu ardotan.

Anttoni! Anttoni! kalabaza zale ez naiz ni.  
Ai, Antton! Ai, Antton! Haize freskoari, gabon!

## **ANTZEKOTASUNAREN DESBERDINTASUNA** (Julio Kageta)

Gerrikoan pistola daraman tipoa,  
noizbait maiteminduta egon da, zu bezala.  
Bere guraso ta semeekin,  
bizitzaz diskutitzen, zuk bezala.  
Odoluzki ezgaraiko baten zuhurgabetasunak  
sufritzen ditu, zuk zuk bezala.

Baina agindua jaso bezain pronto, torturatuko zaitu. (BIS)

Eta gero etxean, gauez ta odolez zikinduta  
bere emaztea musukatuko du, lo hartu baino lehen.  
Gerrikoan burdina daraman tipoak,  
nomina kobratzen du hilean behin, zuk bezala.

Lan legala dauka, zuk bezala.  
Antzekotasunarendesberdintasuna.  
Desberdintasunaren antzekotasuna.

Baina agindua jaso...

Eta gero zure emaztea bortxatzearekin,  
mehatxatzen zaituen bitartean lana bukatzean,  
erretzen duzun tabako berbera erreko du.

Mehatxatzen zaituen bitartean lana bukatzean,  
erretzen duzun tabako berbera erreko du.  
Mehatxatzen zaituen bitartean lana bukatzean,  
erretzen duzun tabako berbera erreko du.

# ANTZINAKO BIHOTZ (Mikel Laboa)

Bihotz, buztinezko Bihotz,  
etxe ttiki bat zara,  
ahula, hauskorra, lau gelatakoa.

Lau, lau gelatan Bihotz,  
zenbat mamu dauzkazun,  
nola ikaratzen zaren, gauean.

Gau, gau batzutan Bihotz,  
hautsi egiten zara,  
lurrera jausi eltzetxo baten gisan.

Bihotz, jausitako Bihotz,  
ari zara intzirika,  
kexu zara, negar zara, oi Bihotz.

Zer, zer diozu Bihotz,  
ez zaitut konprenitzen  
zure hitza arrotza zait, bitxia.

Zeit, Einsamen Helian,  
abends grauen flammendes,  
ez zaitut konprenitzen, oi ene  
Bihotz.

(Denbora, Helian bakartia,  
iluntzea, grisa, lamatan)

Der Tod ist ein Meister,  
und du, zur Linken, du,

(Heriotza maisu bat da  
eta zu, siniestroa zu)  
ez zaitut konprenitzen, oi ene Bihotz.

Der, des menschen Sinn,  
von zweifeln voll,  
(Gizonen patua dudaz betea)  
ez zaitut konprenitzen, oi ene Bihotz.

Bihotz, antzinako Bihotz,  
ez al zara zaharregi,  
eta ilun, eta itxu, barregarri.

Ilun, ez da dena ilun,  
begirazazu leihotik,  
ikustazu baso hori, berdatzen.

Berde, zein berde dauden,  
basoko garo zuhaitzak,  
zein ixil eta lasai, arratsean.

Arrats, arrats hontan Baso,  
hartzazu ene Bihotza,  
buztinetik sortua da, zu bezala.

## **APAR URRUNAK** (Gari)

Goxoki batek aho barruan,  
haragi bigunak laztan.  
Putzu bero ta ur lodietan,  
eromenezko jiratan.  
mingainak bultza masailak muxu  
besarkadaz blai hortzatan.  
Urtu ta urtu desegin arte,  
heriotz goxo batian.  
Urtu ta urtu desegin arte,  
heriotz goxo batian.

Ronaren suak erretzen ditu udazkeneko garoak.  
Trabatutako ahots galduak, lehenago ez igaroak.  
Gozameneko berotasunak jasatzen ditu ahoak.  
Kañaberaren azukreari on egin dio beroak.

Arroz landare uretan bare eguzkipean logale.  
Murgildu nintzen zure munduan zure uretan abere.  
ur lokatz bero hareetan gero enbor bereko bi lore.  
Eztiak eta lurrak sortuak, maitasunezko likore.

Uda beroko koko bizarrak, ximurrak eta erreak.  
Arratsaldeko ordu gorriak, urtutzen diren urreak.  
Brausta ta brausta, apar urrunak belar zuriko larreak.  
Ametsak txirlaz betetzen dizkit arratsaldeko mareak.

# APUR DEZAGUN KATEA (Mikel Laboa)

Apur dezagun katea,  
kanta dezagun batea.  
Hau da Fandango  
Biba Berango!

Munduan beste asko lez  
arta buruan oskolez.  
Atzo aspertu nintzaden  
maisuez eta eskolez.

Poeta naizenez gero  
ez dut zerurik espero.  
Bederatzi kopla ditut  
lau zuhur eta bost ero.

Ilargiaren adarrak:  
handik zintzilik abarrak.  
Gogoangarriak dira  
zure bi begi nabarrak.

Zerutik dator harria.  
Nondikan, berriz, argia?  
Gau ilun honetan dakust  
zure aurpegi garbia.

Martxoko oilar gorria  
inondik ez etorria,  
goseak arintzearren  
judu batek igorria.

Goizaldean eguzkiak  
printzak daduzka bustiak.  
Oso merke saltzen dira  
euskaldunaren ustiak.

Gure amonak esan dit:  
aitak ardoa edan dik  
Joan zaitez tabernara  
eta ekar zazu handik.

Euskararen asturua  
ez da gauza segurua  
askozaz hobekiago  
dabil munduan judua.

Eta hau hola ez bazan  
sar nadila kalabazan  
ipuin txit barregarriak  
kontatu nituen plazan.



## ARGAZKIA (R)

Argazki bat lortu nuen  
arratseko azken argitan  
atikoaren leiho txiki  
eta estu honetan.

Zuhaitz lerro kimatuek  
kalea biluzten zuten  
Etorbide luze baten  
gabezi guztiak agertzen.  
Zuhaitz lerro kimatuek  
kalea biluzten zuten...

Biratu naiz ta paretan  
ikusi dut zintzilik  
oroimena zuri beltzez  
marrazten ikasirik.

Zuhaitz lerro kimatuek...

# **ARGI IBILI** (EH Sukarra)

Sarritan gezurretan  
ez dute ezer esaten benetan  
komunikabideak.

Gehienek sinesten dute  
eta onartzen dituzte  
komunikabideak.

Argi ibili eta burua erabili.  
Argi ibili galdetu Husseinini.

## **ARGIA** (Izaro)

Argia, argia, argia, argia,...

Betazaletan itsasten dira benetan,  
bentanetan geratzen diren printzak.  
Atzazkaletan sentitzen dira benetan  
eskuak garretan.

Argia, argia, argia, argia,...

Teilatupetan laztantzen dira orbainetan,  
ordainetan elkar nahi dutenak.  
Ardo gozoetan busten diren ezpainetan,  
espaloietan.

Naramazu zure eskaileretan,  
elur leretan jeitsitako magaletan.  
Loaldietan, naramazu epeletan,  
zure maletan.

Argia da zure irria. Argia.

## **ARGIAREN HIRIA** (Sorotan Bele)

Larogeitamaikaren martxoan huen  
niretzako hila bat miragarri.  
Nik neuk bertan ezagutu bait nuen  
bihotzaren argi betegarri.

Bost egun bakarrik izan ziren  
argiaren hiria ikusteko.  
Nahiko eta soberan izan nituen  
halako gauzez maitemintzeko.

Bainan eskuak orain lotuak ditut  
arimaren nahia asetzeko.  
Ezinezkoa den altxorra nahi dut  
berandu da atzera bueltatzeko.

Gogoratzen hasten naizen guztietan  
dorre izugarri bat ikusten dut.  
Begien malkoz dago bustia  
aire ziztu batekin lehortuz.

Bidai luze bat dut orain buruan  
gehiegi ez ote da niretzako  
beranduegi bai izan daiteke  
amets zahar bat orain berpizteko.

Baina eskuak orain...

# ARGIZIRRINTAKO KOPLAK (Ganbara)

Gazteluko harresietan  
jeikitzen naiz apirila oroz,  
goizaren hats epela sasietan  
betidanik zutaz amoros.

Zeruaren arrosa ixur  
dadila karriketan zehar,  
argizirrintaren ederra bihur  
dakigun amodio behar.

Eki-leinuru samurrean  
ezti altxatzean goiza,  
koropilatzen dut ahurrean  
musu zilarren oroitza.

Ehun urte iragan dira  
denbora geldirikan dago,  
zeruko hodei arinei begira  
keinu baten haiduru nago.

Auto hotsek ixila hausten  
beldurra daukat bihotzean,  
argizirrinta bekaitza errausten  
dabilan ahanzmen hotzean.

Argizirrintaren ederra bihur bekigu amodio ikur.

## **ARI NAIZELA** (Pello Errota / Txirrita)

Ari naizela, ari naizela,  
hor ikusten det Txirrita.  
Eta zein ez da harrituko gaur  
gizon hori ikusita?  
Dударik gabe egina dio  
andregaiari bisita.  
Oso dotore etorri zaigu  
bi alkandora jantzita.

Hauxe da lotsa eman didana  
gizon artera sartuta!  
Edozer gauza esaten degu  
edanarekin poztuta.  
Bi alkandora ekarri ditut,  
bat erantztea ahaztuta...  
Pellok bi nola jantziko ditu  
bat besterikan ez du ta.

# ARKIMEDESEN PRINTZIOA (Anari)

Zuk galdetu zenidan bazenekien arren,  
ez nekiela erantzun nizun eta banekien.  
Baina nola ereiten dunak ez duen beti jasotzen  
duenak ez duen, beti ereiten.

Zuk azaldu zenidan Arquimedesen printzipioarena  
uretan edo ohetan gertatzen dena,  
nola gorputz berri bat bertan sartzen denean  
lehendik han zegoena ateratzen dan.

Gereziak hezur ta guzti jaten zituena  
eta auspez lurrari helduta lo egiten duna  
eta beste biktimaren bat ere bai bien artean  
zuk min egin diezu, beraiek maite izan zaituztenean  
zu bezalako leku pitzatuetan etzan zirenak  
hamar hankako ohe baten.

Dena zure ondoan lo egitearen albo-kalteak  
inor zeure burua baino gehiago maitatzeko gai ote zaren  
ez duzunik ematen duzu, duzunik ez hainbeste  
exen telefono nekatuak gaua zulatzen  
beti zorretik kulpara doan dei galdu batean  
akusazio eta testigua bera den epaiketa amaigabe  
eta zuk zeure burua zuritzen kantu min eta ederretan  
baina parentesi artean gordea duzuna...

# ARMADURA HERDOILDUKO GERLARIA (Beira)

Beldurra hartu zienez pare bat gerlari latzi  
ezpata erosi zuen eta armadura jantzi  
(azaletik burdinerara bi zentimetro distantzi).  
Hari zegokion oro handitasun ta garrantzi.  
Pare bat izerdi saio ta pare bat negar antsi.  
Armadura herdoildu da ta azalera itsatsi.  
Orain ezin du laztandu ta poemarik idatzi  
gizarajoak ezin du bere azala erantzi.

Ezpata zorrotza bere beso laburren luzapen;  
besteak zauritzen ditu bera zauri ez dezaten,  
nahiz eta erasoetan minik ez duen jasaten  
zenbat denbora musurik ez diotela ematen?  
Beldurra ari da bere armadurapea jaten.  
Lakuko dortoka bat behin ahalegindu zen esaten:  
“Nahiz eta kartzela askoz hitz egin ahalko diaten  
zaila da azala baino estuagorik izaten”.

Armadura haren erruz ez zitekeenez mugi  
biluztea erabaki du eta jarri da urduri:  
pieza bat kendu du, lehenik; ta gero, kendu ditu bi...  
askatasunak beldurra ematen digu batzuri.  
Usaimenak seinalatu ditu sei larrosa zuri  
eta berak atzaparra luzatu die hiruri  
hatzean zast egin du ta odol tanta bat isuri  
baina egin duen zauriak irribarre bat dirudi.



# **ARMAGABETZEA** (Anari)

Beste behin ere denborak  
nireak ziren lanak egin ditu  
eta nik neure kontrako  
makrojuizio intimoan dihardut.

Aingurak eta baleak,  
habiak eta harea, amuak, zu  
galdera haien erantzunen  
galderak erantzunik ez du.

Nire aurrekari penalak,  
batzuk egiak ez danak, badakizu  
eta nola nire penaren  
hiru laurdenak aspaldi bete nitun.

Entregatu nitun armak  
eta zuloak non neuzkan aitortu  
berandu ibili naizen arren,  
garaiz heldu.

# ARMEN KULTUAREN AURKA (Joxe Ripiau)

Hey, yo! Let the gun!  
Gure etsaien ikurra da.  
Hey, yo! Let the gun!  
bere irudia ez goratu.

Nahiz eta tamalez horrenbeste alditan  
izan aukera bakarra,  
ez dezagun bihurtu bandera.  
Honekin ez gaitezen arinak izan.

Hey, yo! Let the gun!

Arma fabrikatzaile eta trafikariak  
gure munduko maltzurrena  
ez al dira poztuko zure kamiseta  
eta zure "posea" ikustean?

Hey, yo! Let the gun!

Polizia guztiak eta militarrek  
gure munduko maltzurrena  
ez al dira poztuko zure kamiseta  
eta zure "posea" ikustean?

# **ARRAINAK EIJER BEGIAK**

(Jean Mixel Bedaxagar / Altzükütarrak)

Arrainak eijer begia, oi neskatila faltsia.  
Arrainak eijer begia, oi neskatila faltsia.  
Txorino batek erran zeneitan, biga bostetan egia!  
Biga bostetan egia, zu etzanela enia.  
Biga bostetan egia, zu etzanela enia.

Erbia dua lasterrez, ihizlarien beldurrez.  
Erbia dua lasterrez, ihizlarien beldurrez.  
Herri huntako neska gaztiak hurturik dirade nigarrez  
Hurturik dirade nigarrez, ezkunt ez direla beldurrez.  
Hurturik dirade nigarrez, ezkunt ez direla beldurrez.

Goiti eta behiti, banabilazu ni bethi.  
Goiti eta behiti, banabilazu ni bethi.  
Libertitzen ere nuzu, ene gazte laguneki  
Ene gazte laguneki, nahixagorik zurekin!  
Ene gazte laguneki, nahixagorik zurekin!

# ARRATSALDE HONETAN (Sorotan bele)

Itxaroten ari gera arratsalde honetan,  
zerbait aukeztekotan jende honen aurrean.  
Hemendik ateratzeko kanta berri baten bat,  
zuek ez aspertzeko arratsalde honetan.  
Honetan, honetan, honetan...

Laupabost akorde jota  
kitar zahar honekin  
dantzarako doinua  
ez dugu besterik.  
Bi laguneko koadrila  
izerdi patsetan  
nahiko izango dira  
arratsalde honetan  
honetan, honetan, honetan...

Taupadetan dut bihotza  
dirua galtzetan  
dantza egiteko gogoa  
daramat zainetan.  
Kitar binbolin doinuak  
jarraituz badaukat  
dibertitzako gaia  
arratsalde honetan  
honetan, honetan, honetan...

# ARRAZA GABEKO ZAKUR (Pasadena)

Errari bidean helburu gabe.  
Oreka zailean denboraren mende.

Izarrak arnasten galarazi aitzin.

Ezer gabe joango zara, bakarrik ez.

Arraza gabeko zakur,  
ezin zaituzte sailkatu.

Behar ez duzunak egin zaitu libre

Ezer gabe joango zara, bakarrik ez.

Arraza gabeko zakur...

Arraza gabeko zakur,  
Zeinen aukerak urratuz.

## ARROSAKO ZOLAN (EHZ)

Arrosako zolan kantu zirimolan  
nahiz eta telebistan ez gaituzten modan,  
euskararen garra, lokarri azkarra,  
gau ilun honetako gure artizarra.  
Zazpiehun langilez, sutsu ta ekilez  
oraina ta geroa ez ditaizke berez,  
kontzertu honen bidez, musika eztiez,  
euskal izen ta izana, betikotz bat bitez!

Koka ta hanburgesa, euskaldun baldresa  
gustua galtzea ere zer dugun errex!a!  
Kendu nahi digute, bihotz ta bertute,  
izaki klonikoak egin nahi gaituzte.  
Jo dezagun bada, goraki aldaba  
multinazional hoien herria ez gara,  
bretoi ta kortsikar, kanak ta okzitanda  
nor bedera izateko har dezagu indar!

Munduko herrien ta irrati librean  
bilgune goxoa guk dugu urtero hemen.  
Uhainen ildoan, asmoak geroan  
elkarren ezagutza daukagu gogoan,  
munduko erronkak, herrien borrokak  
bildu gara hausteko zapalkuntzen sokak,  
dantza ta irria, kantuz ilargia  
gau hontan zoriontsu da Euskal Herria.

# ASABA ZARREN BARATZA (Lizardi / Antton Valverde)

Asaba zarren baratza,  
untzadun ormek esia,  
eguzkiak len maitea...  
otzaldi zoro baten itzuli  
yoka nagokik atea.

Yoka nagokik atea,  
ate gorri, zurezkoa,  
euri zarrek usteldua,  
marraskiloez bide biurri  
dirdaitsuek apaindua.

Bai-bainun amona xar bat  
zazpi begiko baratzei,  
deadarkari yayoa  
marrubi-lapur nenkusanetan...  
bizi ote dut gaixoa?

Belar gaiztoak yan ditu  
nire bidexka izkutuak ...  
ale bakanak dakartzi  
bide gañeko mastiak eta  
ortziak peitu du iguzki.

Urte yoanen zitala!  
zuek zarpildu itzalia  
lenera nork lekardake?  
Zabal-narrea nuen baratza  
gaur ain estu, gaur ain gabe!

Baratz erdian dut arki  
amona: alderoka dator,  
begi galduak nora-nai...  
Eriotzak dakar besa-lagun,  
bere buruz ezpaita gai.

Errukarri! Lausorik du  
gizargia begietan...  
Non-nai aldiaren sitsa!  
Zuka, zoroki, mintza zitzaidan,  
zaldun arrotza bai nintza.

Laztan dut. Bera arrituta,  
begi-begira dagokit.  
Gero geldiro: "Nor zaitut?"  
Euskeraz ark niri galdegiña  
goguan besterik ez dut!

Ta asi zan biraka berriz,  
il-zarrei oska negarrez,  
eriotzaren egarri...  
Bizitzearen ondar-aleak  
larrañean eultzen ari!

Ta, ara, bidean, baldarño,  
mutiko bat guregana:  
ark birbiloba, nik seme.  
Ikus amonak, bertan gelditu,  
ta aren eztizko irriparre!

Lena zegoen orañaz  
ele gozoka, bitzuok  
mintzo-beraz ziarduten.  
Ene asaben lokarri zarra  
yaunari zor etzan eten!

Ordun eguzkiz yantzi zan  
asaba zarren baratza,  
ordun zuaitzak igaliz,  
ordun baratza leneratu zan  
mugak berriro zabaliz.

Ta len ikusi-gabeko  
zuaitz berri bat zegoan  
erdian, guzien buru...  
aren gerizak erri-baratzak  
ezin-ilkor egin ditu.

Nire Tabor-mendi,  
nire baratz zarraren antzalda!  
egi, mami, biur adi!  
Lenaren muñak aldatu beza  
baratz zarra baratz berri!

# **ASKATASUNAREN SEMEEI** (Benito Lertxundi)

Herri neketsu hontan polborazko lohitara  
euskal semeak boteaz, trintxeretako nekeaz  
gure barne muinak hezituaz, ukatzen zaigun izatearen  
funtsa lurrean errotuaz mendez mende bagoaz.

Gure begi legorretan askatasun egarriz  
nahigabea haunditzen, etsipenaren aurreko  
itsumenean, izar gidaririk ez.

Ez dator gugana jaikosa Mariren  
urrezko ileen dizdirarik, ez eta erreka garbietan  
lamiak kantatutako doinu liluragarririk.

Ez oten inoiz beren urrezko orrazeaz  
sasi nahasi hau orraztera jetsiko?  
Ez oten gaitu Sugaar zerutarraren sumindurak  
bere seme Jaun Zuriaren ikuituaz txertatuko?

Hor dire nunbait maite, gure errege-alaben  
setazko jantzi zuriak hor nunbair, izan ere  
oraindikan usaindu gabeko lore freskoak,  
askatasunaren semeen parabisuan.

Amodiozko kontuak zilegi izango zaizkigunean,  
Euskal Herriko haurrak berriro ere euskal ipuin xarmantez lotaratuko  
direnean, gure arteko begirada lanaikorrak  
egingo direnean, gure izatearen ardatza sendoaren bueltan  
garaipenezko kantuak entzungo direnean...

Orduan bai maite, gure lurreko belar gozoa  
zure eta nere soinean lizun bilakatuaz, amodiozko mozkorrean  
murgilduta, zorabiozko jirabiretan, haragi dardartien atsedenean,  
askatasunaren semeei dei eginaz... gure munduaren hastapena  
hantxen osatuko dut zure sabelean.



# **ASKATASUNEZKO BAKEA** (Euripean Sua)

Askatasuna, bakea...

Bakea, askatasuna...

Askatasunezko bakeak zilegi behar du izan,  
guztion nahia ene herrian.  
Urteen poderioz helburu berbera izan degu,  
ez dadila utopian erori.

Lehiotik begira kafesnea eskuan dudala  
berriak entzutean hozten zait.  
Zerua txikia izango degu euskaldunak  
gure poza ezartzeko aina.

Alaitu ta ez tristetu inoiz, esperantza badegu  
ta hala adierazten degu itxaropen kanta honetan.

Jendean aurrean zorrotzuta gure eztarriak,  
askatasuna aldarrikatzen.  
Bihar ene herria egunkaritan agertzeaz gain,  
mapetan ikustean, hau poza!!

Alaitu ta ez tristetu inoiz...

Bagatoz ta hementxe gaude, bagoaz mugarik gabe.  
Sarrionandiak, "maite genituen gauzengatik erori ginen preso,  
baina gure maitasuna oraindik ez dago preso" behin zioen.

# ASPALDIKO LOREAK (EH Sukarra)

Maskaren topaleku garaituan galtzen naiz,  
balantzaka, arrastaka eramaten ditut aurretik dabiltzanak.  
Maniki faltsuak dirudite argipean gizakien larruak.

Aspaldiko loreak asfaltoan ximeltzen  
hiren orduetan sorgintzen diraute,  
estizo pentsaldetan behin holako musu eternalenetan.

Barrote ugartuen lubakira biltzen naiz narrastaka, ahapeka.  
Saihestu ditzaket atzetik ditudanak  
heroi erailak dirudite itzalpean garun hezur horailak.

Aspaldiko loreak asfaltoan ximeltzen  
hiren orduetan sorgintzen diraute,  
estizo pentsaldetan behin holako musu eternalenetan.  
Euria kondentatuz plazara makurtzen naiz,  
estatuko banderarik izen tankerrena azidoz zuritzera.  
Zerurik ez dago bandera hura goratzeko, ekaizpean gurtzeko...

Eta euria kondentatuz plazara makurtzen naiz,  
estatuko banderarik izen tankerrena azidoz zuritzera  
Zerurik ez dago bandera hura goratzeko...  
ekaizpean gurtzeko, uaa, uaa, ekaizpean gurtzeko, uaa uaa,  
ekaizpean gurtzeko, uaa, uaa, ekaizpean gurtzeko, uaa, uaa...

## **ASTELEHENAK** (Izaro)

Ilargitan astelehenak  
zenbat astez atzera.  
Bide zidorretan barrena,  
pilatzen da orbela.

Baina gaur, ez da giro, gauari, kea dario...

Zenbat laztan eta bat bera  
ez dut asmatu gaua.  
Zenbat leiho hankaz gora  
edertasun erregua.

Baina gaur...

Maitasun ezak plazer errazak ez dute balio.  
Maitasun ezak plazer errazak ez dute balio.

Zenbat arerio zelatan dabilzan.  
Esaidazu berriro zein den zure baldintza.  
Zoaz, ez itzuli, hau ez da egia.  
Okela gordina, sentitu ezina!!

Maitasun ezak...

Ilargitan astelehenak zenbat astez osterera.  
Bide zidorretan barrena, bilatzen da norbera.

# ASTEROIDEEN ANTZOKIAN ARTISTA ERAHILA

(Kerobia)

Ongi iritsia naufragoei asteroideen antzokira,  
irteerak badakizue non diren: espaziontzietan.

Eta asanbladan aztertu zuten jakintsuenek ebatzi ez zutena  
azal barrurako unibertsoa kuantifika zitekeen.

Egun hura amaitu aurretik erabakia hartu beharra izan zuten:  
ihes egin ala bertan itxoin errugabeak zirela antzezteko.

Eta ingurura begiratu nuen ikusteko neonezko argiak  
nola egunsentiratzen gintuen Off-en esanez:  
"azkenean gizaki orok aurre egin behar dio bakarrik  
azkeneko instantean, azkeneko hatsari."

Egun hura iritsi aurretik erabakia hartu beharra izan zuten;  
ihes egin ala bertan itxoin errugabeak zirela antzezteko.

Eta larritzen hasi zen amets eraileen asanblada hartan:  
"bi aukera soilik ditut bi aukera soilik ditut."

Erabaki bakarra hartu nuen eszenatokira igoko nintzela  
gure azken funtzioa eskeintzeko, hil bedi artista betirako.

Erabaki bakarra hartu nuen eszenatokitik jeitsiko nintzela  
mundura zure bila ateratzeko, hil bedi artista betirako.

# ASTIRO ETA AMORRUZ (Gari)

Bizarra egiten dut ispiluaren aurrean  
laster afusilatu behar dutena legez.

Astiro eta amorruez...

Irratia piztuta dago hor alboan  
eta potrotaraino nago eguraldiaz  
hitz egiten dutenekin, higuinduta naukate  
asteburuko paradisetako sasi ihesek.

Astiro eta amorruez...

Ene oinek sua behar dute, ene begiek izotza...

Gordinik nahi dut zure haragia, gordinik ere zure bihotza.

Gordinik nahi dut zure gorputza, gordinik ere zure bihotza.

Halaxe izango da laztantxua, zu goxo goxo eta ni bero bero.

Iluntzeko mamuen artean gero

igo zaitez ene gainera laztan.

Igo zaitez ta irentsi behar duzuna

elkarrengan bizirik geratzen den apurra.

Beste paradisurik ez da eta

emaidazu zure bilo iluna.

Hartzazu ene bizar labana

egin dezagun elkarrengan zintzurra

azken unean zure baitan urtu nahi dut eta.

Ene sumendi goriko elurra

zabal dezagun komuneko atea

egin dezagun gogoak ematen diguna.

## ATALAIA (Sorotan Bele)

Goiza batean esnatu nintzen  
atalaiaren gainean.  
Itsasoruntz begiratu nun  
hantxe zegoen balea.

Oihu garrasiz hasi nintzen  
sorbaldan hartuz trainera.  
Balearuntz boga genuen  
olatu uhinen gainean.

Atalaiaren gainean,  
aupegia euriz bustia.  
Goiz ilun hartan irten ginen  
herri hartan ziren  
gizonik indartsu eta  
mutil gazterik trebeenak.

Amorru biziz bota genuen  
sokaz loturik arpoia  
gupidarik ez genuen izan  
haren bizona akatzean.

Kaian algaraka hasi ginen  
gure saria ikustean.  
bale kume bat agertu zen  
eta erre zizkigun bihotzak.

Atalaiaren gainean...

## **ATHARRATZEKO GAZTELUKO KANTA** (Benito Lertxundi)

Ozaze Jaurgainian bi zitroin doratü,  
Atharratzeko Jaunak bata dü galdatü;  
üken dü arrapostü ez direla unthü,  
unthürik direnian batto ükenen dü.

Portaliara juan zite, ahizpa maitia,  
ingoiti horra düzü Atharratzeko Jauna,  
otoi erran izozü ni eri nintzala,  
zazpi egun hoietan oihan nintzala.

Klara, zuaza orai salako leihora,  
iparra ala hegua denez jakitera,  
iparra baldin bada goraintzi Salari,  
ene korpitzaren xerka jin dadila sarri.

Ama, juanen gira oro elkarrekin,  
etxerat jinen zira xangri handireki,  
bihotza kargaturik, begiak bustirik,  
eta zure alaba tunban ehortzirik.

Ama, saldu nauzu biga bat bezala,  
bai eta desterratu, oi Españiala,  
aita bizi uken banu, ama zu bezala  
enunduzun ezkonturen Atharratzeko salala.

## **ATZERA BEGIRA** (Bap!!)

Milaka preso, kartzela mila  
gaude oraintxe galduta.  
Horrek inoiz ez du esan nahi  
gaudela menperatuta.

Egurak latzak, bortxakeriak  
hartan aspaldi ohituta.  
Berrogei urte pasatu dira  
zapaldu nahiez ostika.

Gero denontzat poza eta festa  
"Demokrazia" iritsi zen.  
Askatasuna, pakea legez  
denon ahotan entzun zen.

Gaur gure herria berdin dijoa  
Ez du inoiz nortea galtzen?  
Errefuxiatu, preso guztiak  
gure artean bizi arte!



## **ATZO** (Bide Ertzean)

Atzo, bihotzian  
izar bat lehertu zitzaidan.  
Atzo, sabelian  
amets egin zen gorputza.

Atzokoan, atzokoan  
izar bat lehertu zitzaidan.  
Atzokoan, sabelian  
amets egin zen gorputza.

Atzo, atzo.

Atzo, begietan  
ahantzi zitzaizun zerua.

Atzo, ezpainenetan  
loratu genun biharra.

Atzokoan, atzokoan...

## **AULKI JOKOA** (Idoia Asurmendi)

Aulki huts bat dago sukaldeko izkina hortan aspalditik  
inork ez du bota nahi, ezta bertan eseri ere.

Atzo hustu zen elizako bosgarren lerroko lehen eserlekua,  
ta ja ez du inork beteko igandetako mezetan.

Har ditzagun aulki hutsak ta sor dezagun aulki joko bat,  
bihurtzeko zuen hutsuneak bizi indar,  
nolabait, nolabait, nolabait...

Ta zenbat okupatu dezakeen ez dagoen zerbaitek;  
hutsune batek irensten gaitu ekaitzik handiena bailitzan.

Ta gaur gure txikitik, gure izanetik ta ezinetik,  
har dezagun atsedeen aulki hutsetan.

Har ditzagun aulki hutsak ta sor dezagun aulki joko bat,  
bihurtzeko zuen hutsuneak bizi indar.

Har ditzagun aulki hutsak ta sor dezagun aulki joko bat,  
bihurtzeko zuen hutsuneak bizi indar, bizi indar.

# AURKITU GENITUEN (E.T.S.)

Aurkitu genituen gure ametsak,  
aurkitu genituen itzalpean.  
Aurkitu genituen geure izarrak,  
aurkitu genituen aspaldian.

Aurkitu genituen lehen jolasak  
geure izpiak egunsentian.  
Aurkitu genituen lehen kantuak,  
lehen sekretu eta irriak  
Aurkitu zenituen nire emozioak,  
nire beldurrak nire ondoan.  
Aurkitu genituen mundu berria batera.

Ezetz, ez garela ur tanta hotz eta zapalduak.  
Ezetz, ez zaudela bakarrik gure begiraden artean.  
Ez zaitut ba nire bihotzetik ahaztu nahi  
eta ez, ez garela, ez garela.

Aurkitu genituen lehen zauriak  
momentu zailen ispiluan.  
Aurkitu genituen azken muxuak  
gure bihotzen barrenian.  
Gozatu genituen denborapasak  
gogoratu genuen ametsetan.  
Agurtu genituen geure begiak itxita.

Ezetz, ez garela...

Beti nire ondoan, maite zaitut anaia.  
Beti nire arima, maite zaitut laztana.

# AURRERA ALTSASU (Pello Reparaz/Jon Maia)

Txarrenari onena atera diozu  
zaurietan muxu ezerezean zu.  
Minari aurpegia gezurrari egia  
aurrera Altsasu!!

Ez bagenu izanen dugun bizi grina  
ez bagenu arnasik, jaio ez bagina.

Ez bageunde kalean, azaldu ez balira  
ez balitz borobila munduko lur bira.

Utziko bagenio bat izateari  
ez geundeke sekula batera kantari.

Neguak ernaldu du haritzen herria  
noiz loratu da horren oparo urria.

Txarrenari onena atera diozu  
zaurietan muxu ezerezean zu.  
Minari aurpegia gezurrari egia  
aurrera Altsasu!!

Bazkaleku berriak behar du izuak  
udaberriak erre nahi dituen suak.

Noiz arte luzatuko litzateke gaba  
goizero ez bagenu zure besarkada.

Utziko bagenio bat izateari...

## **AURRI GARA** (Izaki Gardenak)

Elur geruza batek gordeta  
zauzka eta isiltasunak  
mindu dizu gorputza.

Barruranzko oihuek hutsuneetan  
oihartzun egiten dute  
hezur eta muinetan.  
Zure hezur eta muinetan.

Aurri gara oinutsik,  
babesgabe eta badator negua.  
Berandu da gordetzeko.

Errukia diet beldur gabeei.  
Amildegia ertzean  
loak hartzen dituenei.

Aurri gara oinutsik,  
babesgabe eta badator negua.  
Berandu da...

Aurri gara oinutsik,  
babesgabe eta badator negua.  
Berandu da gordetzeko.

## **AUTOKUTSATZEN** (Hertzainak)

Aste osoa daramat lanean aguantatzen,  
han zer egin behar dudan ongi dakite denek.  
Beti gogor lanean inor ez izateko,  
bizi naizen lekua ahaztu behar dut gaurkoz.

Barruko poza ezin disimulaturik  
kale gorrietan murgiltzera noa.  
Eta uste dut tokatu zaidala berriz  
leku hontako mozkorti xelebreena izatea.

Autokutsatuko naiz etengabe  
azken taberna ere erre arte.  
Utzi problemak eta hator hi ere.  
Agian bihar ezin izango diagu nor garen gogoratu.

Erratzakin ari naiz amodioaren tabernan,  
lekutik aldatzen didate baina halere nik beti topatzen.  
Emaidan zigarro bat hobe estulkatzeko,  
hautsontzi zaporeko musu bat edo biren truke.

Orain dena dabil azkarregi agian,  
nere buruak ezin du deus ulertzen.  
Ez dut esan hori ezta bestea ere  
eta ideiak hasi zaizkit zeharo desafinatzen.

Autokutsatuko naiz...

## **AUZO TRENEAN** (Ruper Ordorika)

Lan egun bat, azken orduak,  
bagoia erdi hutsik doa.  
Haren begiak, ezer gehiago ez balego,  
ni ixilik, berari begira.

Hor kanpoan, denda argiztatuak.  
Erdialdetik auzo trenean noa.  
Ni ixilik, haren begiak,  
tren horretan, nigana begira.  
Nora joango da? Bakarrik ote da?  
Bihar ere ikusiko al dut?

Nongoa naizen esango banio...  
Erakutsi ezkerro etxekoen fotoak.  
Zenbat galdera erantzuteko naizen,  
zenbat gauza esateko ditudan.

Ni ixilik...

Gizon legala naiz, nik ere banuen lan bat.  
Erdialdetik auzo trenean bakarrik noa.

# AZALAK EZIN HARTU (Izaki Gardenak)

Norbaiti entzun diot  
beldur irrazional hau dela  
irudimenaren ordaina.

Dena hobera doa:  
arazoren bat daukat  
irtenbide bakoitzarentzat.

Hormen zain, denak gainezka egiten duenean.  
Eztanda naiz; azalak ezin hartu.

Bizkarra eman nizun,  
eskaintzeko beste ezer  
geratzen ez zitzaidanean.

Eta bilatuko zaitut,  
onartu nahi ez arren,  
hau guztia urperatzean.

Hormen zain, denak gainezka egiten duenean.  
Eztanda naiz; azalak ezin hartu...  
...ezin hartu... azala, azala...  
...ezin hartu... inoiz...



## **AZKEN DANTZA** (Peio ta Pantxoa)

Azken dantza hau maitia zurekin  
nahi zinduzket eraman nerekin.  
Baina gaurko xedia ezin daike betia  
badakit nik ere bihar dela joaitia.

Bego pena hau itzuliren naiz  
bai berriz Euskal Herrira.  
Bego urte hau etorriko naiz  
betikotz zure ondora.

Azken dantza hau ez da sekulako.  
Zin egina dut zin egin betiko  
hemen gure lurrian bizi behar dudala.  
Hori ez bada hilotz jar nadila.

## AZKEN EGUNA (Urtz)

Gu ta zu hemen, orain, aurkitzen gara berriz,  
agian azken aldiz, ez dago galtzeko arriskurik...

Denborak dena alda dezake,  
errukirik eduki gabe;  
ezin bere indarra gainditu inoiz.  
Betirako zela uste baina  
betirako denik ez dago.  
Hasten den guztia bukatzen da,  
bukatzen dena desagertu...  
...gugan eragina al du?

Badirudi, badirudi, badirudi, badirudi,  
Badirudi, badirudi, badirudiiiiii,...

Zer egin, zer esan, oraindik ez dakigu  
ziur ze bide hartu, hainbeste aldatu ote gara?

Garai hartan bizi genuena  
gure barnean mantentzen da  
erdi hildako oroitzapenen eran.  
Aspaldin piztu genuen sua  
bizirik mantzereik al da...  
edo denbora den haize hotza  
indarrez pasa da gainetik  
errautsa soilik utziz?

Badirudi,...

## **AZKEN MUXARRAREN TESTAMENTUA** (Ganbara)

Aspaldi ez dela bailara honetan,  
muxarrak bizi ginen pagoen oinetan.  
Pagoen oinetan negu hotzean lo,  
Urritz ta intxaurretan lapurretan gero.

Entzun, entzun nire dolu kantua,  
azken muxarraren testamentua.

Lasai bizi ginen egun beltz batean,  
bi hankako piztia sartu zen artean.  
Zalaparta biziz egin zuen lana,  
udazken bakar batez biluztu harana.

Ahal zuenak ihes, gehientsuenak hil,  
geroztik Leizaranen ni bakarrik nabil.

Entzun, entzun...

Hiltzen naizenian esan niregatik  
"basoan jaio zen ta autobidean hil".

Entzun, entzun...

Ta hau hola ez bazan sartu kalabazan,  
inoiz gerta ez dadin esan dudan gisan.

## AZKEN TXANPA (Urko)

Arraunlariak triste,  
gaur ez dira irabazle.  
Kaieko ur gazitan  
beso-bihotz neketan.  
Azken txanpan ahalegin,  
baina arraun bat zaie hautsi.

Hurrengoan, lagunok,  
garaipen zuekin.

Agur, zorio nak irabazleari.  
Itsasoa ez da agortuko oraindikan.

Egun luzez prestatu  
eta orain dena da galdu.  
Ametsen laburra da  
estropaden kulunka.  
Arraunak elkar jotzen  
izerditan dira galtzen.  
Hurrengoan, lagunok,  
garaipen zuekin.

Agur, zorionak irabazleari.  
Itsasoa ez da agortuko orain.

# AZKENEKO ANARKISTA (Bap!!)

Hire lagunarik hoberena  
ardo botila korriente bat.  
Estazioaren itzalean  
pasatzen dituk egunak.

Gaztetatik hasi hintzen  
hire gogoz borroka egiten.  
Bainan erantzunik aurkitu gabe.  
Bainan erantzunik aurkitu gabe.

Zertarako bizi ote geran  
galdetzen diok hire buruari.  
Zertarako hainbeste neke  
gizon bat libre izateko.

Nahiago duk ardo botila bat  
itxurazko mila hitz baino.  
Hi askatasunean bizi haiz  
prezio gabeko askatasuna.

Zertarako bizi ote geran...

Berrogeitamar urte badituk  
bizkarrean zama handiegia.  
Hezur guztiak mindurik dauzkak  
hezur guztiak mindurik.

Hamaika aldiz ikusten dituk  
hire lagun zaharrak pasatzen.  
Guztiak gizen gizenak daude  
sistemak jaten ematen die.

Zertarako bizi ote geran...

## **BADA HIRI GORRI BAT** (Lorelei)

Bada hiri gorri gorri bat,  
non erretzen den ilargia.  
Kale urtuetan irristrantzian,  
zaitut oroitzen ene maitia.

Bada hiri gorri gorri bat,  
Franken tabernako barraren pian  
isolatuegi datzan heinian,  
Gautxori baten doinu tristia.

Hiri gorriz dindatzen ditut  
zure ezpain lehertuak, Ophelie.

## **BADAKIT** (Bide Ertzean)

Bai, bai, badakit,  
badakit zure erantzuna.  
Ameslaria naizela, ameslaria.  
Zer egin bada, halakoa naiz.  
Nire barrena askatzen ari naiz.  
Baietz, badakit, nola ez,  
ez naiz aspertzen.

Lehenik muxu bat, gero nahizuna,  
ahaztu zalantzak ene laguna.

Eta badakit, badakit, baita zuk ere,  
ausardia behar dela beldurran ordeztu.  
Eta badakit, badakit, baita zuk ere...

Baina, hala ere saia gaitzen  
bebingoz bederen goiari eusten.  
Nork daki hemen  
zein dabilen oker hemen  
ta zein zuzen.

## **BADATOR EGUNA** (Bide Ertzean)

Gauean barrena nabil bila  
bidean zarela egina dut amets.  
Arakatu ditut kaleak, jendia  
kantu xume batez ari nauzu deitzen.

Guri beti falta zaigu norbait  
eta ilunak zure izenik ez daki.

Hutsik daude gutunak zu gabe,  
hutsik daude oheak zu gabe.  
Betegabe orenak zu gabe,  
hutsik daude kaleak zu gabe.  
hutsik daude, gabe.

Badator eguna lur hau kantatu bat da  
eta urrats bakoitza zureganantz doa.  
Abian da herri bat amets baten xerka,  
joan doana dator datorrena doa.

Hutsik daude kaleak zu gabe,  
hutsik daude irriak zu gabe.

Hutsik daude gutunak zu gabe...  
Badator eguna eta lur hau kantatu bat da  
Herri herren baten kanta zu hemen izan arte.  
Hutsik daude gutunak zu gabe,  
hutsik ere euria zu gabe.



# **BADIRA HIRU ASTE** (Mikel Urdangarin)

Izkin hontatik idazten dizut  
azken aldian bezala.  
Egia da bai sasoi honetan  
hotza egiten duela.  
Neska gazte bat ezagutu dut  
hiru aste badirela,  
esango nuke bere begiek  
erraz sorgindu nautela.

Azken bidai hau ez duzu izan  
etxe ondolik ihesa.  
Nigandik hurrun aurkitu arren  
hara itzultzeko ametsa.  
Zuekin beti oroitzen banaiz  
ahaztu naizenik ez pentsa,  
sentimenduak esaten baina  
ez da hain gauza erreza.

Orain goizean gozik hartzen dut  
mendebalderako tren.  
Harrizko zoru ahaztuetan  
biderik eta zaharrena.  
Bizitzak sarri erakusten du  
badena eta ez dena  
inoiz latz hartu banindu ere  
gaur gozo hartu nauena.

Lantzean baina, egun luzeetan  
bihotza egoten da triste.  
Agindutako promesa hura  
ezin kunplidu nezake.  
"Loriak udan" kantatzen baitut  
inoiz gutxitan ez uste  
letrak ez ditut oraindik ahaztu  
akordatzen naiz hainbeste.

# **BAGA, BIGA, HIGA** (Mikel Laboa)

Baga, biga, higa, laga, boga, sega,  
Zai, zoi, bele, arma, tiro, pun!!

Baga, biga, higa, laga, boga, sega,  
Zai, zoi, bele, arma, tiro, pun!!

Xirristi-mirristi, gerrena plat,  
Olio zopa, kikulixalda,  
Urrup edan edo klik ...

Ikimilikiliklik ...

## **BAGARE** (Bittor Kapanaga / Gontzal Mendibil)

Araban bagare, Gipuzkun bagera,  
Xiberun bagire ta Bizkaian bagara.

Araban bagare, Gipuzkun bagera,  
Xiberun bagire ta Bizkaian bagara.  
Baita ere, Lapurdi ta Nafarran.

Guztiok gara euskaldun, guztiok anaiak gara.  
Nahiz eta hitz ezberdinez bat bera dugun hizkera.

Bagare, bagera, bagire, bagara,  
euskera askatzeko oraintxe dugu aukera.

Bagare, bagera, bagire, bagara,  
euskera askatzeko oraintxe dugu aukera.  
Araban bagare...

Herri bat dugu osatzen eta gure zabarkeriz,  
ez daigun utzi hondatzen.

Bagare, bagera, bagire, bagara,  
Euskadi askatzeko oraintxe dugu aukera.

# BAINA BERDIN DIO (Mikel Markez)

Harrizko galtzaretatik  
asfaltozko autobidera  
gizakiaren bidexka  
izan da beti bera.

Maitasun ta gorrotoz  
munduak mila bira  
odolustuen gorpuak  
zagi hutsak baitira.

Baina berdin dio maite  
zu eta ni bagoaz  
denaren gainetik  
gure bakardadearen zorientasunean.

Jendea presa haundiz doa  
ba al dugu helbururik?  
bizitza agudo egin behar da  
ez dago denbora galtzerik.

Ei lagun, hago ixilik  
arazotan izango haiz bestela  
ibil denen modura  
izan denak bezala.

Goizero esnatzean  
nire aita joaten zen lanera  
hala egin zuen beti txingurrien modura.

Aaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa.

# **BAIONATIK BILBORA** (Imanol)

Badu nora heldu, ez du zeri heldu,  
itsaso hutsa da nire herria.

Baionatik Bilbora itsaso errea,  
putzu honek ez du itoko gure haserrea.

Baionatik Bilbora itsaso petrala,  
aspaldi esan zidaten besterik ez zala.

Baionatik Bilbora itsaso pobrea,  
non du aurkitu behar Euskadik hobea.

Baionatik Bilbora itsaso aingura,  
nadila zure albora oraindik ingura.

Baionatik Bilbora itsaso zakarra,  
baldin baneki nora kamino bakarra.

Baionatik Bilbora itsaso euskara,  
umorea badaukagu ta galduak ez gara.

Baionatik Bilbora itsaso nafarra,  
datorkigula behera amets honen afarra.

Baionatik Bilbora hartzen du ekaitzak,  
arrokak ongi dakizki txaluparen gaitzak.

Baionatik Bilbora itsaso gorria,  
Baionatik Bilbora gure memoria.

Bilbotik Baionara aluba itsasoa,  
igeri ez dakiena hondoraino doa.

# **BAKARRIK BAHAGO NEGUAN** (Bide Ertzean)

Poto batean  
sartuta zeukeat  
minutu hura  
hiri emateko gauean,  
gauean, gauean, gauean.

Eta usoak milaka  
udazkenean barrena.

Eta usoak milaka  
udazkenean barrena.

Lanbroa zeukeat gordeta  
kaxa batean hiretzat.  
Eta eguzkia  
hankak berotzeko  
bakarrik bahago neguan,  
neguan, neguan, neguan.

## **BAKARRIK NAGO** (Beti Mugan)

Ustegabeko ausentziak ustegabeko unetan,  
jendea saltoka dantzan dabil zuk musika entzun ezin.

Zeren zuk ez duzu dagoeneko inor ezagutzen.  
Holako gau ilunetan, bakardadearen eskuetan  
plastikozko topaketak.

Bakarrik nago ilargia bezala,  
bakarrik nago ilargia ni naiz.  
Mila begiraden azpian, bakarrik nago!!

Azken orduko lagun berriak, non daude betiko lagun zaharrak?  
Norbait zurekin ari da blagan bainan zuk ez duzu ezer ulertzen.

Jendetzaren erdian, bi zatitan erdibitua.  
Hanka bat han hemen bestea, lur gainean ur azpian,  
plastikozko topaketak.

Bakarrik nago...

Ustegabeko jokuak ustegabeko partaideak.  
Gorputz goseti hordoituak piztu-ezina piztu nahiean.

Egunsentia badator bere atzapar luzeekin.  
Egunerokotasuna esnatuko da zurekin,  
krudela da bizitza krudela azken piztiekin.

## **BAKARRIZKETAN** (NIA)

Itxarongelaren zuri hotzean naiz  
aldizkari zaharren argazkiei so.  
Bakarrizketan, ondoko ezezagunen  
hotsei aldegin nahiean.

Amets zapuztuetan murgilduz  
izen gabeko aurpegiak ahantzi nahiean...  
Makilaia kendu, makilaia kendu,  
gorroto bait ditut ezpain margoz zikinduriko zigarroak.

Gizona amets ustelez dago saldua  
barne hots galdua, barne hots galdua.  
Ezerezean dabilkit bueltaka, bueltaka...  
ixiltasunean musika goxoa entzun nahiean.



## **BAKARTIA HONDARRIBIAN** (Negu Gorriak)

Heldu zen, taxiz heldu zen bakartia  
Higerreko faroan egokitu zen.  
Bihotz-itsasontziak argitzen zituen  
jitoan kai suntsituetatik.  
Ta gauero euria bezalako malkoak  
bere gitarra entzuten erortzen ziren.  
Uhandrearen ohiua entzundakoan  
izkina hartu eta lokartu egin nintzen,  
lokartu egin nintzen.

Heriotza eta bakardadea  
blues guztiak abesten zituen,  
ametsetan igeri egiten nuen.  
Jakina ez dela itzuliko.  
Nor egongo da berarekin gau honetan?  
Nork besarkatuko du gogoz?  
Ez aldegiteko erregutu nion.  
Joan zen egunean hil nintzen,  
baina ez zen ezer nabaritu.

Utzidazu esaten Neil Young urrundu zenean  
ikusi nuela orratzak beste lagun bat eramaten.  
Hondarbiko aireportuan "indargabeak"  
txori arriskutsuak bakarrik hegan itten du,  
itzal bat bezalakoa da zeruan.  
Erokeria honek tristura gehiegi darama  
bitartean lurreratze pista bakartian  
ari du izotza, izotza, izotza...

## **BALADA IHESLARIA** (Bide Ertzean)

Heriotzaren aurrean berdinak omen gara denak.  
Gosearen aurrean ere berdinak omen gara denak,  
gosearen aurrean.

Beharrari ezin zaio inolaz mugarik jarri  
grina eta desioaren senide izanik,  
grina eta desioaren senide izanik.

Eta bien bitartean balada iheslaria  
xamur-xamur entzuten da gure artian  
zerua beltzez janztian, zerua beltzez janztian.

Egunak pasako dira eta berriz saiatuko dira  
ustezkoa baino ez den ongizatearen  
ustezkoa baino ez den ongizatearen bila.

Eta bien bitartean...

# **BALDIN BADA** (Baldin Bada)

Aurrera filmetako gidari ak.  
Aurrera akademiako agintarak.  
Aurrera koilare desberdineko zakurrak.  
Ondo neurtu gelditzen zaizun bizi txikia.

Bizi nahi dut ahal baldin bada.  
Bizi nahi dut ahal baldin bada.  
Bizi nahi dut ahal baldin bada.  
Bizi nahi dut ahal baldin bada.

Gaizki sentitzen naiz! Gaizki sentitzen naiz!

Negar egin nahi dut eta ezin.  
Oihu egin nahi dut eta debekatua.

Maitatu nahi dut eta ez didate uzten.  
Borroka ez dut nahi baina beharrezkoa da.  
Hiltzea nahiko nuke baina une berean...  
Bizi nahi dut ahal baldin bada...

## **BALDINTZAK** (Beti Mugan)

Haserre nagoelako ez dut erantzuten.  
Entzuten ez dudalako ez ditut arazoak.  
Behartzen nautelako ez nago pozik.  
Ohitura da, orain nazkatuta ihes!

loieee... leeee...

Pozik nagoelako ez dut galdetzen.  
Aritzen ez dudalako ez ditut soluzioak.

GO!!

Nire kasa nabil eta ez nago triste.  
Neretaz ari badira, ez jakitea hobe.

loieee... leeee...

Kontutan hartu jarri baino lehen,  
atzera ezin da inolaz jo hemen.

## **BALDORBA** (Benito Lertxundi)

Ezkil gabeko elizen eremu emankorrek,  
giza murzuriko zure ardientzat.

Oi Baldorba!! Oi Baldorba!! Aaa!!  
eguzki eta haize idor;  
mahats-ardo ibai, galburuarena.

Lur gorri, harri landu,  
mailu eta xixelaren kantuz.  
Gitarrazko alakiketan, aaa...  
Armeniako kanun ahots urratua.

Oi Baldorba!! Oi Baldorba!!  
esazu nor zen bidetik  
baztertu zintuen madarikatua!

Zure irriño erromanikoa  
erdi izoztu eta lokaturik  
utzi zuen madarikatuaren  
izena nahi dut, izena nahi dut.

Oi Baldorba!! zutaz oroit eta zuri nagozu.  
Kantu bat laburra da eta pentsa zuk,  
esaten ez dizudan hartaz.

## **BALE IHIZI** (Jean-Baptiste Otxalde / Imuntzo eta Beloki)

Ni itsas xoria banitz Iparreko izotz lurretarat  
joan nintaike hegaldaka bale itsu gizenen ondotik.

Itsasoa harro dago haizeak oro tzarrean,  
eta gu ezin kontsola etxe goxoa gogoan harturik.

Zoin asto izan behar den hala guziz miserian bizi,  
untzirat iragaiteko bale bakartiaren hilzaile.

Sos poxika baten gatik zonbat arriskurik ez den,  
ur untzia uzkeilirik buztan hasarretuak leherturik.

Lana gustokoa zaio arrantzale gai den gazteari,  
bainan ikaretan dago bale basa hurbiltzen denean.

Lot lanari, erna gaiten dio kapitaina jaunak.  
Marinela eri dago gorputz animak errotik daldaran.

Borroka hasten denean uhain zoroak jauzian gora,  
aberea zaurituta odol basa zurrutan dario.

Oligo hexur paflea sos guttirekin sanitzat.  
moltsa arin itzultzen da gaztea Ziburuko tabernarat.

## **BALEAK** (Izaki Gardenak)

Bizkarra apurtzen digu biziak  
zizaretu arte.

Egun berriekin porlanezko euria  
ametsak grisez urtzen.

Nor gara ezer egiteko?  
Zer egin inor aldatzeko?

Deika ari dira, gor geure bidean.  
Nahiz badakigun bihar batbatean  
izan gaitzkeela gu euren lekuan  
baleak hondartzetan.

Negua aspaldi igaro omen da,  
ez du inork baina  
bere koba eroso eta arriskugabetik  
inoiz atera nahi.

Nor gara ezer egiteko?  
Zer egin inor aldatzeko?

# **BALEAREN BERTSOAK** (Benito Lertxundi)

Mila bederatzieun ta lehenengo urtian,  
maiatzaren hamalagarren egunian,  
Orioko herriko barraren aurrian,  
Balía agertu zan beatzik aldian.

Haundia ba zan ere azkarra ibilian,  
buelbaka han zebilen juan da etorrian,  
hondarra arrotuaz murgil igerian,  
zorriak zeuzkan eta haiek bota nahian.

Ikusi zutenian hala zebilela,  
brehala jun ziran traiñeruen bila,  
arpoi ta dinamita eta soka bila,  
aguro ekartzeko etzan jende hila.

Bost taiñeru juan ziran patroí banarekin,  
mutil bizkor bikain guztiz onarekin.  
Manuel Olaizola eta Loidirekin,  
Uranga, Atxaga ta Manterolarekin.

Baliak egindako salto ta marruak,  
ziran izugarri ta ikaratzekuak.  
Atzera egin gabe hango arriskuak,  
arpoiakin hil zuten han ziran hanguak.

Bost txalupa jiran da erdian balía,  
gizonek egin zuten bai nahiko pelía.  
Ikusi zutenian hil edo itoa,  
legorretikan ba zan biba ta txalóa.

Hamabi metro luze gerria hamar lodi,  
buztan pala lau zabal albueta para bi.  
Ezpañetan bizarrak beste ilera bi,  
orraziak bezala hain zeuzkan ederki.

Gorputzez zan mila ta berrehun arrua,  
beste berreun mingain ta tripa barruak.  
Gutxi janez etzegon batere galdua,  
tiñako sei pezetan izan zan saldua.

Gertatua jarri det egiaren alde,  
hau horrela ez ba da jendiari galde.  
Bihotzez pozturikan atsegintsu gaude,  
gora oriotarrak esan bildur gabe!!



# **BALLADE DE JOHNNY JANE** (Serge Gainsbourg)

Ei Johnny Jane, “je t’aime” filma oroitzen al duzu?  
“je t’aime moi non plus”, kanta polit hori?

Ei Johnny Jane, eki lainoak arrastaka  
daramatzazu basamortu eta leku zekenen zehar.

Ei Johnny Jane, erauliak gainezka hegan  
Zabortegiak Atlantida bihurtuta

Ei Johnny Jane bertan zaborra garraioak  
oroi atsekabe haur hiltzeak irauliz.

## **BALOREAK** (Elkartasuna)

Kalera atera ta plazan naiz lagun en esperoan.  
Bostekoa eman ta indartsu sentitzen naiz,  
Luna agertu zaidan momentuan.  
Bakarrik ikusi dut mutil bat  
berria omen da herrian  
Enuke nahi nik leku berri batean  
adiskiderik izan gabe bizi.

Uoooooooooooo batera indartsuago gara.  
Arazorik baduzu zatoz gurekin,  
denok izango gara baloreak.

Uoooooooooooo batera indartsuago gara.  
Arazorik baduzu zatoz gurekin,  
denok izango gara baloreak.

Irribarre handi hau zuena da mila esker benetan.  
Sor dezagun ba mundu berri bat hemen,  
denontzat lekua izango duena.

Utz ditzagun gailuak etxean ta eraiki txabola bat.  
Ametsen jaioterria izango da ta  
zu ere ongi etorria izango zara.

Uoooooooooo...

1, 2, 1, 2, 3, 4! Uoooooooooo...

# **BALORETAKO ESKALA** (Julio Kageta)

Ikasi ditut fisikako formulak  
eta aditzak ongi konjugatzen.  
Ikasi ditut erlojuaren keinuak diskribatzen  
eta katekista lodi zatar bati esker  
etikako modal batzuk okasiotarako gordetzen badakit.

Errege katolikoek boten zenbakia  
ezagutzen dut baina zintzoa izanda  
nire harrokeri handiena ordenagailuaren  
monstru bat izatea da.

Estatuari esker esan beharra daukat  
kulturalki zorientzua naizela.  
Estatuari esker esan beharra daukat...

Baina badira egun batzuk  
gauetz ametsgaitzak eukitzen ditudala.

Zein izango ote eguzkiaren erroketa karratua?  
Zein izango ote maitasunaren formula?  
Zein izango ote benetazko pozaren batuketa?  
Ta batuketa honen emaitza?  
Guzti hori gutxi izango balitz,  
baloretako eskalak ostikoz potroak jotzen nau.

# **BANPIROEN HIRIA** (Izaki Gardenak)

Printzipio guztiak  
alboratu ta bukatzerako.  
Mesede eta asmo onak  
utzi garai hobeetarako.

Egia baino azkarragoa izan  
behar duzu hemen ihes egiteko.  
Letagin zorrotzez zulatu baitizute  
ilusioa zena, zena, zena, zena, zena...

Alkandora zuriak  
diru beltzez ordainduak dira.  
Neoizko pentsamenduak  
badatoz gauaren erdira.

Egia baino azkarragoa izan...

Odolik ez daukanak banpiroen hirian  
zoriontsu izatetik hurbilago dago.

Eta hunkitzen ez dena negu beltzen herrian  
guztiaren zentzuaz ziurrago dago.

Odolik ez daukanak...

## **BARATZE BAT** (Pier Paul Bertzaiz)

Hau da egün eijerra,  
mila xoriek kanta.  
Ziauri ene erregina  
besoak zuri ditizüt para.

Baratze bat nahi deizüt egin,  
amets sekretüenekilan.  
Liliak egün jauntzi eijerrenetan,  
mila kolorez dantzan bihotzetan,  
mila kolorez dantzan bihotzetan.

Gaü beltz ta sakonetik,  
jeikitzen naiz hoztüririk.  
Bihotza hain tristerik,  
usu hitaz berantetsitüririk.

Karroasa bat hor dugu,  
kanpoan gure aiduru.  
Ez gal aboro denbora,  
hiskor beitago amodioa.

Maitarzun berriari,  
ilargiak dü argi.  
Emanen deikü aski,  
guk elgar maita dezagun beti.

# **BARRE ALA NEGAR** (Don Inorrez)

Arruntegia top zerrendan sartzeko,  
zaharregia gaztetxeetan jotzeko,  
ikusezin diskoetxe ta managerrentzat,  
inorrez bat festibalen antolatzaileentzat.

Kantuok egin ditut, baina ez dakit norentzat.

Ta orain ez dakit barrez lehertu  
edo ikaraz negar egin, negar egin.

Rockaren pozoiak kutsatu nau berriro,  
ganbara beti martxan, ez nago etsitzeko.

Kantuok egin ditut, baina ez dakit norentzat.  
Kantuok egin ditut, ba al da inor bestaldean?

Ta orain ez dakit barrez lehertu  
edo ikaraz negar egin, negar egin.

## **BASATZETAN GARBI** (Katamalo)

Dotore esnatu zara  
urre gorrizko adar nagiak  
txanpainez eder aurpegia.

Egurra eman behar duzu  
sinestarazi ez dakizuna  
ortzadar bihurtu behazuna.

Amets gaiztoa zaitut  
goiz orotako ispilua  
itzuli nazazu ahalketua,  
ahalketua.

Ubela dut masailean  
neronek ukabilkatua  
prediku maiztuen ordaina.

Inoiz kargutuko ote naiz  
bakantasunetik ihesian  
arrunt ikusgarri naizena.

Amets gaiztoa zaitut...

## **BATASUNA** (Peio ta Pantxoa)

Aupa gizona, jaiki mutil,  
Atzar emazte ta neskatil.  
Borrokarako dei eginaz,  
irrintzi bat dabil.

Euskal Herria diagu zai,  
presoak eta hilak ere bai,  
abertzale izan ezkerro gaur,  
gauden denok anai.

Borrokari, luza zaidak eskua,  
huna hemen nirea zabalik,  
euskaldunok banan banan hiltzea,  
otso beltzak ez dik beste nahirik.

Euskadiren alde loturik bagare,  
goaz borrokara nagusituko baikare.  
Gerokoak geroko utzi, gaur herriak zio:  
nahi diat bizi!!



## **BATZUK BABILONIA** (Joxe Ripiau)

Batzuk Babilonia deitu zioten,  
beste batzuk ordea, infernua.  
Oiooooo, oieeee, oioooo, ieeeeee.  
Oiooooo, oieeee, oioooo, ieeeeee.

Batzuk jangoikua deitu zioten,  
beste batzuk berriz patua.

Oiooooo...

Lurralde sakratua batzuentzat,  
inperioa besteentzat.  
Milaka hil ziren militarren agindupean.

Oiooooo...

Baina txingurri guzti hoietatik  
batere ez zen ohartu inoiz  
zapata arrunt pare bat besterik ez zela.

Oiooooo...

## **BATZUTAN** (Julio Kageta)

Batzutan, hire Kickers urdinetaz gogoratzen naun.  
Hire niki hertsitaz, bular hazi berri batzuk  
hire siluetara gehitzen.

Behin Patti Smith telebistan ikusi  
eta hogeitamar urtekin imaginatu ninan.

Baina gaur zoratuta nengoela egiaztatu, egiaztatu dut.  
Gaur, denbora ta alutasunak eskuak eman dira.

Joder gogoratzen al ditun garai onak?  
Seguraski onenak, onenak, onenak, onenak, onenak...

Oraindik jarraitzen al dun  
ilea bustitzen egun eguzkitsutan?  
Nun utzi dittun katuska horiak?

Zergaitik? Mierda!! Zergaitik?  
Jokoak ez dira infinitoak.

Galderen aurrian gauza ziur bakarra,  
goxoak jarraitzen dutela hire, hire bidean,  
hire bidean, hire bidean, hire bidean...

## **BAUTISTA BASTERRETXE** (Herrikoia)

Bautista Basterretxe mutiko pijoa  
neri gurdi-ardatza, neri gurdi-ardatza ostuta dihoa.  
Beltzak eta zuriak izango dituzu,  
neri gurdi-ardatza, neri gurdi-ardatza emate ez baidazu.

Gurdi-ardatza ezik itai ta harria.  
Besteren behar gabe, besteren behar gabe badauzkat nereak.  
Sega, poto, labaina, gainera bostortza,  
perian eresia, perian eresia, daukat nik zorrotza.

Nere idi-pareak dauzka zintzarriak,  
lepotikan zintzilik, lepotikan zintzilik zildain jarriak.  
Gainera uztarriak ta kopetekoak,  
ontz urre gorri zaharrez, ontz urre gorri zaharrez erositakoak.

Zerorrek nahiko gauza dezula diozu,  
baina gurdi-ardatza, baina gurdi-ardatza lapurtu didazu.  
Ordaindu behar dezu larrutik ederki,  
ardatza ez baidazu, ardatza ez baidazu neri ekartzen aurki.

Buru gogorak badu berekin kaltea  
ez dedan gauza nola, ez dedan gauza nola nahi dezu ematea?  
Zentzuak galdurikan arkitzen zerade,  
bestela behintzat horla, bestela behintzat horla ariko ez zinake.

Gezur ta abar zabilta, Bautista tranpean.  
Zu bezain gezurtirik, zu bezain gezurtirik ez da Euzkal Herrian.  
Zure berri dakite inguruko denak,  
gordetzen dituzula gordetzen dituzula gauza besterenak."

## **BAZKAL OSTEKO KAFEA** (Mikel Urdangarin)

Esperantzarik gabeko zenbait, debekatuak dezente,  
mila galduak eta hainbeste gau bakarreko aterpe.  
Askok laugarren begiradatik betirako dirudite,  
bazkalosteko kafeak bezain usain goxoa daukate.  
Nik zurekiko dudana ere halakoa litzateke.

Nire bizitza laburra baina zein ezberdina izan den,  
zu ezagutu aurretik eta zuk muxu eman ondoren.  
Zure iparrak noraezaren lekukoa hartu zuen  
ta denboraren oneritziak erakusten du ondoren,  
nire bihotza zure neurrira nola egina dagoen.

Zurekin nahi dut Maxian barna karroa zoro eroan  
baita erantzi nahi dizkizudan prakak eroatera joan.  
Bertan zaudela sentitu nahi dut ohera sartzerakoan,  
lotsaren mugak lehertu arazi ta gehiago delakoan  
erloju hotsak esnatu eta zu izatea alboan.

Momentu batez nire bertsoak ametsetara bidaliz  
zure usainak atzeman ditut zoriona jo dut begiz  
hankak lurrera ekarri ditut irribarre salatariz  
bazkal osterita itzuli eta hamarmilagarren aldiz  
aspaldi hartu dudalakoan kafea hoztu zait berriz.

# **BAZTAN** (Mikel Laboa)

Ez nago ziur bairan,  
egunsentiarekin izango zen.  
Baztango bazterrak nere logelan  
hasi ziren, sartzen eta sartzen.

Lekurik ezak, nunbait esnatu ninduen.  
Segituan jautsi nintzen, nun nengoen?  
Leioa ireki nuen eta emeki emeki,  
Baztango lurrian, Baztan baitan,  
Baztan izan nintzen.

Baztango lurrian, Baztan baitan,  
Baztan izan nintzen.

Baztango lurrian, Baztan baitan,  
Baztan izan nintzen.

Baztango lurrian, Baztango lurrian,  
Baztan baitan, Baztan izan nintzen.

# **BEDEINKATUA** (Mikel Laboa)

Bedeinkatua, Santifikatua, Hirugarren ordenako buruzagi ospetsua,  
herriaren zaintzailea, birtute guzien irudi eta zeruko erreinuen ispilua.  
Zu, mantxarik gabea, espirituz bezain gorputzez legorra, zuhurtasunez josia,  
hitz ederren eta fortuna dezentearen jabea.  
Zu, nunbaitetik etorria, profeten abotsa, auzokoen kezka.  
Zu, hogeitau hamabosturte luzez emaztea igande arratsaldeetan  
etxeko lehiotik begira eduki zenduena,  
emazte gaixoa, emazte iluna, emazte bizarduna.

Emakume leial batek merezi ta desio bezain gartsuki,  
oi doilorkeriaren haundia, sekulan izorratua  
eta zure gorputzez gozatua izan etzena,  
bere erraietako indar desesperatuen birtutez antzutasunetik aterea,  
aitaren ustelkeriaren kulpaz seme tonto batzuen ama izandua,  
ixil-ixilik urte luzeetan bizitua eta arratsalde hotz eta euritsu batean  
ia inor konturatu ere gabe hila eta hobiratua izan zana.

Zu, Malta-ko kaballeroa, prozesioetako zingurria.  
ohitura onen defentsailea, dantza zikinen etsai amorratua,  
neskazarren poz zimurra, agure okerren segurantzia.  
Ilunpetako zomorroa, nausi guzien serbitzari parerik gabea,  
hamargarren mendeko itzala, hamabi etxeren jabea,  
zimaurretako zizare koloregabea, santua, santua, guztiz santua.  
Auzi konpontzaille trebea, Ciceron berpiztua.

Greko-aren koadroetatik ateratako gizon magroa,  
sabiduriz eta haserrez beterik munduko pekatuen aurrean  
oihu egiten duena, lapur galanta, astazakil paregabea...  
zure heriotzako egunean kanposantuko arrek  
bazkatuko dute zimaurre gozoa.  
Nere hitza ez dezala haizeak eraman.

Amen.

# **BEGIAK PARREZ PARREZ** (T. Artola-A. Zubiria)

Begiak parrez parrez,  
bihotza negarrez.  
Begiak parrez parrez,  
bihotza negarrez.

Halaxe joaten nintzan maitia  
zugandik dolorez.

Ama zuriak neri  
parian pasata,  
ez dit agurrik egin maitia  
burua jirata.

Ama zuriak neri  
ez agur egiteko,  
zer palazio dauka maitia  
zuri emateko.

Palazio eder bat  
haitzaren gainian,  
ez da euririk sartzen maitia  
ari ez dunian  
ez da haizerik sartzen maitia  
ez dabilenian.

## **BEGITARA BEGIRA** (Vendetta)

Jaitsi zaituz palkutik momentutxo batez  
ta hartu lekua ene lagunen artean.  
Begiraiguzu denoi zuzen begitara  
azalpen ugari zor dizkiguzu ta.  
Esaiguzu hizkuntza hau ez dela geurea,  
herri faltsu bat izan dugula maite.  
Geure arteko besarkada ta malkoak  
lekuz kanpo sentitzen dituzun horrek.

Begitara begira, begitara begira,  
lekuz kanpo gaudela esaiguzu.

Zeure palku-kideek entzun ez dezaten,  
uzkurtu eta esaidazu belarrira.  
Bizi-bizirik dela ez al duzu ikusten?  
Neurea ta neure lagunen herria.  
Zoritxarrez badakit galderen kantu hau,  
entzungo duen azkena zeu zarela.  
Beraz amestuko dut kalean topatu,  
ta honakoa oihukatuko dizudala.

Begitara begira...

Lurretik lorera, loretik bihotzera.  
Legetatik urrun, malkotatik gertu.  
Esaidak lagun eskutik heldu ta begitara  
Herrian zutik jarraituko diagula...



## **BEGIRATU ALA IKUSI** (Biren)

Begiratzea eta ikustea  
gauza bera balitza lez,  
balitza lez, gauza berbera...

Horrela dabiz, horrela doaz  
begi pare gehienak  
horrela dabiz, horrela doaz.

Begiratzea eta ikustea...

Baina ez da, ez da,  
ez da inola ere ez  
baina ez da, ez da!

Esadazu bestela,  
begi itsu batzuk nola  
ikusi ahal duten,  
itsuak ez diren beste gehiengoak  
ikusten ez duena...

Begiratzea eta ikustea...

Esadazu bestela...

Begiratzea eta ikustea ez da...  
begiratzea eta ikustea gauza bera...  
Begiratzea eta ikustea ez da...  
gauza bera, ez da... gauza bera.

## **BEHIN BATEAN LIOLAN** (Bilintx / John Denver)

Behin batean, Loiolan, erromeria zan.  
Hantxen ikusi nuen neskatxa bat plazan,  
txoria baino ere ariñago dantzan.  
Huraxe bai polita, hain politik bazan!

Esan nion desiosenti nuen gisan,  
harekin hizketa bat nahi nuela izan.  
Erantzun zidan ezik atsegin har nezan  
adituko zidala zer nahi nion esan.

Arkitu ginanian inor gabe jiran,  
koloriak gorritu harazi zizkidan.  
Kontatuko dizuet guztia segidan,  
zer esan nion eta nola erantzun zidan.

-Dama polita zera, polita guztiz, ai!  
baina halare zaude oraindik ezkongai.  
Ezkon gaitezen biok! Esan zaidazu bai!  
-Ni zurekin ezkondu? Ni zurekin? Jai, jai!

## **BEHIN BETIKO** (Imanol Urbieta)

Behin betiko, behin betiko,  
sinple bezain tinko, ez dugu etsiko!  
Behin betiko, behin betiko,  
sinple bezain tinko, EUSKARAZ TA KITTO!!

Etxean ta kalean, berdin-berdin jolasean,  
eskolan, lanean, borrokan eta bakean.  
Dakitenek erabiliz, ez dakitenek ikasiz,  
herri bat osaturik euskaraz nahi dugu bizi.

Hasi etxetik eta kalera,  
hasi kaletik eta etxera,  
martxan jarri da lege berria:  
Euskaraz Euskal Herrian.

## **BEKAITZ** (Anje Duhalde)

Ikusi nuenean nor nintzen, zer nintzen,  
txoria zen nahi nuena.  
Hegatzearen kontzientziatik mundua  
gainbegiratzeko duena.

Txoritu nintzen eta itsaso, aintzira,  
ibaiak gaintitu ahala  
hauteman nuen arraina eta bekaiztu  
nintzen hartaz berehala.

Nekatu nintzen izaten  
beti zerbaiten bekaitz.  
Nitaz bekaiztu nintzen eta  
azkenik lasaitu naiz.

Arraindu nintzen eta bekaiztu ninduzun  
ibai ondoko zuhaitzez.  
Zuhaiztu nintzen eta luzatu ninduzun  
izar isilen bekaitzez.

Zergatik ez naiz behingoz izango nioen,  
neure buruaren bekaitz.  
Guztia eta hobeki goza dezadan:  
izar, txori, arrain, zuhaitz.

Nekatu nintzen izaten...

# **BELDURRAK AHAZTUTA** (M-n Ezten)

Ez dago inoren esku sexu aukera,  
guztiok ar edo eme jaiotzen gera,  
bizitzeko era,  
ez gera atzera,  
guztiaren gainetik, emakume zera!

Egun guztian langile, iñurrien pare,  
ilargiaren argitan bihurtuz maitale,  
etxeko neskame,  
denborarik gabe,  
askotan halabeharrez gizonaren menpe.

Ei! eutsi, izan adore,  
kanpoko kolpeek ez zaitzatela eraitsi.  
Ei! Eutsi, izan kemena,  
nahiz zail izan sarri,  
minari barrura sartzen ez behintzat utzi.

Ei! eutsi, izan adore...

Beldurrak ahaztuta,  
salatu behar duzuna:  
laguna, denok elkartuta,  
uste baino lehenago berdintasuna.

# **BELDURRARI BELDURRA** (Beti Mugan)

Beldurrari beldurra  
epaileak burmuinean,  
haren gorpua ur gainean  
ezkatik gabe nora zoaz?

Oh yeah, egin lo!!  
Oh yeah, betirako!!

Bihotza hozkailu batean  
mingaina biraoka  
sehaskik gabe ametsik ez.

Biluzik laga nauzue!!

Beldurrari beldurra  
epaiketa pribatuak,  
haren gorpua ur gainean  
ezkatik gabe nora zoaz?

oh yeah, egin lo!!  
oh yeah, betirako!!

## **BEMIDJI** (Peiremans +)

Urre irria hortzik gabe negarra gorde  
aterpe bat nahi zenuke izarren orde.

Ta ez dago zuretzako ezer, erruki higatu bat.  
Urtaro bakarra da hemen, zuhaitz biluziak.

Distantzia kalkulaten zabilta oraino,  
zenbat erabaki oker infernuraino.

Ta ez dago zuretzako ezer, erruki higatu bat.  
Urtaro bakarra da hemen...  
Neguaren geruza guztiak ilunpetan puska-biltzen  
argia irtetzen denian  
merkezurrean lortzeko zerotik haste bat.

Negua beste negu batian, negua beste...

Ta ez dago zuretzako ezer, erruki higatu bat.  
Urtaro bakarra da hemen...  
Neguaren geruza guztiak ilunpetan puska-biltzen  
argia irtetzen denian  
merkezurrean lortzeko zerotik haste bat.

Urre irria hortzik gabe negarra gorde  
aterpe bat nahi zenuke izarren orde, izarren orde.

## **BENETAKOA** (Hertzainak)

Blasfematzen dudanean, par egiten duzu  
txistea izan dela eman dezan.

Eta adulterioz hitz egiterakoan, par egiten duzu  
zuk ere jolasten duzula sinets dezadan.

Baina benetakoa naizela  
onartzeko ez zara gai ta egiten duzu, egiten duzu.

Iraintzen zaitudanean, par egiten duzu  
oso modernoa zarela sinets dezadan.  
Baina kondoia erakusterakoan, par egiten duzu  
jasangaitza litzakeela sinets dezadan.

Baina benetakoa naizela...

Benetakoa naiz eta beldurrez zaude, beldurrez zaude.  
Soilik lasai bizi nahi duzu,  
problemak topatu gabe,  
problemak topatu gabe.  
Soilik lasai bizi nahi duzu,  
problemak topatu gabe,  
problemak topatu gabe.

Problemak topatu gabe, problemak topatu gabe...  
Problemak topatu gabe, problemak topatu gabe...  
Problemak topatu gabe, problemak topatu gabe...

Problemak eta par eiten duzu.  
zeren benetakoa naiz eta onartzeko  
ez zara gai eta egiten duzu, eiten duzu.



## **BENTARA NOA** (Mikel Laboa)

Bentara noa, bentatik nator.  
Bentan da nere gogoa.  
Bentako arrosa krabelinetan  
hartu dut amodioa.

Ez dakit zer dan neure maitea  
ene aspaldiko bizia  
gurina sutan oi dan bezala  
urtu zait gorputz guztia.

## **BERANDU** (Bide Ertzean)

Ekarri zure eskua bularrera  
hitzak ahaztu etasentitu.  
Bihotz mina dago taupadetan  
egon segundu bat eta hartu.

Eskuan daukazu mezua  
eskuan idatzia daukazu.  
Eskuan zain duzu erantzuna.

Iparra galdu da, non da etorkizuna?  
Erre egin al da biharamuna?

Berandu, hitzekin konpontzeko.  
Berandu, hau ulertzeko.  
Berandu, berriro ekiteko.

Berandu, berandu,

## **BERANDU** (Izaki Gardenak)

Itxaropen izpi bat galderek estalita, estalita.  
Ta jada berandu omen da,  
astirik ez dugu akatsak konpontzeko,  
berriz ere hasteko.

Ahots berriek ez dute  
zuen pentsamenduen  
iluntasuna ezkututzen, oo...

Salbatuko gintuzten su denak itzalita, itzalita.  
Ta jada berandu omen da,  
astirik ez dugu akatsak konpontzeko,  
berriz ere hasteko.

Ahots berriek ez dute...

Malko herdoildu bat masaila gurutzatuz,  
iragana ospatuz, besterik ez daukat.

Ta irriek ez dituzte  
erortzen utzi zituzten  
malko guztiak estaltzen, oo...

# **BERANDU DABILTZA** (Ruper Ordorika)

Eguneroko bizitza, ikatza bezelako labexomorroak ixurtzen hasi zenean etengabe.  
Otis Redding badiako kaian eseri zen aideplano eroriei kantatzeko blues band.  
Sagarraren loreek su hartu zuten eta niri odola hasi zitzaidan sudurretatik  
baldosa xuriko komuna publikotan pornografia irakurtzen ari nintzenean love.  
Eta alkimistek txosten bat eman zuten argitara plusvaliaren alde azalduz erabat,  
ta errestaurantetik bi homosexual bota zituzten arrazoi komertzialak zirela merio, zirela merio.

Bakardadearen milaka kopia inprimatu ziren neguaren ateetan geundelako,  
eta ene osaba batek postale bat izkribatu zidan, Stop ene urtebetetzea zelako, Stop iloba,  
eta bide batez bere seguruetxea kontseilatu nahi zadalako inoiz ez da jakiten noiz,  
ene maitaleak telefonoa jo zidan kobre zaporeko maitasunez gauaren erdian, gauaren erdian.

Eguneroko bizitza ikatza bezelako labexomorroak ixurtzen hasi zenean etengabe.  
Gero ernari gelditu zen ibaia zerutik atergabe jautsitako espermaz,  
alkandora arrosak loredunak, xuriak gorribeltzak multikoloreak herrestan eramanez,  
eta aste berean ni puta bat naiz oihuztatu zuen ezkontza despedidan Champagne,  
Olivetti batetan bere lehen gutun erromantikoa osatu zuen sekretaria lotsatiak.

Eskaleek bazpare trapuzko etxeak jaso zituzten zubipean mitxeletak babesteko.  
Kattagorriek supermerkatuari eraso zioten, altxa besoak!! non da intxaur kaxafuerte?  
Negua heldu zen azkenez eta antzerrek V bat egin zuten zeruan.  
Dispensariotan antitristezi pildorak banatu zituzten ugari  
Egiptoko zazpi izurriteren edizio ugaldtu eta korrejitua asmatuz;

Zoriona gramoka saltzeari ekin zioten trono aingeru eta kerubinek;  
beturte kardinek igotze desnaturala eman zuten Erromako boltsan,  
mila liburu erregalatu zituzten bankuek Ora eta bereziki Labora lemapean.  
Baina alferrik zen berandu dabilta ta ez dute ezer lortuko honez gero,  
palazioak lurrera doaz gartzeletako hormak pitzatu egin dira,  
eta gu libro gabiltza kaleetan tirantezko galtza laranja jantzirik, libro libro.

## **BERANDU NATOR** (Bide Ertzean)

Zein tren geltokitan  
ahaztu nuen nire izena?  
Nire izena?

Zein eserlekutan  
lozorrotu zen nire jakinmina?  
Nire jakinmina?

Bidean galdu eta gero  
berandu nator beste behin ere.  
Nire galderak herren daude.  
Berandu nator, ez al dut inoiz ikasiko?

Iragana zain gutun zaharretan  
eta nik maitasun kontu txikitan  
agortu nuen nire mezua.

Berandu nator...

## **BERDIN IZANEN DA** (E.H. Sukarra)

Atzo, amaren gonapean jaio nintzen.  
Atzo, urteak pasa ala eskolatzen.  
Atzo, maitasun goxoenak hamalau urtez.

Bihar, bizi itxaropena...  
Berdin izanen da.  
Berdin izanen da.

Atzo, ametsen zubipean drogaturik.  
Atzo, herria nahi ta ezin askaturik.  
Atzo, kalean bazterturik langabeturik.

Bihar, bizi itxaropena...  
Berdin izanen da.  
Berdin izanen da.

Atzo, zuloan amets zoro urkaturik.  
Atzo, gizon bilakaturik jakin barik.  
Atzo, bizitza zertarako galde eginik.

Bihar, bizi itxaropena...  
Berdin izanen da.  
Berdin izanen da.

# **BERE TXISTEAK** (Don Inorrez)

Bere txisteak  
ez dira hain onak, jada  
ez, ez dira hain onak.

Eta egun batian  
izerdi usaina duela  
ohartzen zara.

Berriro ere, berriro ere,  
bukaeraren hasiera da.

Bere txisteak...

Eta bat-batian  
suak itzali dira  
eta hotza dator negua.

Berriro ere...

Egun batian ohartzen zara  
Oharkabian ohartzen zara.

Paraparara...

# **BERETERRETXEN KANTHORIA** (Mikel Laboa)

Haltzak eztü bihotzik ez gaztanberak hezurrik:  
enian uste erraiten ziela aitunen semek gezurrik.

Andozeko ibarra, ala zer ibar luzea!  
Hiruretan ebaki zaitan harmarik gabe bihotza.

Bereterretxek oheti neskatuari eztiki;  
"Abil eta so egin zan gizonik denez ageri".

Neskatuak berhala, ikhusi zian bezala:  
hirur dozena bazabiltzala bortha batetik bestera.

Jaun kuntiak berhala, traidore batek bezala:  
"Beretxerretx, aigü borthala: Utzuliren hiz berhala".

"Ama, indazüt athorra, mentüraz sekülakua!  
Bizi denak orhit ükhenen dü Bazko-gaiherdi-ondua".

Büztanobi gaztia, Ene anaie maitia,  
Hitzaz hunik ezpalinbada, ene semia jua da.

Arreba, ago ixilik! Ez, otoi, egin nigarrik!  
Hire semia bizi bada, Mauliala dün juanik.

Marisantzen lasterra jaun kuntiaren borthala!  
"Ai !, ei !, eta, jauna, nun düzüe ene seme galanta?".

"Hik bahiena semerik Bereterretxek besterik?  
Ezpeldoi altian dün hilik; abil, eraikan bizirik" .

Ezpeldoiko jentia, Ala sendimentü gabiak!  
Hila han hüllan ükhen eta deüsere etzakienak!

Ezpeldoiko bukhata, ala bukhata ederra!  
Bereterretxen athorretarik hirur dozena ümen da.



# **BERRIRO GALDU ZERA** (Beti Mugan)

Berriro galdu zera  
lurralde heze honetan.  
Lasaitasuna ez zen  
aterperik onena.

Labain bat bihotz erdian  
bestea eskuartean  
gezurrak eta egiak  
zorrotzegiak dira.

Uuuuuu... Galdu zera.  
Galdu zera, galdu zera.  
Uuuuuu... Galdu zera.  
Galdu zera, galdu zera.

Berriro galdu zera itxaso lehor honetan.  
Gorputza astunegia da hondarraren gainean.  
Iragarki berriak ume zahartuentzat.  
Hautzarorik gabeko argazkiak gera.

Berriro galdu zera antzoki antzu honetan.  
Bizkarra eman diozu eskenatokiari.  
Gidoirik ez da jarraitzen zure antzezpenetan.  
Zentzurik bai al dauka zentzua bilatzea?

## **BERRIRO OHERA** (Mal de Ojo)

Goizean goiz jaikita zabaldu dut leihoa  
eta ziztu batean banoa gosaltzera.  
Kafea prest dago, eta hartu dut dutxa.  
Gelara itzuliz zure loa ikustera.

Eta han zu ikusita aingeru bat bezala,  
egin behar ez nuena etorri zait burura  
eta berriro sartu naiz ohera,  
eta berriro sartu naiz ohera.

Hor goxo goxo egonda, laztan eta musuak,  
konturatu orduko joak ziren hamaikak.  
Berriro ere seriocki hartu behar dut biharra,  
itxumustuan altxa eta lanera noa.

Eta han zu ikusita...

Zer eginik ez dugu laztantxo maitea,  
nik hartutako martxa da nahiko xelebrea.  
Lanbidea ala zu aukeratu behar bada,  
esan beharko dizut, zu niretzat aurrena.

Eta han zu ikusita...

# **BERRIZ ARNASTEKO GERTU** (Leire Etxezarreta)

Hau dena amaitzen denean eta lehen lerroan bizitzak jartzen direnean...  
eta elkarrengana iristeko pantailarik behar ez dugunean.

Akaso kontatuko dizut kafe usainak esnatzen nauela goizetan,  
eta ez dela erraza izan zugana hurbiltzea behar izan duzunetan.

Kontatuko dizut gogoan izan zaitudala egun astunegietan,  
eta orain dela momentua elkar zaintzeko zentzu guztietan.

Besarkada bat airera agian goizegi joan direnengatik,  
eta topa egingo dugu gure leihoetatik amestutako egunengatik.

Faltan botatzen al duzu maite duzun norbaitekin itsasoa usaintzea?  
nahiz soilik geratzen zaigun oroimenetatik usainetara bueltatzea...

Zuk ondo dakizu askotan ez dela nahikoa izaten imajinatzea:  
imajinatutako besarkadek ez dute oraindik bete inoren hutsunea.

Kontatuko dizut gogoan izan zaitudala egun astunegietan,  
eta orain dela momentua elkar zaintzeko zentzu guztietan.

Besarkada bat airera agian goizegi joan direnengatik,  
eta topa egingo dugu gure leihoetatik amestutako egunengatik.

Eta azken ilargiari kantatuko diogu, elkarrengandik gertu.  
Zaindu gintuztenak gogoan eta lagun onak ondoan, berriz arnasteko gertu.

## **BERRIZ BERPIZTU NAIZ** (Bide Ertzean)

Igaro ziren elur beltzak eta une urdinkarak,  
igaro ziren bakarrik geratzeko beldur-ikarak.  
Ekaitz etengabeak, iparretik haizeak  
betiko zirudienean zerua zabaldu zenidan.

Agortu baino lehen dosi berriaz gozatu nahi nuke  
bide ertzean geratzeko arriskua izanda ere, izanda ere.  
Jolasteko prest nago galdu edo irabazteko  
jokoan sartzeko prest nago.

Ze berriz berpiztu naiz,  
berriz argi naiz,  
berriz jaio naiz.  
Ta ez dut inondik nahi,  
hilik bizi nahi,  
itzaletan zai, itzaletan zai.

Heldu da itsasora abiatzeko sasoia,  
gaur askatu dira ene "marinelaren korapiloak".  
Partitzeko prest nago itsasgora hartzeko,  
ekaitza etorri baino lehen.

Ze berriz berpiztu naiz...

Gaur itsaso naiz, belauntzi naiz, kapitain naiz...

## **BESAMOTZA** (Tapia eta Leturia)

Etxean ikasiak ez zaizkidak berehalakoan ahaztuko.  
Badakik: nahi ta ezin, okerra izan eta zuzentzen gaitza.  
Lagun loratuak amets eta zigarro kiratsa  
Ez badu kirol izerdiduna inguruan.

Maitia hi haiz nere besamotza.  
Ene maitemin larrien truke,  
begirada miopearen moztasuna  
besterik eskatzen ez duena.

Txepelaren hego haize ergelak eta zintzoegi  
honen ipar orratzak hautsi dizkik dabenerako hire ezak.  
Maitia hi baihaiz nere besamotza,  
hire ezker faltak probokatzen nau, ene buruaz hi egiten nau.

Ene buruaz hi bai, alajainena ni alu gozo asko  
bakar haitza hire bizi minetako pendiz malkorretan.  
Kupida gabe jausi nauk gordina  
eta larrua bizirik hemen naukak maitia, besamotz maitia.

## **BESTERIK EZ** (Izaki Gardenak)

Zauri berri bat ixtear  
orbain zaharren ondoan.

Baina non zaude, non zaude orain?  
Hodeiei galde orain.

Kanta hau besterik ez dut,  
gutxiegi ezer eskatzeko.  
Orain arte engainatu zaitut,  
gehiegi daukat estaltzeko.

Bizi berri bat hastear  
putzu zaharren hondoan.

Baina non zaude...

## **BESTERIK EZ NAIZ** (Zea Mays)

Azalez jantzita ditut hezurak  
eta kolpez jantzi ditut beldurrak.  
Gezurrik ez dut poltsikoan:  
Ireki dizkidazu atepak,  
hautsi dizkidazu leihoak.  
Dudan onena azaleratu eta  
hondoratu dizkidazu mamuak.

Eta ni, ni hemen naiz,  
biluzik zure aurrean.  
Besterik ez naiz,  
zugan bizi nahian  
arima guztiak zurgatzeko gai naiz.

Zureztatu dituzu nire ametsak,  
besarkatu dizkidazu nire hitzak.  
Harrotasunez bete dizkidazu birikiak.  
Dena ematearen beldurrik ez dut orain,  
biluzik zure aurrean, besterik ez naiz.

Zugan iraun nahian  
errotazioa gelditzeko gai naiz.  
Zugan oxigeno izan nahian  
baso eta oihan izateko gai naiz.  
Zugan gelditu nahian  
denbora hiltzeko gai naiz.

# **BESTERIK EZAGUTU EZ ETA** (Mikel Laboa)

Besterik ezagutu ez eta  
ase, irrintzi zakar bat  
hautsi da zure gelako leihoan.

Besterik ezagutu ez eta  
ez ote zaude kezkatu  
eta zeuk ez diozu kasorik egin.

Besterik ezagutu ez eta  
ea eskuen artetik ez ote zaizkizun geroztik  
txistua dena kexu  
hots du zure muinaren bila.

Besterik ezagutu ez eta  
bizitzaren zenbait gauza eder eskapatzen ari  
eta zuk ez diozu kasurik egin.

Besterik, besterik ezagutu ez eta ...  
sabelpeko dardar ozena  
ez zaizu lainotuko  
hilko, hilko sortu artio.  
hilko, hilko sortu artio.



## **BETAZALAK ERAUZTEN** (Katamalo)

Desagertu egiten zara,  
ispiluaren aurrean,  
margotzen zaren bakoitzean.

Orduan, zeu zara hizpide,  
zeu zara laudorio,  
ez duzu parekorik.

Amak ez daki nor zaren,  
ispiluaren aurrean,  
margotzen zaren bakoitzean...

Bainan horrek, guzti horrek,  
ez dizu deus balio,  
lekukorikan ez badago.

Orduan, zeu zara hizpide...

Soilik begiak ixterakoan,  
itzultzen zara zeugana,  
betazalak erauztean...

# **BEXAMELA ETA PASTELA** (Maixa ta Ixiar)

Maite dut zuk laztantzea, dantzatzea,  
zure ezpainak xurgatzea, hortzen esmaltea.  
Baita ere zure garagar, zaporea,  
ahal denean lepotik, kosk egitea.

Ai bexamela eta pastela,  
ai bexamela...  
Ai bexamela eta pastela,  
ai bexamela...

Maite dut zu lotsatzea, dir-dir ikustea,  
nata mihiztea, bustitzea.  
Zeruan barrena, hegal egitea,  
eta bapatean, lur jotzea.

Ai Bexamela...

Maite dut oihukatzea, muxu ematea,  
zure malko gorrien, zuritzea.  
Emozionatzea, zu ferekatzea,  
eta maite zaitut, esatea.

## **BI MINUTUERO** (Hertzainak)

Quai de la Gare geltokiaren gainetik,  
iragaiten diren altzairu bortitzak,  
ortzaiz mugatutzat jo ditzazkezunean.  
Bihotza tinkatzen zaizu,  
hegoko itsasoraino tren bat doala pentsatzen,  
hasten baldin bazara bi minutuero herrimina.

Karrika zurpail desolatuetan haizea altxatzean,  
Abenidetako hosto gabeko, arbolen puntak makur eraziz.  
Txori traketsen gisara udaberri hilean molekuletan,  
ilargiraino airatzeko gogoaz hazten  
hasten baldin bazara bi minutuero herrimina.

Larru lehortua euriak umilki bustitzen dizunean  
zauri zabalaren zitzak piskat zabalduz.  
Etxera eta lagunei telefonatuko duzula  
bietan zin dagizunean gero beldurrak  
kurutzefikaturik kabinan ikaratzen  
hasten baldin bazara bi minutuero herrimina.

Izaizko lau taulen artean  
betiko etzana pausatzen.  
Imaginatzen zarenean, gutizia oro jaten dizun  
xangre maltzurra zeluletan barna  
hedatzen balitzaizuke behintzat  
zoriontsu izango zinatekela asmatzen  
hasten baldin bazara bi minutuero herrimina.

## **BI MUXU** (Rafa Rueda)

Gerra handiak dira maitea,  
nonbait Mesopotamietan.  
Hemen denbora doa  
marraskiloen gainean eta  
inurriak gerran daude.

Uholak izan dira laztana,  
lurrikara katodikoak.  
Nire Richter eskalan  
euli bat besoan behera lez,  
arrastorik utzi gabe.

Bezperak nahi ditut, biharamunik ez.  
Kilimak nire oinen azpian.

Nahi dut eta banaiz, hatz magi zeruertz,  
Suge bat ilargia.

Bi pauso mundua,  
bi putzu itsasoa,  
bi muxu eta ezer ez.

## **BIDEA ETA DENBORA** (Anari)

Bideak eta denborak bat egin duten unean  
balea eri baten moduan ohituraren putzuan  
lastaren laztana pisu, pausu larriz nabil  
nahiz ez dudan inor atzetik, nahiz inor ez dudan zain.

Aurrean biderik ez da,  
norberak egina ez bada.  
Pausu adina itzal atzean  
ta aurrean zelai eder bat, zelai eten bat.

Bueltarik ez eta aurrera ez dut nahi  
nahi dudana ez dut behar,  
ta behar omen dudana ez nahi.  
Haize zakarrak nola, maitatzen dutena  
dena desio arren neuretzat ez dut ezer nahi.

Eta ez diot inori ezer eskatzen  
ez dudalako eman nahi.  
Pausu larriz nabil nahiz inor, ezer ez dudan zain.  
Edo bai.

## **BIDEAN** (Txuma Murugarren)

Bidia luzia da, bai  
nahiz han-hemen batian den jorratzen,  
auzia bidaiaria izatian datza,  
osorik, bete betian.

Arnasarik galdu gabe  
zalantzaren osin beltzian, bidia luzia da.  
Arnasarik galdu gabe  
zalantzaren osin beltzian, bidia luzia da.

Eta bide ertzian aldika bada zuhaitz bat  
zenbaitetan xume, lerdan bestetan  
erroak sakon, zaren lurra duzu sendi  
zabal hegoak, ortzia duzu bizi.

Oraintxe abaroleku, oraintxe amaigabeko  
mentura, bidia luzia da.

Bidaia luze laburra da poz eta minez zeharkatua.  
Bidaia luze laburra da poz eta minez zeharkatua.  
Eta joan, beti zuaz bakarrik, bidia luzia da.  
Eta joan, beti zuaz bakarrik, bidia luzia da.

Bidia luzia da, bidia luzia da.

## **BIDE ERTZEAN** (Bide Ertzean)

Bide ertzean topatu ditut  
poesia, kantua ta desioa.  
Jeloskor gordetako leloa  
anai fidelaren boz herabea.

Bide ertzean ikusi ditut  
galduta amets eraitsiak.  
Eskean, bide ertzean  
aukera berri baten esperoan.

Ametsak noraezean galdu naiz endreduan  
Hitzeekin jolasean zai nago esperoan

Bide ertzean irentsi ditut  
bakardadearen argitan  
idatzitako lerroak,  
poza ta geroko poemak, poemak.

Zutaz kantatzeko jaio bide nintzen mundura.  
Zutaz kantatzeko jaio bide nintzen mundura.

# **BIDE LUZEA TERNUARAT** (Tadusak)

Kontxatik doa untzia, han konpainia guzia.  
Ternuarat badoazi zerbait nahiz irabazi.

Bide luze Ternuarat, itsasoa zabal harat.  
Zubirik ez pasatzeko marinelen salbatzeko.

Itsasoaren gainean untzitzar baten menean.  
Marinelak arriskuan herioaren eskuan.

Haize largoz badoazi  
zabalerat irabazi.  
Itsasoan barna urrun,  
begiz ezin ikus Larrun.

Elementak badarontsa,  
itsasoak abarrotsa.  
Haize tenpesta uxia da  
itsasoan maskarada.

Bere mastak galdu ditu,  
untzia motz da gelditu.  
Itsasoak hautsi lema,  
trebes galtzerat darama.

Han jotzen ditu kontristak,  
bendebal haize tenpestat.  
Denbora gaiztoa sartzan  
gabitau biak erortzen.

Marinelak harrituak  
tronpen jotzen unatuak.  
Gabetu indar guzietz  
etsitu bere biziez.

Uhin hautsiak gainetik  
iragaten trebesetik.  
Marinelak ererika  
untzi askan igerika.

Zeru guzia isuri,  
babazuza eta uri.  
Marinelak trenpatuak,  
hotz handiak jelatuak.

Furakanaren furia  
ifernuko iduria.  
Satan beltzak darabila  
untzien galtzen dabila.

Gaineko zubia hautsi,  
ura tilaperat jautsi.  
Tilapean ura gora,  
untzia doa hondora.

Bela guziak harturik,  
belatxoan anekaturik.  
Untzia badoa segiz  
itsasoa handiegiz.

Uhainek untzia joka,  
gora behera saltoka.  
Eta branka pulunpaka,  
kostaduba arrolaka.

Marinelak biluziak,  
luzatu nahiz biziak.  
Uhinpean igerika  
untzi puskei atxikika.

Gau beltzean ilunbean  
untzia tormentapean.  
Aparailua desegin,  
ilunez deus ezin egin.

Uhin baten bizkarrean  
bi uhinen hondarrean.  
Tirabira darabila,  
untziak agertzen gila.

Marinelaren ventura,  
itsasoan sepultura.  
Sekulako bere fina,  
etxerako berriz mina.



## **BIDEGURUTZEAN** (Gari)

Nahiz eta bidea hautsia izan,  
hautsiago ibiliko naiz ni.

Nahiz eta bidea hautsia izan,  
hautsiago ibiliko naiz ni.

Nahiz...

Nahiz eta bidea hautsia izan,  
hautsiago ibiliko naiz ni.

Nahiz eta bidea hautsia izan,  
hautsiago ibiliko naiz ni.

Maitia bihotzekua, bihotz engainagarria.

Maitia bihotzekua, bihotz engainagarria.

Bidegurutzean... Bidegurutzean...

Bidegurutzean... Bidegurutzean...

Edozein erabaki, errore bat da funtsean

eta amaieran ez da zuretzat

inun lekurik, inun lekurik, inun lekurik.

Bide hautsia, bide hautsia.

Nahiz eta bidea hautsia izan,  
hautsiago ibiliko naiz ni.

Nahiz eta bidea hautsia izan,  
hautsiago ibiliko naiz ni.

Bidegurutzean...

## **BIGARREN GEZIA** (Lorelei)

Orbainak zure zaurira narama.  
Bizipozak instintuen sabelera.  
Itzal honek muga amaigabera.

Bihotz isilen taupada,  
mutua den begirada.  
Begi ororen kresala,  
maitearen azala.

Ziur zaude  
negarrak biltzen diren karrikan.  
Non da euria?  
Barne uholdetan...

Maitasuna mugatu digun hesia,  
hitzten ondorioz itoa den hazia.  
Zulo gorri baten legezko jausia,  
gezi gozo gazia.

Maitasunaren, gezi gozo gazia.  
Sugearen, gezi gozo gazia.

# **BIHAR HELDUKO NATZAIZU** (Bide Ertzean)

Bihar helduko natzaizu goiza urratzera,  
gaua orraztera ene eskuekin.

Bihar helduko natzaizu pena ehizatzetik,  
laztan ikastetik, zure behakora.

Bihar helduko natzaizu gogo zaharrenekin,  
leiho zabalekin, bezperatik.

Bihar helduko natzaizu uda ozenetik,  
negu isilera, bion gorputzekin.

Bihar helduko natzaizu goiza urratzera,  
gaua orraztera ene eskuekin.

Pena ehizatzetik,  
laztan ikastetik, zure behakora.

Gogo zaharrenekin,  
leiho zabalekin, bezperatik.

Bihar helduko natzaizu...

# BIHOTZ BERRIAREKIN, MUNDU BERRIRA (Euripean sua)

SOL RE MIm RE  
Egutegiko apirilak bukatzear ditu egunak,

DO SOL

herdoillaz kraskaturik denboraren orratzak:

RE DO SOL

“Itotzen ari naiz, lagundu...”.

RE MIm RE

Ispiluari so egitean betiko memelo berbera;

DO SOL

bere zortezko eguna hauxe izango dela

RE DO SOL

pentsatzearekin pozik da.

SOL: 3-2-0-0-0-3

RE: X-X-0-2-3-2

MIm: 0-2-2-0-0-0

DO: X-3-2-0-1-0

Slm: X-2-4-4-3-2

Slm DO SOL Slm DO RE  
Geltokikiko trenbidean jarri ditu begiak,

DO SOL RE MIm DO SOL RE

betiko jendede arrotza soilik ametsetan murgildurik.

DO SOL RE MIm DO SOL RE

“Maddalen arren, bueltatu zaitez gaua a**ba**ildu arte;

DO SOL RE DO SOL

hodeiak sustraiekin lotzen direneko lurraldera joateko.

SOL RE MIm RE  
Bi hilabete dagoeneko itxoiten pasa ditut,

DO SOL RE DO SOL

Bitartian auzokuak futbola irratan dutela, ari dira amodioan”.

Slm DO SOL Slm DO RE  
Itxoitearen lezioa ez da aise ulertzen, beraz;

DO SOL RE MIm DO SOL RE

“Zertarako galdu denbora? Are urreduna baita”.

DO SOL RE MIm DO SOL RE  
Jaso gorputza, bihotz berria jarri... atera mundu berria.

DO SOL RE MIm DO RE SOL

Jaso gorputza, bihotz berria jarri... atera mundu berria.

# **BIHOTZ TAUPADA ETA LABANA** (Pasadena)

Ilunkeran leihoak piztu bezala itzartu naiz.  
Itzulera bidea beti da askoz luzeagoa.

Gezurrik handiena izan naiz,  
bihotz taupada ta labana.

Lainoa joan da baina zenetik ez da ezer orain.  
Jarraika nituenak zein ziren ere ez dut gogoan.

Egia biluzia izan naiz,  
bihotz taupada ta labana.

Ehiztariek odola usaindu dute  
eta ezin naiz ezkutatu gehiago.  
Beleak adi dira, oreinak izu.  
Zuen begien epaiaren zain nago.

Errautsa izan izan naiz ohartzean,  
bihotz taupada ta labana.

Ehiztariek odola usaindu dute...

## **BIHOTZA GALDU DUT** (Anari)

Bihotza galdu dut, nonbait, zure izera artean  
eta ero moduan nabil orain galduta, noraezean.  
Bidertzak sagar ta orbelez betetzen hasiak direnean,  
udazkena eskutitzak bidaltzen ari balitz bezala.

Zulo haundi bat badut orain hemen, bularraren erdian,  
ezerk betetzen ez duen zulo sakon ta iluna,  
bertan ehortzi nahi ditudan arren guri buruzko guziak  
zure hitzak entzuten ditut memoriaren irratan.

Eta euria ari du, aspaldi ez bezala,  
dena lutuz jantziaz pozik nunbait bailitzan.  
Utzidazu berriro galtzen zure izera artean  
han bakarrik aurkitu dezaket behin han galdu nuena.

## **BILUTSIK AZKENEAN UR BAZTERREAN** (Ganbara)

Bilutsik azkenean uraren bazterrean  
ilunabarra dela beranduki ohartuz.

Gauari esplikatz marinel zinela  
uhainek daramaten ontzi urrutian.

Bekaitzez eta penaz  
zoriari aitortuz,  
ez dela beste ontzirik  
sekulan igaroko, igaroko.

Joandakoen aurpegirik ezin gogoratz  
altxatzear dabilen lanbroaren haragotik.

Izenak eta izanak sekulako lurperatz  
hondartza aldakoi den oroitzapenean.

Itsasoari otoiztuz laster urra ditzala  
lehen kide zenituen bizidunen arrastoak, arrastoak.

Ontzia badoalako izengabearen uharteruntz  
zuk galdu zenituen bidetatik zehar.

Iritsiko delako Alexandriara  
perfume eta musikek handik agintzean.

Egunsenti haretan berdinduko direlako  
joan zirenen zoria eta bakartiaren ametsa, ametsa.

## **BISAI BERRIAK** (Berri Txarrak)

Mendeetan barrena gordea  
harri bat bihotzean.  
Lan eginez ordea herri bihurtua  
taupada bakoitzean.

Elorrixon zu ta ni bi indar, bi argi,  
iraganeko zubi ta geroaren irudi.

Elorrixon zu ta ni bi indar, bi argi,  
zeru zati honetan izarra bateginik.

Bisai berriak ditu orainak  
segitzeko ustean  
iraultza baten zainak  
Kolare gorriz haizeratzen hastean.

Elorrixon...

Asmo berri berritzaileen,  
lema gidatzeko asmoz.  
Asmo berri berritzaileei,  
berriz ekiteko gogoz.



## **BIZITZA TRISTE ETA EDERRA** (Joxe Ripiau)

Marokko Atlas aldea,  
Asni herri merkatuan  
neska berebiar baten begiak.  
Bizitza triste...  
Bizitza triste...

Ometepe uhartean  
kamioi batean hamaika  
ilunabarra gorri beroa.  
Bizitza triste...

Mexico taxi batean  
buru atzean, bortitza,  
pistola kanoi baten taktoa.  
Bizitza triste...

Pasaiako amildegian  
gauean larruzko txupaz  
beltzaran hura nere gainean.  
Bizitza triste...

"Viva la vida" esaldia  
Frida Kahlo-ren koadroan  
margotu zuenak hil zorian.  
Bizitza triste...

Bizitza triste eta ederra  
itsasoa ilun samar  
eskegi gabe telefono bat.  
Bizitza triste...

## **BIZITZAK** (Gari)

Bizitzak ez du amore ematen  
inon inola aurrera egin gogo du  
atseden gabe zoraturik neurrik ez baitu.

Bizitzak ez du etsitzen ez bada muga latzetan  
ez badu egiten amets oihanarekin  
egiten du desertuarekin.

Eta hala iraila garo gorridunak soilik elur soilik otso  
barren zabal eta izoztu izan nahiko zukeen.

Eta izan nahiko zukeen... eguzkiak  
argi huts eta zorrotz... eguzkiak  
erleen memoria ahulean... eguzkiak.  
Gaua berriz hastapenetako garaiaz oroitzen da bereziki  
orduan ez baitzen gaua besterik.

Era berean sekula ez edo berezi, beti berezi  
esaka dabil nire bihotza erabakitzen ditu zoritxarrez  
bere desira guztiak... bi hitz bakarretan.

## **BIZITZAK** (Izaro)

Mundu bat zugandik ihesi.  
Mende bat eraikia harresiz harresi.  
Zulo bat, zulo bat eta beste bi.  
Gorputz bat lurperatua bi aldiz.  
Edo hiru edo lau edo sei edo nork jakin.

Har motel bat azal zurian lausenka.  
Itsuan, oroiminetan errenka.  
Ez daki behin hura egon zela bizirik,  
aiaiaiaiai ez daki behin hura egon zela bizirik.  
Aiaiaiaiai beste norbaiten laztanen ehiztari  
ibili zela harek ez daki, ez daki.

Eraiki ditzagun bizitzak bion abizenekin.  
Begira nazatela zure begiek nire sudurraren gainetik.

Arrazoizko bihotz bat odol isurian,  
erreka lehor baten gorrian.  
Gerrian, gerrian, gerrian aztarnak gerrian,  
bizitzaren iturriren baten egarrian.

Eraiki ditzagun...

# **BIZITZAREKIN DANTZAN** (Urtz)

Erreka baten bazterrean,  
kitar hotsa haizean hedatuz.  
Suaren argitasun pean,  
itzal gera, gurekin ez daudenen antzera.

Denbora luze doan heinean,  
ederra dena leun ahitzen da.  
Heriotza baino txiki txikiagoa den,  
bizitzarekin dantzatu.

Etorkizuna da lekuko,  
itzaletan sinestu.  
Mendira igo eta ikusi,  
lagunekin ederragoa den mundua.

Denbora...

## **BIZKAIA MAITE** (Benito Lertxundi)

Bizkaia maite, atzo goizean ikusi zintudan,  
soineko xuriz jantzia,  
buruan orlegi, bihotzean sua.

Ene gogoaren ertzatik pasatzen,  
zure usain gozoa, lana,  
amodioa, itsasoa, ene baitan sartzen.

Atzo goizean entzun nuen  
zure berbaren oihartzuna,  
zure kantaren fereka, bihotzean kilika.  
Eta ohiartzunaren haunditasunean  
murgilduz joan nintzen jausika, hegaka.

Bart arratsean, arbasoen baratzaren ondoan,  
bertsotan eta dantzan lotu zinen alai.  
Piper eta gatzia, sabel emankor.

Olerkari penatuaren gozo eta mina,  
amodio eta kanta zure berba leun.  
Zure gatzaren bizia, zure burdinaren gorria  
dira gaur neretzat aterbe.

Bizkaia maite, atzo goizean ikusi zindudan.  
Soineko xuriz jantzia,  
buruan orlegi, bihotzean sua,  
lirain, sendo, eder.

# **BLUESAREN HERRIAN** (Juan Carlos Perez)

Nun dago ene lurra, izenik ere ez dakidan lur hori?  
Nun dago ene lurra? "Agian Caledonia", harek dio,  
"Agian, zure begiraden atzean, nere zain dago".

Duis, gero eta jende gutxiago Luintrako ferian,  
Duis, gero eta jende gutxiago Luintrako ferian,  
gaur igo naiz ferira...

"Ez dago nirea bezalako lurrik,  
tabaku eta ron lurra".  
Benny Moré-k kantatzen zuen,  
Benny Moré haundiak bere orkestrarekin.

Non dago ene lurra, izenik ere ez dakidan lur hori?  
Non dago ene lurra? "Agian, Caledonia", harek dio,  
"agian zure txima marroietan..."

Ez dago nirea bezalako lurrik,  
tabaku eta ron lurra, tabaku eta ron lurra.

Du e, du e, du e, du e, du e, du e,  
du e, du e, du e, du e  
du e, du e, du e, du e, du e, du e...

Agian hemen, zure txima marroietan.  
Agian hemen, zure txima marroietan.  
Agian hemen, zure txima marroietan.  
Agian hemen, Bluesaren herrian, Bluesaren herrian.  
Agian hemen, Bluesaren herrian, Bluesaren herrian,  
Bluesaren herrian, again hemen, Bluesaren herrian.

## **BOGA BOGA** (Delirium Tremens)

Boga boga... itsasorantz dijoaz  
senideak, lagunak eta neska lehorrean utzita:  
Boga boga... horrela da bizitza.

Kresala azalean, haizea aurpegian.  
Noizean behin gorrotoa diozu  
baina nire barnean maite duzu.

Boga boga...

Egun bat eta beste bat eta beste bat  
itsasoa ta zerua ikusten.

Kresala azalean, haizea aurpegian.  
Noizean behin gorrotoa diozu  
baina nire barnean maite duzu.  
Duintasuna itsasoan galduta.

## **BORDA ZAHARREAN** (Erramun Martikorena)

Euskal Herriko xoko batean  
Nafarroaren ipar aldean  
mendi gailur bi bistan direla  
eskuin Baigura ezker Iparla.  
Bien erdian ni ametsetan  
bihotz minean esku hutsetan  
gorantz begira,  
joan ezin nintekeen mendira  
kate tristeok laburrak dira.

Inoiz irten naiz etxetik gora  
oihan zokotik mendi kaskora.  
Goizean goizik etxera sartu  
nehor ez dadin nitaz ohartu.  
Egun, euriak harrapatzean  
sartu naiz ardi borda batean  
argi begiak,  
ikatzez margoturik hizkiak  
gerla garaiko iheslariak.

Euskal izenak dagoz lerroan  
haien urratsak ditut gogoan.  
Beren lurretik doaz ihesi  
itzulerakoik ez dut ikusi.  
Urteen karga hor daramate  
Euskal Herria zer den diote.  
Bihotz dardara...  
Ni ere berdin nator bordara,  
zu kondairaren gordailu zara.

Egur zaharreko lanai begira  
galdezka nago: non ote dira?  
Hainbat iragan zure barnetik  
orain ni ere bide beretik.  
Borda zahar zure baitan dabila  
abertzale on oihu ixila.  
Zaude lekuko.  
Egiaz joka nahi dugulako  
gure burruka ez da galduko.

Zu hor zutitu zintuztenetik  
zenbat hil dira herriagatik?  
Ikusi duzu hainbat gudari  
odol isurtzen bere lurrari.  
Abertzaleak ez du etsiko  
etsaien esku ez du utziko.  
Zu ez erori.  
Ireki zugan heldu denari  
lehengo liburu zahar bat iduri.

Euskal sustraien arnas bizia  
zutan badago zer ikasia.  
Barkatu gure eskerrik eza  
jarrai eskaintzen zure babesari.  
Gure lurrean oinperatuak  
bakardadera kondenatuak,  
gu eta euskera  
zure barnean bilduko gera  
zazpi lurralde denok batera.



## **BORISENA** (Txuma Murugarren)

Borisen a itxita zegoen arratsalde hartan,  
ezin izan genuen txuririk hartu  
eta zeure begiak nekatu ziren bapatian,  
bizitzaren nekazioak emandako logure mugagabeagatik.

Kotxian arrotz sentitzen ginen, hutsik,  
eta beste nonbait topatzen saiatu ginen.  
Igardia zen, astiaren zeroa  
eta inor ez zebilen kalia, kalia.

Hotz zinen, baina etzegoen mundu honetan nahiko bero  
zure zulo beltzetik jaiotzen zen hotza baretzeko.  
Gaur ezin izan dut lorik egin esan zenidan  
gasolindegian ginebra botilak erosten genituenian.

Eta hala ere zeure begiak erdi itxita,  
munduak ematen zizun nekazioa.  
Noizbait oroitu zinen haurtzaro urruneko udaldiez,  
ibai ertzian lo zinela, eta noren oroimenak ziren hoiek  
galdetu zenuen zure baitan, nor zen sasoi hortan  
edo pixkat geroxeago hil zen gizaki garbia.

Zeure amaren etxian, oraindik argazki zahar hortan  
ikus dezakezuna, liburu baten aurrean,  
eskolan, begi handi irekiak,  
munduak nekatu gabeko begi hoiek  
zituen haur miresgarria non zen?

## **BORREROAK BADITU MILAKA AURPEGI** (Negu Gorriak)

Europak gerra dakar, badakar. Gora Paris-Dakar!  
Gilotina beti dator hegoaren iparraldetik, gainetik.  
Gezurrezko ohitura, kultura. Non dago tortura?  
Esistitzen ez dena, ez da esistitzen ta kito, txikito.

Borreruak baditu milaka aurpegi.

Kazetari zipaio, tokaio, kartzelero arraio.  
Sindikatuan dabil funtzionari gizarajoa, majoa.  
Goikoa beti ona, funtziona. Non dago komona?  
Burokrazia beltza, burokrazia abertzalea ere bai.

Borreruak baditu milaka aurpegi...

Telebistako parlantxina, kotxina: "gaizki dabil Txina".  
Begiratu zure salan nonahi dago estatua, sartua.  
Gasteiz edo Washington, Washington Bush edo BushClinton.  
Nik ere nahi dut bozkatu gure hurrengo borrarua, erua.

Borreruak baditu milaka aurpegi...

## **BOULEVARDEKO ERLOJUA** (Urtz)

Boulevardeko erlojuak,  
taupada kolpe tristez darrai,  
baina bizitzaren orratzek,  
ez dute atzera egin nahi.

Bakarrik nago ixil deslai, galdu gintuen trenaren zai.  
Oroitzapenen erruz orain, ez naiz amets egiteko gai.

Iraganaren andenetan, ahaztuta utzi genituen.  
Gure sekretu etsituak, itxaropen hezituak.

Zure diamantezko begiek, bihotza urratu zidaten.  
Hondartzan ez dago perlarik, maskor hutsen dudak besterik.

La noche no quiere venir,  
para que tú no vengas ni yo pueda ir.  
Ni la noche ni el día quieren venir,  
para que por ti muera y tú mueras por mí.

Asfaltosko oihan honetan, irrifar baten bila nabil.  
Amaiera gabeko filmak, malkorik gabeko iraultzak.

Pattar garesti honek ez du, zuk adina bero ematen.  
Baina parte zaharran tabernek, ez dute maitasunik saltzen.

# **BRODATZEN ARI NINTZEN** (T. Artola-A. Zubiria)

Brodatzen ari nintzen, ene salan jarririk;  
Aire bat entzun nuen itsasoko aldetik;  
Itsasoko aldetik, untzian kantaturik.

Jaun kapitaina, amak igortzen nau zugana.  
Jin zaiten afaitera eta deskantsatzera,  
hantxet deskantsatzera, salaren ikustera.

Andre gazte xarmanta zu sar zaite untzira,  
gurekin afaitera eta deskantsatzera,  
hantxe deskantsatzera, salaren ikustera.

Andre gazte xarmanta zu sar zaite untzira,  
han emaiten diote lo belarra papora  
eta untzi haundian lo dago gaixo haurra.

Jaun kapitaina, nora ekarri nauzu huna?  
Zalu itzul nezazu hartu nauzun lekura.  
hartu nauzun lekura, aitaamen gortera.

Andre gazte xarmanta, hori ezin egina,  
hiru ehun lekutan juanak gira aintzina...  
Ene meneko zira, orai duzu orena...

Andre gazte xarmantak hor hartzen du ezpata  
bihotzetik sartzen ta hila doa lurrera!  
Aldiz haren arima hegaldaka zerura!

Hiru ehun lekutan dago itsas lehihorra:  
Oi Ama Anderea, so egizu leihora...  
Zur alaba gaixoa, uhinak darabila.

# **BRUNCH IN THE LODGE** (Don Inorrez)

Igandea da Brooklyn auzoan  
uda beteko giroa.  
Gospela ez dugu maite  
brunch bat egitera goaz.

Etxera itzuli aurretik  
bakeak egingo al ditugu yankiekin?

Hipster batzuen jatetxea  
aukeratu dugu azkenian  
zoriontsu dirudite  
pozik euren bizimoldean.

Zerbitzaria ere, lan eta lan  
ari da atsegin handiz.

Bloody Mary bat, Bloody Mary bi  
bakea gurekin izan bedi, aaaaaaaa...

Denetariko jendia  
topatu dugu hirian,  
stablishment-aren aurrean  
suminduta dagoena.

Zerikusi gutxi dute,  
Etxe Zurian dagoen pizti-jendearekin.

Bloody Mary bat, Bloody Mary bi  
den-dena ez da galdu oraindik.  
Atera beste bat, atera beste bi  
bake pixka bat izan bedi, aaaaaaaa...

## **B.S.O.** (Negu Gorriak)

Lagun batek, poetak, esan zidan harro zegoela.  
Zilegi ez bazen ere, harro zegoela.  
Askoz gustorago sentitzen bait zen, kalean.  
Literatura establezituaren  
party intelektualetan baino.

Sustraiak, rock, rap, reggae.  
Sustraiak, rock, rap, reggae.  
Sustraiak, rock, rap, reggae.

Goizaldeko bostetan herrian  
irekitzen duten lehenengo tabernan,  
Itxurazkoa ez bazen ere, lehenengo tabernan.  
Urdanga, txulo, dealer, mozkortiaz inguraturik.  
Eta speed-ak lo egiten uzten ez duen  
jendearen konpainiaz entzun nion.

Sustraiak, rock, rap reggae, ...

Komuneko paretan graffiti batek egin berria:  
"Ghettotik atera gorrotoa antolatu" seinalatzen zidan  
gizarte honi zor diogu amorrua.  
Ordea ni ere gustora nengoen  
gure Banda Sonora dastatzen...

Sustraiak, rock, rap reggae, ...

## **BURDIN JANTZIA** (Izaki Gardenak)

Zaharrak ez dio hiltzeari uzten,  
eta berria oinaze artean jaiotzeke dago.  
Garai etsia.

Neurrira egin dute burdin jantzia,  
gezur sorta berria, aaaa aaaa.

Geldiarazleak, ziztatzen ari zaizkigun eztenak.  
Nola senti aldea inoiz aurretik mugitu ez denak?

Neurrira egin dute burdin jantzia,  
gezur sorta berria.

Ta irabazten utzi ziguten guztia  
desagertzen hasi da.

## **BYE, BYE, GIZONTXO** (Ruper Ordorika)

Oso gustukoa dut zure koloredun kamisa  
igande gaueko azken autobusean zoazela.  
Etxeak ospelak dira eta kalea goibela,  
telediarixoko gizonak ez du jakin nahi  
gaur arratsean izandako abenturaz.

Ez tristetu gehiago gizontxo,  
Rosa itzuliko da berriro  
datorren hilabeteko egunen batetan.

Gaztiak ginen kasik orain dela gutxi,  
hamar urte demagun, gure amak ez baleki.  
Bataren atzetik bestia, egun multzoa  
eta horri jendeak deritzo bizitzea.  
Zeatik deritzo bizitzea?

Baina benetan ez sumindu gizontxo.  
Oso polita dakarzun koadrozko jaka,  
zine-sarrerak, erretratua, orrazia.

Lo egizu, dagoeneko prest daukazu  
mesanotxean kiniela, ohe bikoitza berotu behar  
bai, bataila bortitzenak urrun xamar beti,  
beste nonbait gauaren isilpean aurreratzen  
irabazleen biba astunak.

Lo egizu gizontxo, abaildurik zoaz  
isil-isilik eta oso arin  
gaueko azken autobusean.



## CALIFORNIA 1930ean (Ganbara)

Hemeretzi ehun eta hogeita hamarreen  
Kalifornian bizi naiz boltu ederrean  
iguzkiak berotzen uda-hatsarrean  
arbolen pean nago jarririk lurrean,  
gogoa lanean,  
izpiritu barnean  
zihurtzi galdean...  
...lagun nezazu, Jainkoa, oraingo xedean.

Ene xedeak badu segur parabola;  
ez dakit nundik hasi, ez finitu nola!  
ez baita urrun heltzen nik dudan eskola  
ikusiak etzazket ahanzi nehola,  
maite dut artola  
bizi gira... nola?  
Erraitea etzait axola,  
entzuteko balio du jitea bortala.

Aberastea aise da, bai, Kalifornian,  
gauetz eta egunez ari gira lanean,  
euria ari delarik, ez sartzen barnean,  
Jainkoa ere ahanzten igande egunean;  
ikus azue ordean  
gure Euskal Herrian,  
ariz gisa berean,  
jendea bizi daike "harriaren gainean".

Egunak primaderan doatzi luzatuz,  
lorek ere pausatzen ekhiak berduz,  
hoien batasunean etsenplia hartuz  
goazen lurrean oro elgarri lagunduz!  
Jinkoa otoiztuz,  
amodioa hartuz,  
hutsak oro barkatuz,  
munduan bizi gindazke guziak gustuz.

Neure etxe ondoan hostatzen platana,  
noiz itzuliren ote naiz neure  
amagana?  
Arrosario pare bat partitzean emana,  
horien inguratzeko eman zautan bana,  
Zeruko Jaun ona,  
gau eta eguna,  
labur zaitu Jauna  
Amaren ikusteko emanez zoriona.

Artzain hau pentsuetan ez da lotsatua,  
aditzaleak duke otoi barkatua!  
oharturik nola den egia unhatua,  
horren laguntzeko da lan huni lotua,  
ikusiz mundua  
nola den galdua,  
arima saldua,  
salba gaitzazu, otoi, zeruko Jainkoa.

## **CLASH ETA PISTOLS** (Itoiz)

Euri tantak gordetzen nazkatutako kalia  
hiri triste bat "After eta Post", "Psicosis Colectiva".

Burua hiltzen makal-makal ari dira aiduruak  
bijilatzen dis-disimuluaz, disimuluaz.

"Clash" eta "Pistols" antxobetarik atunetara  
irradi batek, etsi-etsian, ematen azkeneko kantak.

Tristeziaz beteriko gelatan pakia  
ez haizerik, isiltasuna gorputzetan blai.

Bukaera da, bukaera aurrentitzen da.  
Arratsalde euritsua kameleoientzat.

Zelai berdeetako irudiak atzerantzka arin.  
Zeinek gidatzen du kotxe hau? Zeinek? Are you going with me?

Txalo gorrak jabetzen dijoaz ene walkyaren  
aurikularretan eta apurka-apurka erotzen naute.

Bukaera da...

# **DAMA GAZTE XARMANT BAT** (Benito Lertxundi)

Dama gazte xarmant bat jiten zaut bixta ra,  
iduritzen baitzeraut zeruko izarra!!  
Ama batek hazteko, hori zerbait bada.  
Gure salbatzaileak kontserba dezala!!  
Tiara, tiarara, tiarara, kontserba dezala!!

"Gabon gizon gaztea, konpañiarekin!!  
Gostu du egotiak ixtant bat zurekin.  
Badakizu mintzaten errespetuarekin,  
jainkoak har zitzala hil-ondoan berekin!!"  
Trala tralara tralara, hil-ondoan berekin!!

"Ene maite pollita non ote den bizi,  
bazinakikeia zuk haren zerbait berri?  
Aspaldi ikustera joan nahia bethi...  
errozu ene partez, milaka goraintzi."  
Trala tralara tralara, milaka goraintzi.

"Ez zinuke ia hobe zauhurrek joaitea,  
Nitaz igorri gabe komisionea?  
Samurturen ote den ez zaitela fida;  
Zatoz enekin eta, biak joanen gira."  
Trala tralara tralara, biak joanen gira.

## **DANTZAN EGIN LASAI, NORMAN** (Joxe Ripiau)

Etxe ilun batian bizi izan zinen,  
musikarik gabeko etxe batian.  
Laztanik ez zure gorputz txuri argalian.  
Farre ittekotan ere beti modu urdurian.

Baina nik kanta bat egingo dizut,  
zuri Norman Bates poz batian dantzan eiteko.  
Lapurto zizuten zorientasuna  
musika bitartian izan dezazun.

Dantzan egin lasai Norman Bates,  
galderari galdetu neska ederrakin.  
Dantzan egin lasai Norman Bates,  
ez dezu ta honezkero beharko labanik.

Baina nik kanta bat egingo dizut...

# DARDARA HURA (Don Inorrez)

Han ginen, aita, senideok;  
joan zinenean utzitako  
baratzera bilduak.  
Leuna eta gozoa zen haizia,  
bizia belar berriaren usaina.  
Eta bapatian isildu egin ginen.

Zu al zinen, aita, zu al zinen  
airean zebilen dardara hura?  
Zu al zinen? Zu al zinen?

Han ginen, aita, hitzik gabe,  
zuk ukituak zenituen  
haiek ukitzeko beldurrez.  
Lanabesak, altzariak, harria...  
Denak egunen joanak izoztuta.  
Begiak jaso genituen orduan.

Zu al zinen, aita...

## **DEI BAT** (Mikel Moreno)

Dei bat espero duzu azken aldian,  
nekez plazebo izan daitekeena.  
Erantzuna dut, begi goibel haientzat badut.  
Itxaron nazu han, ilundu artean, iada bidean nauzu.

Heldu nau gabeziak,  
esan zenidan tren geltokiko atean.  
Ez galdetu zergaitia ta galdu ginen hirian.

Goaz? Gidoirik gabe, orri zuri batean.  
Gauetz jantziko gara super heroiaz.  
Ta iluntzen badu eta izarrak argitzen ez badu,  
ez begira atzera, inoiz ez atzera, itzaletan bagaitu.

Heldu nau gabeziak...

Irentsi gintuen metropoliak,  
eraman gintuen alkarren desirak.  
Nor ginen itzal artean? Biok aske jende artean.  
Ezin ahaztu! Zinez garaiezinak!

Heldu nau gabeziak...

Ta iluntzen badu, argitu arte izango nauzu.  
Ziur badela izarren bat gure zai.

Bitartean jarri dezagun mundua dantzan,  
heldu ta jarri dezagun mundua zalantzan.

## DE MÁS (Izaro)

El frío no me aprieta más de lo esperado.  
Aunque no lo creía hoy estás difuminado,  
pintado a carboncillo en un papel ajado.

El cielo no me llueve más de lo esperado.  
Tengo goteras y grietas del recuerdo anhelado,  
pero de todo eso yo ya me encargado.

Te guardaré en las noches de verano,  
te guardaré donde no te tenga a mano.  
Te guardaré en las noches de verano,  
te guardaré donde no te tenga a mano.

Porque ahora el cielo no se estrella más de lo sperado.  
Ya huelen las flores a un futuro soleado,  
que hasta en la pena hay tierra y se han enraizado.

Te guardaré...

Donde no te tenga a mano, donde no te tenga a mano.  
Donde no te tenga a mano, donde no te tenga a mano.

## **DENA** (Izaki Gardenak)

Zuek sentitzen al zarete nire antzera,  
itsasoaren aurrean baldin bazeundete bezala?  
Irribarrea marrazten zaizu egunero begietan,  
ez utzi olatu ilunek ezabatzerik.

Dena eskaintzen dut guztiaren truke.  
Gutxi eskatzen dut, dena nahi nuke.  
Lagundu goizero mundu hau ulertzen,  
begiak ireki gabe ikusten.

Beldurrek lotuta naukate, argiek itsututa.  
Ilunpetan bizitzera ohitu ginen aspaldi.  
Agian arrazoia dute eta gu gaude okertuta,  
noiz egin genion uko zorte onari?

Ikusten lagundu, argiek itsutu naute,  
mesedez lagundu ikusten!  
Doinu bat entzun dut, nonbaitetik deitu naute,  
mesedez lagundu ikusten!



## **DENA ALDATZEN DA** (Julio Numhauser / Inés Osinaga)

Aldatzen da azalekoa, muina ere aldatzen da;  
aldatzen da pentsaera, munduan dena aldatzen da.  
Klima aldatzen da aroz eta artaldeak zelaiz;  
dena aldatzen da, beraz ez harritu aldatzen banaiz.

Eskuz esku aldatzen du dirdira diamanteak,  
txoriak habia eta arnasa amoranteak.  
Ibiltariak bidea aldatu egiten du maiz;  
dena aldatzen da, beraz ez harritu aldatzen banaiz.

Dena, dena aldatzen da, dena aldatzen da...

Gauetz aldatzen da aldez eguzkiaren sarea;  
udaberrian soinekoz aldatzen da landarea.  
Piztiak ilajez eta amama zaharrak bisaiz,  
dena aldatzen da, beraz ez harritu aldatzen banaiz.

Dena, dena aldatzen da, dena aldatzen da...

Ordea, ez da aldatzen ezergatik nire grina;  
nire herriaren memoria, nire jendearen mina.  
Bart aldatu zenak bihar aldatzen segi dezala,  
paraje urrunotan ni aldatu naizen bezala.

Dena, dena aldatzen da, dena aldatzen da...

## DENA EZ DENEAN EZER (Beira)

Zu ez zarenean dena,  
izan al ninteke ezer?  
Ez nezakeenean uler  
sentitzen ari naizena,  
zer da egin behar dena,  
dena bukatu ondoren?  
Erdibitzear zegoen  
mundu batetik bi mundu  
erditu, eta urrundu,  
zatitan lehertu baino lehen?

Maiz negarretan leherturik,  
babes pozoindu bat behar:  
Besarkatzen dugu elkar,  
elkar ezin ulerturik  
eta orduan, urturik,  
biak haragi ta gezur  
(bata bestearen beldur,  
noiz ihes egingo digun...)  
Noiz bihurtu zitzaizkigun  
besoak galdera ikur?

Ustekabean leihotik  
lapur isilen antzera  
negua sartu ote da?  
Ta sartu bada, zergatik  
sartu den ere ez dakit.  
Zure ta nire bihotzak  
besarkatu ditu hotzak  
sortzeko bihotzikarak  
bihurtzeraino izarak  
txikiegiak biontzat.

Usoak hegan egin du.  
Hoztutako izarekin  
bandera zuriak egin  
eta zeruan astindu.

Baina bihotz maitemindu  
batentzat bake koldarra  
beti izaten da txarra  
Ez dut nahi bakerik jada  
zu-etena baldin bada  
bake posible bakarria.

Zer egingo dugu orain  
zauritutako soldadu  
bat baino ez bagara gu?  
Zer? Odoldutako lur-gain  
honetan bala baten zain  
itxarotea besterik?  
Ez badugu, sentitzerik  
gure loturatan aske  
ta, gure munduaz beste  
egiteko adorerik.

Lehengo zero orlegiak  
daude itzalez sututa.  
Zein tximistak itsututa  
galdu ditugu begiak,  
sentimenduak, egiak?  
Zein harreman da gurea,  
esperantzarik gabea?  
Gurea bada maitea  
trumoi bat eta bestea  
lotzen dituen barea.

Trumoi ondorengo trumoi  
hauetara errenditu  
rutinak bihurtu ditu  
aho hau eta ohe ohi  
hura, ahazteko arrazoi.  
Nahiz eta iragan eder  
hura faltan bota laster,  
onar dezagun azkena  
ezer ez delako zena  
dena ez denean ezer.

## **DENA OSKOL** (Izaki Gardenak)

Susmoa da bainan agian hankasartze.  
Ez dute balio jada ikasteko ere.  
Ta zaila da, baina pentsa guztia barruan gordez  
iraungo duzula bertan ito arte.

Bideak txiki egin zaitu, itzalek hartu  
ta orain dena zara oskol.

Nahi zenuke labana zorroztu berrien  
distira hotz hori gordetzea zure hitzek.  
Bilatu bai, baina ez duzu egin beharko zenukeen  
hori azaltzeko aditz egokirik aurkitzen.

Bideak txiki egin zaitu, itzalek hartu  
ta orain dena zara oskol.

Hormatua duzu azala  
ta muinetara iristerik ez dago.

# DENAK ALA INOR EZ (Mikel Laboa)

Gatibua; nork libratuko?  
Leize zuloan daudenek ikusiko,  
zure garraxiak adituko;  
gatibuek zaituzte libratuko.

Denak ala inor ez, dena ala ezer ez.  
Bakarka ezin da fusilak ala kateak  
denak ala inor ez, dena ala ezer ez.

Gose zaudena; nork asetuko?  
ogia nahi dueneri,  
gose daudenek, ogia emango  
bidea diote erakutsiko.

Denak ala inor ez...

Galtzaile; nork mendekatuko?  
zaurituekin alkartuz  
guk zaurituek, zapalduak  
zu zaitugu mendekatuko.

Denak ala inor ez...

Gizon galdua; nork lagunduko?  
miseria sofri ezin dutenak,  
gaur ez bihar izan dadin eguna  
galduekin gara alkartuko.

Denak ala inor ez...

## **DENBORA** (Anari)

Ozeanoak pasatzen dittuzten  
arrain bakartiak lez, errari,  
naufrago gabiltz intxaur oskol baten,  
haize erauntsien mirabe, norabide gabe.

Ez dakigu zenbat denbora falta den,  
ez zenbat behar den, nora goazen.  
Erlojuak hautsi genituen eta orain  
area eskuetan, eskuetatik ihes.

Emaidazu eskua eta oinutsik  
iragango dugu elkarrekin, denbora,  
memoriaren errautsen gainean  
oin hutsak errez, denbora.

Atzoko suen hausterrek oraindik  
erretzen badute ere segi aurrera.  
Ez dizut emango galderarik ezidazu  
eskatu erantzunik, goazen aurrera.

Bihotza emango dizut nik,  
trikuazal baten bildurik,  
hautsi ez dadin, mindu ez dadin,  
urra ez dadin, bilduta emango dizut nik.

## **DENBORA GELDIAN** (Beti Mugan)

Igo nere zaldira erotuta dago.  
Mendi horren gailurrera,  
zaitu eramango.  
Goraino iristean,  
jarraitu igotzen.  
Buruaren bideak,  
ez du helmugik ezagutzen.

Nik etzaitut eramango,  
mugiezin bait nago.  
Marrazki bizidunak  
aztertzen gauero.

Leihotik at begira, atso bat bezala.  
Denbora geldiari denbora emanaz,  
denbora geldiari denbora emanaz...

## **DESERTUA** (Anari)

Arean naiz, are pila hontan,  
arez beterik ditut ametsak eta bihotza.  
Basoak harri ta harriak are,  
lehen izan zen zerbaiten ondare.

Memoriaren dunak haizearen mirabe.  
Ezin heldu ezerra, heldu lekurik ez du ematen.  
Ura amets hutsa da hemen,  
desertu honek neu nau edaten.

Hobe egarri izan eta urik ez,  
ura izan ta egarririk ez baino.  
Ta txoriak kableetan  
nire hitzetatik zureetaraino.

# DESITXURATUZ (Jon Gurrutxaga)

Ezaren irudi hutsal erretratueta azkena,  
hareazko Goliat bat ustez, harri-kartoizko zer zekena.  
Ahoak letra larriz bete hitzez izaki gardena,  
desitxuratuta biluzik daude la dioena.

Zinez salduko didazu ezin gezurrago dena?  
Itxuraren jaka urdinik gabe deus ere, ez dena.  
Oka egin arte letra larriz harro erroturik dena,  
desitxuratzeko beldurra hezurmuinetan duena.

Uuuuuuuuuu, des-itxuratuz...

Uuuuuuuuuu, des-itxuratuz...

Uuuuuuuuuu...

Zure irudiko ez dut nahi itxuraz beste egin nahi dut,  
Irudizko tiranoetatik urrun bide berri bat urratu.  
Harri-kartoi, harerik gabeko argazkietan lehenak,  
begiak makal izan arren begirada erne dutenak.

Zain nazazu! Desitxuratu!

Zain nazazu! Desitxuratu!

Zain nazazu! Desitxuratu!

Zain nazazu! Desitxuratu!



## **DESNÚDAME, DESDÚDAME** (Anari)

Argia itzaltzean zenbait gauza ikusten den lez,  
isiltzean esan nahi ez dena azaltzen.  
Eta maiz, zure ahoak isiltzen dituen hitzak,  
zure begiek oihukatzen dituzte.

Zure begien zulora abailtzen naiz,  
haizeak jota ko txori bat lez;  
eta esaten duzun hori dena  
baino gehixo zure atzian  
nor izkututzen den jakin nahi nuke.

Etorri eta kenduizkidazu arropak,  
kenduizkidazu dudak, biluztu nazazu,  
hitz egin dezagun ezin esan daiteken hortaz,  
begi biluziz begiratu elkar,  
badakizu, ezjakina beti izango dela nagusi;  
hori gabe ezingo ginateke bizi...

## **DESOLATIO** (Itoiz)

Esaten du ene hiztegi batek  
desolamendu hitza latinezko  
"Desolatio" hartatik datorrela  
Genitiboz "desolationis".

Dio baita ere mila seiehun eta  
hamabigarren urtean sortu  
eta idatzi zela lehenengo aldiz  
antzara txuri baten lumaz.  
Eta bere esanahiak direla  
"bakardade, ruina, hondamen"...

Baina ordea ez dio ezer,  
kaletik doan jendearen bihotzetaz.

Esaten du ene hiztegi batek  
desolamendu hitza latinezko  
"Desolatio" hartatik datorrela  
Genitiboz "desolationis".

Baina ordea ez dio ezer,  
gure bihotzaz, zutaz eta nitaz  
kartzela edo kuarteletako patioaz...

O ez, o ez. O ez, o ez.

## **DISTIRA vs. ITZALA** (Don Inorrez)

Erauntsiak luze jo zuen.  
Ilun hartan argitasunik etzen.  
Ibaiaren uhaldia baretzian,  
iritsi zen argia.

Errekaren ertzean  
mapa abandonatu bat  
lokatzak janda, lokatzak janda.  
Mapa abandonatu bat  
errekaren ertzean  
lokatzak janda, lokatzak janda.

Distira itzalaren kontra,  
distira itzalaren kontra,  
distira itzalaren kontra, borroka betian.

Ibaiaren emaria baretzian,  
iritsi zen, iritsi zen, iritsi zen argia.

## **DOLUA** (Mikel Moreno)

Norabide guztien bide gurutzean gara.  
Aurrez ibili ginen bainan orain beldur gara.  
Nondik nora joan desirak hots egitean  
martxoaren 12an?

Udazkenaren zain nekez eutsi ditut  
hosto garaituen moduan  
jausi egin diren gure pasarteko azken zutabeak.  
Ta urruntzen goaz, ta distantzian hegaztia naiz.  
Oroitzapenak suntsi ez nadila.

Inoiz asmatuko dugu berriz lekurik  
mina sumatzeko beldur bagara ere?  
Inoiz asmatuko dugu berriz lekurik  
urruntzen garen hontan,  
arrotz bihurtu baino lehen?  
Hegaztia naiz!  
Ta distantzian urruntzen naiz.

Gaueko ordu luzetan  
sumatu dut nondik nora joan.  
Ibiltzen oroitzen naizenez,  
hegaz noa.

# DONOSTIAKO HIRU DAMATXO (Herrikoia)

Donostiako hiru damatxo  
Erreterian dendari.  
Josten ere badakite baina  
ardoa edaten hobeki.  
Eta kriskitin kraskitin,  
larrosa krabelin,  
ardoa edaten hobeki.

Donostiako Gaztelupeko  
sagardoaren gozoa,  
hantxe edaten ari nintzala  
hautsi zitzaidan basoa,  
Eta kriskitin kraskitin,  
arrosa krabelin,  
basoa kristalezkoa.

Donostiako hiru damatxo  
hirurak gona gorriak,  
sartutzen dira tabernara ta  
irtetzen dira hordiak  
Eta kriskitin kraskitin,  
arrosa krabelin,  
irtetzen dira hordiak.

Donostiako hiru damatxo  
egin omen dute apustu,  
zeinek ardo gehiago edanda,  
zein gutxiago mozkortu.  
Eta kriskitin kraskitin,  
arrosa krabelin,  
zein gutxiago mozkortu.

Donostiako hiru damatxo  
Erreteriko kalean,  
egunez oso triste ibili,  
baina dantzatu gauean.  
Eta kriskitin kraskitin,  
arrosa krabelin,  
baina dantzatu gauean.

Donostiako neskatxatxoak  
kalera nahi dutenean:  
- Ama, piperrik ez dago eta  
banoa salto batean.  
Eta kriskitin kraskitin,  
arrosa krabelin,  
banoa salto batean.

## DUINTASUNEZ EUTSI (Des-kontrol)

Amorerik eman gabe, zuen leialtasunak  
dena merezi duela argi ikusi dugu.  
Gau iluna begirada, begirada maltzurak  
Bizi joko eroa, sentimenduz bustia.

Duintasunez jarraitzen diogu,  
aspaldi ekin genion bideari.  
Guzti hau aurrera eramaten saiatzen gera,  
pena merezi duen inor bidean ahaztu gabe!!

Amorerik eman gabe...

Bizitzan gogor jokatzeko ikasi dugu,  
aktitude eta konpromezu bati eutsiz  
harro sentitzen gara atzo, gaur eta beti.  
Zuen aurrean izanda, beti aurrean izanda!!  
Zuen aurrean izanda!!

Amorerik eman gabe...

## **E. JAUNA** (Don Inorrez)

E. jauna etxeko satora jaisten da  
bere baitan argi sobera dagoenian.  
Katu batek begiratzen dio piano gainetik,  
mamu baten hats epela heldu zaio atzetik.  
Kanta bat ondu behar du,  
kanta bat biharamunera iristeko.

E. jauna paseora doa iluntzean,  
auzoko telebistak pizten direnien,  
hontzuri batek begiratzen dio zuhaitz artetik,  
soinu gordeak heldu zaizkio bide bazterretik.  
Kanta bat ondu behar du,  
kanta bat biharamunera iristeko.

E. jauna etxera itzultzen da goizaldera,  
arrebaren ahotsa entzuten duenian:  
"oi, anaia, ez nuke mututu nahi hil aurretik;  
oi, anaia, atera nazazu ilunpe hontatik.  
Kanta bat entzun behar dut,  
Kanta bat biharamunera iristeko".

## **EBAMIRENTXU JOAN ZEN** (Fórmula V / Drindots)

Ebamirentxu joan zen eguzki bila hondartzara.  
Marradun bikinia eta maleta hartuta.  
Bera joan zen Benidorm aldera ni bakarrik utzita,  
inolako erruki gabe Ebamirentxu joan zen.

Gauean ametsetan lorik egin ezinean  
ta bere argazkia gelako mesanotxean.  
Zein polita den uretan igeri hondartzan egonean,  
maitasunik gabe triste naizen bitartean.

Ze ingo det, ze ingo det,  
ze ingo det Ebamirentxu gabe.  
Ze ingo det, ze ingo det,  
ze ingo det Ebamirentxu gabe.

Ezin bizirik nabil maitatzen nauen galdezka  
nire beharra duen bihotza duen dardarka  
bera joan zen Benidorm aldera ni bakarrik utzita  
inolako erruki gabe ebamirentxu joan zen.

Ze ingo det, ze ingo det...



## **EGIA** (Benito Lertxundi)

"Mendiak zuhaitzak baditu;  
ibaietan ura dijoa;  
zeruak izarrak ditu;  
egunak argi, gauak ilun;  
udaberri argitsu, loretsu;  
udazkena, berriz, euritsu;  
gizona da bizitzarako"  
egi haundiak dira.

Baina egia, egia, egia, zertarako?  
galdetu nahi nuke.  
Egia, egia, egia,  
gizonak esateko  
baimenik ez badu?  
Egia, egia, egia. Zertarako?

# **EGIA BAT ESATEAGATIK** (Gabriel Aresti / SS-77)

Egia bat esateagatik,  
alabak hil behar bazaizkit.  
Andrea bortxatu behar badidate,  
etxea lurrarekin berdindu behar bazait...

Egia bat esateagatik  
nere izena kendu behar badute,  
euskal literaturaren  
urrezko orrietatik...

Egia bat esateagatik,  
ebaki behar badidate  
nik idazten dudan eskua,  
nik abesten dudan mihia...

Egia bat esateagatik  
alabak hil behar bazaizkit...  
ez naiz isilduko!!!!

## **EGIA DA** (Oskorri)

Egia da, egia da, nik ikusi dudalako.  
Egia da, egia da, porque lo he visto yo.

Arratseko oskorritik, goizeko oskorriraino.  
Arratseko oskorritik, goizeko oskorriraino.  
Gauean ez da entzuten, ez da entzuten gauean.  
Gauean ez da entzuten, gauean ez da entzuten.  
Gauean ez da entzuten sorgin musika baino.

Egia da, egia da, ...

Gezurra dirudi baina sano ta fresko gaude.  
Gezurra dirudi baina sano ta fresko gaude.  
Musika da denboraren, denboraren musika da.  
Musika da denboraren sekretuaren jabe.

Egia da, egia da,...

Gazte odola duenak festa eta algara.  
Gazte odola duenak festa eta algara.  
Hamabost urtez oraindik, oraindik hamabost urtez.  
Hamabost urtez oraindik hasi berriak gara.

Egia da, egia da,...

## **EGIN KONTU** (Ruper Ordorika)

Egin kontu, bost mila zazpiehun  
kultura ezberdin desagertu dira historian.  
Esaten dutenez aurrerabidia  
elkar jan horretan oinarritu da mendeetan zehar.

Beraz ez larritu, izan jakintsu  
orpoa erakutsi aurrerabideari.  
Jarraitu egiozu asko dakienari  
behingoz utziozu baldar izate horri.

Gabiltza hainbeste, nor gara gu?  
zer gara gu? Euskotarrak gara gu.

Ez dela egoki egunak ematea  
zilborrari begira munduan zentroa bagina  
Ez dela zilegi insolidarioa ei da  
traban ibiltzea ezberdintasun kontuekin  
Diru kontua dela autokonplazentzia  
atzerakoia txokoan bizitzeko gogoia.

Gabiltza hainbeste...

Ez baita ahaztu behar kultura guzti horiek  
zirela traba hutsa delako progreso horrentzat.  
Ez baita ahaztu behar bost mila kultura  
desagertu horiek ezin dira okerturik egon.

## **EGUN ARGIAN** (Mikel Urdangarin)

Ilunaren arerio egun argian jario,  
atzo gauean gozatuari zure usaina dario.

Zeru gainean bi laino zoaz eguzki goraino,  
zelan ez dekot beste gogorik zeuri kantetako baino.

Soroa loraz polito nor ez da udabarriko,  
zain nago zure udagoiena barrero noz etorriko.

Asuneri udarbonate krabelina batu jake,  
hain lotsatia ez bazina bai, zu biluztuko zinake.

Badator gaua astiro badeko nahiko motibo,  
maite nozula dakidan arren esan eistazu barrero.

Haizeak ohiko egarriz leizarrak dantzan darabiz,  
eskuok zure azal gozoa omendu gurean dabiz.

Kirikolatza karreran iturria non ete dan,  
laztana maite zaitudalako behar dot zuretik edan.

Eta ezpainez ur betea eta hankak dantzan doaz,  
laztan ezkutua zure a ta gerria dantzan doa.

## **EGUN BATEZ** (Benito Lertxundi)

Egun batez, hautatua izatearen  
zirrara ezin gordea nialarik,  
ene belarrietan oihartzun bat hintzena  
aurrez aurre ezagutzeko aukera nian.  
Hantxe hintzen luze ibili denaren  
jakindurizko keinuez.  
Gabardinaren doai estetikoak  
deusezten, deusezten.

Nik, oihal xurizko ator batekin  
idurikatu hintudan  
eta, arpa baten beharra ere  
sumatu nian hire eskuetan.

Hire iturri hitz jarioak  
sakoneraino busti ninduen  
apirileko euria huen,  
apirileko euria huen.

Aidean idatzi nahirik bezala  
araudi sendoz, lerro lerro  
hitzak antzez dantza batean lotu zirenean,  
gure arrazaren ohizko errepika  
biluztua ikusi nian  
gure arrazaren ohizko errepika  
biluztua ikusi nian ballet batean.

# EGUN DA SANTIMAMIÑA (Mikel Laboa)

Egun da Santi Mamiña benetan egun samiña.  
Goiko zeruak gorde dezala luzaro neure arima.

Esanen dizut egia hau ez da usategia;  
erroi artean izan nintzaden benetan ausategia.

Itsas aldean izarra, hari begira lizarra;  
euskara salbo ikusi arte ez dut kenduko bizarra.

Kantatu zuen oilarrak, argitzen dira belarrak;  
Ageda gure martiriari moztu zizkaten bularrak.

Bularrak moztu zizkaten eta Euskalerrriak diotsa,  
solomu luze dultzerik gabe eman zaidazu bihotza.

Eman zaidazu bihotza eta ken berriz nahigabeak.  
Esan noiz garen izanen gure etorkizunen jabeak.

## EGUN MOTELA (Itoiz)

Autobusetik behera zigarroa lurrean lausotuz.  
Eskailera gora giltzaren metal hotsa,  
aaate hau gizendu dela dirudi  
argia piztu bihar, iluna desegin.

Zapatak aparkatzeko tokia,tokia bilatu behar.  
Oooo sukaldean hotzgailuak hilkutxa dirudi.  
Afaltzeko gogoak kafe bero baten urtu ditut  
zigarro bat piztu nahi.

Hauxe da egun motela, hauxe da egun motela.  
Hauxe da egun motela berriz aspertuko naiz  
beti histori berdinez.

Hauxe da egun motela, hauxe da egun motela.  
Hauxe da egun motela berriz aspertuko naiz  
beti histori berdinez.

Tokataren gain dagoen diskoak  
hautsa azalean eseri behar naiz.  
Oinak bilusik FM-en gainean  
telebistaren zaratak betetzen aidea.

Iheserako botoirik banu  
autobideen arrai horiak  
bukatzen diren puntura joateko  
ta modernoak "english speaking".

Hauxe da egun motela...



## **EGUNERO** (Hertzainak)

Every day things are getting worse.  
Every day things are getting worse.

Time's so hard, eiei!! la la la, oh oh.  
Time's so hard, eiei!! la la la, oh oh.

Egunero dena okerrago.  
Egunero dena okerrago.

Merkatura eraman zintudan  
eta danok parre ene txakurrari.

Ez dago kerik surik gabe,  
Badakizu, altxa behar da burua.

Sasoi latzak die, la la la, oh lord!!  
Sasoi latzak die, la la la, oh lord!!

Egunero...

## EGUNETIK EGUNERA (Hertzainak)

Egunetik egunera, hiltzera noa eta maitia.  
Kuttuna, laztana, jadanik ez zaitut ikusten.  
Hiri setiatuko alanbre latzen gainetik  
kolerazko graffiti beltzez bonbatzeko balioko lukeen  
brika gorrizko murru erraldoia bilakatzen zara.

Nazka larriak gauero urkatzen nau eta maitia  
Kuttuna, laztana, jadanik ez zaitut entzuten.  
Galernen leize sakonetan barna  
itsas erdian galdu paperezko ontzi traketsak  
sekulan erdietsiko ez duen  
kosta amestu brumatsua bilakatzen zara.

Paralisia sentimentalak joa naiz eta maitia.  
Kuttuna, laztana jadanik ez zaitut hunkitzen.  
Jadanik ez zaitut hunkitzen.  
Ormatze atomikoaren garai hitsetan  
ospitale sikiatrikoetan zain minberak  
trebeki moztuko lituzkeen medikua bilakatzen zara.

Egunetik egunera, hiltzera noa eta.  
Nazka larriak gauero urkatzen nau eta.  
Paralisia sentimentalak joa naiz eta.  
Apokalipsia nitan dago.

# EGUNSENTIAN (Benito Lertxundi)

Eguzkien argia leihopetik sartzian  
poz eta alaitasunez esnatuko gera.  
Txorien abestiekin alaitutako eguna  
gizonen gorrotoakin hondatuko da eguna.

Ibiliko gera alkarri kalte eginaz,  
ustez lagunik haundienak  
aurrez ondo hitz egi naz.

Batzuen izerdiekin  
besteak diru eginaz  
egia esan dutenak  
giltzaperera emanaz.

Gauz hoiek ikusteko  
nola esnatzen gera?  
Gauz hoiek egiteko  
nola jaikitzen gera?  
Txoriak alaitutako  
eguna hondatzeko  
hobe genduke ez esnatu  
ta bertan geldi lotan.

Ibiliko gera...

## **EGUZKI ARGITAN** (Eñaut Elorrieta)

Aspalditik gatoz, urrunera goaz  
aspalditik gatoz, baina  
hegan egiteko ez al zara inoiz  
eguzki argitan hautsa izan?

Hurbilegi gaude gezurretarako  
hurbilegi gaude, baina  
edozein etxetan ezin da neguan  
eguzki argitan hautsa izan?

Euria ari du ametsen gainean  
euria ari du, baina  
susmo denen kontra jada ezin al da  
eguzki argitan hautsa izan?

Beranduegi da, etxera gaitezen  
beranduegi da, baina  
oraindik ahal balitz zurekin nahi nuke  
eguzki argitan hautsa izan,  
eguzki argitan hautsa izan.

## **EGUZKIA** (Mikel Markez)

Eguzkiaren izpiek indarrez sortzen naute  
goizean goiz ateratzen banaiz.

Mila milioi irrifar, mila milioi lilura  
bizitzak izaten bait ditu maiz.

Horregatik naiz ibiltzen edonon bide egiten.  
Ez harritu argiari gaur goizez badiot kantatzen.

Jada ez zait inporta harri ta zuloetan  
estropozuka amiltzen ba naiz.

Nire ibiltzearen nekea joan egin da  
eta hori ez zait gertatzen maiz.

Su garrezko zaldi batetan  
zugana joanen naiz hegan.

Gaur nik izpitzen dudan argitikan  
zuk ere dezazun edan.

## **EHUN MILA JUNKIE** (Beti Mugan)

Bizitzarik ere ez badugu, orduan soilik heriotza.  
Guretzako memoria aldakorra da zurean.  
Ehun mila junkie etzanda neguko eguzkitan,  
ehun mila arima urtutzen marmokak bailiran.

Hegan, hegan doa dena hegalik mugitu gabe.  
Denbora zula ezinean inor ezagutu gabe.

Heriotza bilutsik dago eta bitzita hezurretan,  
bien arteko hondarretan ehun mila junkie etzanda.  
Itxaron urteak izanda orbainak eskuetan,  
ehun mila itsas urpekarien birika beltzak bezela.

Hegan, hegan doa dena...

Under winter sun, there is a mirror in the sand.  
We all knew so many friends, we have seen them go  
away.

Ehun mila giza amets itsasoaren zainetan,  
elurtea iritsi arte ez dugu lo hartzen erabat.  
Katea eteten da beti gutxien espero dugunean,  
bizitzarik ez badago orduan itzuliz heriotza.

Hegan, hegan doa dena...

Under winter sun...

## **EHUN KILO** (Ehun Kilo)

Argia itzaltzean  
jendean oihua entzun da.  
Banan banan irteten  
hainbeste urte pasata.

Betiko asmoa dena ematea  
Berriro bidean jarraitzeko asmoan.  
Hau ehun kilo da!

Bide batzuk galtzen,  
beste batzuk berriz ezagutzen.  
Negarra lehortuta  
eta bihotz mina sendatuta.

Betiko asmoa dena ematea...

Hau dana pasata  
Denbora hori da zuentzat  
izerdiarentzat deiaren azala normala.

# **EH SUKARRA** (EH Sukarra)

Gu ta gure ingurukoak  
potroetararte gaude  
Nahi ditugun gauz guztiak  
eskuan izan arte.

Borroka ezazu gurekin batera,  
gu generala EH Sukarra.  
Dantza egin zazu goizetik gauera  
kriston martxaz EH Sukarra.

Borroka ezazu gurekin batera,  
gu generala EH Sukarra.  
Dantza egin zazu goizetik gauera  
kriston martxaz EH Sukarra.

Lara lala, lara lala, lara lalala lalalalala,  
lara lala, lara lala, lalaaa...



## **EH TXO!!** (Hertzainak)

Gogoratzen haiz ze ondo pasatzen gintuen  
kriston martxa zegon sasoi ilun hoietan.  
Gaur dirudi demokraziak utzi haula pott egina.  
Ipurdi hartzeari gustua hartua dioala.

Inorako bidean doazen hanka motel hoiiek,  
Nork esango zian hireak direla.  
Leku guztitatik korrika ibiltzen hintzen, egunero!!  
Ta orain ikusten haut zintzilik eta guztiz aiko-maiko.

Eh txo!! Gehiegi itxoiten duk.  
Eh txo!! Gehiegi itxoiten duk.  
Eh txo!! Gehiegi itxoiten duk.  
Eh txo!! Gehiegi itxoiten duk.

Hire begirada herabetiak agertzen dik  
zer egin jakingabetasunak indargabetu haula.  
Benetan zeharo akabatuta hagola ematen dik,  
Ta ezin duk konformagaitz bat izan hintzela, gogoratu...

Atera hadi kalera, ta berreskura hire martxa,  
itxoiten ezin duk ezer lortu!!

## **EIDER** (Izaro)

Tú que tanto creíste en los atardeceres,  
visitar puertos perdidos sin amarrarse.  
Pero se me escapó una cuerdecita a tu bote,  
que ojalá rebote, que ojalá rebote.

Tú que tanto quisiste mis amaneceres,  
poblar sierras desiertas con tus ropajes.  
Pero un día te vi desnuda y de tan blanco linaje,  
deja que te tape, deja que te tape.

Haz que vuelen aves sin cesar en tus lunas llenas,  
que mi voz no deje de cantar mil noches enteras.  
Que mi cuerpo vierte hacia tu vientre  
una corriente de vida plena,  
que tú ya esperas, que siempre esperas.

Tú que tanto ganaste a las causas perdidas,  
encontrando risas y besos en cada herida.  
Pusiste algo acolchado en todas las esquinas,  
de esas que me cuidan, de esas que me cuidan.

Haz que vuelen aves...

Y volar y lograr refugio en la soledad.  
Y brillar y bailar sin complejos, sin piedad.  
Y volar y lograr... Y volar y lograr...

## **EKAITZEN ARRAZOIEN BILA** (Izaki Gardenak)

Oinordetzan jaso al dugu  
sorgor gaituen axolagabekeria?  
Aitzakia bila jarraitu.  
Helduleku txikiei ere eusten trebeak gara.

Aukeran daukagu  
soilik zein amuri heldu: nik nirea.  
Aldaezin ziren egiak eta pauso ibiliak.  
Ekaitzen arrazoiak bila dena bustitzen ari da.

Aaaaa, aaaaaaa...

Ziurgabetasunetik  
ez al gaituzte babesten kristalezko sabaiek?  
Ez dute behar ausardiarik  
beldurrik sentitzen ez duten horiek.

Aukeran daukagu  
soilik zein amuri heldu: nik nirea.  
Aldaezin ziren egiak eta pauso ibiliak.  
Ekaitzen arrazoiak bila dena bustitzen ari da.

Aaaaa, aaaaaaa...

## **ELEKTRIZITATEA** (Zea Mays)

Belar artean, bakardadean biluzik dantzan.  
Oinak bustirik, lurraren erdian belarrarekin jolasean.  
Pentsamenduak joan egin zaizkit egunarekin batera.  
Iluntasunak, hartu egin nau, negar malkoak.

Gau ilun honen azken arnasketaren  
azkenengo segunduetan nik ere oihukatu egingo dut.  
Munduak ahazten banau, lur honek askatzen banau,  
zerbait utzi beharko dut behintzat euri tanten artean.  
Ilargiak erakusten duen aurpegiaren aurrean  
eskatzen diet oihukatuz izar galduei,  
nire negar malkoekernal dezatela lurra  
nire arimarekin, energia banaiz.

Badaezpada banoa, hegaka ez bada ez noa  
nire gorputzak eskatzen dizkidan ate apurtuetara.  
Badaezpada banoa, hegaka ez bada ez noa  
zeruak eskaintzen didan amildegira.

Badaezpada banoa, hegaka ez bada ez noa  
ispiluan ikusten dudana elektrizitate lur-jausira.  
Energiak lur-jausira narama, ni neu ere energia banaiz  
lurrean betirako idatzirik geldituko naiz... banoa!!

Gau ilun honen azken arnasketaren  
azkenengo segunduetan nik ere oihukatu egingo dut.  
Munduak ahazten banau, lur honek askatzen banau,  
zerbait utzi beharko dut behintzat euri tanten artean.  
Ilargiak erakusten duen aurpegiaren aurrean  
eskatzen diet oihukatuz izar galduei,  
nire negar malkoekernal dezatela lurra nire arimarekin.

## ELURRETAN (Itoiz)

Dirudienez elurrak dena estaltzen duenean  
bideak desagertzen dizunean, esango nizun:  
zergatik izkutatzen zaren,  
zergatik hain pozik urtarrilako elurraz.  
Hiriaren lehengo argiaz  
abiatzen zera kaletik urtarrila hontan.

Emeki-emeki urtzen ari da zauri gorriak erakusten  
baita ere aldatu ez diren bideak urtarrila hontan,  
urtarrila hontan hurrengo elurtearte.  
Zulora itzuliko zara hurrengo elurtearte  
sekretu guztiak gordetzen hurrengo elurtearte  
urtarrila bat oroitzen hurrengo elurtearte  
kale ta teilatu txurien nanana...  
hurrengo elurtearte nanana...

Urtarrila hontan, urtarrila hontan  
Urtarrila hontan, urtarrila hontan.

Hurrengo elurtearte...

## **ENE BEGIEK** (Ruper Ordorika)

Ene begiek ez dute malko isuritzeko gogorik,  
denik eta bizitza bakarra bizi dutelako.  
Entzun, astiro doa denbora, idi gorrien gurdi hori.  
Begira erlojuetako orratzak uneka, uneka herdoiltzen.

Zenbat gauza utzi dudan estarta bazterretan  
edo laku urdinen hondoa, bizitza bakarrean.  
Eta zenbat aldiz galdu naizen behelainotan  
basoilar izateko ametsetan dabiltzan kurloiekin.

Ene desirak iada ez dira habi abandonatuak besterik  
ene bihotzean eguzkia gurpil ahul bat da.  
Ez dezadan gehiago entzun, begiratu, ez pentsatu,  
bizitza hau bakarra delako, gal ez dadin, ibili ez  
eta senditu ere ez, harriak lez izan nahi dut,  
mendea eta segundua gurutzatzen diren lekua,  
lekua besterik ez izan, hurrin deritzan aberrian.

## **ENE MAITIA BARDA NUN ZIRA** (Erramun Martikorena)

Ene maitea, barda non zinen,  
Nik borthanoa joitean?  
Buruan ere min nuen eta  
dudarik gabe ohean,  
dudarik gabe ohean.

Bart arratsean, ametsetarik,  
Boz bat entzun dut xarmantik,  
Eztitasunez betea baitzen,  
haren parerik ez baitzen!

Eztitasuna gauza ederra,  
Nork nezake ni kondena?  
Gauaz logale, egunaz ere,  
Errepausurik batere!

Xarmangarria, lo ziradia,  
eztitasunez betea?  
Lo bazirade, iratzar zite,  
etziradea loz ase?

Arboletan den ederrena da  
oihan beltzean pagoa...  
Hitzak ederrak dituzu baina  
bertzetan duzu gogo!

Ni zure ganik despeditzia  
Iduritzen zaut hiltzia.  
Hiltzen ez banaiz, bihurtuko naiz.  
Adios, ene maitea!

# ENE MAITEA NAUZU (Iñaki Eizmendi)

Ene maitea nauzu  
bihotzetik desterratu.  
Nola jakin duzu  
hainbeste zaitudala maitatu.  
Eta nire suaz, eta nire suaz  
minez etzera, etzera urtu.

Udazkeneko lore  
lur gorri ilunen antzu.  
Odol beroaz omen nintzen  
nire bihotz labeen sartu.  
Baina arratseko itzalaz,  
baina arratseko itzalaz  
soilik bihurtu, bihurtu negu.

Usteak erran zidan  
zutaz nintzela jabetu.  
Baina ederki didazu  
arima barruan engainatu.  
Ni naizelako amodioz prest,  
ni naizelako amodioz prest.  
Hau besterik ez diat, ez diat lortu.



## **ENTZUN ZAZU** (Benito Lertxundi)

Entzun zazu adiskide  
kantu hau dizut eskeintzen,  
ene barne kolpatu hontan  
zuretzat da oldoz ten.

Nigan dut zuen mezua  
zuen zerutik bildua,  
mendi beltzetan barrena  
oihuz dijoan breizh atao.

Saint Maloko itsasoan,  
herri bat nuen hausnartzen,  
haren kolkoan erotik nintzen,  
zuertako bat sentitzen.  
Eskuak elkaturikan.  
lotu ginen dantzetan,  
elkarrekin landuko dugun  
bide bat han hasi zan.

## **EPERRA** (Anje Duhalde)

Eperrak badituzü bere bi hegalak,  
bai eta bürün gainin kokarda ejer bat,  
zük ere balinbazünü gaztetasün ejer bat,  
neskatilen gogatzeko bilo hori pollit bat.

Amorosak behar lüke izan lotsa gabe,  
Gaiaz ebiltia ez üken herabe,  
Egünaz ebiltia desohore leike,  
txoriak ere oro haier soz dirade.

Ebili izan nüzü gaiaz eta beti,  
eia! atzamanen nianez lili ejer hori,  
azkenian atzaman düt oi! bena tristeki,  
lümarik ejerrena beitzaiio erori.

Mündian ez da nihur penarik gabe bizi,  
nik ere badit aski hoitan segurki,  
nik desiratzen nizün ezkuntzia zurekin,  
bena ene aitak eztü entzün nahi hori.

Zure aitak zer lüke eni erraiteko,  
ala enitzaio aski aren ofizioko,  
ala zü soberaxe zitzaio enetako,  
printzerik ez ahal da orai zuenganako.

## ER(H)ORI (Izaro)

Zenbat alditan esan ote diot  
neure buruari egon hadi geldi hor.  
Zenbat alditan esan ote diot  
neure buruari, utzizan gitarra hor.

Baina ezin eutsi luzaroan,  
beti agertzen zara azaroan.  
Ta gero diozu etzarela sentitzen  
errudun azkenaldiagatik...

Dena bildu nuen estu,  
sekula ez zintezen jausi zu.  
Baina bildu nuen estuegi  
ta azkenean erori nintzen ni.

Agian ni naiz errudun bakarra  
negarrari ateratzen labarretan aparra  
ta zure bizkarraren kontra nire bularrak  
adarrik altuenean desio dudan sagarra.

Iparra zahartzen hasia da,  
zaharra ni emea ta zu arra.  
Izatearen botere harremana,  
iparra sartzen koordenada berrietan.

Dena bildu nuen...

Sekula ez berriz erori ni.

## **EROMENAZ** (Bide Ertzean)

Barkamena, mendekua  
dantzan buruan.  
Arrazoiak, sentimenduak  
elkarrekin borrokan.

Nor ez da burua galtzeko  
zorian, arriskuan egon?  
Nork ez du laban zorrotzekin  
amestu, eta txikizioekin?

Gorputza, arima liskar bizian.  
Mamuak solasean: itolarria.

Zaila da sarea apurtzea,  
eromena saihestea.  
Zaila da zuzen ibiltzea  
bidea okertzen denean.

Nork esan dezake: “zuzen ibili, arren”  
bidea, bidea okerra denean?

# EROMERIAN (Tapia eta Leturia)

Munduan beste asko legez  
bizi gera bizi geranez.  
Gu bezain ongi bizi denik  
gutxi delako ustez.

Badago ta bonbon, ez balego egon  
ondorengoak hor konpon.  
Progresoak zer on egin ote dion  
naturari aspaldion.

Eromerian, eromerian,  
bizi gera bizi, guk zer gura, hura uka.  
Eromerian, eromerian, arin-arin ari an.

Hauteskundeak dira hemen  
urtean lau aldiz bederen.  
Aurretik denak irabazle  
eta berdin ondoren.

Emazu botoa, ez izan tontoa,  
horrenbestekin nahikoa.  
Izan praktikoa, demokratikoa,  
bota zazu betikoa.

Eromerian...

Abaltzisketatik Moskura  
hau da munduaren itxura.  
Erdiak beste erdiari  
egiten dio burla.

Gorbatxovek Bushi milaka goraintzi  
kendu ditzagun bi misil.  
Bushek Gorbatxovi ederra hago hi  
kendu itzak hik lehenbizi.

Eromerian...

# ERRAUTSEN ARGIA (Don Inorrez)

Zimiko bat izaten da,  
tximista bat begien artian;  
gero urteen osinean amiltzen naiz  
argi zuri batek kopetan jo arte.

Eta orduan oroitzen naiz,  
eta hiltzen naiz.  
Oroitzen naizenian hiltzen naiz.

Ooooo... Ooooo...

Bihotz jauzi bat izaten da,  
erresumina garondo erdian  
gero dirdai bizi bat sartzen zait buruan,  
eta ahiturik uzten nau iraganian.  
Eta orduan oroitzen naiz...

## **ERRE ZENITUZTEN** (Xabi Solano)

Erre zenituzten sorginen oinordeak gara gu.  
Erre zenituzten sorginen erratzak guk dauzkagu.

Erre zenituzten sorginen arima ez da galdu.  
Erre zenituzten sorginen irrifarra gara gu.

Sasien gainean oihu ta irrintzi.  
Lainoen azpian aske nahi dugu bizi.

Erre zenituzten sorginen irrifarra gara gu.  
Erre zenituzten arima guk dauzkagu.

Erre zenituzten erratzak ez da galdu  
Erre zenituzten oinordeak gara gu

Sasien gainean oihu ta irrintzi  
lainoen azpian aske nahi dugu bizi.

## **ERREFUXIATUENA** (Izaro & Mikel Urdangarin)

Utzidazu kontatzen ze ederra den itzultzea,  
utzidazu kontatzen malko urdinen artean.  
Utzidazu kontatzen ze ederra den jakitea,  
maiteko zaitudala itsasoaren bestaldean.

Utzidazu kontatzen izarren artean,  
utzidazu laztantzen hiru akorde hauetan.  
Utzidazu kontatzen ze ederra den zu ikustea.  
Utzidazu kontatzen...

Ze ederra izango den itzulera,  
elkarren besoen zabalera.  
Zure fede guztiei eustea  
zure bi malkoak baretzea.

Utzidazu kontatzen behin ume zirela,  
amestu zutela itsasoaren beste aldeaz.

Hegan egiteko hegoak,  
bakean bizitzeko ez dute besterik nahi  
gaur gurekin dantzatzeko.

Ze ederra izango den itzulera...



# **ERREPIDE HURBILETIK URRUN** (Izaki Gardenak)

Etorkizun gehiegi dakar  
zama bat bailitzan buru honek.  
Eta itotzen nauten ametsak,  
aspaldi nik bilatu nituen.

Inor heltzen ez den leku bat aurkitu dut  
errepide hurbilenetik urrun,  
han berriro ikas dezakegu arnasten.  
Atsedena behar nuen, behar dugu.

Inork inoiz astindutako  
soka baten soinua du hemen  
nahi genuen isiltasunak.  
Lo kanta bat ari naiz entzuten...

Inor heltzen ez den leku bat aurkitu dut  
errepide hurbilenetik urrun,  
han berriro ikas dezakegu arnasten.  
Atsedena behar nuen, behar dugu.

## ERREPIDEAN (Zetak)

Bederatziak ta hamar  
uda hastera doan goiz batean  
ametsekin borrokan.  
Oheraino eguzkia ta alboan norbait daukat urrumaka.  
Banoa, gaurkoa egun handia da.  
Ta lagunak tabernan direla dio Maizak.  
Agian berandu noa...  
Hi Pello ze ostiya aldiro aldiro azkena.  
Benga ba, bagoaz!!

Errepidean geldikaitzak gara.  
Leiho bat behera ta oihu bat kanpora.  
Errepidean gaur berriz  
abesti berri bat idaztekotan.  
Ahaztuko ez dugun hura...

Estaneren txiste bat ta ohartzera Altsasu parean,  
zenbat putre zeruan.  
"Txarrenari onena" esan du batek, igo bolumena  
oraindik eztugu esan azken hitza.  
Eta atzean utzi dugu jainko paganoa,  
Beriain, zaindu Sakana.  
Bazile bat, barre bat eta kolpe bat bueltan.  
Bagoaz, bagoaz!!

Errepidean geldikaitzak gara...

Su berrituta, indartuta, bat egin dugu hemen.  
Bide lagunak infernuan zeruan baino lehen.

Errepidean geldikaitzak gara...

## **ERROTA ZAHARRA** (Xabier Lete/Lourdes Iriondo)

Errota zahar maitea uraren ertzean,  
uraren ertzean da basati beltzean.  
Negar egiten dezu aleak xehetzean.  
Ni ere triste nabil zutaz oroitzean.

Zotin segua dabil errotarria  
itzalitako izar distirak  
dira neretzat zure begiak.

Izar eder bat dago hor goiko lekuan,  
errota zaharra berriz erreka zokuan.  
Berebiziko pena badaukat barruan,  
ezin gintezke bizi elkarren ondoan.

Bizitzaren legea nahi det onartu  
hala beharra goraiez hartu  
berez doana zertan behartu.

## ESAIIDAZUE (Joxe Ripiau)

Esaidazue lagunak,  
Gasteizen zer egin ba?  
Askoz hobeto egoten da ene herrian.

Bizi ginen tokian,  
ez dago telefonorik.  
Han ez dago tunarik,  
bai "couscous"-a eta arkumea.  
Bizi ginen tokian,  
ez dago poliziarik.  
Jan, edan eta pixa egin  
eta ibili hemendik harat.

Esaidazue...

Desertuan ez da egon behar  
semaforo berdean zain.  
Baina justizia errespeta,  
errespetatu egiten da.

Dites-moi, mes amis  
qu'est-ce je vais faire; Paris  
c'est meilleur dans mon pays je vous le jure.

Esaidazu... esaidazu...  
Esaidazu... esaidazu...

Oh, oh, oh,...

## ESAIOK (Hertzainak)

Zenbat garagar erreka  
pasa behar oraindik erabaki arte.  
Ehiztari herabetiak,  
hire tiroen beldurrez nora ezean.

Garaia duk, motel, esaiok,  
ez pentsa gehio, esaiok.  
Amodioaren aurrean egia lotsagabe esaten  
ikasi behar duk.

Ta ni gau guztia nabil, zuen atzetik  
lagundu nahirik, zuen atzetik  
mozkortu egin nauzue  
eta berdin zait non lo egin...

Baina, neska horrek seguraski nahi dik,  
hire onduan gau hontan egotea.  
Neska horrek seguraski nahi dik,  
hire ahotikan hori entzutea.  
Neska horrek seguraski nahi dik,  
bildurrik gabe hik hori esatea.  
Neska horrek seguraski ere  
desio berdinak bete nahian zebilek.  
Ia ba, esaiok !! ez pentsa gehio.

Ta ni gau guztia nabil...

# **ESALDI SINPLE BAT GALDERA HANDIEGIRAKO**

(Kerobia)

Esaldi sinple batekin hasiko naiz,  
kafea erre da baina egun onak eman dizkidazu  
Hotz egiten du gaur etxean.

Beste era batetan hasiko naiz,  
goizero fragantzi ta formak zure ilean,  
gauza ederra da kaosa gauza txikitan.

Zer da zure ilusioez gaurkoan?  
Galdera handie gia agian gauza sinple baterako.

Etxea momentu zoriontsu ez bete dugu  
baina batzu tan korapilo bat eztatarran,  
lasai elkarrekin gaude eta.

## **ESAN BAIETZ** (Juan Carlos Perez)

Esan baietz, esan bai,  
zu beldurtzeik ez dut nahi.  
Esaten dute maiteminduak  
aspertzen ez diren hiri bat dagoela.

Kolorez jantzi itzazu  
bihotzeko bazterrak.  
Ihes egingo degu urrutira,  
Portugal gutxienez agian Berlin.

Arrotzak izango gera atzerrian,  
bilutsik mundu aurrean.  
Lainoak zeruan biraka ikusten  
Belar gainean etzanda.

Purpura ikusten zaitut,  
ke gorriaren pean.  
Zeinek esaten zuen  
"dangerous dangerous".  
Bidaiatzea ez dela ona, ez dela ona.

Arrotzak...

Esan baietz...

## **ESAN BARE** (Bide Ertzean)

Esan bare, esan niri, esan zakar, esan bare...  
Esan ez dugula elkar maitatzen, asmatzen.  
Esan ez dugula orbainak gozatzeko betarik hartzen.

Esan niri, esan zakar, esan geldi.  
Esan niri, esan zakar, ez gaituela geroak horrela nahi.  
Esan ez dugula geroa horrela nahi.  
Esan gatz gehiegi eman diegula.  
Esan gure irekiek larregi ikasi dutela.

Esan baratx, esan niri, esan zakar, esan baratx...  
Esan hildura xarea hazi zaizula zuri ere.  
Esan aztarrika ekiten diola egunsenti bakoitzari.  
Esan nahikoa dela, akitu egiten direla bihotzak.

Esan ez dugula oinazearen gorazarre eginen.  
Esan ez gaituela edonola, edonola nahi.  
Esan itxarotea ere badela bizitzea,  
esan itxarotea ere badela bizitzea, badela bizitzea.

Esan bare, esan niri, esan zakar, esan bare... esan.



## **ESKALEOK** (Izaro)

Gorputz arrotzen jabe nola izan daiteke.  
Orri txuri batean idatzita dago hainbeste.  
Azala sentitzen dut zure eskuen eske,  
eskalea ez banintz jada bihurtuko nintzateke.

Ikusterik behar ez duen begien umela.  
Erretzetik izoztera begirada bat magalera.  
Biluztu nazazu arretaz aurkituko duzu eta  
zure izena idatzita nire bularpeko azalean.

Zure faltaren mina tiraka ta zatiezina.  
Utzidazu esaten egia dela gure egarria.  
Ta notarik gabe abestuko dizut gauez.  
Udako ilargi beroetan itxaron zaitzaket  
Madisonen zubietan.

Zure faltaren mina...

Udako ilargi beroetan,  
udako ilargi beroetan,  
udako ilargi beroetan,  
udako ilargi beroetan itxaron zaitzaket  
Madisonen zubietan.

## **ESKEAN** (Katamalo)

Abenduko gau batean izarrik ez zela  
hurbildu nintzen eskean ohi bezela.

Ez dekozu maitasunik barruan gordeta,  
berandu zatoz jadanik hustu naz eta.

Zer falta jatzu laztana? Hain zara ederra.  
Guzurrarentzat labana hotzaren erra.

Xedetzat ez dot gorputza ez bada arima,  
zure aitzaki harroputza zure biktima.

Maite zaitut esan eta betor bizi-poza  
Bete gabeko apeta ezin dot goza.

Galdu dozuna eskura itzuliko balitz,  
hiztegi oso bat zen hura, ez ziren bi hitz.

Itxaropenik ez dozu maitasunarengan  
merke datozen bi moxu badoaz hegan.

Zein izan dozu ebazle asmo okerrekoa  
bat beti dena garaile, ez menpekoa.

Jo biotzezu handia, itxi ukabila.  
Galdu dezala bizia doala bila.

## **ESKUTITZA** (Hemendik at)

Idoia, zer moduz?  
Gaur beti bezala zutaz oroituz.  
Badator udara,  
laster egonen gara.

Itsasoko olatuek  
eskutitza ekarri dute.  
Zure hitzak irakurtzen  
gehiago naiz maitemintzen.

Zuretzat muxu bat,  
Botila hau doakizu hemendik at.  
Itsasoan zehar  
bidai luze batean.

PD: Hau ez da erreal,  
soilik amets bat da.  
Desio hau azkenik  
betetzea nahi dut nik.

Itsasoko olatuek...

# ESNATU BAINO LEHEN (Mikel Moreno)

Aldentzen diren hodei batera  
goratu nahiko nuke, baita segundu batez.  
Han garaieran olerki hilezkorren  
paradiso ezkuturik ziur badela.  
Ta itzuli baino lehen hartu zurekin atsedean,  
jakin zer moduz zauden.

Berriz nauzu hemen, begiak, begiak, isten.  
Itxarongo zaitut esnatu baino lehen,  
esnatu baino lehen.

Naiz, zuregatik naiz, hemen, zuregatik hemen.  
Katebegi behinena, lehena.  
Unibertsoa gurutzatu zenuen,  
zein zaila egiten den onartzea.  
Ta erreinurik ez badago?  
Bilatuko zaitut ahanzturan, edonon.

Berriz nauzu hemen, begiak, begiak, isten.  
Itxarongo zaitut esnatu baino lehen, gorantz!  
Ostadar batetik noa gorantz, gorantz!  
Hodei artetik banoa arauak hausten.

Uhhhh...

Berriz nauzu hemen, lo dago.  
Ez da askorik falta, esnatzeko.  
Ez dut itzuli nahi, ez naiz joango.  
Besterik agurtzeko bazatoz ez nago.

Itxarongo zaitut esnatu baino lehen,  
esnatu baino lehen, esnatu baino lehen.  
Zurekin atsedean elkar besarkatzen.  
Itxarongo zaitut esnatu baino lehen!

## **ESNATU NAIZ** (Kerobia)

Momentu etengabian,  
karakolak bere tokian.  
Zigarro errautsak mahai gainian  
eta begirada galdekorren bat.

Gabetan maíz ohe infinituan nago,  
Ametsetan pantaila beltza ikusteko.  
Eskuak tinko bizitzari eusteko,  
sufrimendua zoriona bihurtzeko.

Harea oinetakoetan urradurarik jasan gabe,  
maite zattut esatea ezpainak ireki gabe.  
Leihoak zabaltzea baitangoan geratzeko.  
Noizbait mezu hiltzailea definitu ote zaren.

Dakusat benetan zure hilezkortasunean,  
Galdeiozu hautsari, hiri ginebra kirastuari.  
Gaurkoan Jonh Fante, errai ustelak itsuari,  
utzi dezagun karakolek negar egin dezaten.

Esnatu naiz,  
konturatu naiz, konturatu naiz  
zoriontsu naiz, zoriontsu naiz.

## **ESPALOIAN** (Itoiz)

Gauean izkututzen haiz  
dena hain simple izan behar zan.  
Hor hago inoren zai, hire koartada da.

Inoiz hain fina izan ez den  
hariari lotua,  
bilur baik tira egiten arrisku ederra.

Zai gaude gu, gu kalean zehar,  
erropa ilunak, aurpegi zuriak...  
...ta ez, ez dugu sinisten,  
ez dugu sinisten, ez dugu sinisten.

Hor hago izarpean  
izkin danetan hiltzen.  
Ixil ixilik hago bideari aurre egiten.

Hor hago espaloian,  
semaforo gorrian.  
Zulo baten sartua dela eta...

# ESPERANTZARA KONDENATUA (Gari)

Garaipenik eta galtzekorik gabe,  
esperantzara kondenatua.

Noiztik da negarrik eitten ez dudala,  
iparra erakusten det behatzaz.  
halako ergelkeria ispiluen museoa  
edo bestelako desesperazioekin.  
Ze bost inporta, zero infernuek  
dena da zernahi gosea det orain.

Garaipenik...

Esku ta begiz kanpoko bakardadea,  
existitzen ez den herio bateko morroi.  
Txakur bat bezala arnas estuka,  
gustura nengoen hantxe ta eder.  
Ta ez det xinisten, ta ez det xinisten,  
ez det xinisten,...

Garaipenik...

## **ESURI 1099** (Kemen Lertxundi)

Errudun honek ez du damu zantzu izpirik  
bere azken hitzetan.

Erreginak baleki gorroto honen berri  
taberna zarratzean, baina... baina orain

Dena mugitzen da ta ezin da ezer maitatu  
errepide honek ez du zuk beharko zenduna  
ta esaidazu orain dena ilundu baino leno  
egia izan zitekeen dena aldatu ahal zela.

Heriotz zigorrean armiarma sareetan  
boltsilo huts hauetan.

Azken dantza hastean borrero guzietan  
zu zinen ederrena baina... baina orain

Dena mugitzen da...



## **ESZEPTIKOARENA** (Anari)

Beste gau bat erori zaigu gainera,  
eta hauxe izango da destinuak  
zu ta biontzat gordea zuena.

Ezidazu esan zu ta ni idatzita gaudela  
eta hemendik aurrera dena itxoitia dela.

Zure nahiak bihotzian habi abandonatuak direla  
eta ikusi beharrekuak aspaldi ikusita daudela.  
Ez, ez da horrela.

Erabakiak hartu behar, bizitza horixe omen da  
eta duda, duda lagun bezala erabiliz,  
ez oztopo bat bezala.

Hobe omen da ez eginaz baino  
gaizki egindakoaz damutzea  
ta atzekoari so eginez ikasi nola egin aurrera.  
Konturatu momentu hau jada pasatu dela,  
momentuka xumeki-xumeki bizitza aurrera doala.  
Guzia eta ezerren artean ia alderik ez dela  
eta eszeptizismoa hiltzen hasteko era koldar bat dela.

## ETA NI BANOA (Gari)

Ba al dakizu sua ahaztu zitzaidala zure bihotzian?  
Ba al dakizu bala batek zulatzen nauela zutaz pentsatzian?  
Kontatu al dizut inoiz eguzkiarena?  
Eguzki gorria dela zeruaren ardoa  
eta ilargiak pizten didala azken zigarrua?

Baina ni banoa eta ez dakit nora.  
Baina ni banoa eta ez dakit nora.

Bidaia ezazu zугanantz,  
har itzazu oporrak zeure barrurantz  
ta ingo dizut leku bat nire infernuan, zatoz.  
ta ingo dizut leku bat nire infernuan.

Baina ni banoa...

Lasaitasuna da behar duzuna.  
Lasaitasuna da behar duzuna.

Pasiatuko gara gure minerantz  
ia topatzen dugun gezur hori berriz  
eta defendatuko dugu alaitasuna  
alaitasunarengandik  
esan al dizut inoiz ez nauzula maite maitia.

Baina ni banoa...

## **ETORKIZUNA** (Izaki Gardenak)

Ohitzea eta irautea  
ez al dira hiltzeko bide berriak?

Hainbeste kolpek apalduak,  
erantzun beharrean, deprimitzen gara.

Etorkizuna lapurtu nahi digute,  
aurpegiak agerian, erdeinuz.

Bizia buruz ondo ikasia,  
etengabe goersten erdibidea.

Zoriontasun ideiei segika,  
saltokiren batean agertzen gara.

Etorkizuna lapurtu nahi digute,  
aurpegiak agerian, erdeinuz.

Geurea dela sinesten dugun arte,  
ez gara gauza izango berreskuratzeke.

## **ETXE ERORIAK** (Sasoi ilunak)

Etxe erorien hautsa, eta bizi izpirik ez.  
Etxeak amilduz kamera lasaian.  
Kontzientziaren argia  
desegiten den abiada bereaz,  
emeki, hain emeki.

Izan zitekeenaren herdoilak  
itxaropena kateatuz.  
Etxe eroriak eta zaratarik ez, ez, ez.  
Nork bere baitan atzematen duen  
suntsipena besterik ez da.  
Ez al duzue ikusten eremu itogarri hau?

Zu ere etxe hoien antzera,  
hautsa eta hutsa  
ixiltasunaren lore bitxia, a, a, a...  
Ixiltasunaren lore bitxia.

## **ETXEKO ANDRE** (Anje Duhalde)

Etxeko andre ederra nintzen, ederra eta maitea.  
Etxeak janzten nituen eta ni nintzen etxe betea.  
Etxeko jauna lan haundietan kanpoan zebilen beti.  
Behin neskame bat ekarri zuen ez nedin hain bakar senti.

Neskameari ez zion uzten langabeen asper zedin.  
Nirekin amets egiten zuen beste guzia harekin.  
Behin erran nuen eder naizeno aldatzea komeni zait.  
Ederra baina zerbait gehiago izango naizen norabait.

Maita, maita, maita nazazu gutxio  
Goza, goza, goza nazazu gehiago.

Etxe batean atea jorik nekez ideki zidaten.  
Txakurrak eta haurrak bakarrik ezagutu bait ninduten.  
Jauregi handi bat ikusi nuen eusko zeozer izenez.  
Arrotz gelara pasa ninduten nongoa zara esanez.

Euskal zeozer zioen batean hartu ninduten zatozka.  
Derrigorrezko poza ote zen gelditu zitzaidan kozka.  
Eliza edo zirudien bat han gogoz hartu ninduten.  
Noan kanpora pentsatu nuen hil usaina dago hemen.

Herriko andre eder izana kalean eskale nago.  
Maita nazazu gutxiago ta goza nazazu gehiago.

# ETXERUNTZ (Juan Carlos Perez)

Etixeruntz, etixeruntz,  
gizon bat dijua etixeruntz.  
Bideak udaldi, etxera itzultzen  
den gizon batekin betetzen dira.

Lautadatik datorren  
bidaia kantu batek.  
Malda orlegiekin  
amesten duen  
gasolindegietan  
atseden hartzen du.

Etixeruntz dijuan gizon bat  
bihurguneetaz ez da ohartzen.  
Ezta bide ertzeko artadiez ere  
infinituai beida, itsua dirudi  
heldu nahi du soilik  
etixeruntz dijuan gizon batek.

## **ETZERA** (Mikel Markez)

Etzera nire ametsetak printzesa  
baina etzaude gaizki.  
Etzera izarretara eraman nahi nuen hura  
baina galduko gera gauean.

Etzaitut engainatzen  
maite zaitudala esaten badizut,  
baina etzazu espero nik zu  
ilargira eramango zaitudanik.

Egia esanda ez dago bibolin musikarik  
txosnetako zarata besterik ez.  
Ez gaude urrez ta zilarrez jantziak  
baina musuak gozoak dira.

Etzaitut engainatzen  
maite zaitudala esaten ba dizut,  
baina etzazu espero nik zu  
ilargira eramango zaitudanik.

Bihar betiko lekuetan gurutzatzen bagera  
ez begiratu lurrera,  
irribarre iheskor batez agurtuko zaitut  
bizitza aurrera doa.

Etzaitut inoiz engainatu  
maite zaitudala esan ba dizut,  
baina jakin ezazu  
noizbait ilargira bazoaz  
han aurkituko nauzula.

## **EURIA** (Olatz Salvador)

Hiriak hartu du arima  
ta bazter guztiean galdu zait errima,  
nire geografia emozionalean  
kaleek kale egin didatenean.

Beste zu bat naiz zure suan zehar.

Ezer ez da hermetiko dena dago heze  
kanpoko uholdeek kristala kolpatzen dute  
orain betikoa berriz orain A ala B  
giltzapean babestu ala ireki... ireki eta urez bete.

Orain badakit nor den  
ateak erdi irekita uzten abilena  
sentimenduen zappingean galdu naiz  
ta badaki eguraldiaren iragarpena.

Euria zure begietan.  
Ezer ez da hermetiko...



## **EURI TANTA BAKOITZEAN** (Betagarri)

Maite ditut udaberrian agertzen diren lehen loreak,  
zeruak urdinak bilakatzean.

Udako gauetan lotaratzea izarrak itzaltzen direnean,  
argia somatzen hasten denean, urrunean.

Hostoak erortzen begiratzea, igande euritsuak udazkenean,  
leihoan jarrita gela barruan.

Gogoko dut elurrak neguan berarekin dakarren lasaitasuna,  
denbora gelditu balitz bezala.

Eta zu, beti pentsatzen zaitut  
hostoen erortzean, loretan, aaaaan, denetan,  
izarren itzaltzean, euri tanta bakoitzean, denetan, aaaaan.

Orduak pasatu gora begira hodeien itxurak ulertu nahian,  
guztiek daukate zeresanen bat, bilatzen bada.

Begiak itxita non-nahi etzanda egunak emango nituzke hala,  
haizeak kantatzen duen artean.

Eta zu, beti pentsatzen zaitut...

Elur-luma zuritan, hodeirik zailenean, loretan, aaaaan, denetan.  
Hostoen erortzean, euri tanta bakoitzean, denetan, aaaaan.

# EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ (Oskorri)

Euskal Herrian euskaraz,  
nahi dugu hitz eta jolas,  
lan eta bizi euskaraz eta hortara goaz.  
Bada garaia noizbait dezagun  
guda hori gal edo irabaz.  
Zabal bideak eta aireak  
gure hizkuntzak har dezan arnas.  
Bada garaia noizbait dezagun  
guda hori gal edo irabaz.

Euskal Herrian euskara  
hitz egiterik ez bada,  
bota dezagun demokrazia  
zerri askara.  
Geure arima hiltzen uzteko  
bezain odolgalduak ez gara.  
Hizkuntza gabe esaidazue  
nola irtengo naizen plazara,  
geure arima hiltzen uzteko  
bezain odolgalduak ez gara.

Euskal Herri euskalduna  
irabazteko eguna,  
pazientzia erre aurretik  
behar duguna.  
Ez al dakizu euskara dela  
euskaldun egiten gaituena?  
Zer Euskal Herri litzake  
bere hizkuntza ere galtzen duena.  
Ez al dakizu euskara dela  
euskaldun egiten gaituena?

## **EUSKAL HERRIKO LUR MAITIA** (Pantxoa eta Peio)

Euskal Herriko lür maitia guretzat lekhü haiti a.  
Heben irus bizi girela plazer dügü erraitia.  
Eta denek algarrekila kobla baten emaiti a!

Eüskal jentia mündian hedatürük aspaldian,  
zunbat eztira hiri hoitan bizi trixtüra handian...  
Heben aldiz ez othe gira untsa gure sorlekhian?

Euskal Herriko lür maitia...

Langile ta laborari lotzen dirade lanari...  
Artzainak ere hor negian begiak so bortiari...  
Arrantzalik ühaitz hegian kasü hede xuriari...

Gaztiak besta egile, ardüra kharrikazale.  
Astelehen goizan lanilat ezin jeikiz aski zalhe...  
Bena neskenegün gaietan, segür eztira logale!

Lanthare gazte goxua: hortan da gure gerua!  
Laketarazten balinbada herrian gazte saldua,  
Lehen bezala bihar ere biziko da Xiberua!

## EUSKAL R&R (Niko Etxart)

Izan gira Euskal Herrin rock&rollin,  
izan gira Euskal Herrin rock&rollin,  
izan gira Euskal Herrin rock&rollin.

Gaüa heldü denin, adiskidiekin, jiten gira festara,  
gaüa heldü denin, adiskidiekin, jiten gira festara,  
gaüa heldü denin, adiskidiekin, jiten gira festara.

Izan gira...

Bal-en untzenin, ene maitia, eneki jin zite "au coucou des bois",  
Bal-en untzenin, ene maitia, eneki jin zite "au coucou des bois",  
Bal-en untzenin, ene maitia, eneki jin zite "au coucou des bois",

Izan gira...

Zü eta ni, biak goxoki, dantzan dantzan rock&rolling,  
zü eta ni, biak goxoki, dantzan dantzan rock&Rolling,  
zü eta ni, biak goxoki, dantzan dantzan rock&rolling.

Izan gira...

## **EUSKAL HERRI NEREA** (Xabier Lete)

Euskal Herri nerea ezin zaitut maite,  
baina nun biziko naiz zugandik aparte.  
Anaien aurpegian begirada hotza,  
bihotz berotasuna izaten da motza.

Arratsaldeak beti dakarren tristura,  
neretzat izaten da bakardade hura.  
Argitu nahirik begiak, balio al du gure egiak?  
Bide bat aukeratzean, gelditu nahi nuke nere lurrean.

Euskal Herri nerea ezin zaitut maite  
baina nun biziko naiz zugandik aparte.

Ezin erabakirik esandako hitzak,  
pauso baldarrak ditu gizonen bizitzak.  
Neurri zuzen baten beharrak lotutzen dizkit nere indarrak.  
Erreka zabal garbia zugaran egon bedi gure argia.

Euskal Herri nerea behar zaitut maite,  
nun biziko nintzake zugandik aparte.  
Anaien aurpegian begirada hotza,  
bihotz berotasuna izaten da motza.

Urruti joan ezkerro berriz etortzean  
nolako zulo beltza nere bihotzean.  
Egin dezagun aurrera, gerra hontan saiatuko gera.  
Tristeia etxerik eza, lurrak emango dit bere babesa.

# EUSKAL PIZKUNDEA (Benito Lertxundi)

Gau luzea gau latza gau izar gabea,  
nekez gendun ikusi haren azkentzea.  
Gauerdian hil zaigu amona gurea,  
esku gogortuetan dauka gurutzea.

Gure sukalde zaharra etxe pizgarria,  
bart lagunarte goxo gaur bakar gorria,  
lehen epela jario orain hotz larria.  
Amonarekin batez dezu utzi bizia.

Amonaren aulkia hago sutondoan.  
Haren ipuinik al dek hik jaso gogoan?  
Hik ez? Laratzak? Ezta... Ez uste gozoan  
geunden ta gure poza betiko da joan.

Orduan belaunikatu nintzen hauts gainera.  
Hark gordetako sua zu ere hil ote zera?  
Hautsa pitinka urratu nuan, beldur bera.  
Sua bizirik dago galduak ez gera.

Geroztik ari nauzu hauts zaharrak astintzen.  
Aiton-amon guztien ipuinak jasotzen.  
Herriaren pitxiak magalean biltzen,  
ez baita hil gure herria zutitu gaitezen.

Hil ez da eta ezta hilko guk ez badugu nahi.  
Bizi irrikaz zegoen gure maitasun zai.  
Haren susper beharrez goazen nora nahi.  
Pizkor urra ditzagun malkar eta zelai.

Egizute nerekinaberri-bidea.  
Bildu dezagun nun nahi asaben lorea.  
Ta gaur danik goritu gure sukaldea.  
Ni nor naizen? Asmatu! Euskal pizkundea!

# EUSKARAREN TXANTXANGORRIA (Sarriegi/Artola)

Sortaldeko argi berriari  
ari zaio aspaldi.  
Arratseko azken izpiari  
egun eta gizaldi.

Bular gorri, hegakada arin,  
lur hauetan da emari.  
Erreka eta ibai zabalaren,  
itsasoaren egarri.

Lau haizetara hegan bera dabil airean.  
Ahotan, belarritan, su epelean.  
Kalearen bizia, herri honen irria.  
Euskararen txantxangorria!!

Haizearen magal leunean hedatu da oihua.  
Bihotzaren taupadetan, hitzak sortu du doinua.

Olatuek beren solasean aukeratutako harria.  
Denboran zehar dute jolasean eten ez dadin haría.

Lau haizetara hegan...

# EUSKARAZ BIZI NAHI DUT (Esne Beltza)

Gau eta egun euskaraz bizi nahi dut,  
eta gauza bera egin dezakezu zuk.  
Euskaraz bizi nahi dut goizean goizik,  
ez da amets bat nire nahia da baizik.

Etxean, kalean, lanean, lagun artean,  
mendira joatean eta ohean sartzean.

Egin ginen bizitzaren jabe,  
nortasuna eta izaera gorde gabe.  
Kaleetan bat egin genuen,  
elkar maite genuela erakustearren.

Ooooo, euskaraz bizi nahi!!  
Ooooo, ta euskaraz bizi naiz!!



# **EUSKO GUDARIAK** (Jose Maria Garate)

Eusko Gudariak gara Euskadi askatzeko,  
gerturik daukagu odola bere aldez emateko.

Eusko Gudariak gara Euskadi askatzeko,  
gerturik daukagu odola bere aldez emateko.

Irrintzi bat entzunda mendi tontorrean,  
goazen gudari danok Ikurriñan atzean.

Faxistak datoz eta Euskadi da altxatzen.  
goazen gudari danok gure aberria askatzen.

Gure aberri laztanak dei egin dausku-ta  
goazen gudari danok izkiluak hartuta.

Arratiarren borroka izan da Intxortan  
Mola ta erreketek gelditu dira bertan.

Ikurriña goi-goian daukagu zabalik  
ez da iñor munduan eratsiko dabenik.

Nahiz ta etorri Mola ta mila rekete  
ezta iñor sartuko bizirik garen arte.

Agur Intxorta maite gomutagarria  
Arratiar mutilen garaitza tokia.

Ezta iñor sartuko ez Euskal Herrian  
eusko gudariren bat zutik dagon artian.

# EZ BALETOR INOR (Deabruak Teilatuetan)

Ez baletor inor  
ene bihotzian hilko lirateke,  
nire desio antzuak.  
Ene arnasa zarpail  
ene azala itoko litzateke.  
Mirail kraskatuetan begira.

Eta zu bazatoz  
eta hi bahator.  
Huntzak lotzen banau  
murrailera, murrailera.

Ez baletor inor  
ene odoletan hilko lirateke,  
nire desio antzuak.  
Ene arnasa zarpail  
ene azala itoko litzateke.  
Mirail kraskatuetan begira.

Eta zu bazatoz...

Harri belar zuku izanen naiz  
maitasun zaharren bat mamitzeko,  
mamitzeko, mamitzeko.

## **EZ DA ONDO ATERAKO** (Nøgen)

He venido a mentir otra vez, subir aquí a decir que estoy bien y volver a empezar y volver a tropezar hasta que aprenda a caer. Eta beldur naiz ez ote naizen zure etxeko ateaz ahaztuko.

Ez da ondo aterako.

Saiatuko gara imajinatzen oraindik izarak kendu baino lehen ezezagunak ote garen, ez daukaguna eduki nahi gabe. Eta ez naiz inola ere zure etxeko ateaz ahaztuko.

Ez da ondo aterako...

Oraindik ez dugu guztia probatu,  
lurretik altxatzeko egurra ta belak lotu.  
Eskerrak ekaitzak haizea dakarren.

Ez da ondo aterako...

Ez da ondo aterako sutan dagoen etxe batean argazkiak salbatzea.  
Ez da ondo aterako amildegitik erori eta besoak astintzea.  
Ez da ondo aterako galduko naiz ozeanoren batean,  
ta bale bat harrapatuko dut zuretzako.  
Ta bale bat harrapatuko dut zuretzako.  
Ta bale bat harrapatuko dut zuretzako.

## **EZ DA POSIBLE** (Ruper Ordorika)

Egunak hogeitalau ordu, halaxe ikasi nuen nik.  
Zeozar sakonago esan nahi ta bururatu ez besterik.  
Lekutan egongo nintzen ni irratia piztuta,  
gau-pasata nengoen eta errainuak itsututa.

Ez da posible, ezin liteke.  
Ondo nago ta hau bakarrik behar nuen.  
Ez da posible, ezin liteke.  
Ondo nago ta gauza haundirik pentsatzeke.

Lo egin gabe goizaldean beheraldian nabil baina  
berehala aditu dut eguneroko parte  
berrogeitazortzigarren Josu dutela harrapatu  
gero gertatzeko zena orduan zeinek asmatu?

Ez da posible...

## **EZ DAGO ILUSIO FALTSURIK** (Hertzainak)

Emaidazu eskua ta hau gertatu  
zeneko lekura eramango zaitut.  
Baina zuk nahiago dena ederki  
ikustea begiak itxita.  
Zin eidazu ez dela berriz gertatuko,  
baina soilik ezpainak mugitzen dituzu ezta?  
Utzidazu esaten lekukoek ez dutela  
beti berdin ikusten.

Orain ez dago ilusio faltsurik,  
zure itxaropena zoroen solaspausa.

Zerraldo amaitua izan da kalean,  
denen aurrean eta zu mutu zaude orain.  
Zeinek ulertuko du, nagitsuak ixilik jarraituko dira?  
Zeinek pagatuko du inozentzi galduaren preziaua?

Atraku bat izan da eta ez da inoiz ezer errekueratuko.  
Eta nork daki, mendekua bilatzea egokia den ala ez?

Ez dago ilusio faltsurik, ez dago ilusio faltsurik!!  
Ez dago ilusio faltsurik, zure itxaropena zoroen  
solaspausa.  
Ez dago ilusio faltsurik, zure itxaropena zoroen  
solaspausa.  
Ez dago ilusio faltsurik, zure itxaropena zoroen  
solaspausa.

## **EZ DAKIT** (Txuma Murugarren)

Negarra datorkit begietara,  
eta uholde baten modura agertzen zait.  
Kale estuez gogoratzen naiz,  
ez dut ikusten egiten ari naizena,  
ez dakit zertan nabilen, ez dakit, ez dakit, ez dakit.  
ez dakit, ze ari naizen... ez dakit, ez dakit, ez dakit.

Leihoak itxita daude,  
eta lorontzietan sasi zikinak hazi dira.  
Zaldi erotua da nire bihotza,  
izuturik ihes beti dihoana.  
Nora doan ez dakiela,  
atzera uzten duenaren faltan dagoela.

Ta ez daki zertan dabilen, ez daki, ez daki, ez daki.  
Ez daki ze ari den, ez daki, ez daki, ez daki.

Eta lasaitu nahian Siberiako lautada  
izoztuez akordatzen naiz,  
eta Mongoliako laku isilez ere bai,  
edo ataka estuetatik hirira doazen indigenekin,  
eta orduan galtzen naiz, galdu naiz.

Ta ez dakit zertan nabilen...

Amak oparitu zidan bihotza, ez dakit, ez dakit, ez dakit...  
Bihotz deslai eta beldurtia, ez dakit, ez dakit, ez dakit...  
Gehiegi sentitzen duen bihotz ergel hau.

## **EZ DUT BILATZEN** (Peio ta Pantxoa)

Ez dut bilatzen aberatsen bidetarik ibiltzea!  
Ez dut bilatzen haundiekin nik jokoetan hartzea!  
Jende gehienak bezala sortua Ait´amen lurrari lotua!  
Behardunekin bizitzea: hori da neure hautua!  
Jende gehienak bezala sortua Ait´amen lurrari lotua!  
Behardunekin bizitzea: hori da neure hautua!

Jende oro dira behardun  
ukanik ere ontasun...  
Baina aberats guti jartzen  
jende xelebregun!  
Aberatsen eskua urrun heltzen,  
Zer nahi nun nahi tinkatzen...  
Gure herriaren geroaz  
dute tratatu merk egiten!

Otsoak bordan otsoekin,  
gaixo bildotsak hoiekin!  
Bainan bordazainak nun dira?  
Ager ditela argira!  
Euskal Herria euskaldunendako:  
berek erran behar hau nolako!  
gaurko gidariek baitute  
hori onartu beharko!

## **EZ DUT EZER ESAN NAHI** (Bap!!)

Ez dut ezer esan nahi  
ez dut esan nahi ezer.  
Ezin isilik egon isilik egon ezin.  
Ezin isilik egon isilik egon ezin.

Gaur egin dut bekatu  
eguzkiak bainan berotu.  
Izarpean baitut maitatu  
eta kabroi horien asmoak baztertu.  
Eta kabroi horien asmoak baztertu.

Bizi haiz alper alperrik.

Bihar naute juzgatzen  
ez omen dut ulertzen.  
Gaztaroa baizait luzatzen  
eta kabroi horien gogoak gorrotatzen.  
Gaztaroa baizait luzatzen  
eta kabroi horien gogoak gorrotatzen.

Bizi haiz alper alperrik.

Ez dut ezer esan nahi...



## EZ DUT NAHI (Berri Txarrak)

Gertu da eguna non herri honek ahaztuko dituen bere izena ta helbi dea eta akats likorez hordi nekez aurkituko dugu etxerako bi dea galbidea.

Gertu da eguna non heriotzaren korredore baten topatuko garen funtsezkotzat hartu genuen besarkada bat defendatzea rren nola garen.

Gertuegi eguna ezen tekno musikak soilik mugiaraziko duen gazteria non kaleko euria eta zure begiak deskriba ahal daitezkeen nola garen.

Ta nik ez dut nahi, bakarrik ez dut nahi egon.

Ta nik ez dut nahi, ta nik ez dut nahi egon.

Ta nik ez dut nahi, bakarrik ez dut nahi egon.

Ta nik ez dut nahi, ta nik ez dut nahi egon.

Ta nik ez dut nahi, bakarrik ez dut nahi egon.

Ta nik ez dut nahi, ta nik ez dut nahi egon.

Bakarrik ez dut nahi, bakarrik ez dut nahi egon.

## **EZ, EZ DUT NAHI** (Julen Lekuona)

Ez, ez dut nahi, ez, ez, ez,  
ez holako zibilizaziorik.

Kaiolaren adarrak ditugu alboan,  
Eskuindarrek eskua zabaldu juxtuan.  
Zigor indarren menpe tiroak gogoan,  
horrela bizitzerik ez dago munduan.

Ez, ez dut nahi, ez, ...

Poliziak nunahitik zerbait egitean,  
pentsatu arazi nahi makil indarpean.  
Irudi du generala kaiola batean,  
jarritako txoriak fusilen menpean.

Ez, ez dut nahi, ez, ...

Horregatik ez dut nahi gizonen kutsurik,  
zibilizazioaren sasi Jaungoikorik.  
Libre nahi dut bihotzez libre loturetik,  
basurdearen gisa hortzak estaturik.

Ez, ez dut nahi, ez, ...

## **EZ GAITU INORK GELDITUKO (Urtz)**

Nork esan du, ezinezkoa da?  
Nork onartu, hori hala dela?  
Zaila bada, ez da ezinezkoa,  
zaila bada, badago lortzea.  
Ta eroriz ikasten bada oinez  
has gaitzen bidea egiten.

Uo, o, o, o, o,... ez gaitu inork geldituko.

Nork esan du, ez dago lortzerik?  
Nork esan du, ez dut gaitasunik?  
Zaila dena, zaila bada berez  
guk ohi dugu zailago egiten.  
Ta eroriz ikasten bada oinez  
has gaitzen bidea egiten.

Ez gaitu inork geldituko...

Aaaaaaaaaaaa, bidai luzeena,  
beti, beti beti, pauso batez hasten da.  
Bat, bi, hiru, lau,...

## **EZ GARA HIL BEHAR** (Pasadena)

Helmuga non den ez badakigu,  
bazterrak deika baditugu,  
izan ginenaren hilobian ez gara hil behar,  
nahi bestetan biziberritzeko,  
galbide ederren bat aurkitzeko.

Orbainak leun ito nahi al duzu?  
Erruak ahaztu orain ez gara hil behar,  
nahi bestetan biziberritzeko,  
galbide ederren bat aurkitzeko.

Ez gara hil behar,  
nahi bestetan biziberritzeko,  
galbide ederren bat aurkitzeko.

# **EZ NAUZU IZANGO BERRIZ** (Doctor Deseo)

Zure jolasean liluraren mende,  
bihotz gabe ez dago sentitzerik ezer.  
Zerua zirudien infernuan gaude.

Ez, ez nauzu izango, berriz.  
Ez, ez nauzu izango, berriz.

Sexuaren zaporez beterik ahoa,  
gosez, mila kolorez galbidera doa;  
izotzak irentsi du oheko beroa.

Ez, ez nauzu izango, berriz.  
Ez, ez nauzu izango, berriz.

Love, love will tear us apart, again...

Izar iheskorretan sinistea ere!  
Maiteminaren minez konturatu gabe,  
zerua zirudien infernuan gaude.

Ez, ez nauzu izango, berriz.

## **EZ OHILDU** (Sara Azurza)

Askok badakite nor zaren,  
bide estuetan zehar begiratzen.  
Atzean, beti atzean zer ote dagoen.  
Baina inork ez daki argi hori zer den esaten.

Ez ohildu jakin nahi zenuenean,  
noiz altxatu ispilu horren aurrean.  
Bizpahiru segundu igarotzean ez hurbildu gehiago.

Gezurra ez da inoiz arnasten,  
buruaren engainutan engaiatzen.  
Aurrera zuzen aurrera ibiltzen,  
inguruan zer gertatzen ari den ikusi gabe.

Ez ohildu...

## EZEKIELEN PROPHEZIA (Itoiz)

Eremuko dunen atzetik dabil  
zulo urdin guztiak miatu ezinik  
eta euri zitalari esker bizi da.  
Ikusi zituen gurpil su tsu ak  
arranotu zaizkio, amo ratu  
eta bazter batean aurkitzen da.

Desafinatzeke nahasirik gabe  
jadanik agure itxura eutsirik  
gauaren pareta "sprai"atu duzu.

Eremuko dunen atzetik dabil...

Hamazazpi urteak  
hamazazpi zuri dira Ezekiel  
mingotsaren merkromina Ezekiel  
eter labur bat zara  
hari xingle bat zara, betiko...

Eremuko dunen atzetik dabil...

## **EZER EZ DA BETIKO** (Ken 7)

Udazken arratsaldetan  
iluntzen duenean,  
hostoak erortzen dira  
negar tanten moduan.

Eta parke hutsetan azken besarkada,  
esan nizun dama ez zela betiko.  
Gure artekoa bukatua dago.

Gogoratzen al dun neska hasi ginenean,  
Barre egiten genuen elkar begiratzean.

Eta parke...

Oroitzen al dun jaietan mozkortu ginenean,  
elkar maitatu genuen izarren azpian.

Eta parke...

Jadanik berandu da agur esatea,  
ez dela erreza aitor ezazu neska.  
Musuka nazazu begiak itxita.



## **EZIN AHAZTU** (Oskorri)

Gogoratuko zara herriko jaietan,  
gure gazte aroko egun alaietan.  
Umorea dantza ta salto guztietan,  
Irrifarre hutsa zen zure begietan,  
umorea dantza ta salto guztietan,  
oraindik amets dagit momentu haietan.

Brometan esan nizun "neretzako zara",  
nork pentsatu gerora zekarren zartada.  
Hamazazpi urtetan biok lotu gara,  
izan da hainbat ekaitz gaixo ta ikara.  
Hamazazpi urtetan biok lotu gara  
ta onenean horra, dena pikutara.

Bezperako gauean, mundutik kanpora,  
zenbat maitatu ginan, ta zenbat denbora.  
Musu bero eztiak eta arnasgora,  
etengabe datozkit gaur ere gogora.  
Musu bero eztiak eta arnasgora,  
zure azken mezua hura izango da.

Bizitza hala dala esaten didate,  
biziek biziekin aurrera jo ta ke.  
Denbora badijoa neretzako kalte  
ta zu nere bihotzak ezin ahaztu maite.  
Denbora badijoa neretzako kalte,  
mundu denak ezin du zure hutsa bete.

## **EZIN LEIKE** (Delirium Tremens)

Noiz arte jarraitu beharko dugu ikusten  
horrenbeste uniforme kalean zehar lasai pasiatzen.  
Eta honela ezin leike hemen ibili  
ezin leike hemen bizi,  
ezin leike inondik inora gustora ibili.  
Eta honela ezin leike, ezin leike hemen bizi.

Noiz arte jarraitu beharko dugu ikusten  
jendea izorratzeko gogoia besterik ez daukate.  
Eta honela ezin leike hemen ibili  
ezin leike hemen bizi,  
horrenbeste pasma, ertzaina ta pikolo ikusiz.  
Eta honela ezin leike, ezin leike hemen bizi.

Eta honela ezin leike hemen ibili  
ezin leike hemen bizi.  
Eta honela ezin leike inondik inora  
gure gauzak gure gustora adierazi.  
Ez! Eta honela ezin leike,  
ezin leike hemen ibili, ezin leike hemen bizi!

## **FENNEH** (Lurra)

Begiratu itsasoa  
nire begien aurka lehertzen.

Malkoek alderantziz  
itten dute bidea,  
atzera iturbururantz.

Hartu nire tristura  
orain zurea ere bada.

Hartu nire tristura  
orain zurea ere badaaaa, bada.

Memoriarik hauskorrenaren  
hegian batzen zaizkit  
nire zauriak eta orbanak  
azal bakarrean, azal bakarrean.

Hartu nire...

## **FESTARIK FESTA** (Tapia eta Leturia)

Nahiz gauza asko ezagutu munduan,  
bada zertxobait ta hartu nahi dut kontuan.  
Ez dakit nola esplikatu kantuan,  
neskatxa bat dut hemen nire onduan.

Gure bizitza juerga eta parranda,  
gero egunez lo egiten dugu etzanda.  
Horren errudun etsaien bat izan da,  
gu non gabiltzan seguru bera han da.

Festarik festa lan egin behar gauero,  
festarik festa hor nabil ni egunero.  
Gure etsaia benetan dago ero,  
zigortzen gaitu inoiz hutsegin ezkerero.

Aizu neskaxa ba al dakizu benetan,  
norekin hasi zeran hartu-emanetan?  
Hau da egia ziur zaude horretan,  
bihurtu leike maitasuna penetan.

Konplikazio anitz bada gurekin,  
bizitza honi ezin diogu aldegin.  
Nire aukera ez bazaizu atsegin,  
gure artekoa beharko da desegin.

# FILOSOFI ALDAKETAK (Beti Mugan)

Filosofi aldaketak  
tabernetako komunetan.  
Galdutako senak bila  
ni ez banaiz ni, zu nor zera?

Gose nago eta zu hor  
ez gera inoiz asetuko.  
Ez sexu hotzak eta heriotzak  
gakartzate beti honuntza.

Ez gera inoiz asetuko,  
Jack Kerouac non ote dago?

Iheskorrak geralako  
hemen diraugu oraindino.  
Marra zuri bat, ahulezia  
beste mundu baten gabezia.

Ez gera inoiz asetuko...

Filosofi aldaketak  
liburu baten begietan.  
Ahulezia ala kemena  
zer ote da eromena?

## **FOISIS JAUNA** (Itoiz)

Ez, ez dut utziko inori  
nere barnean agintzen  
Zu inor zara eta hala ere  
menperatzen dia zu  
Lasto ustela izango naiz?  
Bakarrik dakit hala naizela eta...

Zuk bakarrik dakizu  
Pilatos zenbat maite dudan  
Zuk, zenbat miresten zalantza  
zenbat nazkatzen beldurrak  
Zuk bakarrik ezagutzen nire barnea, nire kanpoa.

Ni reenarnatuko banintz  
obeitzeko nintzateke  
eta lo naturaren sartadak  
pairatzen ditut garunetan  
biolin hotsak bailiran  
Horregatikan maite zaitut gaur.

Bai, orori bai esanaz  
barrearen mugetan nauzu  
Gaur elurra bonbilletan  
funditzen den bezala nauzu  
Gutxirekin naiz zoriontsu  
ikusi zaitut... ikusi zaitut...

## **FORMAK** (Benito Lertxundi)

Formak onak dira haietan  
galtzen ez zaren artean.

Hogei urtez egon nintzen  
eskaparate bate an,  
Desafiozko begiraden aurrean.

Segurtasun beharrez  
hainbat forma saiatu nituen. (BIS)  
Jatorrizkoez ahaztu nintzen  
segurtasun beharrez  
hainbat forma saiatu nituen.

Kantari historikotzat omen naukate,  
agian bitrinen bat dut itxaroten,  
libra nadila hortatik gutxienez  
eta urra nezatela  
larros-arantzek azkenerarte.

Formak onak dira, bai la ra la lia la larai...  
baldin eta haietan... La ra la lia la larai...  
baldin eta haietan ez bazara galtzen...  
formetan ez bazara galtzen...

## **FORJARIEN KANTA** (Oskorri)

Gaur forjariak lana utzirik  
gatoz guztiok kalera,  
labeak oso itzalduta eta  
protesta bat egitera,  
mailu, burdinak bota ditugu,  
hantxe bertan bazterrera;  
ez degu nahi berriro ere,  
toki hartara lanera.

Dinbili danba! gau eta goiza, su eta keean artian,  
sosegu eta deskantsu gabe geure buruen kaltian;  
horrexegatik lanak utzirik gatoz guztiok batian.

Gora bai gora beti, gora forjariak!!  
Langile trebe zintzo da mailukaria.  
Lurpera ta lurpera beti nagusia!!  
ez digute egingo nahi duten guztia.  
Ez badigute ematen arrazoia guri,  
ez badigute ematen behar legez ongi,  
su emango diogu gure fabrikari  
eta nagusiaren etxe guztiari.

Hiru babarrun jatiagatik horrenbeste neke, pena;  
erdi ahuldua aurkitutzen da forjariaren barrena.  
Gure kontura egin oi dute nagusiak nahi dutena,  
langileen bizkarretik gizendu dute beren poltsa dana.



## **FURRA FURRA** (Oskorri)

Furra, furra, fandangoa,  
hortxe duzu fandangoa geure gustukoa.  
Hortxe duzu fandangoa geure gustukoa.

Gaur goizean jeiki naiz suerte onian,  
tanke bat topatu dut neure kafesnian;  
ez dakit zer daukagun bake ala gerra  
bainan nik badaezpada egin dut puzkerra.

Zerbait egitekotan zuzen eta artez,  
zorri bat garbitu dut ur pistola batez.  
Orain galdurik nago beldurrez Beteta,  
muniziorik gabe gelditu naiz eta.

Neure arma bakarra dut akordeoia,  
hauspoari eraginez dirudi leoia;  
eskua jaten badit on egin dezaion  
Cervantsei holakorik gertatu zitzaion.

Eta orain banoa berriro ohera,  
bila ez badatozkit lolo egitera;  
bihar ikusiko da zer dagoen berri,  
jakintsuenak ere ezin du igerri.

# **GABERAKO ATERBEA** (Mikel Laboa)

Kontatu didate Nueva York-en  
Broadway eta 26 karrikaren kantoian,  
Negu gorrian, gizon batek gabero  
jendeari otoi eskatzen  
aterbea bilatzen duela  
bilutsirik daudenentzat.

Mundua ez da era hortan aldatzen  
Gizonen hartu-emanak ez dira hobekitzen  
zama-aroa ez da hola laburtzen  
Baina batzuek gau batez, ohea dute,  
aterbean haize hotzik ez eta  
bereri zijoakien elurra, karrikan ari da.

Liburuaren irakaspenik ez ahaztu gizona!

Gizon batzuek gau batez ohea dute,  
aterbean haize hotzik ez eta  
bereri zijoakien elurra, karrikan ari da.  
Bainan mundua ez da era hortan aldatzen  
Gizonen hartu-emanak ez dira hobekitzen  
zama-aroa ez da hola laburtzen.

## **GAIZKI PENTSATZEN** (Hertzainak)

Hator ba, neskatxa, gauza bat esan nahi dinat.  
Ez natorren lanean ala ikastenhabilenetan.  
Erabat askatua sentitzen naun gau ilunetan,  
une atsegina elkar pasatzea nahi dinat soilik.

Ez benetan ez nagoela mozkorrik  
ez benetan ez naun drogatzen ia.  
Agian zeraren apur bat  
beharko ninuken... ez pentsa gaizki.

Gaizki pentsatzen, hasi naiz betiko lez pentsatzen  
zuek beti zaudetela pentsatzen  
gu beti ari garela gauza bera pentsatzen.

Ez joan, ez nitek nik inola ere kalterik ein nahi.  
Hator ba, une atsegina elkar pasatzea nahi dinat soilik.

Ezetz ba, ez nagoela mozkorrik  
zergaitik hago hain ixilik?  
Agian zeraren apur bat  
beharko ninuken...ez pentsa gaizki.

Gaizki pentsatzen...

## **GALDERAK 1** (Anari)

Azkenian azaldu dira, ekidinezinak,  
Aspaldian sahiestutako hitzak:  
zu, ni ta etorkizuna.

Orain arte momentuarekin  
nahikua izan da.  
Orain, ordia, badatoz galderak, maitia.

Utzi ditzagun alde batera,  
erantzunak entzuteko prest ez bagera.  
Galdera guzien atzian erantzun berbera,  
bakarrik geratze horri beldurra.

Galderak ez dakar beti baietza,  
erantzunak berandu heltzen dira,  
tapatu ezin dena ateraz: oinazea.

## **GALTZAILEAK** (Beti Mugan)

Eskuak lanpetuak ditut beste bat egiten,  
bere errituak baditu isolamenduak ere.  
Ispilu bat izango banintz ilsladatzen zure grina,  
orduan ikusiko zenuke biok gaudela toki berdinan.

Eta ezin dut onartu gizarte honen hiztegia  
Nork demontrek izendatu gaitu...  
Nork demontrek izendatu gaitu:  
Galtzaileak!! Galtzaileak!!

Eskuak lanpetuak ditut beste bat egiten  
Mundu hau nik ez nuen asmatu  
beste bat ezingo nuke.

Ez dut batere argi ikusten  
zein aberetan bilakatu garen  
Sinisten dugunaren alde ordea  
ezin dugu utzi borrokatzen.

Eta ezin dut onartu...

## GANORABAKO (Urtz)

Ni al naiz, ziur al zaude  
negar eginarazten dizun ganorabako hori?

Burua ez badut galdu  
nola, nola ninteke izan horren leloa?

Auuuuu , zatoz nirekin...

Auuuuu , nirekin...

Ni al naiz zure aholkuak  
sarritan entzun ez dituen ganorabako hori?

Ni al naiz zure ardura  
sarritan eskertu ez duen ganorabako hori?

Zatoz nirekin...

# GARAI POSTMODERNOAN

(Don Inorrez)

Garai postmodernoan, aan.

Garai postmodernoan.

Garai postmodernoan, aan.

Garai postmodernoan, aan.

Sozialista eta liberal

biak aldi berean.

Garai postmodernoan...

Komunista eta kontsumista

ateo eta elizkoi.

Sozialista eta liberal

denak aldi berean.

Gero eta gehiago dira

ustel-jatorrak politikoki zuzenak, zuzenak.

Garai postmodernoan...

## **GARUNA ETA GORPUTZA** (Kerobia)

Atzo laguna joan zan  
berriz inoiz ez itzultzeko.  
Haizeak eramanda  
oroimena soilik uzteko.  
Gogorra da bizitza  
ulertzen ez denean,  
hartu-eman batean  
guztia aldatzen bada.

Negar egin zenuen  
bizitza ulertzeko,  
gauetz jaio ginela  
egunsentian hiltzeko.

Garuna eta gorputza  
bihurtu dira muga,  
orain gure izarretan  
berriz jolastuko gara.



## **GASTEIZKO GAUA** (Zarama)

Iluntasunaren oihuak  
kalean dira, orain odola.  
Ta gauaren erdian  
su madarikatuak  
dirdiratzen dira denen aurka.  
Ta gauaren erdian  
ezin isildu arazi herri ahotsak.

Gasteizko gaua, gau ilun hontan.  
Etorkizuna heltzen ari da.

Gau ondoren heldu zen goiza,  
kaleak gorriz tindatuak.  
Eta betiko gezurrak  
esaten dituztenek,  
hitz egiten zuten justiziaz.  
Eta betiko gezurrak  
ezin isildu arazi herri ahotsak.

## GÂTEAU BASQUE (Ganbara)

Ihautiria hülantzen, maltesak orhitzen:  
ase baten egitera dira abiatzen.  
Salazar armatürik, ihizera joaiten;  
fortuna dü egiten.

Paradis-en gathia, oren tristin sorthia:  
Salazar armarekin haren atzemaitia,  
laur lagünekin, gero dobatan jalia!  
Ai zer apetitia!

Gathia zen mairfundi, zahar eta itsusi!  
Hamabost urthe hartan jaten zin xixari,  
barbalot, süskanmdera, arrathu, berhilki...  
ez zena greüt-garri?

Gathia die ezari aroztegian segretki:  
Hamabost egünez han herakitazi;  
Nola beitzen zaharra, trendeztia gati,  
gozatzeko hobeki.

Gathü-jalik nur diren nik ez dit erraiten:  
Sants bere emaztiareki... balinbada han ez zen!  
Pourtaü gathü-jabe dela, ez dit entzün ukhen  
ez, ez dit sinisten!

Cette chanson imprimée le once février  
de l'an mille sept cent quatre vingt treize  
a tous j'advertirai:  
Maltesak gathietarik begira-itzazie  
zunbait koi dirade!

# GAUA ETA NI (Benito Lertxundi)

Zu bezelakoa naiz, oi gaua: iluna eta biluzia.  
Ene ametsen garretan dagoen bidean barna noa.  
Eta ene oinak lurra ukitu orotan egundoko haritza sortzen da.

Ez, zu etzara etzara ni bezelakoa, oi eroa;  
hondarrean egin hatza neurtzera oraindik ere atzera.  
hatza neurtzera begiratzen baituzu, begiratzen bait duzu.

Zu bezelakoa naiz, oi gaua: ixila eta sakona.  
Eta ene bakardadearen bihotzean bada erditzen ari den jainkosa bat.  
Eta bertan zerua eta infernua bat egiten dira.

Ez, zu etzara, etzara ni bezelakoa, oi eroa;  
oraindik ere oinazeak ikaratzen bait zaitu.  
Eta osinaren dei-kantak, dei-kantak izitzen.

Zu bezelakoa naiz, oi gaua: basa eta ikaragarria.  
Ene belarriak menperatu herrien, menperatu herrien garraxiz  
eta ahaztu lurren asperenez beterik baitaude.

Ez, zu etzara, etzara ni bezelakoa, oi eroa;  
oraindik ere zure ni ttipia laguntzat daukazu.  
Eta ez duzu zure ni haundiaren adiskide izatea lortzen.

Zu bezelakoa naiz, oi gaua: bihotz-gogorra eta beldurgarria.  
Ene bularra garretan dauden itsasontziek argitua baitago.  
Eta ene ezpainak hildako gudarien odolez bustiak.

Ez, zu etzara, etzara ni bezelakoa, oi eroa;  
oraindik ere zure bizki-arimaren grinak daukazu.  
Eta ez zara bihurtu zuhaurren lege bakarra.

Zu bezelakoa naiz, oi gaua: gatz eta piper ene itzalaren babesean  
lo dagoen hura ardo birjinaz mozkortua baitago orain.  
Eta jarraitzen didan emakumeak bekatu egiten du alaiki.

Ez, zu etzara, etzara ni bezelakoa, oi eroa;  
zure arima zazpi toleseko oihaletan inguratua bait dago  
eta ez deramazu bihotza, bihotza eskuetan.

Zu bezelakoa naiz, oi gaua: jasale eta grinatsua.  
Ene bularrean zimeldu musuzko hil-atorretan  
ameka maitale hil baitaude hobiratuak.

## **GAUEKO ARGIAK** (Ken 7)

Argiak piztuta topatzen ditut  
kalera irteten naizen orduan.  
Iluntzean nork pizten ote ditu  
argi horiek ezkutuan?

Atzo itzaltzen ikusi nituen  
goizean lanerantz nindoala.  
Gaua erretiratzen hasia zen  
eguzkia jalgitzen zela.

Argiak onak dira, jakin nahi nuke nola,  
jakin nahi nuke nork, zerk pizten dituen...  
Jakin nahi nuke nola pizten diren...

Ametsak pizteko eta esperantza  
ilunaldietarako, argiak.

Batak bestearen egietan ere,  
desioak ikusteko, argiak.

Jakin nahi nuke argiak pizten...  
jakin nahi nuke...  
Jakin nahi nuke nola pizten diren...

Gogoak ere hirietako argi antzera  
piztu daitezen gure gauetan.

## **GAUEKO BORROKA** (Pikutara)

Amodioaren guda bizituta dago,  
ezin jakin nola gertatu zen.  
Pauso bat emanik aurrera,  
ez daukazu gogorik jakiteko.

Etsaien arteko borroka latzak,  
bihotzak gorrotoz bete ditu.  
Irabazleak hartuko du,  
bere etsaien odol beltza.

Gaueko borroka maitasun latza,  
jakin gabe nola lortu duzun.

Gaueko borroka maitasun latza,  
jakin gabe nola lortu duzun.

Orain kalean berdin gabiltza,  
zu gabe noski.  
Nagitsuek faltan bota zaituzte,  
kaleetan zehar.

Gaueko borroka...

## **GAUEKO BURUKO MINA** (Zarama)

Gaua hasi zen hizketan egoeraz  
ohizko lagunekin eztabaidaka.  
Geroxeago aritu ginen futbolaz  
ta "tele" alu gorrotagarriaz...

Zenbat esaldi ta hitz hutsal  
gaueko buruko mina!!  
Mingaina agortua daukat  
belarriak bero bero eta puztuak!!

Denok batera ozenki eta oihuka,  
tabernan zarata tope daguela ta...  
Ez dakit zer diouzun? Ez didazu entzun?  
Moskeatu al zara? Ezin dut ulertu!!!

Zenbat esaldi...

Aditu lagun, barkatu, esan altuxeago, ez dizut entzun...  
Ixilik hau, mesedez, honela ez dugu elkar ulertzen!!  
Horrenbeste oihu bota eta gero  
gai ezberdinetan geunden guztiok!!

# GAUEKO ELE IXILEN BALADAK (Benito Lertxundi)

Gauaren lumentz idazten doazen  
ele ixilak nator kantatzen,  
jainko guztien atetan deitzen,  
asekaitz noa bizitzan barnatzen.  
Jainko guztien atetan deitzen,  
asekaitz noa bizitzan barnatzen.

Fruitu ukakorrak ditut usaintzen,  
amets haragikoietan ixurtzen,  
grinen zirrarek naute edertzen,  
gauaz maitaleen suan naiz erretzen.

Ene gogozko egunsentian,  
druiden arpen oihartzunean,  
iheskor noa, oharkabea,  
izkutuko oroitzapen bideetan.

Udazken margoz andere lurra  
emeki dator ene baitara,  
zimeldutako sinismen hura  
jainkozko ikuituez laztantzera.

Hatzmamiez ferekatzen dudana  
belar hezearen funtsean,  
biluztuz noa, lurkoi bidaiari,  
oharpen zaharren dastatze gozoan.

Itxaropena, zatoz nerekin,  
apainduaz jantzi txuriekin,  
ene maitale nahi zaitut egin,  
aitonen semeen ohorearekin!!

# GAUEKO ILUNEAN (Herrikoa)

Gaueko ilunean,  
zuhaitz bitartean,  
ilargia ageri da,  
borobil betean.

Olara, lario,  
olara, lario,  
olara, lario,  
olara, lario.



## **GAUERDIAN** (Gaizkiñe)

Argiak itzaltzean gauerdian,  
lehortzeko zintzilikatutako erropa  
jasotzen duen emakumeak  
iluntasuna pizten du,  
iluntasuna pizten du.

Iluntasuna pizten du.  
Iluntasuna pizten du.

Argiak itzaltzean gauerdian,  
lehortzeko zintzilikatutako erropa  
jasotzen duen emakumeak  
iluntasuna pizten du,  
iluntasuna pizten du.

Iluntasuna pizten du, gauerdian.  
Iluntasuna pizten du, gauerdian.  
Iluntasuna pizten du, gauerdian.  
Iluntasuna pizten du, gauerdian.

## GAU ILUN (Urtz)

Gau ilun honetan,  
nire ezinean ohartu naiz.  
Ezerrek bete dezakeela  
zuk utzitako hutsa.

Harresi hotz hauek  
betirako gaituzte banatzen,  
itxaropen eta geroa  
haizeak eramanez.

Oroit zaitut, iragana ezin ahaztu.  
Bihotzan, zure irudia izanik  
alboan ez diot beldurrik itzalari...ez.

Ez kateek ezta hormek  
ez dute inolaz ere  
gure barne odol sua  
sekula itzaliko.

Baina preso hil ezker  
etzazu nigarrik egin  
sortu ginen ama lurran  
bait gera elkartuko.



## **GAUR** (Zea Mays)

Berriz ere erratuko naiz, gaur, gaur, gaur.

Berriz ere erratuko naiz, gaur, gaur, gaur.

Berriz ere erratuko naiz, gaur, gaur, gaur.

Berriz ere erratuko naiz...

Urteak hamar dituenean hamaika aldiz erori egin naiz.

Hirurehunekin hezur guztiak hautsita.

Suposatzen da ikasiaz berriro jausten ez zarela

baina niretzat teoria faltsua da.

Oo, oo, oo, oo, oo, oo, oo, oo.

Denbora galtzen trebea naiz zerrenda luzeen erregina.

Idatzitakoa galtzeko ere aparta,

baina egia esan maite ditut nire akatsak, nire huts guztiak.

Ta ez naiz ezkutatuko besteen aurrean.

Berriz ere...

Urteak hamar dituenean hamaika aldiz erori egin naiz.

Hirurehunekin hezur guztiak hautsita.

Baina egia esan maite ditut nire akatsak, nire huts guztiak.

Ta ez naiz ezkutatuko besteen aurrean.

Suposatzen da ikasiaz berriro jausten ez zarela

baina beste behin egin dut gaur, gaur, gaur, gaur, gaur.

Ta hurrengoan altxatuko naiz ta berdin zait dena!!!

Berriz ere erratuko naiz, gaur, gaur, gaur.

Berriz ere erratuko naiz, gaur, gaur, gaur.

Berriz ere erratuko naiz, gaur, bikaina naiz arte horretan!

Berriz ere erratuko naiz, gaur, gaur, gaur,...

## **GAUR EURIA EGIN DU** (Deabruak Teilatuetan)

Gaur ez zaitut ikusi,  
ez didazu deitu.  
Eta orduak zurekin,  
bezala eman ditut.

Gaur maitasunaz eta  
heriotzaz hitzein dugu.  
Ta tximeleta eri bat,  
gelan sartu zaigu.

Gaur ez zaitut ikusi,  
ez didazu deitu.  
Eta orduak zurekin,  
bezala eman ditut.

Gaur maitasunaz eta  
heriotzaz hitzein dugu.  
Ta tximeleta eri bat,  
gelan sartu zaigu.

Gaur ez zaitut ikusi...

Gaur euria egin du...

# **GAUR EURIPEAN** (Don Inorrez)

Gaur euripean  
ikusi zaitut, euripean.  
Etzeneraman  
ez aterki  
ez estalkirik.

Eta euria  
beste guztientzat  
bakarrik  
ari zuela  
zirudien.

Bainan zu  
etzara bustitzen.  
Bainan zu  
etzara bustitzen.

Gaur euripean  
ikusi zaitut, euripean.

## **GAUR GOIZEAN** (Juan Carlos Perez)

Gaur goizean triste esnatu naiz,  
zuk besteik ez dakizun gauza horregatik mami,  
ta eguzki ahulak, lehioan agertu ta  
deitu nau bere izpi bero ta argitxuez...

Eta Cachao jotzen hasi da tura, tura,  
maiteminduen herrian, herrian!!  
Eta Cachao jotzen hasi da tura, tura,  
danzon neketsu bat airean, airean!!

Gaur goizean...

Irratia piztu det goiz berotsu hontan,  
"eta orain dantzan eiteko kantu bat",  
zeozer hotzagoa gustatuko ziten,  
elurra, renoak edo holako zerbait!

Jendea dantzan dago Isora Clubean,  
mozkortzen nauen danzon neketsu hoi,  
baina ene bihotza azkarregi dijua  
denbora gerauta don saloi hontan!

# GAURKO IRAULTZAILEAK (Julio Kageta)

Tonu originala  
MI

LA RE LA RE LA RE DO FA DO  
Ar do dosis bat erortzen da barra gainean dagoen  
 FA DO FA DO FA

Egin parte de gerraren gainian.

LA RE LA RE LA RE

Hamaseigarren orrialderaino

DO FA DO FA DO FA

e gunkari osa bustitzen du.

LA: X-0-2-2-2-0

RE: X-X-0-2-3-2

DO: X-3-2-0-1-0

FA: 1-3-3-2-1-1

SOL: 3-2-0-0-0-3

MI: 0-2-2-1-0-0

SOL DO RE DO SOL DO RE DO

Gose greban dauden presoek ardo merkea dastatzen dute

SOL DO RE DO SOL DO RE DO

Manifa konbokatoria bat, palestinarrek egindako barrikadak.

SOL DO RE DO SOL DO RE DO MI

Emakume bortxatuaren negarrak uholdetuta xurgatzen dira.

LA MI LA RE SOL RE SOL DO

SOL DO RE DO SOL DO RE DO SOL DO RE DO SOL DO RE DO

Gaaaaurko iraultzaileak, gaaaaurko iraultzaileak.

MI LA

Gaurko, gaurko, gaurko, gaurko, gaurko,

MI LA RE SOL RE SOL

gaurko, gaurko, gaurko, gaurko,...

LA RE LA RE DO

Gaitzerdi, Danborenea hamaseigarren orrialdearen erdi erdian ito dela.

LA RE LA RE LA RE LA RE DO FA DO FA DO FA

Gaaaaurko iraultzaileak, gaaaaurko iraultzaileak.

SOL DO RE DO SOL DO RE DO

Kamareroa barra sikatzen saiatzen bitartean

SOL DO RE DO SOL DO RE DO MI LA

basoa bota duena ta bere kuadrilla osa beste taberna batetara doaz,

MI LA

barran eserita ni bezain agobiatuta dagoen tipo bat

RE SOL

pentsakor, pentsakor, pentsakor, pentsakor, pentsakor,

RE

pentsakor, pentsakor, pentsakor, pentsakor, pentsakor,



pentsakor, pentsakor, pentsakor, pentsakor gelditu da.

## **GAUR NI NAIZ** (Zea Mays)

Gaur ni naiz urperatu dena,  
gaur ni naiz kemena.

Ura guztiz ontzitik atera denean,  
beste lau beteta ta lurrean uholde bat.

Urez gainezka arnasten ikasiz  
iturria ezin itzaliz, oihukatuz.

Gaur ni naiz...

Lehorrean hondoratzen dena ezin da.  
Igerian inondik atera ezin da.

Urak bustitzen ez duenean ,  
baina berdin itotzen duenean, oihukatuz.

Gaur ni naiz.

## GAZTELUGATXE (Oskorri)

Seirehun urte inguru  
kosta aldean zen gertatu,  
itsasgizon zahar batek  
behintzat hala zidan kontatu,  
enbat itzelak Gaztelugatxen  
untzi eder bat zuen hondatzen,  
euskaldunontzat barruan  
altxor haundiak ei zekartzan.

Igaz udako goiz batez  
eguzkiaren lehen printzez  
jo nuen itsas barrena  
bihotza dardara eginez,  
murgildu nintzen ur gardenetan,  
arakatu ongi hare-haitzetan,  
han zegoen tinkaturik  
goroldioak estalirik.

Indar guztioz bultzatzen  
altxor kutxa zabaldu nuen,  
atzera egin ninduen  
uhin haundia altxatu zen,  
inor ez zapaltzeko gogoa,  
zapalduak ez izatekoa,  
hau da gure urguilua  
altxor guztien iturria.

Eta hau hola ez bazan sar nazatela kalabazan,  
ipui txit barregarriak kontatu nizekizuen plazan.

## **GEREZI BEGIAK** (Joxe Ripiau / Eric Donaldson)

Cherry oh, Cherry oh baby, gerezi begiak.

Jamaikan izan ginen

baita reggaea dantzatu ere.

Oo, io, io, io, io, oo, io, iee, io, io.

leeeeeeeeeeee, ieeeeeeeeeee.

Cherry oh, Cherry oh baby, gerezi begiak.

Cubara joan ginen

baita sona dantzatu ere.

Oo, io, io...

Cherry oh, Cherry oh baby, gerezi begiak.

Santo Domingon izan ginen

baita merengea tzatu ere.

Oo, io, io...

Cherry oh, Cherry oh baby, gerezi begiak.

Sosa bukatu zaigu

hemen dantzatuko degu.

Oo, io, io...

## **GERRA BAINO LEHEN** (Bide Ertzean)

Gerra baino lehen, bizitza bizitza zen.  
Arratsak luze, bizikleta bat.  
Txalupa bat errekan.  
Arratsak luze ziren gerra baino lehen.

Igandetan dantzaldia herriko plazan.  
Neska-mutilen begiradetan,  
gerrarik ez zen gerra baino lehen.

Bizikleta bat, txalupa bat errekan.  
Arratsak luze ziren gerra baino lehen.

# GIZON ARRUNTAREN KOPLAK (Xabier Lete)

Kantatzera noazu bertso bat edo bi  
herenegun jarriak gizona arruntari.  
Antoniyo, Lorentzo edo Joxe Mari,  
gauza ederra denik ez ukatu neri.

Goizean jeikitzean lehenbiziko gauza,  
aba zabaldu eta jazten ditut galtzak,  
muturra garbitzean nolako zalantzak  
ezin kendurik nabil loaren orratzak.

Kafesnia hartuta horrekin batera  
ahal baldin badet behintzat noa komunera:  
aurrian papera ta atzian papera,  
periodikua letuz ilustratzen gera.

Etxetikan lanera noa nahiko mantso.  
Realak kuarto-uno galdu zuen atzo,  
kalian bi zakur ta beste hiru atso,  
egun on don Pepitoeta don Alfontso.

Gauzak gaizki dabilta, hau da komeriya,  
Afganistan-en gerra piztu zuten iya,  
tokatzen baldin bazait aurten loteriya  
erosiko beharko det zitroen berriya...

# GAZTETASUNA ETA ZAHARTASUNA (Mikel Laboa)

Ene izpirituan bazen zenbait bertsu,  
oraino den guzia etzerait hu stu.  
Zertaz dutan solasa emazue kasu,  
esplikatuko baitut ahal bezain justu.  
Zahar bezain prestu, odola zaut hoztu.  
Bihotza ere laztu, gorputza beraztu.  
Oraino gazte banintz banuke gustu!

Zahar gazteen arteko hau da parabola:  
Zuzen esplikatzia hein bat gogor da.  
Gaztea ez daiteke adin batez molda,  
gorputza sendo eta azkar du odola;  
Zaharra ez da hola, iragan denbora  
etortzen gogora ta ezin kontsola...  
Nekez bihurtzen baita zahar arbola!

Egunak badoazi egunen ondotik,  
ez dira elgar iduri joaiten hargatik:  
Atzo iguzkiaren distira zerutik,  
egun hobela jalgi itsaso aldetik:  
Euria ondotik hasi da gogotik,  
hedoien barnetik hortakotz badakit.  
Erituko naizela bustiz geroztik!

## **GEOGRAFIA** (Eñaut Elorrieta)

Batzuk sorlekitik  
hurrin hiltzen dira  
derrigor hilkutxa batzuk  
sehaskatik hurrun dira ehortziko.

Ni ez naiz zigorretan hilko  
haretzan eroriko naiz  
gerlako geziak lez.  
Selban hobiratuko naute  
lehengusu eta lagun  
gutunez estalirik.

Haizeak gure errautsak  
ditu eramango  
beste hizkuntzetan  
mintzo diren ezpainetaraino.

Ni ez naiz...

Eta gu gabe iraunen du,  
gu gabe zutik irau nen du  
gure aitaren etxeak,  
gu gabe iraunen du, gu gabe.

Ni ez naiz...

## **GO!AZEN** (Eitb telesaila)

Berriz uda, ondo pasatzera gatoz.  
Dantzatu eta abestera ikasteko asmoz.  
Amets berriak ezagutu,  
maitasun hitzak xuxurlatu.  
Izar azpian oihukatu!  
Entzun orain zuk:

Ezin jakin noiz datorren udarik onena  
Bat, bi, hiru, lau... Goazen!

Batzuk ez gara Basakabiko ume mokoak... Ez! Ez!  
Zerua da gure muga bakarra...  
...eta gazteak... gazteak gara!! Gazteak gara!!

Ezin jakin noiz datorren udarik onena.  
Gauzak hartu eta hau entzun: Goazen abestera.

Ezin jakin noiz datorren udarik onena  
Bat, bi, hiru, lau... Goazen!



## **GOGOAK** (Esne Beltza)

It's a new dawn, It's a new day.  
It's swiftly gone by you know how I feel.

Emaidazu berriro ongietorria  
zu zara nire poz guztien iturria  
Emaidazu berriro ongietorria  
gelditzeko nator eta.

Tren batean gurutzatzen diren begiradak,  
barra ertzean ematen diren muxuak.  
Lo aurreko uneak amesten,  
amesten egunak joaten dira.  
Hondartza horian egindako gazteluak  
ez dituzte olatuek eraitsiko.  
Gure eskuekin marraztutako loreak  
ez ditu denborak ebakiko.

Emaidazu berriro...

Le notti arrivano veloci i giorni  
scappano dalle mie mani.  
Ricordi il treno nella nostra stazione  
invece qui la gente no ci parlate.  
Loak hartu baino lehen esnatu nahi nuke  
loak hartu baino lehen amestu nahi nuke,  
aspaldiko garaien bidean galdurik  
gogoratzen zaitudan bezala ikusi.

Immagini, immagini, immagini...

Emaidazu berriro...

Racogliemi di nuovo fra le tue braccia,  
perché sei tu la fonte della mia felicità.  
Racogliemi di nuovo tra le tue braccia,  
perchè ritorno per restare.

Emaidazu berriro...

## **GOGOAREN BAITAN** (Anje Duhalde)

Erabaki nuen, tinko ta fermuki,  
ez zitzaidala gertatuko.  
Maitasun saretan ez nintzela berriz  
ustegabeen eroriko.

Bi begi izpitxu, irripar ezti bat  
izan dira nere galtzaile.  
Geroztik hor nabil arantzetan dantzan,  
ezinezko amets sortzaile.

Urrezko txanpon bat eman gogo nuke  
sorgin bat bilaka banedi.  
Ezina egikor aldatzeko aina,  
gezurra bihurtzeko egi.

Zer den ona edo zer ote den txarra  
jakin beharko nukelarik.  
Sumendi gainean erretzen ari naiz.  
Ba al dago irtenbiderik?

Zu hor zaude, dantzan, jauzitan.  
Zer debru bada pasatzen zait gogoaren baitan.

Geroak zer dakar, ez dut pentsatu nahi,  
uneak nahi ditut bizi.  
Lau egun dira ta bi omen lainotsu,  
galtzera ez ditut nahi utzi.

Hitzaren jokoan, itxura emanaz,  
gorde nahiko nuke dena.  
Biluzia nauzu izan zarelako,  
egoera hunen sormena.

## **GOGO ETA GORPUTZAREN ZILBOR-HESTEAK** (Mikel Laboa)

Gogo eta gorputzaren zilbor hesteak: bi kate.

Bi kate, biak ebaki beharrezkoak:

bat gorputzaren bizitzeko,  
bestea gogoaren askatzeko.

Adizu ama, badakizu sortze berean,  
zuri gorputzez lotzen ninduen zilbor-hestea,  
sendagileak nola eten zuen.

Lehenengo eten beharra izan zen:

bizitzaren bizitzeko lehen legea.

Haurtzaroan titia eman zenidan,  
mutil-zaroan eskoletara bidali,  
bizitzarako armak hartzearren.

Dena eskertzen dizut duen balore guztian,  
nik ahal dudan neurrian.

Bainan, gaztaroan amatxo maite,  
ohar zaitetz benetan maite nauzun ama  
izan nahi baduzu eta nik zu maitatzea:

Ni naizena nik izatea nahi dudana izatera  
utzi behar nauzula.

Hauxe baita bide bakarra biok alkar sanoki maitatzeko,  
biok alkar osoki eta betikoz maitatzeko,  
zuk zure nortasunaz, nik nereaz. (BIS)

Ama eten dezagun lehen gorputzarena bezela,

Orain, gogoaren zilbor-hestea.

Ama, gogoaren zilbor-hestea.



## **GOIZEKO EURI ARTEAN** (Txomin Artola)

Goizeko euri artean guardasolarik gabe,  
eskuak sakeletan, pena bat bihotzean.  
Etxetik urruti nago kalean bakarrik,  
goizeko euri artean kitarra bakarrakin.

Lan bat hartu behar dut gaur zerbait bazkaltzeko  
inork ez nau hartu nahi harrotza naizelako.  
Kaletan abestu dut nere herriko kanta,  
jendeak zerbait utzi du goizeko euri artean.

Ez horrela ibili, nezkatzak esaten dit  
hobeki hemen bizi gu biok elkarrekin,  
batzuetan galdetzen diot neure buruari zertarako naizen  
hemen  
zergatik ari naizen betiro kezkatzen.

Baina aurrera joan behar dut bidea hartu arte  
bakarrik izan behar dut hori iritsi arte,  
eta egun on batean pozik ikusiko dut  
eguzkia agertzen goizeko euri artean.

## GOIZIAN GOIZIK (Benito Lertxundi)

Goizean goiz jeikirik, argia gaberik,  
urera joan ninduzun pegarra harturik,  
Trara rai rai rai.

Jaun xapeldun gazte bat jin zautan ondotik,  
heia nahi nuenez urera lagunik.

Nik ez nuela nahi aurera lagunik,  
aita beha zagola salako leihotik.

Aita beha zagola, ezetz errangatik,  
pegarra joan zerautan besotik harturik.

Urera ginenian, biak buruz buru,  
galdigin zautan ere: -"Zonbat urthe tuzu?"

- "Hamasei... hamazazpi orain'ez konplitu  
zurekin ezkontzeko gaztexegi nuzu.

Ettxerat itzultzeko nik dutan beldurra,  
ez jakin nola pentsa amari gezurra!"

- "Niska, nahi duzu nik erakuts zuri  
etxerat etortzean zer erran amari?"

"Urzo xuri pollit bat, gabaz dabilana,  
hark ura zikindurik, egotu naiz ama."

- "Dakigunaz gerotzik zer erran amari,  
dugun pegarra pausa, gaitezen liberti."

## GOIZUETAN (Mikel Laboa)

Goizuetan bada gizon bat  
deritzen zaio Trabuko.  
Hitzak ederrak, bihotza paltso,  
sekula etzaio paltako.  
Egin dituen dilijentziak  
berari zaizkio damuko.

Ongi ongi oroitu hadi  
zer egin huen Elaman.  
Difuntu horrek izatu balu  
jarraikilerik Lesakan,  
orain baino lehen egongo hintzan  
ni orain nagoen atakan.

Neure andreak ekarri zuen  
Aranaztikan dotea.  
Hobe zukean ikusi ez balu  
Bedabioko atea,  
orain etzuen idukiko  
dadukan pesadunbrea.

Nere buruaz ez naiz oroitzen  
zeren ez naizen bakarra.  
Hazitzekoak hor uzten ditut  
bi seme ta hiru alaba,  
jaun zerukoak adi dezala  
hoien amaren negarra.

## **GORA GURE BIHOTZAK** (Modus Operandi)

Gora gure bihotzak, malkorik ez bidean.

Gora gure bihotzak, atzera pausorik ez bidean.

Pertsona ugariri munduan hitza kendu digute,  
baina gure oihua erraz entzun daiteke.

Askapenaren bidean gizaki libre ezberdinek,  
metatu ditzagun ahotsak behingoz entzun diezaguten.

Aurrera egingo dugu, ez galdu itzaropena.

Aurrera egingo dugu, ekaitzen aurrean.

Aurrera! Aurrera!

Gora...

Herriaren sufrimendua eta borroka galduak,  
etsipenaren aurrean gu gaude tinko geurean.

Izateko jaio ginen eta izan nahi dugu,  
gaur izaterik ez badugu, bihar lortuko dugu.

Aurrera...

Gora...



# GORA HERRIA (Negu Gorriak)

Esaera bat bada  
zaratak hamalau  
urrutiko intxaurrak  
gerturatu ta lau.  
Gure herrian berriz  
hogeita hamalau  
probatu ez duenak  
ez daki zer den hau,  
probatu ez duenak  
ez daki zer den hau.

Eztarri indartsuak  
ezin dira ito  
gure lepoan soka  
ez dago betiko.  
Parre egin gogotik  
neska ta mutiko  
kantatzen dun herri bat  
ez da inoiz hilko,  
kantatzen dun herri bat  
ez da inoiz hilko!!  
Ez da inoiz hilko,  
ez da inoiz hilko!!

Gora Herria! Gora Herria! Uu!!

## **GORA TA GORA BETI** (Oskorri)

Gora ta gora beti, haik gora Lapurdi!  
Euskaraz bizi gaituk eta bizi bedi.

Gorantza doa agudo kapitala  
eta Lapurdi beti dago apala,  
aldrebesturik dago mundu zitala.  
Konformatzen ez bagara  
ze pekatu mortala!

Gurea ez da bizimodu normala,  
lurra lantzeko aitzurra eta pala,  
lanaren truke kobratzen errealia.  
Benetan da miserable  
euskaldunon jornaia.

Munduan ezin bizi diteke hala,  
merkatuetan dena gora doala,  
etxera eta zopa guztiz argala,  
kriseiluen olioia  
ez da postre formala.

Jabeek dute kontzientzi zabala,  
kakaztu dute gure lurren azala,  
baina Lapurdi ez da hain zerbitzala;  
burruka garbian dago.  
Hori da printzipala.

## **GORPUTZ ADAR-MAMUA** (Izaki Gardenak)

Egia izugarria da, baina egia ere bada.  
Ez ahaztu pozik jarraitzea,  
bizitza itxarongela bat ez balitz bezala.

Eta urrunegi joan behar da  
zerbait aurkitzeko  
erdibidea bertan dago.

Errazago ateratzen da labirintotik  
lerro zuzenetik baino,  
bide bakarretik baino.

Dena korapilatsu margotu duzue  
begi daltoniko hauentzat.

Aro berri bat nahastera zoazte  
baina seguru ez guretzat.

Eta urrunegi joan behar da  
zerbait aurkitzeko.

Gorputz-adar mamu batek bezala  
min ematen du noizbait aske sentitu izanak.  
Gertatzen al zaizu?

Erdibidea bertan dago, erdibidea.

## **GUK EUSKARAZ** (Urko)

Euskara putzu sakon eta ilun bat zen,  
euskara putzu sakon eta ilun bat zen.  
Eta zuek denok ur gazi bat ,  
atera zenuzten handik nekez.  
Eta zuek denok ur gazi bat ,  
atera zenuzten handik nekez.

Guk euskaraz, zuk, zergatik ez?  
Guk euskaraz, zuk, zergatik ez?

Orain zuen birtutez, zuen indarrez (BIS)  
euskara itsaso urdin eta zabal  
bat izanen da eta guria da.

## **GURARIKA** (Katamalo)

Gurarika nintzela  
etxera itzultzeko eskatu nizun  
espaloiaaren beste aldetik.

Begiak igurtzi zenituen lekutik atera arte,  
begiak igurtzi zenituen.

Etzi datorren egunaren ostian  
itzuliko naiz esan zenidan  
sasi hontan masustarik ez dagoenian.

Gurarika...

# **GURE BAZTERRAK** (Mikel Laboa)

Maite ditut maite, gure bazterrak  
lanbroak, izkutatzen dizkidanean.

Zer izkutatzen duen  
ez didanean ikusten uzten.

Orduan hasten bainaiz izkutukoa...  
ene baitan pizten diren  
bazter miresgarriak ikusten.

# **GURE BIDE GALDUAK** (Benito Lertxundi)

Gu gazteok gaur gabiltza  
mundu galdu honetan,  
gerra bat barruan degula  
zer egin jakin gabe.

Gurasoen mundu aldrebes hau  
ez dugu onartzen,  
diruaren morroi izaten  
erakutsi digute.

Ilunpe honek bakardade  
galduan utzi gaitu;  
Argirik gabeko bideak  
etorkizunik ez du.

Bizimodu lasai bategatik  
idealak galdu.  
Bizitzaren gauza ederrenak  
dizkigute zapaldu.

Gizonak kartzelan daude  
beren herriagatik.  
Jainkoak beharko du lagundu  
guk ahaztu baditugu.

Maitasun hitzak nahi nituzke esan  
baina gaur ezin dut;  
Gure bide galduak  
kalte hau ekarri du.

## **GURE ESKU DAGO** (Kirmen Uribe/Eñaut Elorrieta-Kepa Junkera)

Kanta zaharrak dioen bezala, ura bere bidean doa.  
Goi mendietako ur-xirripa, kanpo emariz ibaitu da.  
Mugarik ez jarri urei, utzi libre beheratzen  
milaka urtez egin legez.

Guk ez dugu aldarri egiteko heroi edo konkistarik.  
Borondateak elkartzen gaitu, herri izan nahiak.

Hormak eta harresiak ez ditugu maite.  
Elkarrekin bizi nahi dugu soilik.  
Ez dugu beste inor mendean hartu nahi,  
etorkizuna hautatu ez besterik.

Har dezagun bidea gure esku dago ta.  
Milaka lagun oinez eskutik oratuta.  
Jende zoriontsua herri libre batean.  
Herri libre batean!!

Rosa, Izaro, Olatz, Arane, Carlos, Bittoren, Maddi.

Hiritar desberdinak ametsak ditu biltzen.  
Etorkin, arrantzale, langabetu, ikasle;  
nekazari, langile, musikari, idazle; erretiratu, ume...

Amaia, Xabier, Antoine, Garazi, Gloria, Lur, Amaiur,..



## **GU GERA JENDEA** (Beti Mugan)

Lur jota bazaude, zurekin gaituzu.  
Kalean, etxerik gabe, zurekin gaituzu.  
Ez baduzu ikusten norabide argirik,  
hurbildu ta elkartu zaitez, gu ere hortan gabiltz.

Gu gera jendea, herriko jendea,  
gu gera jendea ta beti bizirik  
egongo gera, egongo gera.

Kartzelan bazaude, zurekin gaituzu.  
Lanik gabe baztertua, zurekin gaituzu.  
Boterean bazaude, borrokatuko zaitugu.  
Zapalduak ez izatekotan, inor ez dezagun zapaldu.

Gu gera jendea...

Bakarrik bazaude, zurekin gaituzu.  
Beldurrez ezkutatua, zurekin gaituzu.  
Liderrak ez jarraitu, galduta dabilta.  
Jarraitzekotan jarraituz, jendiaren ametsak.

Gu gera jendea...

## **GURE HITZAK** (Mikel Laboa)

Gure hitzak, esan berriz esan,  
ez daitezela ahaztu, ez daitezela gal.  
Elur gainean txori hanka arinek  
utzitako arrasto sail ederra bezalaxe.

Txoritua norat hua bi hegalez airian.

Zer dio isiltzen denak isiltzen denean?  
Gizon galduak, nork lagunduko?  
Miseria sufri ezin dutenak.

Oi lur, oi lur, ene lur enea...

Maitea nun zira nik ez zaitut ikusten.  
Ez berririk jakiten nurat galdu zira.

## **GURE JAUN KAPITAINA** (Ganbara)

Bordeletik joan ginen uraren gainean  
Saint Paul izena zuen ontzi ederrean.  
Erten kapitaina zen gurekin batean,  
Kalkutara arribatu osasun onean.

Gure jaun kapitaina han zeraukun eritu,  
sukar batek baitzuen lanjeroski hartu;  
noiz eta ere baiten apur bat sendatu,  
Marsileko alderat ginen abiatu.

Azilaren hogoia, partitu ginena,  
asteazkena baitzen egun argi zena,  
itsas zabalean guk baginduen lana:  
orduan hautsi zeraukun ontziaren lema.

Abenduaren seian kalo bat trenkatu  
eta ontziak laster bide makurra hartu.  
Ahal nola baitugu geroztik gidatu,  
haizeak ez baikaitu ainitzik lagundu.

Bordeletik joan ginen uraren gainean  
Saint Paul izena zuen ontzi ederrean.  
Erten kapitaina zen gurekin batean,  
Kalkutara arribatu osasun onean.

## GURE MUNDUA (Anari)

Gaua da kotxean sartzen naiz,  
euri malkoak parabrisan.  
Eta ilargiak ez dit esaten  
ez non, norekin  
ikusten zaitun gau hontan.

Gidatu, gidatu beti aurrera;  
ahaztura deritzon lekura.  
Zu esistitzen etzeran lur zatira.

Ze ahaztu nahi nituzke  
zure usaina, telefono zenbakiak  
eta besoko tatuaia.

Erretrobisoretik pasatzen den  
mundu zatien batuketa da  
orain zugandik urruntzen nauena.  
Euriak gogor dirau  
eta begiak busti dizkit,  
zapatak, gogoa ere.

Eta ahaztu nahi nituzke...

## **GUZTIAK LEHERTU ARTE** (Gari)

Bide denak hesiz moztu zituztenak  
ateak itxita hustu ziren trenak.  
Argiak bihurtu ziren kandela baten itzal,  
ametsak gezur, gezurrak amets amets petral.

Egi bakarraren hegazkin barruan  
goitik ikusten den azpiko mundua.  
Kaleak mutu uzten dituzten haize ikustezinak  
harresien bestekaldeko mamu eskuzikinak.

La, la, la, la, la...

Bapatean lehertu ziren gauzak, koloreak, la, la, la, la, la.  
irrintziak arrazak herrietan, la, la, la, la, la.  
askatasun festak jolasean, la, la, la, la, la.  
mutil eta neskak, la, la, la, la, la.

Lehioak ireki genituen eta lurraren usaiak gure biriketan,  
bidai luze bat ein zuen gu arnasberritu arte  
hesi, harresi, mamu eta itzal kale mutu ta ate.  
La, la, la, la, la, guztiak lehertu arte.  
Bapatean lehertu ziren gauzak  
zubietan suak eta dantzak, herrietan  
askatasun festak, jolasean mutil eta neskak.

## **GURE NAHIA (Goazen!!)**

Bete ditut birikak aire garbi berriarekin.  
Gogo eta irrikak asetzeko elkarrekin.  
Bihotzetik ezpainetara hitzak doaz mara-mara.  
Gure hizkuntzaren bidean elkarrekin airean.

Libre hegan, txorien antzera  
Besoak astinduz gora eta behera.

Goazen, aurten ametsak egi bilakatzen  
Euskararen erritmora denok eskuak gora.

Euskaraz bizi, gure nahia saiatu ezkerro ez da zaila.  
Elkarren ondoan etzan maite zaitudala esan.  
Libre hegan, txorien antzera...

Hainbat arraza kultura eta kolore  
denok gara lur bereko sustrai eta lore.  
Hainbat arraza kultura eta kolore  
denok gara lur bereko sustrai eta lore.

Goazen, aurten...

# GURE OROITZAPENAK (Mikel Laboa)

Gure oroitzenak,  
itsas galeretako oholak bezala  
ez dira itsas hondoa ezabatzen.  
Ez dute inongo porturik helburu.

Gure oroitzenak,  
itsas galeretako oholak bezala  
ur gainean doaz kulunka.  
Uhainek eraginak ezabatu ezin  
eta xederik gabe.

Gure oroitzenak,  
itsas galeretako oholak bezala  
ez dira itsas hondoa ezabatzen.  
Ez dute inongo porturik helburu.

Gure oroitzenak,  
itsas galeretako oholak bezala  
ur gainean doaz kulunka.  
Uhainek eraginak ezabatu ezin  
eta xederik gabe.

Gure oroitzenak,  
itsas galeretako oholak bezala  
ez dira itsas hondoa ezabatzen.  
Ez dute inongo porturik helburu.

## **GUREA** (Bide Ertzean)

Une batez ahaztu dena:  
Fakturak, kezkak, beldurrak,  
ausentziak, loezinak.  
Betegabeko promesak,  
gau hontan, bederen, gau hontan, bederen.

Biharko utzi tirabirak,  
hizkuntza, herria, hitza.  
Biharko, mesedez, biharko, mesedez.

Ta gaurko gaua bederen  
gurea izan dadila.  
Har dezagun atsedeen  
lehertu baino lehen, lehertu baino lehen.

Ta jan ditzagun ibiltariaren harriak,  
edan dezagun mozkortiaren odola,  
erre dezagun ameslariaren belarra,  
kanta dezagun iheslariaren balada,  
adiskidea gaurko gaua izan dadila...  
gaurko gaua izan dadila... gurea, gurea.



## **GURETZAT** (Oskorri)

Guretzat berdin dira astea eta jaia  
lana bihurtzen dugu kantatzeko gaia.  
Har ditzagun eskuan giltza eta laia  
gariz eta burdinaz lantzeko Bizkaia.

Gitarrarekin aire berri bat daramagu kantuz egun,  
abesti libre eta leiala prestu eta noblezadun,  
haren medioz zer garen ongi izan gaitezen ezagun,  
herri langile nekazaria hala defenda dezagun.

Gure gogoia ez bedi otoi kantu honekin akaba,  
gure ekintza izan dadila gure hitzaren alaba,  
egun batean esan dezagun ez hala biz hala da,  
nekea eta lana dirade zorionaren aldaba.

Bide honetan baldin bagoaz jakin dezagun zergatik,  
zin egin behar dugu zintzoki bakoitzak duenagatik,  
sinestunak dudarik gabe bere jaungoikoagatik,  
eta sineste gabeak berriz bere ohoreagatik.

## GUZTIAK LEHERTU ARTE (Gari)

Bide denak hesiz moztu zituztenak  
ateak itxita hustu ziren trenak.  
Argiak bihurtu ziren kandela baten itzal,  
ametsak gezur, gezurak amets amets petral.

Egi bakarraren hegazkin barruan  
goitik ikusten den azpiko mundua.  
Kaleak mutu uzten dituzten haize ikustezinak  
harresien bestekaldeko mamu eskuzikinak, la, la, la, la, la...

Bapatean lehertu ziren gauzak, koloreak, la, la, la, la, la.  
irrintziak arrazak herrietan, la, la, la, la, la.  
askatasun festak jolasean, la, la, la, la, la.  
mutil eta neskak, la, la, la, la, la.

Lehioak ireki genituen eta lurraren usaiak gure biriketan,  
bidai luze bat ein zuen gu arnasberritu arte  
hesi, harresi, mamu eta itzal kale mutu ta ate.  
La, la, la, la, la, guztiak lehertu arte.

Bapatean lehertu ziren gauzak  
zubietan suak eta dantzak, herrietan  
askatasun festak, jolasean mutil eta neskak.

## **HABANERA** (Xabier Lete)

Berrero itzuliko balitz iragan denbora arrotza  
berdin kontsumi nezake bainilla gozo artean,  
itsaso urrun batetan irudimena galdurik  
udaberriko euritan larrosak pizten ikusiz.

Osaba komertzianterik ez nuen izan Habanan,  
pianorik ez zegoen bizi nintzen etxe hartan,  
neskatxen puntilla finak udako arratsaldetan,  
errosario santua neguko gela hotzetan.

Ezpainek gordetzen dute ezpain bustien gustoa  
desiozko hotzikaran etsipenaren tamalez,  
gaua zelatan dakusat kontzientzia bilutsik  
badoaz orduz geldiak gogorapenen hegalez.

Jaio ginen, bizi gera ez dugu ezer eskatzen  
itsasontzia astiro kaiatik ari da urruntzen.  
Antillak zintzilik daude argazkien paretetan  
karta bat idatziko dut norbaitek erantzun dezan.

Tabako, ron ta kanelaz girotutako arratsetan  
algarak entzuten ziren Habanako putetxetan,  
abanikodun mulatak gauari haize egiten  
musiken aide nagiek odola erretzen zuten.

## **HABIAK** (Anari)

Negua lo gelditu zaigu oinetan behelainotan,  
bihotzekin baino ez dugu ikusten, itsututa.  
Minak habiak egin dizkigu esku ahurretan  
ta itsasoak gainezka begietan.

Argirik ez da sartu geroztik barrura,  
udaberririk ez dute somatzen lorak gurean.  
Txorien zai daramagun arren urtaro osoa,  
saiak baino etzaizkigu hurbiltzen lekura.

Bihotza harri bihurtu zaigu, gogortuta,  
goroldioa dugu lehen azala zen lekuan.  
Desertua baño ez dut orain ikusten zure begietan  
eta ibai lehorrak dira gure zainak.

Nahiz eta minak habiak egin dizkigun esku ahurretan,  
saiak baino hurbiltzen ez bazaizkigu ere lehiora,  
goroldioa dugun arren gorputz osoan,  
hemen iraungo dugu elkarrekin ilargi berotan.  
Zai, zai, zai, ilargi berotan zai...

## **HAI EK GU** (Izaki Gardenak)

Egunak muineraino dastatu nahi ditugu;  
baina, oharkabean, haiek gu hozkatu gaituzte.

Pisua arintzeko, oroipenak erantzi,  
eta, presarik gabe, haiek gu biluztu gaituzte.

Aaaaaaaaaaaaaaaaaa...

Burua ez galtzeko, kantu bila jo dugu.  
Nahi izan dutenean, haiek gu aurkitu gaituzte.

## HAIKA MUTIL (Mikel Laboa)

Haika mutil, jeiki hadi,  
argia den mira hadi!  
Bai, nausia, argia da;  
gure oilarra kanpoan da.

Haika mutil, jeiki hadi,  
euria den mira hadi!  
Bai, nausia, euria da;  
gure orra busturia da.

Haika mutil, jeiki hadi,  
hortxet zer den mira hadi!  
Bai, nausia, haizea da;  
gure leihoa ideki da.

Haika mutil, jeiki hadi,  
surik baden mira hadi!  
Bai, nausia, sua bada;  
gure gaturia beroa da.

Haika mutil, jeiki hadi,  
kanpoan zer den mira hadi!  
Bai, nausia, elurra da;  
lurra xuriz estali da.

Haika mutil, jeiki hadi,  
urean zer den mira hadi!  
Bai, nausia, ardia da;  
aspaldian itoa da.

Haika mutil, jeiki hadi,  
zer oinon den mira hadi!  
Bai, nausia, egia da;  
mutilttoa hau unhatu da.

## **HAINBESTE** (Izaro)

Gorde dute zerua, epel lainoek.  
Agur keinua, zela zioen  
ordurik gabeko egunen, izerdiz.  
Gatzez ordain dirudite, gaur zauriek.

Gauak jantzi dira, soinekoz  
mundua biluzik, ezagutzeko.  
Arnasa elkarbanatzen izarretan,  
burua zutik mantentzeko egun luzeetan.

Maite duenak, maite du maitatzen.  
Sei zati ditu ilargiak aurten.  
Maite dudana, maite dut hainbeste.  
Jasotzen dudalako ematen dudan beste, hainbeste.

Lau hormen artean, paradixua.  
Gauetako amaren azken muxua.  
Ez nazazu iratzar, mesedez  
Erausi erlojuak, erraiak lez.

Maite duenak...

Hainbeste, nahibeste, hainbeste, nahibeste.  
Hainbeste, nahibeste, hainbeste, nahibeste.

## HAIZEA (Ken 7)

Haizea bezala eskuen artetik  
ihes egiten duzu.  
Eta momentu baten, galduta bakarrik  
hustuta uzten nauzu.

Behar dudanetan  
ezin naiz babestu zure besoetan.  
Baina badakit hor zaudela  
izkutatuta nire bihotzean.  
Zure irrifarra gogoan  
ezin ahaztu eta ezin ikutu.  
Zergatik ez zauden nirekin,  
ezin dut jasan, ezin dut ulertu.

Milaka arrazoi korrika hasi  
ta inoiz ez gelditzeko,  
itxaropen hitzek ez dute balio  
zu berriz sentitzeko.

Behar dudanetan...

Eta agertzen zara orain  
Laboan kantu zaharretan,  
eta Lapatzako olatu bortitzetan,  
ez zaitut inola berriz galdu nahi laztana.  
Baina goizeko ilargia bezala  
nigandik urruntzen zara.



# HAIZEA DATOR IFARRALDETIK (Mikel Laboa)

Haizea dator ifarraldetik, hego berotik ekaitza,  
ez da nabari lanbro artean zuhaitz hautsien emaitza.  
Eguneroko lagunak ditut beldurra eta zalantza,  
ardo txar honek eragiten dit noraezeko balantza.

Agur oihanak, agur itsaso, atariko lizardia,  
imajiñetan izkutatzen zait hurbileko izadia.  
Ur epeletan ixuriz doa odolezko izerdia,  
irrintzi gorritz jauzika dator irabazleen zaldia.

Itzal gaiztoak ixurtzen dira mendia hegaletan behera,  
argi apalak badoaz laister bat-batean itzaltzera.  
Ez dut utzi nahi izen zehatzik izengabetan galtzera,  
prestatzen gera etxe hustua arrotz guztiei saltzera.

Etxea hustuz badoa ere noizpait bazuen biztunik,  
ez dut onartzen orde zatorren maizter aldrebes hitzunik.  
Iñork ez baitu ausart hartu nahi berezko karga astunik,  
gurdi okerra zuzen lezaken dotriñarikan ez dut nik.

## HAIZE EZA (Dut)

Konbikzio handirik gabe  
galdezka ari naiz:  
Oihukatzeak ala entzuteak,  
zerk egiten gaituen libre?  
Katu beltzak bezela  
zakurren jangelan,  
ezin eguzkia piztu  
izozkiak gara beraien ahotan.

Sistemaren neoizko orratzak  
zainak zuritzen dizkigula,  
sinboloen semantika tristea  
morroien bular txukunetan.

Harroegi ulertzeko,  
harroegi onartzeko,  
askatasun desiratuak  
ez gaituela askatuko.

Bandera trapu bat da, haizerik ez badabil!!  
Bandera trapu bat da, haizerik ez badabil!!  
Bandera trapu bat da, haizerik ez badabil!!  
Bandera trapu bat da,  
trapu bat haizerik ez badabil!!  
Haizerik ez badabil!!

## **HAIZEA GARIZUMAKOA** (Ruper Ordorika)

Lagun zaharrek elkartzen naiz bertan  
kalamahastiak, kresala haitzetan,  
bizitzako gudan etsi gabeak,  
inoizko garizuma irrealenean.

Alaitasunez mintzo gara eguzkitan,  
nahiz betiko asmo galduak gomutan,  
Garizumako haizea heldu da  
areagotuz begien distirak

Jainkoari esker, elkarrekin gara,  
ona ahazten da baina lehenago txarra.  
adio atzoko amets gaiztoa,  
bide estuena ere aurrera doa.

Hemen okerreko belaunaldikook,  
ezertan asmatu ez dugunok,  
nor bere lotsaz ardura dadila  
gu geureaz arduratzen bezala.

Betor biharkoa gaurkoa bezala,  
lagun alaiak rona eta kresala,  
betor haizea garizumakoa,  
arratseko herriminak uxatzera.

Jainkoari esker elkarrekin gara...

## **HAIZE, HAIZE** (Ganbara)

Belea zozo ta zozoa bele,  
emeak ar eta arrak eme.  
Haur asko jaio da aitarik gabe,  
mirariren bat dela diote.

Harat haize, honat haize,  
apaizek neskatxak maite diuzte.

Harat haize, honat haize,  
apaizek neskatxak maite diuzte.

## **HAIZE HEGOA** (Mikel Laboa)

Haize hegoa, gau epela  
ilargia ren argi,  
mutxurdinak leiho etan  
teilatuan katu bi.

Bide ertzian zenbait kanta  
gau erdiz arnoari,  
Hargaineko sorgin zaharrak  
keinuka ilargiari.

# HAMABOSTEAN BEHIN (Ruper Ordorika)

Etiket gutxitan irten arren,  
Jon Trollope hamabostean behin  
abiatzen da labanderiara.

Etxesail pare bat zeharkatu ditu  
ta hango kaliak beltzaguak dira  
eta disdiratsuguak.

Posta zentraletik ezkerretara jo  
denda greziarrak, billarra eta hospitalia,  
hori hospitalia.

Usai exotikoak tabernetatik.  
eskinatik iragaitean konturatu da  
inork begiratu ere egin ez diola,  
inork begiratu ez diola, inork begiratu ez.

Txanponik bai? ugazabari galdegin.  
Diru zikinik gabe nora joango ginduzkean ba? horra erantzuna.  
Labadora martxan ezarri,  
errebistarik ekarri ez duenez leihotik begira zai.

Espaloi lerroari jarraitzen dio  
etxalderako bidea buruz ikasia hamabostean behin.  
Etxeko egongela du buruan bazter oro ditu ezagun  
eta hura beti gogoan ageri zaion parajea,  
beti ageri parajea, beti parajea.

Egongela hartan zenbat alditan  
gordeko du Jon Trollope gureak  
bere betiko paseoaren oroimina,  
paseoaren oroimina, oroimina.

# HAMAIIKA HOLAKO (Alaitz eta Maider)

Herri guztietan daude xeibrekeriak  
kontatzeko, kantatzeko xeibrekeriak.

Herri guztietan daude xeibrekeriak  
kontatzeko, kantatzeko...

Behin andaluz bat eta oiartzuar bat kotxean zihoazela,  
laino lodikote eta zuri batek irentsi omen zituen.

Behin andaluz bat eta oiartzuar bat kotxean zihoazela,  
laino lodikote eta zuri batek irentsi omen zituen.

Lainoetan lainoena omen.  
Itsumenaren estuasunean hau esan  
omen zion, hau esan zion oiartzuarrak besteari:

"Ttur-ttur, ttur-ttur, junai motel"

"Ttur-ttur, ttur-ttur, junai motel"

"Ke aze una niebla ke no xe oye ni puta idea".

Herri guztietan daude...

Herrikide ilustratua non ikasi ote zuen erdera batua?

# **HAMAR URTE GARTZELAN** (E.H. Sukarra)

Kanpoan gauza asko ari da gertatzen,  
etsaia beti bezala herria zapaltzen.  
Zuk, barruan jarraitzen duzu;  
Hamar urte gartzelan daramatzazu.

Hamar urte gartzelan, denetatik pasatu duzu.  
Hamar urte gartzelan, bakardadea ezagutu duzu.  
Hamar urte gartzelan, herria bihotzean daukazu.  
Hamar urte gartzelan, noiz bizi behar duzu?  
Noiz bizi behar duzu?

Hamar urte gartzelan, legea zure aurka daukazu.  
Hamar urte gartzelan, askatasuna lapurtu dizu.  
Hamar urte gartzelan, herriak maitatzen zaitu.  
Hamar urte gartzelan, gurekin noiz egon behar duzu?  
Noiz egon behar duzu? Noiz egon behar duzu?

Hamar urte gartzelan, hamar urte gartzelan,  
Hamar urte gartzelan, hamar urte gartzelan,  
Hamar urte gartzelan, hamar urte gartzelan!!  
Hamar urte gartzelan, hamar urte gartzelan!!



## **HAREAGO** (Anari)

Beti ahitzera doa bidea oso ondo oroitzen  
ez duzunik zehazki ahaztu nahi zenukenera.  
Orduan ez genekielako egia esan orain ere ez  
eman ta eman gutxitu nola litekeen.

Eta zure isiltasunengatik gutxitzen doan  
gure hizkuntza honek ere ez dio izenik ematen.  
Higatzen zaizkigu begiak, basamortutzen gu biak  
baina ez diogu utziko hareagotzen.

Eta zaldi zuri batek oraindik trostan zeharkatzen  
zure ametsetatik nirera zelai zulodun bat.  
Zerbait proposatu nahi dizut azkenari aurre hartzeko  
nola suak bere burua jaten dituen.

Elkarren ondoan etzatea eta  
elkar laztantzea elkar ezabatu arte  
Eta zaldi zuri batek bitartean trostan zeharkatzen  
nire ametsetatik zurera zelai zulodun bat.

## **HARRIAK** (Anari)

Nik besoa eman, zuk eskua hartu,  
hala ere, beldurrik ez didazula diozu.  
Zeru beltzetik elur zuria ari du,  
bakoitzak murrua bere erara egiten du.

Harri pila bat dut zain ohean utzidazu gaur gordetzen zurean.

Badira gau ilunean baino ikusten ez diren hainbat gauza.  
Beldurrak eta arrainak hil arte hazi eta hazi eta hazi.

Behin zubi bat oso osorik jan nuen lehenengo harritik azkenera  
hainbeste nahi nuenera ez joateko.

Arrain bat oparituko dizut nola hazten den ulertzeko  
zenbat ur behar duen arnasteko, zenbat ur bizitzeko.

Harri pila bat dugu metatua begien atzeko aldean:  
zubiak, murrak, bideak, etxeak, harriak finean,  
gorputzak, galderak, begiak, hitzak, giltzak eta oheak.  
Diogenesen sindrome emozional batek jota bezala,  
amets zaharrak ereiten ditugu gorputz berri eta emankorretan,  
nor garen ahaztu arte opaltzen besteen hankarteetan,  
besarka nazazu gogor iztarrekin hegan ez ateratzeko,  
zure barrura sartu nahi nuke nor zaren ikusteko,  
beldur bat oparituko dizut nola hazten den ulertzeko,  
zenbat zu behar duen arnasteko, zenbat ni bizitzeko.

## **HAU BERUA** (Juan Carlos Perez)

Hau beru abuztuko gau hontan,  
hiri ko teilatuetan, kortinen atzean  
gaueko, gaueko gezurrak.

Betirako amodiozko promesak,  
bihotzean izkutatzen dira,  
gaur bezalako gau batean,  
kotoizko hitzak airean...

Hau berua Xavier Cugat-en hankatartian,  
bere begitxu pekindarrekin.  
Aaa, saloiko damak agurtzen,  
orkestra zuzentzen,  
orkestra zuzentzen ai denian.

Hau beru Ondarruko Kantxopeko auzuan,  
"Soru zaz" esan diate, "alantxerik"  
bilutsik nabilelako "katuk morun",  
"katuk morun", "katuk morun".

Hau izerdia nire gorputz guztian,  
izaretan hezetasuna,  
ne txorba beste batekin  
joan da parkera...

## **HAU DA ENE ONDASUN GUZTIA** (Deabruak Teilatuetan)

Hau da ene etxia, hau da ene aulkia,  
hau da ene ohea, ene ondasun guztia.  
Bakardade ta isiltasun, bakardade ta isiltasun,  
ene jabego bakarra, ene jabego bakarra.

Mila jostorratz herdoildu aldian,  
leihorik gabeko begirada,  
zafrada garratz bat ene bihotzian,  
hauxe da dudan guztia:  
hilda nagoela esan dezaket?  
Hilda nagoela esan, esan dezaket?

Amagandik irten nintzen bezela,  
irtengo al naiz endredu honetatik?  
Amagandik irten nintzen bezela,  
irtengo al naiz endredu honetatik?

Aterik zabaldu ezin eta, ba dea hilobi estuagorik?  
funtzionarioen begi kliskadek mirilan igartzean bakarrik  
ohartzen naiz bizirik nagoela, ohartzen naiz bizirik nagoela.  
Ohartzen naiz bizirik nagoela, ohartzen naiz bizirik nagoela.

Mila jostorratz herdoildu...

## **HAUR BATEN BEHARRA** (Oskorri)

Izar azpitan desira zoroz ferekak doaz jostari,  
gure leihoan ilunaz izu erresinula koplari.  
Gorputz xuriez jabetu ezin itzalak daude behari,  
itsas nagitik bortu gainera deus ez zaio zor gauari.

Ene maitea izar ezitia beha ezazu leihora.  
Ikusten duzun haurra nigarrez jin balekizu altzora  
Gaur berean har dezakegula ez dezagun utz gerora.  
Horregatikan astiri oroz heldu nitzaizu ondora.

Zure begiak dira neretzat esperantzaren kandela.  
Gauaz ispilu argiz iguzki fideltasun dariela.  
Herri lasaia da zure loa mundu bat zure sabela.  
Gaur ukan ezin biharko haurra zuregan sor dadiela.

Uhaitz eroak itsasoratuz ematzen diren bezala.  
Ezin bertzean fidantzak noizbait du galtzen bere ahala.  
Ene tristura ez ditaikea maita ezaren seinala?  
Suari ura den haur eskasak gurea hil ez dezala!

Amodioa ezin bizia zonbat den gauza krudela.  
Beharrik nauzu luzaz aditu joan bainintzen bestela.  
Bihotzetikan datorrenari nehoiz urduri naizela.  
Elgar maitez gaur bihar bezala uros bizi gaitezela.

Nehor guti da zutaz bestalde nitaz mintzo dakienik,  
ene olerki oroetarik zu zirela eztienik.  
Ai bertso hauen kantari banu haurtxo eder bat zukanik.  
Zernahi denik sinets nezazu nik zaitudala maitenik.

## HAUR KANTA II-III (Imanol)

Zu bezelako hurrek lo egin dezaten,  
ilargia hasi da zerua pintatzen.

Txoriak lotan daude, hagitx da berandu,  
ilargiak erreka erdia edan du.

Izarrak hasi dira zeruan musuka,  
ilargia zelatan atzetik kukuka.

Izar dago zerua honuntza begira:  
sehaska kulunkatzen noiz hasiko dira?

Etzaittu eramango mamuak aidean,  
sehaskan lo egiten duzun bitartean.

Goiko lepo gainean ilargia duzu,  
zuregana heldu da ematera musu.

Zaude lo goxo-goxo etorri artio,  
zuretzat kollare bat ahaztu baitzaio.

Kollarea jantzita eramango zaittu,  
bere lagun guztiak urruti baitittu.

Ilargitik zintzilik ibiliko zera,  
kolunpio batean izarren antzera.

Zeruak ikustean pentsatuko duzu:  
“Holako lagunekin nor ez zoriontsu?”

Eta lagun onena ekarriko dizu:  
“Tori izar bat zuretzat gustatzen bazaizu”.

Jostatuko zerate txirrista batean,  
eguzkiak argia esnatu artean.

## HEGAL EGITEN (Itoiz)

Neukan guzti zen amets bat, amets bat,  
beti egoten nintzen,  
haren bisitan zai, haren bisitan zai.

Ai! ene ama euriak eta baso ilunak  
seinalatzen zizkidanez  
ez, ez dira etorriko inoiz.  
Etzazu holako ametsik egin ez.

Mantso zijuan denbora niretzat.  
Lehioan jarrita euriari begira  
eta jendeak zion: "mutil horrek  
amets bat bakarrik dauka".

Baina egun batian esnatzerakoan  
txantxangorri bat ikusi nuen gelan.  
Ta gero beste, beste bat  
ta beste bat inguratua nengoen...

Oh txantxangorria gelako sapaian, gelako sapaian.  
Oh txantxangorria gelako sapaian.

Orain herritik mutil bat falta da,  
ez dago inor bere etxeko lehioan.  
Baso ilunetan dabil hegaletan txantxangorria bezala.

Orain ba du bihotz nimiño bat  
eta bi hegal, bi hegal euriz bustiak.  
Bularra du ere gorri kolorekoa eta, eta txantxangorria da.

Txantxangorria naiz baso ilunetan  
bete zait ametsa, baso ilunetan.  
Txantxangorria naiz, baso ilunetan  
bete zait ametsa, txantxangorria naiz  
txantxangorria naiz hegal egiten, hegal egiten, hegal egiten...

## **HEGAN** (Bulego)

Gora begira jarri naiz ta bapatean  
lainoen forma artean  
galdu dut erlojuan jartzen dugun zama.

Ta hain txikia naizela ohartuta,  
nekeak behingoz ahaztuta, ahaztu dut.  
Arazoak guk elikatzen ditugu.

Ta hegan, hasi naiz bapatean.  
Hegan, hortzimugaren magalean.  
Hegan, hasi naiz bapatean... Hegan!!

Ta edalontzi batean  
itsasoak sortzen jaioak gara.  
itotzen ari garela sentitu arte.

Emaidazu segundu bat  
zu ere instante bat zara  
iheskor bezain ederra da zure mundua.

Ta hegan...

Ta horren ederra da zure begirada  
zama guztiak kenduta...

Ta hegan...



# HEGAZTI ERRARIAK (Mikel Laboa)

Hegazti errariak  
pausatu dira  
leihoan  
argia eta itzala  
bereizten diren lekuan  
argia eta itzala  
leihoan  
pausatu dira  
hegazti errariak  
pausatu dira  
hegazti errariak.

## **HEL NAZAZU ESKUTIK** (Ken 7)

Naizenak izenik ez du behar biluztean,  
nire oskolak zatika zure aurrean erortzean.  
Birsortzeko hil behar den zubi honen hasieran  
begiratu beharrean, ikusi nazazu, ikusi nazazu.

Zihurgabetasunek hozten naute arnastean,  
desio eta izuak, nola elurra urtzean.  
Ihesbideek berriro leku berera ekartzean,  
bakardade sakonenak, nire pausua izutzean.

Hel nazazu eskutik, hau buka bitartean.  
Hel nazazu eskutik, hau buka bitartean.  
Hel nazazu eskutik, hau buka bitartean.  
Hel nazazu eskutik.

Ez biktima ez errudunik, ez epai ez barkamenik.  
Ez dut nahi zuribiderik, ez arrazoi zentzudunik.  
Ez erorketa librean besoetan salbatzerik.  
Maite zaitut bat bakarrik, maite zaitut bat bakarrik.

Hel nazazu eskutik...

## **HELDU DA GARAIA** (E.T.S.)

Hainbeste gauza esan nahi dizkizut denbora gutxian,  
azkeneko urteetan niretzat gorde ditudanak.  
Iluntasunean zu izan zinen nire egunsentia,  
aireratzeko behar nuen haize bolada.

Heldu da garaia, eskertzeko eman didazun guztia,  
irribarre onenak esnatzen ditugu gaudenean.  
Zurekin batera berriz asmatu nahiko nuke bizia,  
maite zaitudalako nire ondoan.

Nagusiegi sentitzen naizenean agertzen zara,  
gogoratzeko non dagoen izan ginen umea.  
Orain arte bidea batera egin dugun bezala,  
eskutik helduta sortuko dugu unibertso bat.

Heldu da garaia...

Ekaitzaren erdian aterperik onena,  
lortu nuen zure besotan.  
Momentu zailenetan zein une goxoetan,  
hor zaude zu nire alboan.

Heldu da garaia...

## **HEMEN ERE** (Beti Mugan)

Ez naiz turkiar bat Alemania berrian.  
Palestinarra ez naiz lurralde okupatuetan.  
Gizaki beltza ez naiz L.A.n edo Hego Afrikan.  
Belfasten ez naiz bizi baina bai Euskal Herrian.

Ta hemen ere ikasi dugu,  
hemen ere ikasi dugu...  
...inoiz ikasi behar ez genuena.

Ez nago ertamerikan,  
ez Yugoslavia zaharrear.  
Georgia, Georgia edo Abkhasian,  
inoren mugen zainketan.

Baina hemen ere ikasi dugu...

Ez naiz ume koskor bat Brasileko kale ahaztuetan  
Hirugarren munduko beste biktima bat ez naiz.

Baina hemen ere ikasi dugu...

## HEMEN NAUKAZU (Urtz)

Orri zatitxo baten aurrean  
ohartu gabe doa denbora.  
Idatzi nahi ez duen arkatza  
alboan irrifartsu dudala.

Daukadan onena eman behar  
onena jasotzen dudalako.  
Zurekin ezin bada, zu gabe,  
zurekin bada, nahiago ...

Hemen naukazu, agertuko zaren zai  
iraganaren orri txuria idazteko prest;  
zure ahotsa entzungo nuke nonnahi  
belarrira baldin bada ere xuxurlatuta.

Sinesten ez dutenen mirari  
zure eskuetan naukazu sarri;  
horrela sentitzen naiz goxoen,  
honela egon ninteke beti.

Hemen naukazu, agertuko zaren zai  
iraganaren orri txuria betetzeko prest;  
euria zinen eta busti egiten nintzen  
zure besoetan urtzen zen izotza nintzen.

Atzo gauean zurekin egin nuen amets:  
euria zinen eta busti egiten nintzen.

## **(H)ERRA KANTA** (Anari)

Ahaztu beharreko gauzen zerrendan, izen bat zara orain.  
Gaizki egindako gauzen artian, beste bat.  
Oraindik bizirik zauzkat barruan eta ehortzi ein bihar.  
Hau bizitzeko gogo biziz, hiltzea bezala da.

Gauero oheratzen naiz zure ausentziaz eta zutaz aritzen zait,  
zure gogoekin larrua jo ere behin baino gehiotan.  
Hemendik aurrera ezezagun bat zara  
nahiz eta zure fotoa beti izan ohe albuan.

Zurekin egotera ohitzen hasi eta zu gabe egoten ikasi bihar.  
Gauzak gaizki egiteari noiz utziko diodan  
galdetu behar ene buruari, ostera,  
gauzak gaizki egiteari noiz utziko diodan.

## **HERRI PUTA MAITEA** (Pottoka)

Herrian, herrian, herrian denak lanean  
ta ni bakarrik barrean... "Noa etxera!"  
Etxean, etxean "El Precio Justo" ikusten,  
eta neri naute nazkatzen..."Noa oheratzera!"

Ta badakizu nola naizen jartzen,  
zutaz hasten naizelaik pentsatzen,  
eta eskuakin diot ematen,  
zu nere ondoan ez zarelaik egoten...

Herri puta honetan ez naute ulertzen,  
herri puta honetan ez dakite bizitzen.  
Nere gazte denbora hementxe dut uzten,  
Hala ere ez dakit zertaz duten maitatzen!!

Igandea, igandea UPN-koak mezetan  
ta gu kantari kaletan, gaur goizpasan,  
Igandetan, igandetan UPN-koak pasaietan  
ta gu kantari kaletan ta zu gure ondoan...

Ta badakizu nola naizen jartzen,  
zure ondoan naizelaik egoten,  
baina zuk hori ez duzu pentsatzen,  
amak nahi du jakin noiz zaren ezkontzen!

Herri puta honetan ez naute ulertzen...

Hala ere ez dakit zertaz duten maitatzen!!  
Ez dakit, ez dakit, ez dakit, uuuu ez dakit.

# HERRIA ETA HIZKUNTZA (Mikel Laboa)

Larara, larara, larararara,... Je vous salue Marie!

Iragan egun batez, ostatu batean  
bi lagun ari ziren eztabai betean;  
biak ziren euskaldun zintzoak ustean,  
hala ere ezin adi elkarren artean;  
entzuten egona naiz umore tristean.

Ez dut osorik hartu baten parabola,  
erderaz mintza baitzen, berak jakin nola:  
gure herri maiteaz zuela axola,  
hau bere gain beharra, bertzen men dagola  
"Gora Euskal-Herria", frantsesez ziola.

Bertzea oldartu zen euskera garbian:  
"Gure hizkuntza ez da galduko agian!  
Hori dugu bereixi guk Euskal-Herrian,  
Gainerakotan gaude besteen egurrian;  
frantses eginak gira joan den aspaldian!"

Bi gizon horietan, zugaitz onekoa  
batek hondoa zuen, bertzeak hostoa;  
gauza arraro hori ez dut gustokoa,  
mendian bizi arren, dut ikustekoa  
gaztainaren aldaxkez jantzirik pagoa.

Bat herria goratzen arrotz baten gisa,  
arrotz nahiak berriz herriaren hitza;  
gureak ja egin du, gaiten garbi mintza,  
lainopean bezala galduak gabiltza,  
ez daizke bi nagusi batean zerbitza!

Elkarri direlakotz bi gizon jazarri,  
gauza bat bera dute bi pusketan zarri;  
erakatxi hahi dut nik puskek elgarri,  
gure hizkuntza eta gure Euskal-Herri,  
konparatzen baitut izaite bateri.

Anai-arrebak, entzun ene ahotsa:  
izaite bat ez daike hezur hutsez osa.  
Herria da gorputza, hizkuntza bihotza;  
bertzetik bereixtean bitarik baxotza,  
izaite horrendako segurra hilotza.

Larara, larara, larararara,...  
Je vous salue Marie!

Batzu herriaz orroit, euskeraz ahantzi  
bertzek euskera maite, herria gaitzetsi;  
hizkuntza ta herria berex ez doatzi,  
berek nahi daukate konpreniarazi  
bata bertzea gabe ez daizkela bizi.



# **HERRIBEHERA** (Benito Lertxundi)

Herribehera Herribehera  
zure landen zabalera  
ortzi-muga den hartan  
mugatzen da.

Zure lur emankorretan  
ixurtzen diren asmoak  
gogotsu hartuko ahal ditu  
lur gozoak.

Zure gaztelu zaharrek,  
gorderik duten aintzina.  
Hats tristetan mintzo da  
haren mina.

Horma zahar arraituetan,  
xoriak dira kantatzen.  
Mendeetako lo geldia  
salatzen.

Nafarra anaia zaharra,  
kondairaren lehen sustarra.  
Bego higan arbasoen  
amets hura.

## **HERRIMINA** (Ganbara)

Zeruan eder ilargia  
izarren aitzindari;  
haren ondoan artizarra  
goizean da nabari.

Haiek zerutik begira daude  
nere sorterriari;  
ni, berriz, basabazter honetan  
nigarretan naiz ari.

Txoriak ere kantatzen du  
baratzeko hesian:  
"Oriko txoria laket da  
beti Ori-mendian".

Uda ta negu, gau eta egun  
han bizi da lorian.  
Nik ere bizi ta hil nahi dut  
sortu nintzen tokian.

## **HIBERNAZIOA** (Izaki Gardenak)

Egunak, triangelu beltz honek irentsita.  
Laguntza dei berantiarregiak eskegita.

Buru nekatu honen hibernazioa, egun eta gau.  
Ezerezarekin urtzera noa, denborak galdu nau.

Haitzetara, itsasargi lagunek bidalita.  
Egarriz, euriei itxaroten eserita.

Buru nekatu honen hibernazioa, egun eta gau.  
Ezerezarekin urtzera noa, denborak galdu nau.

## **HIESA** (Bap!!)

Itxaropena, etengabe korrika egin  
ez duzue bukaera ikusten.  
Soluzioa bilatu ezin,  
zuen bidea uzten  
hainbat eta hainbat min.

H.I.E.S., H.I.E.S.a, H.I.E.S.a.  
H.I.E.S., behingoz jakin ezazue  
lakar da zuen geroa H.I.E.S.a...

H.I.E.S.a gure etsaia,  
arrazakeria, inora ez dijoan garaia, garaia.

H.I.E.S., H.I.E.S.a, H.I.E.S.a.

Hasiera, bukaera nola amaitu  
beldurra ez zaizu gelditu.  
Azken ordua desiatuz zainetan hotza,  
bizitza eta heriotza, heriotza.

H.I.E.S. jendeegan kontrola  
ulertu ezazue nola erabiltzen duten gure odola

H.I.E.S.a gure etsaia,  
arrazakeria inora ez dijoan garaia.

## **HIK LAN ETA NIK JAI** (Tapia eta Leturia)

Bazekiat lanean jolasten ere bai,  
ez dakidan gauzarik ez diat egin nahi.  
Hi ere izango haiz zerbaitetarako gai,  
egingo al diagu hik lan eta nik jai?

Buruan haizea eta irria hortzean,  
odola dantzaten zait soinua jotzean.  
Ez bilatu negarrik nire bihotzean,  
nahiko egin nian mundura sortzean.

Ai, ai, ai, ai, hik lan eta nik jai.  
Ai, ai, ai, ai, hik lan eta nik jai.

Maitatzea jolasa izan baliteke,  
txikitatik izan dut jolastea maite.  
Hain ona eta erreza pena litzateke,  
mundutik joatea nahiko egiteke.

Ongi dibertitzeko mutil eta neska,  
aski dira bi esku eta hiru pezta.  
Astegunez jai eta jaiegunez festa,  
jolasa bezalako zorionik ez da.

## HIL EZ DENAK (Gari)

Nekez loratzen da ezer hemen  
nork behar ditu beso indargabe oin nekatuak.  
Bihotzaren ispilu diren amets hautsiak.

Ez naiz atzerritar bat desertuan.  
Badakit lehortea zer den,  
badakit itxaroten.

Harri artean bizitzen,  
harri artean bizitzen...

Zure atean jotzen dut berriz bil nazazun.  
Zure keinu bat bilatzen dut...  
irauteak merezi duela jakiteko.

Inoiz minik behar du, inoiz zalantzarik  
inoiz bizirik sentitu, hil ez denak.  
Hil ez denak, hil ez denak,  
hil ez denak, hil ez denak.

## **HILIK** (Baldin Bada)

Bizirik, bizitzarik gabe.  
Hilik, hil gabe.  
Zer gertatzen zaio zure buruari,  
non dago zure ametsa,  
zein dago zurekin?  
Zein dago zurekin?

Ikusi zaitut eta jo nauzu  
zure itsutasunarekin.  
Ikusi zaitut eta jo nauzu  
makurtu eta zabuka ibili zara.

Bazenekien zer zen  
eta nitaz barre egin zenuen  
egun batean ez zinen zu,  
zerbait barruan zenuen,  
menperatzen zintuen,  
eta gehiago behar zenuen.

Ikusi zaitut eta jo nauzu...

Zure burua hiltzen baduzu  
norbaitek negar egingo du  
baina zuk hilik jarraituko duzu.

## HILZORI II (Itoiz)

Hemen ezer galaraztu gabe  
beste mundura noa, haizak anaia.  
Bizitza hontan, mundu zikin hontan  
atxipetua izan naiz, jostailu bat.

Aldarri batekin deitzen nau heriotzak  
gau erdi hontako bakardadean.  
Orain ezin dut ezer galaraztu  
abere bat bezala bizi izan naiz.

Bihar, bihar, bihar hil eingo naiz,  
lagundu nazu bihar hil eingo naiz.

Nere hilzoriaren erdian  
pentsatzen nago heriotzarekin.  
Eta ikusten dut ehun dara hilak  
ezkilaren doinu jarraituak.

Aldarri batekin...

Bihar, bihar...



# HIRE EMANEN DIZKINAT (Bide Ertzean)

Hiri emanen dizkinat  
nire ordu bakartien  
etekin zimelak, etekin zimelak.

Emanen dizkinat ere  
noizbehinka isuritako  
grinaren atalak, grinaren atalak,

Eta ferekak  
igande arratsetan  
eta bi eskuekin agur herabe bat.

Hiri emanen dizkinat  
hileroko nire gauzak.  
Hiri emanen dizkinat  
hileroko nire gauzak,  
nire gauzak, nire gauzaak.

# **HIRIA IRENTSI** (Izaki Gardenak)

Hiria irentsi nahi dut,  
baina ezin.  
Esadazue zuek  
nola egin!

Esadazue arren  
nola egiten duzuen,  
hiria liserituz  
nola bizi daitekeen.

# HOMO HOMINI LUPUS (Beti Mugan)

Gizona gizonarentzat otsoa ez da besterikan.  
George Ruault-en koadroan ulertu nuen dena.

Urkatu bat zuriz jantzia gure dantza beltzean.  
Denok gera errudunak errua ez bada inorena.

Ametsak jaten geratzen naiz zuhaitz gorriaren azpian.  
Arrain hilak dabilta nire inguruan biraka.  
Arrain hilak eta hilkorrek, azken papurrak bilaka.  
Oraindik ere ezin uxatu, ezin uxatu itzalak.

Zaborrak eta odola,  
gure egoeraren lekuko  
Kale estuetan bizi gera,  
kale estuetan bukatuko. (BIS)

Begira nola aurreruntz noan, berriro Travis-en antzera.  
Ezin inolaz pakean bizi, gorrotatzen denean  
Ikusi nahi al duzu gure jostailu saila?  
Hurbildu zaitetz salgai gaude haragi puskek bezala!!

Zaborrak eta odola...

## **HORMA ETA HAIZEA** (Izaki Gardenak)

Guztia harrika itzaliz lehor esan zenidan:  
“argi gutxirekin askotan hobe ikusten da”.  
Ametsen zama arindu genuen  
topa eginez euren alde,  
bat bera ere bete gabe.

Aurkitu zaitut,  
ilunpetan horma ezagun bat bezala.

Aurkitu nauzu,  
ihesean lagun duzun haizea bezala.

Ikarak doinu ederrenez kantatu zenizkidan:  
“hegazti guztiak zeruan iltzatu dituzte”.  
Mundu honetara jaurti gintuzten  
helbururik aipatu gabe,  
galderek dena bete arte.

Aurkitu zaitut,  
ilunpetan horma ezagun bat bezala.

Aurkitu nauzu,  
ihesean lagun duzun haizea bezala.

## **HURRENGO MAIATZA** (Kerobia)

Zeharka ikutzen ditut, uuuu.  
Saturnoren eraztunak dira, uuuu.  
Hain ederra da ur harrokak dira laztana.

Mezu bat izarrei bidali diet, uuuu,  
gutxiegi begiratu dizut maite...

Nai nai ni nai nina nina ni nai ni nari nari nai.  
Nai nai ni nai nina nina ni nai ni nari nari nai.  
Nai nai ni nai nina nina ni nai ni nari nari nai.

Bakarrik geunden hoietan bihotz beteetan,  
gogoratzen al duzu?  
Elkarrekin geunden hoietan bihotz beteetan,  
gogoratzen al duzu?  
Bakarrik zeunden hoietan ni zure bihotzean,  
gogoratzen al duzu?  
Bakarrik geunden hoietan...

Eta bertan maiatzik al dago, aire epela,  
aire errautsak mugituko dituenik  
gelako ohetik sabaira eta izkinetara.  
Eta orduan zu gutxiegi begiratu dizut,  
gutxiegi begiratu dizut.

## **HUTSUNE** (Pasadena)

Hotzikara bat lo zaudenean,  
orain norbait duzu beste aldean.

Bazenik ere ez zenekien,  
zauria hasi da odoletan.

Hutsune berria agertu zaizu.  
Luizi batek lez dena bete du.

Nola dei egin jada ez denari?  
Nola erantzun oihartzun bati?  
Hotzikara bat lo zaudenean.  
orain norbait duzu beste aldean.

Hutsune berria agertu zaizu.  
Luizi batek lez dena bete du.

## IA DENA (Bide Ertzean)

la dena esana dago  
eta dena egiteko.

Behin behineko ziurtasuna,  
iraupen luzeko oinazea.  
aldi baterako aukera,  
itolarri mugagabea.

la dena esana dago...

Ordu estrak langileentzat  
langabetuen miseria  
ordu estrak langileentzat  
ugazabaren oparia

Non dira?  
Non dira elkartasun gerizak?  
Kemena,  
barrena jan al digu handikeriak?

Gure barrena,  
ia dena esana dago  
eta dena egiteko.

## **IHES** (Zea Mays)

Bide zuzenetik oker, bide laburretik ezer ez,  
galdu denaren dudak besterik ez.

Haran berrien bila dabil zauriak garbitzekoa,  
bere bihotzeko leku izkutua.

Ta arrazoia urratu dion orbanetik ihes  
malkorik ez, malkorik ez.

Gelditzen diren arrastoetatik ihes  
sentimenduetatik ihes,  
min sakonetatik ta badoa ihes.

Gelditzen diren arrastoetatik ihes  
sentimenduetatik ihes,  
min sakonetatik ta badoa ihes.

Ezer ez duenarentzat lapurren beldurrik ez da,  
biluztasun osoz, aurrera doa.  
Dena galdua duenaren, desesperazio hutsez,  
salto egiteko, beldurrik ez.

Ta arrazoia urratu dion...



# **IHESA ZILEGI BALITZ** (Mikel Laboa)

Ihes betea zilegi balitz  
nunbait balego bakea,  
ni ez nintzake etxe ertzeko  
loredien maita lea.

Ni ez nintzake oinazearen  
menpeko miserablea  
oihu zekenen destinatzaile  
etsipenaren semea.

Ni ez nintzake inorentzako  
eskandaluzko kaltea  
lur hots batetan aldatutako  
landare sustrai gabea.

Ihes ederra zilegi balitz  
urra ahal baledi katea  
ni ez nintzake ontzi gabeko  
itsasgizon ahalgea.

## **IHESI DOA II** (Bide Ertzean)

Ihesi doa lagun anonimoa  
etxea utziaz, argiaren bila.  
Haizea bezala ihes doa  
atzean utziaz gordelekua.

Amets eraitsiak, betiko kantua  
oroitzapenak, begirada bat,  
begirada bat.

Ihes egin digu, ihes  
agurtu gabe, gabe, agurtu gabe.

Lorerik ez zen aspaldi honetan  
bere belazean lehorten batek  
irentsi zituen denak.

Eta antzuak dira orain bere desioak  
inork ez daki noiz, nola, norekin itzuliko ote den

Ihesi doa...

## IHINTZA (Izaro)

Eguzkia erortzen ari da,  
loreak uzkurtzen, uzkurtzen.  
Katuak oraindik lo daude,  
oraindik ura epel dago ta.

Haizea hotzez dator,  
laranjaondoak loratzen, loratzen.  
Hostoak laister erortzen,  
lurra behetik gora dena margotzen.

Ihintza goizaldean, ihintza, ihintza, ihintza.  
Ihintza goizaldean, ihintza, ihintza, ihintza.

Bildu itzazu arropa guztiak,  
hoztu egingo dira ta.  
Jaso amets gaiztoak suaren ondora.  
Ez zaitzala oinutsik harrapatu,  
udazkena, udazkena, udazkena...

Ihintza goizaldean, ihintza, ihintza, ihintza.  
Ihintza goizaldean, berandu zabilta.

# IKASTOLEN ERESERKIA (Pantxoa eta Peio)

Plazara, euskara plazara!!  
Euskaldun irakasle eta ikasleok dantzara!  
plazara, dantzara!  
Geure herriaren geroa bait gara.

Bai, arreba ta anai,  
guk ere herri bat izan nahi,  
geure lurrak laiatuz eta irauliz  
udaberriko emaitzaren zai!  
herri jakintza nahi dugu  
eta jakintza herriarentzat nahi!

Plazara,...

Ez, erderarik ez! Euskadin sortu ginanez  
Denok Euskara bakar bat nahi dugu  
Bizi giro ta jakintza bidez  
Mundu berri bat nahi dugu  
Herri bakoitzat beretik emanez

Plazara,...

## IKUSI ARTE (Berri Txarrak)

Gelditu ginen eta etzinen agertu  
eta gero gainera ez zenidan deitu.

Bainan berdin du jada, nik ez zaitut maite.  
Bila ezazu beste bat eta ikusi arte.

Idatzi nizun eta etzenun erantzun.  
Nik atera nahi nuen, zuk ordea sartu.

Bainan berdin du jada, nik ez zaitut maite.  
Bila ezazu beste bat eta ikusi arte.  
Eeeeeeeeeeee ikusi arte eeeeeeeeeeee.  
Ikusi arte eeeeeeeeeeee, ikusi arte eeeeeeeeeeee.

Zure atea jo nuen, ez zenuen ireki,  
etxera itzuli nintzen larrosa batekin.

## **IKUSI DUT DENA** (Beti Mugan)

Bazter ezkutu batian denbora aurrera ez doan tokian,  
besarkadak amesten esnatzen naiz berriro.  
Buru biko ispilu batian zoratzen doa gogamena,  
sugeen erreinuan lo zure begi zulatuak,  
ezerezari begira ikusi dut dena.

Haur baten haurrak ez daki sasi artian bereizten,  
haur baten haurrak ez dakiela panpinak bereizten.  
Janzkera horretan dakusat gezur anitzen gorputza,  
Txoriak laister hasiko zaizkit zaunka belarritan,  
Txoriak laister hasiko zaizkit zaunka belarritan.

Bazter kixkali batian gaua guraizez laguntzen  
ta azkazala krudel hauek orbain berriak asmatzen.  
Gezurrezko bihotz batian izozten da hego haizea,  
gaua odol tantaka itsas azalean,  
gatz erretan bildurik gaixotu naiz penaz.

Gatz erretan bildurik gaixotu naiz penaz.  
Gatz erretan bildurik.

## **IKUSI ETA IKASI** (Delirium Tremens)

Ikusi, ikusi eta ikasi.  
Ez pentsa ezerren beharrik daukazula  
heltzeko zure helmugara.

Entzun, argi eta garbi entzun.  
Zure inguruan esaten diren  
gauza guztiak entzun.

Ikusi, ikusi eta ikasi.  
Ez esan gero inoiz aukerarik  
ez duzula izan.

Heldu, ondo heldu.  
Ez galdu bidean inoiz  
berriz ez duzun edukiko gauza.

Ikusi eta ikasi eta ondo entzun.

Hobeto heldu, hobeto heldu.

Ikusi, ikasi. Entzun, heldu.

Ikusi eta ikasi eta ondo entzun...

## **ILARGIA** (Ken 7)

Esaiozu euriari berriz ez jauzteko,  
esan bakardadeari gaur ez etortzeko.  
Nana na nana nanana,  
Nana na nana nanana.

Eusten nauen soka zara eta itotzen nauena,  
ametsak sortu zizkidana, galtzen dituen.

Zuretzat ilargia lapurtuko nuke gauero,  
eta zu itsu zaude bere argia ikusteko.  
Irribarrez, gero minez, eragin didazu negarra,  
nire sua itzali da, ez zara gaueko izar bakarra, ez zara!!

Esan sentitzen dudana ez dela egia,  
une baten sinesteko ez garen guztia.

Nana na nana nanana,  
Nana na nana nanana.

## **ILARGI, NON ZAUDE?** (Mikel Errazkin)

Esaidazu nere ilargi maitea;  
Zergatik da bizitza hain krudela?  
Behin baino gehiagotan bururatu zait,  
bizitzaren muga zeharkatzea.

Inpernua ondo ezagutzen dut,  
pare bat aldiz bertan egon naiz!!



Satan partikularra daukat nik,  
gorputzetik desagertzen ez dena.

Motibo baten bila,  
nabil egunero.  
Larrosaren arantza,  
barruraino sartua.

Esaidazu nere ilargi maitea;  
heriotzaren hegian ikusi gara.  
Geru zu okerrago jarri zinen,  
ta inportantzirik ez nion nahi eman.

Hasieratik onartu ezina zen,  
ta azkenaldi hontan konturatu naiz  
agian nere hilargia ez dela egongo  
eguzkia ateratzerakoan.

## **ILUNABARRA** (Izaki Gardenak)

Suntsitu dugu maite genuen guztia  
bitan pentsatu gabe.  
Jo dugu etengabe abestia  
gure etsaien alde.

Hemen da.  
Hemen da ilunabarra.

Hareaz estali dugu egia

dena sinetsi arte.  
Geure bizitza, haien antzerkia.  
Gutziz lokartuta gaude.

Hemen da...

## **ILUNABARRAK** (Luis Eduardo Aute / Iker Lauroba-Jon Martin)

Ez gara egunsentiak izutzen ditun bakarrak.  
Amenazuak bezala iltzatzen zaizkit izarrak.  
Gaur igitai bat dirudi ilargiaren zeharrak.

Ilunabarra ta gero, badatoz ilunabarrak,  
ez nazala zutaz hustu bihar zoritxarrak.  
Ilunabarra, ilunabarra,...

Estoldatan gorde dira izan ez ditugun haurrak.  
Azken loreak irensten badaki haien negarrak.  
Atzoko odolaren gose segitzen baitu biharrak.

Ilunabarra ta gero...

Ixilik, bere hegalak zabaldurik, putretzarrak.  
Balada makabro hortan bildu ditu gizatxarrak.  
Polbora usaina dakar goizeko lehen sugarrak.

Ilunabarra ta gero...

## **ILUN IKARAK** (Imanol)

Ilun-ikarak azken argia uxatu dizu urrutira,  
zeru sabaian izar bakanak itzal etzanei begira,  
ilun txintako sorgin usaiak espazioan dirdira.  
ilun txintako sorgin usaiak espazioan dirdira.

Mendi hegitan argi-oroitza eguzkiaren keinua,  
baso beltzean hosto firfira gauezkoen erreinua.  
Itsas ondoko tamarindotan olatuen errainua,  
itsas ondoko tamarindotan olatuen errainua.

Itsas txoriak txio-txioka harat-honata haizetan,  
berde argien edertasuna more motelduz uretan,  
txalupa geldi kulunkarien isladarekin hizketan,  
txalupa geldi kulunkarien isladarekin hizketan.

Parke isileko banku txuria ezpain beroen lankide,  
antsi zaharrak zantzu berritan bihotz gordinen senide,  
tristura hegan paseatzen da arratsaren solaskide,  
tristura hegan paseatzen da arratsaren solaskide.

Gau ezkilaren oihartzun-hotsa irristatzen da kolkoan,  
zirrara mutu baten gisara maitearen soinekoan,  
bakardadea sekretuekin korapilatzen den zokoan,  
bakardadea sekretuekin korapilatzen den zokoan.

Itsas aireak gesalez dakar murmuriozko solasa,  
suspiriotan ezin jarioz pena lurrinduen hatsa,  
haize boladak txikordatzen du maiteminduen jolasa,  
Haize boladak txikordatzen du maiteminduen jolasa.

## **ILUNA DENERAKO** (Benito Lertxundi)

Kantaita bat ene ezpainetan,  
Artizarra keinuka zeruan,  
zure lehen loak hartu zaituenean  
zer ote da zure gogoan?...

Ixuria izan zara  
bizitzaren ibar honetara;  
zu zara gure azala eta

asmo berrien haragia.

Nigan bada zuretzat egina  
iluna denerako aterbea;  
zu izango zara bihotzean den  
suarentzako erretxina.

## **ILUNDU AURRETIK** (Sorotan Bele)

Gaur goizean,  
zu aurkitu zaitut.  
Nola esan, nola adierazi  
ni han nintzen, bakarrik.

Hau duk hau,  
handik eta hemendikan  
ikusi zaitut ta, zu bakarrik zinen  
berebil handi hartara sartzen.

Etzegoen inor barruan,  
bainan hau berdin da  
norbait itxoiten ariko zinen  
baina norbait hori  
ni ez nintzelakoan, ziur nago.

Bestela zergaitikan, atzo arratsean  
etzenidan deitu, zergaitikan  
esplikaiezaidazu, ilundu aurretik,  
ilundu aurretik, ilundu aurretik.

## **ILUNETAN** (Zea Mays)

Euriak itoa, etxean ezkutu-gordeka,  
uholdea oroipenetan itsasoa ahaztu du egunotan.

Aterki azpian sortu egin den mikromundua  
beltzez tintatu egin da.

Ta beltzez orduan doaz hitzak, ta beltzez sentimenduak doaz.  
Ta beltzez ilun du zaizkio pausu haundiak.

Argiaren bila doa, ilunak beldurtzen du ta.  
Agian ilunetan, hobeto ikusten da, hobeto ikusten da.

Hezetasun amaigabea, ta haren hezurrek belakiak bezela  
xurgatu dituzte ur litroak.

Ur beltzez beterik hitzak, ta ur beltzez beterik sentimenduak.  
Ta ur beltzez bete zaizkio bere birikiak.

Argiaren bila doa, ilunak beldurtzen du ta.  
Agian ilunetan, hobeto ikusten da.

Begi biak itxita, arnas sakon hartuta,  
galdutako erantzunak, berriz aurkitzen dira.  
Hobeto ikusten da, ilunetan  
Ilunetan, ilunetan.

## **ILUNPETAKO GIZONA** (Benito Lertxundi)

Ilunpetako lantegi latzetan  
gure lurra iraultzen ari zerana,  
beso zainak daldarrez begiak ikaraz...  
ilunpetako gizon zaitut gogoan.

Itzalak irensten zaituenean,  
nor izango duzu zutaz oroitzeko?  
Bide zailetatik abiatutzeko?  
Ilunpetako gizon zaitut gogoan.

Egunsenti berri: noiz argitu behar duk?  
Gaua luzea zijoak etorri hadi,  
gau beltzeko txori kantari motela...  
Ilunpetako gizon zaitut gogoan.

Egun larri batez zu eroritzean  
negar egingo dugu anaia guziok,  
ilargi gorria ezkutatuko da...  
Ilunpetako gizon zaitut gogoan.

## **ILUNTZEAN** (Maixa eta Ixiar)

Ilargia uretan murgildu da,  
itsas arrain txikien ondora.  
Uraren hozkirriaren zirrara,  
hondar epelaren alboan.

Iluntzean uraren ertzean,  
errainu baten argia.  
Ene maite biok jolasean,  
olatu zipriztin artean.

Haizeak zimurtu du itsasoa,  
kresalak lehortu malkoa.  
Maite zure zain hementxe naukazu,  
izar goiztiarrei begira.

Iluntzean uraren ertzean...



## **ILUNTZEAR DIHOANEAN** (Juan Carlos Perez)

Iluntzear dijuanian Kabo Matxitxakok,  
iluntzear dijuanian  
keinuak egiten dizkio mendebalde gorriai...  
mendebaldeai...

Ekialdeko horitasunaz ohartzeke bere kaosaz.  
Bere hiri eta zelaietako iluntzeaz,  
ohartu ein gabe ere.  
Bere liburu Santuetan idatzitako pakiaz  
...ohartu ein gabe ere...  
ohartu ein gabe ere...  
...eguzkiak, egunero izpi batzuk gorde  
izpi batzuk gordetzen bait ditu.  
Bir Bou Rebka estazioko adreilu zurietan,  
adreilu zurietan.

Aizak! ...esaidak munduarekiko

nere istorio hau, atsegin al dukan...  
"ez zik esan polita ez dela" Egañazpi kantatzen  
Egañazpi kantatzen...  
Sakabiren 'Larrinaga-Guerrini'arekin  
eta gero, eta gero atsedean bat hartzen duenian."

## **IN ILLO TEMPORE** (Ganbara)

Menturak eman digun herri zahar hontan,  
menturak eman digun herri zahar hontan,  
zurrumurrus gainezka gaude gehienetan.  
Sekretuz aipatua zabalik lau haizetan,  
errege ginategi ergelen aulkitan.

Epaiketan iaioak errespetoan ez,  
epaiketan iaioak errespetoan ez,  
besteen eritzia onartuz azalez.  
Bakoitza gurenean bizi gara tamalez,  
dirudigu arkume axeri izanez.

Sailkapen esparruan artistak gaituzu,  
sailkapen esparruan artistak gaituzu,  
edonon nahiz edonoiz geurea inposatuz.  
Kanpoan legokena pizti bitxitzat hartuz;  
tolerantzian itsu, bortxaketan maixu.

Kantatu dugun oro egia izanik,  
kantatu dugun oro egia izanik,  
ez zintuzket utzi nahi bertatik zintzilik.  
Egin gaitezen haize, bihur gaitezen irri  
argiak biztu gaitzan lainoen azpitik.

## **INTSUMISOARENA** (Oskorri / Jon Sarasua)

Postari zintzo horrek zer dakar karpetan?  
Amodio gutunik etzegok hiretan.  
Militarren ohar bat? Bitxia benetan...  
Bidali duenari eramaioak bueltan.

Natural sentitzen dut egiten dudana  
eta natural egin sentitzen dudana.  
Insumiso egin naiz horixe da dana,  
ahaztu gabe guztioi muxu handi bana.

Nigarrez ari zara ama maite hori  
ba omen nuen beste aukera ugari.  
Nola obedituko diot eroari  
ez badizut jadanik obeditzen zuri?

Ene kolega maite beldurtia haiz hi,  
aholkuak ematen ez hadila hasi.  
Kartzelara noala diostak itsusi  
etor hadi bisitan txorizo ta guzti.

Funtzionari zoli ene kartzelero  
juezen sententzia txikien borrero  
ezin nauzu hain errez bihurtu numero  
kantari esnatzen naiz goizero goizero.

## **IÑAKI, ZE URRUN DAGON CAMERUN** (Zarama)

Martzianoak bezala kalean galdurik ibiltzen.  
Hogeitamalau gradu eta izerditan blai.

Nerbioi ertzetatik Santurtzitik Bilbora  
non ibiltzen ziren lehengo sardinerak,  
inork ez dakien nondik irten den arrantzaz.

Tabernaz taberna: "vendo barato"  
goizean eta gauez: "mucho barato"  
askotan baraurik: "todo barato"  
izenik ez dute soilik Iñaki:  
Iñaki, ze urrun dagoen Camerun.

Iñaki, ze urrun dagoen Camerun,  
ze urrun dagoen Camerun,  
ze urrun dagoen Camerun,  
ze urrun dagoen Camerun!!

## **IPARRALDEKO NESKA** (Bob Dylan / Anari)

Inoiz bazoaz iparraldera  
udara erreketan izozten denean,  
arren begira ezazu nere begientzat  
han bizi baita nire maite minena.  
Minena, minena , minena, minena.

Inoiz bazoaz iparraldera  
haizeak muga astintzen duen lekura,  
oroitu ni behin hango izan nintzela  
han bizi baita nire maite minena.

Inoiz bazoaz elur-maluten garaian  
udara erreketan izozten denean,  
arren begira ezazu nahiko bero baden  
bere berokia haize zakar harentzat.

Arren ikus ezazu nire begientzat  
bere ile luzea oraindik luze den,  
kizkur erortzen zaion bularrean  
halaxe oroitzen du nire barruak.

Inoiz bazoaz iparraldera  
udara erreketan izozten denean,

arren ikus ezazu nire begientzat  
han bizi baita nire maite minena.

## **IRAGANA BETI JARRAIKA** (Jon Gurrutxaga)

Zerua ilun dago oraino,  
ez da entzuten urratsen oihartzuna baino.

Tren geltoki zaharretako xarma,  
areagotu egiten da ordu txikien itzalean.

Maleta batean bizitza sartzea,  
malko bakarrak barruko min guztia  
biltzea posible ote da?

Iragana beti jarraika, gure itzalean bizi da.  
Gure itzalaren gerizpean.  
Gaztetako kimera sekretuak etengabe loratzen dira.

Itzulerarik gabeko bidaia da.  
Nahi ta ez, denboraren bagoia, joan badoana  
Errailak nora joan, hara doa.  
Trenaren kirrinka itoa ta bere gerizpe leiala

Iragana beti jarraika...

## **IRAGANA HIL BAINO LEHEN** (Urtz)

Tren geltoki zaharrear zai nago  
zure irrifarra oroitu nahian  
baina euriak bustita, galduz doaz  
ene taupada isilak.

Gauean murgildu zen tren hotsa  
bakarrik utziz nire bihotza,  
muxu bero bat masailean eta lepotik  
zapi goxo bat zintzilik.

Iragana hil baino lehen esaidazu arren  
nora jo, non maita zaitzaket.

Iragana, hil bada ere esaidazu arren  
nora jo, non aurki zaitzaket.

Ziur nago berandu ez dela  
irakurri dut ortzean.  
ilargia izkutatuz doa  
zure begi etsietan.

Hitzez nola azaldu ez dakit  
barnean dudan samina;  
herbesteratuen artean  
halaxe omen da herrimina.

## **IRAUNTZEN** (Beti Mugan)

Bizitzarekiko jarrerren zalantzak,  
oinutsik gaudela goizeko zazpitan.

Oreka mantentzea bai lana tristea  
funtzioak betetzen goizetik gauera.  
Elkar begira erantzunik gabe  
aurpegi zurbilak gaua luzatzen.

Irauntzen! irauntzen!

Ez dago tarterik,  
sortu edo desegin  
nola bizi daiteke  
irrika, irrika, irrika, irrika barik?

Oreka mantentzea...

Irauntzen! irauntzen!



## IRAUTEN (Hertzainak)

Hiri ezezaguneko karriketan zabilta  
adiskidantza itsuen aintzira lehortuak  
direla dagoeneko erraiten.

Hiri ezezagunetan ez dela beti giltza  
harrapatzen gauetako hasperen agortuak  
berriz berma arazteko erraiten.

Euriaren kolpeak hegaztegietan  
arrotzaren moldeak zure begietan.

Atzoko hiri urdinaz egiten duzu amets  
nolatan ziren higatu lantzerraren mendeak  
basoko ardo mikatzei eskatzen.

Solasen hari meharrak arrotzaren jendeak  
asoko ardo mikatzei eskatzen.  
zein leizetan galduko zaren amodioz amets  
duzu oroitzapenari eskatzen.

Euriaren kolpeak...

Ihardokitzen ikasten dukezu azkenean  
hiri ezezaguneko karriketan ibiltzen  
hitzak ahantzi artean irauten.

Goizak direla etortzen usterik ez denean  
mintzoaren hotsa doa argizagitan hiltzen  
desertuak kantatzeko irauten.

Euriaren kolpeak...

## **IRIX NAIT (IRISH NIGHT)** (Sorotan Bele)

Bidai luze bat haraino egin genuen,  
zertxobait berri ikasteko asmoarekin.  
Kaleetan zehar asko ibili ondoren,  
taberna batean sartu ginen zazpiak.

Hogei garagardo beltz edan genituen,  
ta kriston mozkorra hartu genuena.  
"Buruzagiek" momentu hartan jotzen zuten,  
hirustaren giroa airean zegoen.

Oh! Irix nait! Azkenik ezagutu zaitut  
Oh! Irix nait! Zein polita zaren.

Whistle baten txistua entzun bezain laster,  
jotzen hasi ginen denak "Paddyren dantza".  
Gutako baten emozioa ikusten genuen,  
gaitaren soinuarekin egin zuen negar.

Bibolina jotzen zuena eroa zegoen,  
sentimenduz beteriko doinu bat jotzen.  
Kontzeruta bukatu zen eta denok batera,  
hasi ginen txaloka eskuak mindu arte.

Bapatean esnatu nintzen nire logelan,  
pentsatzen atzokoa egia ote zen.  
Guinness jarra bat poltsikoan aurkitu nuen,  
egia ala amets, izugarria izan zen.

## **IRRIBARRE BERRESKURAEZINAK** (R)

Besteen egoerek  
beraien gunetara  
inguratzen gaituzte,  
oreka hartu ezinezko  
bizitza honetan.

Irudikeria alde batera utziz  
iratzar gaitezen.

Amildegia guztietan  
hondoratzen gaituzte.  
Amildegia guztietan  
hondoratzen gaituzte.

Udazkeneko hostoak bezalaxe  
erortzen hasi gara  
eta amaiera badakigu zein den  
datorren udaberrira arte.  
Eta amaiera badakigu zein den  
datorren udaberrira arte.

Amildegia guztietan...

# **IRRI EGITEN DUENARI** (Pirritx, Porrotx eta Marimotots)

Irrifar laranja bat margotu diogu eguzkiari  
goizero egin diezagun harek koloretsuago argi  
esnatu dezan bihotz barrutan lo dugun bizi poz hori.

Irrifar iheskor bat margotu diogu hegoaizeari  
sekula ez da berriz izango berri beltzen mandatari  
Kantu zaharren doinuan orain firi firi txistu dagi.

Irrifar pottolo bat margotu diogu laino beltzari  
orain euria milaka tanta koloretsutan du ari  
zipriztinetan bizia emanaz gure herri zuri-beltzari.

Irrifar argitxu bat margotu diogu ilargiari  
orain ilberatan zilarrezko irrifar fin fina dagi.  
zerutik jeikita dabil amesgaiztoen ehiztari.

Irrifar erraldoi bat margotu diogu mundu zaharrari  
bere buruari biran doan nahi gabeko bidaiari  
munduko herri guztitan irri zati bat geratu bedi.

Irrifar txikitxo bat margotu diot neure buruari  
eguzki ilargi hegoaize mundu zahar eta euri  
denak keinuka ari baitira irri egiten dunari.

## **IRTEN** (Izaki Gardenak)

Esadazu zer den larriagoa:  
su ematea ala erretzen uztea.  
Sarean askatuz sumin etsia,  
hondamendia gordelekutik beha.

Munduko harresiek  
kezkutzen gaituzte,  
itxuraz behintzat,  
geure baitatik irten ezin garenean.

Sitsak jan dizkigu astiro hitzak.  
Hemen bakoitzak darama bere zama.  
Geure buruei traizio egin;  
ezkuta ezin sortu zaigun orbana.

Munduko harresiek...

Babesik gabe kanpora nola irten?  
Gure oskolak gurtzea lortu dute.

## IRUNTZI DANA (Katamalo)

Zabaldu ahoa, iruntzi dana.  
Berba gaiztorik esan ez dagizun.  
Zarratuko dizut bizia,  
zarratuko dizut bizia.

Zein gozoa den pozoina  
erreinua oraleku duenarentzat.  
Zein gozoa den pozoina, erreinuaaaaaaa.

Zabaldu ahoa, iruntzi dana.  
Berba okerrik idatzi ez dagizun.  
Luzatuko dizut biziaaaaaa,  
luzatuko dizut biziaaaaaa.

Zein gozoa den pozoina  
tronua oraleku duenarentzat.  
Zein gozoa den pozoina, tronuaaaaaa.

Zabaldu ahoa, iruntzi dana.  
Berbarik egin ez dagizun.  
Ukatuko dizut biziaaaaaaa,  
ukatuko dizut biziaaaaaaa.

Haserretu zaitez egin negar  
irriz duzu heriotza.

## **ISBURT** (Kerobia)

Bizi berria eraiki,  
zuretzat, zuretzako.  
Barka itzazu bidean hildakoak,  
gaixotutakoak.

Zuretzako izango diren  
momentu zoriontsuek  
Espazio bat betetzen dute,  
bete behar duten momentuan.

Zuretzat diren, zuretzat ere...

Atzoko bizipen  
ta gaurko zalantzek  
Norbegiako Isburtera  
bultzatuko zaituzte.

## **ISLA** (Anari)

Bizitzaren urertzean hondartzen diren izugarrizko bale horietako bat nola ez aurrera ez atzera behea jota natza itzalak dio: "irla bat".

Alde egiteko behar adina urik ez da baina bizirauteko behar den adina ezta.

Esku-ahurrez ureztazen nauzu eta arrianez betetzen didazu barrua sinesten duzalako hainbat gauza arinek mugitu dezaketela handi bat.

Alde egiteko...

Bilatzen dugun gauza berri oro behin izan genuen beste zerbaiten isla da. Mugitu ezin den bale bat ez da bere isla, irla bera da.



## **ISPILU AURREAN** (Alaitz eta Maider)

Ispilu aurreko isladan beti nahi dudana naiz.  
Bainan zure aurrean, galdu itten naiz.  
Zuregan aurkitu nahi dut nire ispilua  
eta orduan beste bat naiz, zu zarena, zarena.

Zuregan aurkitu nahi dut nire ispilua  
eta orduan beste bat naiz zu zarena, zarena...

Zarena aha, zarena aha,  
zarena aha, zarena aha.

Isilezko sekretutan norbera da, sekretu handiena.  
Norbera da, nahi duena, norbera da, izan nahi duena.

Isilezko sekretutan norbera da, sekretu handiena.  
norbera da, nahi dueña, norbera da.

Niregan aurkitu nahi dut izan nintzena  
baina naizen horretan galdu itten naiz.

Zuregan aurkitu nahi dut...

# ISPILUAREN AURREAN (Hertzainak)

Kristalaren bestaldera  
bi begiak iltzaturik.  
Jada ezin dut konprenitu  
zein gaizki sentitzen naizen.

Dena aldatu da, erabat  
desberdina da, erabat.  
Eta guzti horrek min egiten dit,  
aurpegia daukat desitxuratua  
ispiluaren aurrean.

Kristalaren imajina  
orain denboratan galtzen da  
ta burua nahasten zait  
kea haizean bezala.

Iturri lehor, agortua.  
Putzu ilun, pozoindua.  
Baino hobe jazo dena jazo bada  
berandu dut aldatzeko iragana  
ispiluaren aurrean.

Ispiluaren aurrean,  
Ispiluaren aurrean.  
Baino hobe jazo dena jazo bada  
berandu dut aldatzeko iragana  
ispiluaren aurrean.

# **ITSASARGIAK** (Izaki Gardenak)

Zeru-lurrak astindu  
oihu gordin batekin.  
Gure mugak gainditu  
bizitzeariekin.

Zeru ilunez hitzegiten duzu;  
izarrak baino ez ditut ikusten.  
Eguneroko amorrua  
bizi gogo bihurtu.

Beldurra eta isiltasuna  
su berrietan urtu.

Izarrak, kaleak sutan.  
Gidatzen gaituzten itsasargiak.  
Gidatzen gaituzten itsasargiak, itsasargiak...

# ITSAS LABARREAN (Mikel Moreno)

Itsaslabarretik itsasora  
jauzi batez aurrea hartu.  
Neguko gau egun hotzenetan  
artileaz oinak laztandu.

Deika ari dira argazkiak gelan,  
oroimenak giltzatu zaitu.  
Itzartu duzu paperezko eszena,  
ta itxaroten zein, zein, zein, zein keinuk,  
eramango zaituen hara, zai zara.

Laino batean irudikatu duzu  
nire sudurraren orinak.  
Nahikoa izan duzu behatzaren punta  
helarazteko maitasuna.

Oh nere maitea, galdu ez ote naiz  
zure ezpainen errepidean?  
Itsaso zara, nire begietara jausi  
egin nuen behin, behin.  
Galdezka zirenei esan nien  
egoteko lasai, pozik noa, ni banoa. Uhhh...

Zu, grabitate,  
ekarri nauzu zure mundura.  
Zu, irla sekretua.

Galdezka zirenei esan nien  
egoteko lasai, pozik noa.  
Ni banoa, bagoaz...

## ITSASLAMI (Mikel Moreno)

Maindire azpiko ilunpea gordeleku izaten zenean  
ez zintudan aintzat hartzen, barka zuri.  
Ilunabarrean itzuleran, kanpai dorreko zortzi deietan,  
nor izateko? Arimak hustutzeko?  
Norbere nahian norbera agertzeko ginen.

Inguratu dut bela-ontzian  
zure sekretuen harresia.  
Amildu naiz inkonszientzian  
eta ezin ahantzi zure konszientzian  
beste inor dela, gatibatuko dut amnesian.

Zu ta ni, hain berezi maindireko itsaslami.  
Zu ta ni edonora.

Izan zintezke nire pozoia,  
erreinuan nire konplizea.  
100 urteko lokartzetik esna ninteken,  
esan ninteken, estrategia.  
Amets guztietan hiltzailea,  
zoriontasunaren ondamua.

Zu ta ni, hain berezi maindireko itsaslami.  
Zu ta ni edonora. Nora. Uhh...

Ez errudun ez irabazle, ez galtzaile.  
Negarrik ez, ezin behartu zer sentitu.  
Maitasun bat, hain eder, hain eder.

## **ITSASOA** (Zea Mays)

Hitz ezberdinen jabe, nire eta zure ametsen idazle.  
Nire betirako maitale zu zara itsasoa, itsasoa.  
Alkoholetan eta odoletan blai dauden nire eskuak,  
aurpegira eramaten ditut negarra isildu nahian.  
Nire minak ito nahian, nire, nire hitzak ito nahian.

Pausu batzuk aurrera ematen ditut  
hobeto sentitu nahian eta bizitzan egindako guztia  
zigarro baten ketan itotzen saiatzen naiz.

Banoa ta banoa zure barnera zure egiaren arimara  
zure bihotzaren parera ta, ta banoa ta banoa  
nire bizitzaren amaierara zugar itotzera.  
Itsasoa zure garretan itotzearen beldurrez  
itsasoa zure pareten zuria apurtu nahiez  
maitatzen, maitatzen gorrotatzen zaitut, zu zara itsasoa.

Hor zaude zu niri oihuka niri deika  
eta begiratzen zaitut zure iluntasunean,  
zure urdintasunean niretzat gaur zaitut gorritz jantzia.

Banoa ta banoa zure barnera...

## **ITSASOA GARA** (Ken 7)

Begiratu atzean, ortzimugak sutan,  
gure begien zerutan.

Begiratu maitea, amildegi ertza,  
biziak hila, ametsa.

Ez bilatu gauean, izar hura,  
zure begitan piztu da.

Ta ez galdetu inoiz zer galdu genuen, negar egin genuenean,  
malko haiei esker, orain itsasoa gara, orain itsasoa gara.

Orain hemen gaudela bidegurutzean,  
utz ditzagun beldurrak atzean.

Ez gara izan onenak, beharbada,  
baina gure bizitza izan da.

Mendeetako kanta erditu da,  
gure ordua heldu da

Ta ez galdetu inoiz zer galdu genuen, gure ametsaren bidean,  
izan garelako, oraindik ere bagara, ta beti izango gara.

Ta ez galdetu inoiz zer galdu genuen, negar egin genuenean,  
malko haiei esker, orain itsasoa gara, itsasoa gara.

## **ITSASOA LAINO DAGO** (Urko)

Itsasoa laino dago,  
Baionako barraraino.  
Nik zu zaitut maitiago,  
txoriak bere umiak baino.

Aita gutaz oroit dago,  
lainopian gaueraino.  
Nik zu zaitut maitiago,  
arraintxoak ura baino.

Afaria sutan dago,  
bero beroa sarri dino.  
Nik zu zaitut maiteago,  
egur onak sua baino.

Izar xuriz mila dago  
iparretik hegoraino.  
Nik zu zaitut maiteago  
ilargiak gaua baino!

Lo egizu, egizu lo,  
deskantsuan bihar artio.  
Nik zu zaitut maiteago  
gau beltzean loa baino!

Orain haurra hor lo dago;  
lo egizu aingerutxo.  
Nik zu zaitut maiteago  
zure aitak nihaur baino!



# **ITSASOAN URAK HANDI DIRE** (J. Lekuona/ X. Lete)

Zazpi senideko famili batetan  
arotza zen gure aita.

Gure herriko alkate ez izan arren,  
lan egiten zuena.

Itsasoan urak handi dire,  
murgildu nahi dutenentzat  
gure herriko lanak handi dire,  
astun dire, gogor dire,  
zatiturik gaudenontzat.

Markatzen ari diren bide nabarra  
ez da izango guretzat,  
lehengo sokari ezarririk datorren  
oztopo bat besterik.

Itsasoan...

Hainbeste mendetako gure morrontzak  
baditu mila tankera  
eta, zuhur aukeratzen ez badugu,  
bertan galduko gera.

## **ITSASOARI BEGIRA** (Benito Lertxundi)

Zazpi mendeko gauean gaude. Gure lore eta sasi,  
irrintzi, oihu, ele eta ulu, marmario eta garrasi,  
haize enbata, brisa, galerna, gaur garbi, bihar nahasi,  
xake taularen zuri beltzetan arrats gozo egun gazi.  
Ai itsasorik ez bageneuka zeri so negarrez hasi.

Gure zuhaitza landatu dugu amildegi muturrean,  
adarrak dauzka ertzetik haruntz; sustraiak, berriz, lurrean,  
bihotz hesteak estu helduaz esku baten ahurrean.  
Bertso berriak jartzera noa bere indar laburrean,  
nola malko bat isuritzen den itsasoaren aurrean.

Nola haizea, ur azalean eguzkiaren irteran.  
Nola kaioak zorabioan Itsas enbata bezperan.  
Pentsatzen nago gure ere berdin Ibiltzen ez ote garan  
Susmoa daukat gure, patoa itsasoa ez ote den.  
Libre ta zabal dugu aurrean baina ezin dugu edan.

Heldu herria sustraletatik, tira eta gora jaso.  
Jarri kantauri aurrean eta mantendu zutik hari so.  
Ispilu hortan ikus gaitezen herriz herri, auzoz auzo.  
Zauriak gatzez itxi ditzagun, malkoak urez eraso.  
Libre ta zabal irla txiki salbatuko da akaso.

Azken arnasa eman nahi nuke, eguna hiltzen ari da.  
Azken arnasa eman nahi nuke, bertsoak entzuten dira.  
Azken arnasa eman nahi nuke, kantari nator herrira.  
Azken arnasa ematen degu eguzkitik eguzkira.  
Azken arnasa eman nahi nuke, itsasoari begira.

## ITSASONTZI BATEN (Kaxiano)

Itsasontzi baten Euskal Herritik kanpora,  
naramate eta ez dakit nora.

Itsasontzi baten Euskal Herritik kanpora,  
naramate eta ez dakit nora.

Agur nere ama      laztan goxoari,  
agur nere maite politari,  
ez egin negar etorriko naiz,  
egunen baten pozez kantari.

Itsasontzi baten...

Agur senideak, agur lagunari,  
agur Euskal Herri osoari.  
ez egin negar etorriko naiz,  
egunen baten pozez kantari.

Gora Euskal Herri,  
Gora Euskal Herri,  
Gora Euskal Herriari.

## ITURINGO AROTZA (Mikel Laboa)

Ituringo arotza, Erramun Joakin,  
haserre omen zaude zeren degun jakin.  
Santurik ez daiteke fiatu zurekin:  
San Kristobal urtuta joaliak egin.

Arotzak erran dio bere andreari:  
- Urtu behar dinagu, ekarran santu hori!  
- Gizona nora zoaz, bekatu da hori!  
- Etzionagu erranen sekula nihori.

Ituringo garaile Ramuntxo Joakin,  
haserre omen zira zeren dudan jakin.  
Konfesa zaite ongi erretorarekin:  
ez dute zer fidatu santuek zurekin.

Kobrezko santurikan inon bazarete,  
egoten al zarete hemendik aparte;  
baldin arrotz horiek jakiten badute,  
garien egiteko urtuko zaituzte.

## ITXAROPENA (Su ta Gar)

Bakardadea  
sentitzeko beldurrak,  
behartzen nau egun hontan  
barnekoa ateratzera.

Nerekin zaude  
nahiz ta soilik bihotzean.  
Laister elkartuko gara  
izar alaiago batetan.

Ez dut galduko itxaropena  
nahiz ta zu ez egon zure zain naiz.

Agertzen zinen bakoitzean  
ez nuela behar ezer.  
Zure izate hutsak  
betetzen zidan gorputza.

Baina gure mundu hau  
nahiko gaizki eraikia izan denez  
azkenean paradisia  
infernu bilakatu zan.

Ez dut galduko...

## **ITXOITEN** (Negu Gorriak)

Amari itxoiten, itxoiten  
Aitak besoetan har nazan, itxoiten. (x2)

Lehen eskola egunari, itxoiten  
titiak noiz haziko, itxoiten.

Itxoiten!! (x4)

Examinari, itxoiten  
Iana noiz lortuko, itxoiten.

Norbaiti, itxoiten. (x2)

Orgasmora heltzeko, itxoiten  
berak nire denbora bete dezan, itxoiten.

Haurra noiz jaioko, itxoiten  
umea noiz kozkortuko, itxoiten. (x2)

Itxoiten! (x4)

Bera nire bila noiz etorriko, itxoiten  
seme-alaben bisitaldiari, itxoiten.

Liberazioari, itxoiten. (x2)

## **ITZALAK ZUTIK** (Izaki Gardenak)

Itzalak zutik dabilta  
herri goibel honetan.  
Azalean zehar galderak eta  
erantzunak denak begietan.

Kosta egiten da kalean  
arnasa hartzea;  
hain dago hemen inguruko  
airea ametsez betea.

Ilunak gara, baina gure denbora  
agortu baino lehen  
piztuko gara eromenezko  
argi zuri itsugarritz.

Oinei begira,  
hunkitze aukerak galtzeko.  
Ez zaitetz mugitu,  
ez dituzu kateak inoiz sentituko.

# ITZALTZUKO BARDOA (Benito Lertxundi)

Ehunka uso Elkorretako inguruetan Itzaltzuko bardoaren bila etsipenetan.  
Gari ttantta bana dute mokoetan ezarri ahal izateko Gartxoten ezpainetan.

Elkorretaren gailurrean irakatsi huen,  
nor bere lurrean maizter izatea zein garesti ordaintzen den.  
Lur minak eragindako zina,  
lur ikararen mugikortasunean ere zein iraunkorra den.

Atzaparka bat lurrez hire seme maitearen abots gardena itoaz  
nola herri bakoitzak bere defuntuak lurperatu ohi dituen.

Baina hik Gartxot ez huen Abraham baten ohorerik eta Mikelot  
euskal epikaren erresinola lurrari eskeni behar izan hioken opari.  
Atzerriko latin zaleen uztarpean  
biraozko hizkuntza basatiaz kantatzea ez baizen zilegi.

Ez duk eremu hauetan aingeru zerutarrik Otsaburu zakur anaikorra ez besterik,  
nork lehunduko dik bada hire nahigabea gure lur gozoak ez ezik, lur gozoak ez ezik.

Arrano igarlea hor hago zeharka begira heriotzaren getari, heriotzaren getari.  
Hire hegalaren azpian joan nahi nikek,  
hire xirularrutik iheska irriztan joandako eresien bila  
gure adimena hire oroitzapenez sendotu dedin.

Ai Frai Martin, hire zitalkeriak bardoa hilen dik,  
bainan haren sumindura hilezkorra ondotik izango duk  
eta hire maitiñak deabruak kantatuko dizkik.

Gaur mende batzuen ondotik kondairaren oihartzuna entzun nahirik  
lur honi so, hire Altabizkarko kantuaren egarrik nauk, Gartxot,  
nere oharmenaren ilunabarretan noiz entzungo zai.

Elkorretako elurrak urtzen direlarik errekan behera datozte,  
garden bezain bihurri, lurraren negarra iduri.

Txori kantazale ederra nun ote haiz kantatzen?  
Harrien negarra haizeak darama Zaraitzuko ibarretan barna.



# ITZIARREN SEMEA (Peio eta Pantxoa)

Itziarren semeak ez du laguna salatzen...  
Eta zakurren aurrean tinko ta ixilik egoiten...

Itziarren semea: hori duk mutila!!  
nihor salatu baino nahiago du hila.  
Harro egon liteke Maji neskabila,  
espetxetik jali ta joanen zaio bila!!  
Maji neskabila, hori dun mutila!!  
Nihor salatu baino nahiago du hila!!

- Haurra zer egin haute holan egertzeko?  
- Ama, jo egin naute mintza arazteko  
- Izenik eman al duk? Esan zak egia!  
- Ez ama, ez dut eman! Jali naiz garbia!  
- Jali haiz garbia? - Bai ama, egia!  
Ta amak eskeini zion klabelin gorria.

Zazpi gizon nituen joka inguruan  
Makilaz hartu naute ostikoz lurrean.  
Bainan nik ez dut eman lagunen izenik.  
ta hantxe galditu dira fitxik jakin barik!

Lau aldiz sartu naute urean burua  
zangotik euki naute zintzilikatua  
bainan nik ez dut eman lagunen izenik,  
Ta hantxen gelditu dira fitxik jakin barik,  
zangotik zintzilik, ni beti ixilik!  
Ta hantxen gelditu dira fitxik jakin barik!

Izerdia ta odola burutik behera,  
ezpainak urratu ta azazkalak atera.  
Bainan nik ez dut eman lagunen izenik,  
ta hantxen gelditu dira fitxik jakin barik,  
odolez beterik, ni beti ixilik!!  
Ta hantxen gelditu dira fitxik jakin barik!!

Itziarren semeak ez du laguna salatzen,  
eta zakurren aurrean tinko ta ixilik egoiten.  
Espetxerat igorri dute, amak ez du ezagutu.  
Ta Majik, pulliki pulliki, eman dioska bi musu.

## **ITZULI** (Pasadena)

Non nago ni, airean beti.  
Urrun da hemendik atzean utzirik.

Ezin naiz itzuli, bihotz eta begi  
han dauzkat oraindik.

Ezer ez dago han orain,  
leku hura gudan baino ez da.  
Urrun da hemendik,  
atzean ez dago biderik.

Ezin naiz itzuli, bihotz eta begi  
han dauzkat oraindik.

Ezin naiz itzuli, lanbroan galdurik  
han nago oraindik.

## **ITZULIKO NAIZ** (Izaki Gardenak)

Dena galdu eta gorantz erori naiz.  
Dantzan bele artean.  
Hego itxurako zeozer sortu zait  
hemen, neure barnean.

Guztion gainean,  
haizeak dantzatzen nau orain  
Gaua amiltzean  
garbitzen ditut hainbat orbain.  
Itzuliko naiz.

Hemen goian besterik ez dago  
gardentasuna baino.  
Hobe ez dakit, baina zoriontsuago  
bele artean nago.

## **IXIL IXILIK DAGO** (Oskorri)

Ixil ixilik dago, kaia barrenian,  
ontzi txuri polit bat uraren gainian.

Goizeko ordubietan esnatutzen gera,  
arrantzaliarekin joateko urrutira.

Zergaitik, zergaitik, zergaitik, zergaitik?  
Zergaitik negar egin?  
Zeruan izarra dago itsaso aldetik.

Bat, bat, bat, bart parrandan ibili,  
bart parrandan ibili.

Bi, bi, bi, ez naiz ondo ibili,  
ez naiz ondo ibili.

Hiru, hiru, hiru, kolkoa bete diru,  
kolkoa bete diru.

Lau, lau, lau, xardina bakalau.

## **IZAN LITEKE** (Don Inorrez)

Izan liteke ezkerrekoa edo eskuinekoa,  
edo izan liteke erdikoa, edo hiruretakoa.  
Edo hiruretakoa, ez baitu inongo kalterik egiten.

Gero ta gehiago, gero ta gehiago  
Halakoak gero ta gehiago dira.

Izan liteke hippia, tupe gabeko rockerra,  
edo klasiko postmodernoa.  
Edo denetatik pixka bat, edo denetatik pixka bat,  
ez baitu inongo kalterik egiten.

Gero ta gehiago, gero ta gehiago,  
gero ta gehiago, gero ta gehiago.  
Halakoak gero ta gehiago dira.

Suelto aritzen dira, plazarik plaza dantzan.  
Sendoak ibileran bizirik solasean plazari plaza kalakan.  
Zalantza gutxiko piztiak suelto aritzen dira.

Lotsa etxean utzita, harro haizeak puztuta.  
Sendoak ibileran suelto aritzen dira,  
plazarik plaza dantzan, sendoak ibileran  
bizirik solasean, plazarik plaza kalakan.

## IZARREN HAUTSA (Mikel Laboa)

Izarren hautsa egun batean bilakatu zen bizigai,  
hauts hartatikan uste gabean noizpait ginaden gu ernai.  
Eta horrela bizitzen gera sortuz ta sortuz gure aukera,  
atsedenik hartu gabe: lana eginaz goaz aurrera,  
kate horretan denok batera, gogorki loturik gaude.

Gizonak ba du inguru latz bat menperatzeko premia,  
burruka hortan bizi da eta hori du bere egia.  
Ekin ta ekin bilatzen ditu, saiatze hortan ezin gelditu,  
jakintza eta argia; bide ilunak nekez aurkitu,  
lege berriak noizpait erditu, hortan jokatzuz bizia.

Gizonen lana jakintza dugu: ezagutuz aldatzea,  
naturarekin bat izan eta harremanetan sartzea.

Eta indarrak ongi errotuz, gure sustraiak lurrari lotuz,  
bertatikan irautea: ezaren gudaz baietza sortuz,  
ukazioa legetzat hartuz beti aurrera joatea.  
Ez dadukanak ongi ohi daki eukitzea zein den ona,  
bere premiak bete nahirikan beti bizi da gizona.

Gu ere zerbait bagera eta, gauden tokitik hemendik bertan  
saia gaitezen ikusten: amets eroak baztertuturikan,  
sasi zikinak behingoz erreta, bide on bat aukeratzen.

Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak,  
burruka hortan iraungo duten zuhaitz-ardaxka gazteak.  
Beren aukeren jabe eraikiz ta erortzean berriro jaikiz  
ibiltzen joanen direnak: gertakizunen indar ta argiz  
gure ametsa arrazoi garbiz egiztatuko dutenak.

## **IZAR TXIKIA** (Joxe Ripiau)

Zure argiak gauean dizdiratzen du  
Nondik? Ez dakit...

Hain hurbil ematen du eta hain urrun.  
Zure izena ez dakit.

Ez dakit zein zaren, ez dio axola.  
Zure argia emaidazu.

Ez dakit zein zaren, ez dio axola.  
Zure argia emaidazu, izar txikia.

## **IZOTZ ONDOKO EGUZKI** (Lizardi/Xabier Lete)

Izotz-ondoko eguzki, neguaren farre:  
olerkariak noizbait hiri goratzarre.  
Emeki duk itxaroz piztu garai-larre:  
udaberri-lamiek larreon batzarre.

Behetik nator, ibarrak izoztuta utziak,  
mendia jaiez dago urrezko jantziak.  
Haren farrea dadat irrika biziaz,  
gozatua baitu gaur ezti bereziaz.

Udalenak irria oi du zoro ozena:  
udak, haragikoia; udazkenak, bena;  
negu-gau oskarbien izotz-ondorena  
guztiz, bakarra duzu: denetan emeena!

Bai-baitatza eria ogean, herio  
atzapar itsusia luzatzen ario:  
berbizkunde-berria maiteak jario:  
hitzik ezin ta irria hain ezti dagio!

Izotzak estali zuen gure Euskalerrria;  
mintzo ozenak zabaldu berbizkun berria.  
Itzal-zokondoetan lore, izotz-bitxia  
baina haren gainetik jauntzen eguzkia.



## IZUA (Biren)

Uoooooooo, uoooooooo...

Izua da nagusi gure bihotzetan  
askatasuna falta zaigu guri oinetan.  
Ingurura begira beldurra begietan,  
erdi korrika goaz etxerako bidean.  
Etxeko andre, sukaldari eta andereño gera  
besteek egiten dute gure ordeztukera.

Gizarte ustel hontan gizonezkoen baitan  
bizi izan baikara beti itzaletan.  
Gizarte ustel hontan emakume gara  
ta erakutsi dezagun barruan dugun indarra.

Uoooooooo, uoooooooo...

Uoooooooo, uoooooooo...

Dotore jantzi zaitez diote ahotsak  
tamalez ez ditut gustuko takoi arroxak.  
Eguraldiak soilik erabaki dezala  
zerez estaliko dudan goizero azala.

Gizarte ustel hontan...

Aaaa, indarra, indarraaaaa, indarra, indarra

Izua zen nagusi gure bihotzetan  
ausardiak kendu dio lekua zainetan!

# **JABETASUNA** (Benito Lertxundi)

Gure nahiaren grinak  
ezinezko uretan murgildurik daude.

Pauso baldar askoren jabe eginik  
hala ere aurrerako asmoekin.

Zu, zer nahi dezun ondo dakizuna,  
zertan zaude patxada horretan eskuak lotuta  
etxeakoak ez diran hoién, limosnaren zain  
limosnaren zain.

Zu, malko lodiz negarrez zaudena,  
mugitzeko bildurrez etxean sartuta  
altxako al dezu burua  
jabetasunez, jabetasunez  
jabetasunez, burua.

## **JAKIN NAHI NUKE** (Ruper Ordorika)

Platanerrak lerroz lerro gerizpean gaudela,  
iparrak arintzen du paisaia postalezkoa.  
Ardo beltzak laztandu nau bere karezi goxoaz,  
mundu zahar hau, bat-batean  
edertu izan balitz, zure ondoan.

Esan bezala, gu itzalean, ni ezaxolaren plantan,  
jakina da den guztia ez dela konprenitzen ahal.  
Alabaina nonbait beharko elkarmin honen gakoa,  
egia bada izen denak baduela bere balio zenbakia.

Zein, zein duzu balio zenbaki hori, zeure izenaren parekoa?

Zure balio zenbaki horrek hain nau zordun bilakatzen,  
lotzen nau eta beldur naiz "infinitu" ez den izanen.  
Baldin bada infinitua, zeren morroi bihurtuko nauen,  
neure balioa lehen zen "bat" orain "erabat" ez ote den,  
zure ondoan.

Zein, zein duzu...

## **JAUN BARUAK** (Benito Lertxundi)

Jaun Baruak aspaldin xederak hedatü zütin,  
Jaun Baruak aspaldin xederak hedatü zütin,  
txori eijer bat hatzaman dizü Paubeko seroren komentin,  
txori eijer bat hatzaman dizü Paubeko seroren komentin,  
orai harekin biziren düzü aspaldian gogun beitzin.  
aspaldian gogun beitzin.

Xedera baliz halako merkatietan saltzeko,  
Ziberuako aitunen semek eros litzazkie oro,  
halako txori eijertto zunbaiten hatzamaiteko.

Igaran apirilaren bürían, armadaren erdian,  
züntüdan bihotzian, armak oro eskian;  
present espiritian, manka besuen artian.

Jaun maite banaizü, erraiten düzün bezala,  
kita ezazü, kita ezazü Erregeren zerbütüa  
eta maita herria, üken dezadan plazera.

## **JAUN ZURIA “ERINGO PRINTZEA”** (Ganbara)

Lenako baso itxian heriotzak jo du lurra;  
Morna zau riturik da tza, azkonaren oihua,  
azkonaren oiha a.

Zer egin duzu, oi seme, zerk bultzatu zaitu hontara?  
“Ehizeak iruzurtu nau; minak naza anpara,  
minak naza anpara”.

Aberri berdetik urrun urak gaztea darama;  
itsasoz haruntz ba ote, esperantza uhara,  
esperantza uhara.

Bizkaiak hartu du premu lekobideek egin haurra,  
Argiren begiek eman amodioaren sua,  
amodioaren sua.

Gerla irrintzia entzun da bost mendien arrailduran;  
Jaun zuriaren besoak hil du etsaia Paduran,  
hil du etsaia Paduran.

"Zatoz, oi Eringo printze, zatoz ene Jaun Zuria,  
nirea egingo zaitut, geroaren zauria,  
geroaren zauria".

Egingo dugu gurea herri askoren aingura,  
niretzat amets urruti, zuretzat ahanztura,  
zuretzat ahanztura.

## **JELOSKOR NAGO** (Beti Mugan)

Jeloskor nago heriotzarekin,  
eraman bait zaitu berekin.  
Ta nik hemen nahi zaitut  
sokasaltoan eta mozkortzen nerekin.

Nola iristi naiz honaino,  
nola demontre, auskalo!

Goizaldean, azken txirria erretzen,  
lasai egoten ginen itsasoa ikusten.  
Orain portu berria ez da berdina.

Zabor kamioia etorriko da  
ta eramango nau berekin.

Zabor kamioia etorriko da  
ta eramango nau berekin.

Zabor kamioia etorriko da  
ta eramango nau zurekin.

# JE T'AIME MOI NON PLUS (Serge Gainsbourg)

Maite zaitut, maite zaitut.  
Bai, maite zaitut.  
Nik ere ez.  
Oi, ene maitia...  
uhin zalantzakor bat bezala.

Banoa, banator, bai...  
zure hanken artean.  
Banoa, orain bai...  
izter artean... eta esperoan.

Maite zaitut, maite zaitut.  
Bai, maite zaitut.  
Nik ere ez.

Oi, ene maitia...  
zu uhina, ni...  
uharte bakartia.  
Bazoaz, bazatoz, bai...  
nire izter artean.  
Bazoaz bai, hanken artean...  
eta esperoan.

Maite zaitut...

## **JOANA** (Urtz)

Zure arnasa bakardadean  
oihu mutu baten keinu hotza;  
ordurik gabeko erlojuan  
bukaezina da zure mina;  
orain... da... orain.

Baina negu gorriko elur malutek  
zure irria izoztu arren  
gure bihotzen oroimenean  
amodioak bizirik dirau...

...Ta joana joan bada,  
geroa etorriko da.  
...Ta joana joan bada,  
geroa ehundu beharko duzu  
orainaren hariaz.



## JOAN ZINEN (Peiremans +)

Joan zinen baina hemen zaude oraindik.  
Joan zinen baina hemen zaude oraindik.  
Joan zinen baina hemen zaude oraindik.  
Baina hemen zaude.

Hiri handiegia, kaleak estu dira  
ta gezurrezko planoak egin dituzte.

Erantzunik ezean beti antzeko galderak  
errepikatzen dira behin ta berriz.

Joan zinen...

Eta zure ausentziak dena betetzen du gaur.  
Harezko erlojua, basamortua.  
Hamaika mila izar ta bidegurutze bat  
inora ez iristeko.

Joan zinen...

Hamaika mila izar ta bidegurutze bat  
Horra hor aukera bat okerra hautatzeko.

Joan zinen...

# JOAN ZINETENETIK (Bide Ertzean)

Joan zinetenetik  
udan ere negu da,  
joan zinetenetik.

Joan zinetenetik  
beti gara gutxiegi  
eta beti zarete gehiegi.

Joan zinetenetik  
ez da zuen itzulera  
desiratu ez dugun egunik.

Joan zinetenetik,  
joan zinetenetik  
udan ere negu da,  
joan zinetenetik.

## JO EZAK BERRIRO, SAM (SS-77)

Betiko aurpegi hutsalak  
kalia zeharkatzean.  
Ezer adierazten ez duen  
zentzugabetasuna.

Ta ispiluko tipoa ezta haien ezberdina.

Iraute hutsa ezin jasan,  
zerbaiti heldu behar.  
Zoriona hor nonbait dabil,  
protagonismoa.

Nere idatzi guztiak, hutsaren hurrengiak.

Irentsi nahi ez baina onartu behar, Jo ezak berriro Sam.  
Zu zara eusten nauen bakarra, berriz ihesi zure bila.

Negar eragin didan bakarra,  
droga perfektua  
Hiriko kumerik zoragarriena,  
nire taupaden motorra.

Marta Sanchez aldizkarietan ta Georgie Dann-en txiringittoa.

Irentsi nahi ez baina onartu behar, Jo ezak berriro Sam.  
Zu zara eusten nauen bakarra, berriz ihesi zure bila.  
nire maite rock&rolla...

# JOHN ZAHARRA (Mikel Markez)

Etixerako ordu a  
iritsi zaigu John Zaharra.  
Kanta zagun azkena  
alaitzeko gure bide a.

Zenbat kanta, eta hitz  
lagunak lagun truke,  
biharko ere zerbait  
utzi beharko genuke.

Etixerako ordua...

Gure emaztetxuak  
lo hartuta leudeke.  
Ai zer gau goxua  
ezkonduta bageundeke.

Etixerako ordua...

Etzaitez hasi orain  
maitasunaren eske,  
ilargiaren lagun  
zeruraino joan gintezke.

Etixerako ordua...

## **JOXE MIGEL** (Herrikoia)

Joxe Migel, Migel Joxe,  
Joxe Migel, Migel Joxeren batela.

Joxe Migelen batela,  
Txitxarroa ta berdela.

Joxe Migelen batela,  
Txitxarroa ta berdela.

Joxe Migel. Migel Joxe...

## **KAI XO** (Delirium Tremens)

Edonor jaiotzerakoan,  
bizitza agurtzen besterik ez denean,  
etorkizunaren ikuspen erakusketa baten  
negarrez hasten da.

Eta gurasoak pozik, pozik oraindik.  
Eta umea negarrez, negarrez uluaka.

Edonoren heriotzean  
bizitza agurtzen besterik ez denean  
egurrezko kutxa baten aldamenean  
jendea negarrez hasten da.  
Eta senide guztiak triste, denak oso triste daude.  
Eta umea negarrez, negarrez uluaka.

Edonoren heriotzean  
bizitza agurtzen besterik ez denean  
egurrezko kutxa baten aldamenean  
jendea negarrez hasten da...  
Eta senide guztiak triste, denak oso triste daude.  
Eta defuntua ixilik, ixil ixilik dago.

Bizitzaren txorakeriak  
hasi ta bukatu negarrez, hauxe duk hauxe....

## KAIXO (Urtz)

Trikitixa dantzatu nahiko nuke  
edozein herritako jaixetan.  
Trikitixa dantzatu nahiko nuke  
geure begiak topatuz plazan.

Maitemindurik nago eta  
zu oraindik ez zara konturatu;  
Egunez mozkorturik nauzu  
eta gau aldean ezin loak hartu.  
Zu hor zabilta dantzan eta  
ni hemen urrun ez dakidalako...  
norbaitek erakutsiko balit!

-Kaixo!!  
-Kaixo!!  
-Zelan?  
-Ondo, ta zu?  
-Beno...  
-Zer ba?  
-Beira.  
-Esan.  
-Entzun.  
-Nola?  
-Heldu!  
-Bihotza da!!  
-Bihotza da bai!!

## **KALANBREAK** (Gozategi)

Astelehena biharamun ezinez lehertzeaz nago sabeleko kalanbreak ezin dut gehiago. Ta zer ondo pasatu nun hura gaua atzokoa denbora luze batean gogoratzekoa.

Ikasketak ahaztu ditut neskak utzi nauela ta farra on bat botatzeko aitzakirik ez nun falta zazpi egunetatik behin izaten da larunbata.

Formal ibiltzen naiz baina begira gauzak zer diran hogeitabi garagardo ta lau gin-tonic segidan azkeneko coca-colak kalte egin ote zidan.

Astelehena biharamun ezinez lehertzeaz nago asteburuetan badakizu etxean gelditu. Ta zer ondo pasatu nun hura gaua atzokoa nire partetik goraintziak buruko-minari.

Goizeko bostak ezker ez dut ezer gogoratzen balantzaren urratsetan zapatarik gabe nintzen eskerrak nire galtzetan ez zen txanponik gelditzen.

Hurrengoan emango dut gizon zintzoaren planta berandu baino lehenago egin beharko dut hanka hurrengoan izango da honek bueltarik ez dauka.

Parranda zale naizela, pasatzen naizela pentsatzen dut maiz aukera sortzen den heinean berriz juergara joango naiz.



## **KALEA HUTSIK** (Hertzainak)

Kalea hutsik polbora erditzen,  
jende zuzenaren nazkarako.  
Herdoila, lizuna, bizileku beltza,  
zauri hotza, zauri lehorra.  
Zure arnasak bisagra hatsa,  
arraskatua gaizki afinatua  
ta nere aurpegia zure bota leunen  
txarolaren dirdiran,  
merzenario zahar grisa,  
kutreen babeslea, haiek bezain kutrea.

Bakarrik kalearekin erditzen ere  
jainkoa! zein txisagurea  
aingeru zaindaria, tergalezko zaina  
udal heroia, asmatikoen putza  
argi urdina, dirdir gorria,  
musika atsegina anormaleentzat  
ta nere aurpegia zure bota leunen  
txarolaren dirdiran.

Nork ematen die eguneroko alpistea,  
hori soilik haiek dakite.  
Txistea iruditzen zaie  
baina kakaztea gure kalea.  
Aiba dokumentua! ez dut ezertako behar  
betiko zuretzat ez zaidazu deitu,  
ez det ezer entzun berandu dut, banoa,  
txisa egitera edo, zuri ze inporta,  
zuri ze inporta.

# KANDELA (Karkaxa)

Galdu badut, ezin aurki banabil  
bizitzaren zentzua...  
Non sustengatuko orduan ametsak?

Bizitza errealitate soila bada,  
ilusioek tokirik ez badute,  
zertarako orduan nere kandela?

Nereak izan daitezke ilusioak  
bainan indarririk ez badute,  
Zergatik ez lagunengan aurki sostengua?

Ez dira bada nere ilusioaren zati bat,  
kandela argizaria da ta amaitzean laralaleroa  
ametsen antzera, atzera kandela laralaleroa  
ametsen antzera, atzera.

Ez itzali!!  
Ez itzali!!!!!!!!!!  
Kandeeeeeela!!  
Kandeeeeeela!!

## **KANTA ABERRIA** (Peio ta Pantxoa)

Kantazak, Euskalduna, kantazak hire Herria!  
kantazak, Euskalduna, hire Aberria!  
Kantazak, Euskalduna, kantazak hire Herria!  
kantazak, Euskalduna, hire Aberria!

Euskal mendi zelaiak bakezko jauzitan,  
etxe zuri gorriak altzotan!  
Gure ikurrin bandera plaza kaskoetan,  
herritarrak kantuz ostatutan!  
Horra aberria nola nik utzi dutan  
kanpo alde joan egunetan.

Nere ama maiteak nigarra gordetzen,  
ttipitik bainuen kexarazten...  
haren bihotz zaurtuan nik deus ez ikusten,  
haurrak ez baitaki so egiten...  
amaren iduri Euskadi zaut agertzen,  
baina nik kasurik ez emaiten!...

Euskadi odoletan dute herrestatu,  
ezpata ukalditan puskatu!...  
gu Euskadiko semek, hor behar isildu,  
maitatzea omen da bekatu!...  
ez, Euskalduna, ez! Ez gaiten ba lotsatu!  
Ulitxak lehoina aurtiko du!...

# **KANTARI GOAZ** (Alaitz eta Maider / Deabruak Teilatuetan)

Abian, eperraren hegaldia martxan dago jada  
trabak jarrita ere ez dakite ohituta gaudela  
saltoka, saltoka ibiltzea.

Eta orain, pozik urten eta harro kantari goaz  
eperrara Sohütako herrian den gure ikastolara

Lagunekin kanta kantari, harro alai kantari goaz.

Kantari goaz, kantari goaz.  
Kantari goaz, kantari goaz.

Elkartasunaren indarrarekin  
gure izatea babesten doa.  
Erronka gogorra izanik ere  
ez gara ixilduko inoiz inolaz, iiiiinolaz...

Kantari goaz...

Ikastolako bidean, kantari kantari goaz.  
Lagunen aldamenean, kantari kantari goaz.  
Pipar egiterakoan, kantari kantari goaz.  
Etxera itzultzerakoan, kantari goaz...

Kantari goaz...

## **KATALINTXU** (Gorka Knörr)

Katalintxu lora ederra,  
zeu krabelina fina,  
antzina egin jatan  
zeuganako mina.

Zeuganako min hori  
pentsatu ezkeru  
ezin dot lorik egin  
ametsetan baino.

Katalintxu...

Amuak bota dituz ura barrenean  
arrakaiak oisteko eria danian.  
Arrakaia juan da Bilboko urira  
German gelatu da zerura begira.

Katalintxu...

# KATEDRAL BAT (Berri Txarrak)

Gitarra astindu ta ikusi kanturik baduen  
hor nonbait ezkutuan.  
Behatzak bihurritu ea norbaitek ahaztua duen  
akorde minorren bat.

Ta min eman arte zure falta izan, ez da musa hoberik.

Ooooooooooooo... Ooooooooooooo...

Katedral bat egin hegalik gabe sortu ziren  
abesti pusketekin.  
Bertako beiratetik sartzen diren  
eguzki izpien energiaz berrekin.

Ta min eman arte...

Ikasitakoa desikasten ikasi,  
ahaztutakoa ahaztu eta aurrera egin.

"Irakurtzea da bestela idaztea" paperak aitortzen dit.  
"Kantatu besterik ez nuen egin nahi" erantzuten diot nik.

Neure ahotsa bilatu, beti besteena entzun.  
Loa kentzen didanari, ekintzekin erantzun.  
Lagunarteko uneak luzarazi.  
Maitasuna egin maite dugunekin, carpe noctem!!

Ta min eman arte...

Bihotzen artean parkour egitean erori baina beti zutik erori.  
Gitarra laztandu barruan kanturik baduen...

## **KATTALIN** (Oskorri)

Ene maite, ene maite, ene maite Kattalin,  
sekulako ta betiko galdu zaitut Kattalin.

Etxe txiki txukun baten zure aita ta amekin  
zinan bizi, zintzo bizi ene maite Kattalin.

Bainan eder zinan zinez zine izar bat bezin.  
Ille gorri (baita zorri) zuk bazenun Kattalin.

Ibaiera zinan joaiten zure ahate beltzekin.  
Goiz batean, bat batean ito zinan Kattalin.

Lertu arte zenun edan sabel bete ur zikin...  
Nik bai minez, min saminez negar egin Kattalin.

Illerrian bada lore, euzki lili krabelin.  
Zu zaituzte badut uste ongarrizat, Kattalin.

## **KANTU BATEN BILA NABIL** (Olatz Zugasti)

Etiket irten ohiz bezala,  
nere eskola zaharrera abiatu naiz.  
Euria ari du, idoi ñabarrak zeharkatuaz...

Etiket irten ohiz bezala,  
nere eskola zaharrera abiatu naiz, ohiz bezala.

Nere adin laburraren jakin minaz,  
nere izate amultsuaz baliaturik  
erakasten didate zer den ongi, zer den gaizki.

Xede bat marraztu nuen egutegi batean margotan;  
geroztik hor nabil beti bilaketan, altxor baten bila nabil!!  
Altxor baten bila nabil!!

Pausoetan, hitzetan, bakardadean,  
ikustean, entzutean, ulertzean...  
Dudan guztia mugatua da.

Izkutukoak argitaratzen ditut, arrasto lerro salatzaileak  
Desagertu daitezten nere eskuetatik,  
kantu baten bila nabil! Kantu baten bila nabil!

Nere arduradun eta agintariek, nere maisuek garaipena  
ospatzen ahal dute, beren ereduetatik  
ihes egin bait nuen ere!!

Xede bat...



## **KANTU EROA** (Juan Carlos Perez)

Kalatxoriekin biali zion kantu ero bat  
barrualdeko bere maiteari.

Eta euri ondorengo baso usainaz  
erantzun zion hari:

“ta iraun zeiken, ta iraun ta iraun,  
ta iraun zeiken, ta iraun zeiken  
euri ondorengo baso usain hura”.

Eta geroxeao udazkena aldean  
hego haizeaz erantzun zion hari.  
Hegoaizeak mundua mugitzeik, motel!!  
Eta egonezina sartu zen  
kale barren arteak eta lehiuak joka.

Eta egonezina sartu zen,  
kale barrenak kantu ero  
berri baten eske:

“ta iraun...

Kalatxoriekin biali zion kantu ero bat  
barrualdeko bere maiteari.  
Eta elur urtzearekin ibai estrapozu  
kristala eta garbi bateaz erantzun zion:

“ta iraun...

## **KANTUZ** (Anje Duhalde)

Kantuz daramazkit nik gauak,  
kantuarekin, goxatzen neure penak.  
Kantuz kanpotik, negarrez barrutik,  
kantuarekin, ahazten ditut grinak nik.

Kantuz daramat bizia, ahazteko hiltzia.  
Neuretzat kantuan dago fortuna guzia.  
Eta kantuz-kantu, noa botatuz, neure hazia.

Batzuetan triste, besteetan hasarre,  
zuen aurrean, kantatzea dut lege.  
Nahiz gogorik ez izan,  
zuen aurrean, sartu behar dut martxan.

Kantuz deramat bizia, ahazteko hiltzia.  
Neuretzat kantuan dagofortuna guzia.  
Eta kantuz kantuz, noa botatuz, neure hazia.

## **KANTUZ** (Mikel Laboa)

Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi,  
kantuz igortzen ditut nik penak ihesi;  
kantuz izan dudano zerbait irabazi  
kantuz gostura ditut guziak iretsi:  
kantuz ez du ta, beraz, hiltzea merezi?

Kantuz eman izan tut zonbeiten berriak,  
kantuz atseginekin erranez egiak;  
kantuz egin baititut usu afruntuia,  
kantuz aitortzen ditut ene bekatuia,  
kantuz eginen ditut nik penitentzia.

Kantuz ehorts nezate, hiltzen naizenian,  
kantuz ene lagunek harturik airian;  
kantuz ariko zaizkit lurrean sartzian;  
kantu frango utziko diotet munduian,  
kantuz has ditzen beti nitaz oroitzian.

# **KANTU ZAHAR BAT BEZELA** (Juan Carlos Perez)

Bere aitak esan zion behin adi egon hadi, adi egon hadi.  
Antiojuak estutu, belarriak erne.  
Ta eskaileretatik predikadore ugari agertu zen.  
Hitz baten atzetik beste hitz bat etengabe.

Jainkoaz hitzein zion norbaitek eta heriotzaz beste batek.  
Ta azkenekoz denen atzetik beste bat oraindik.

Zakar uholdetan beira eta han irabazia eta galdua aurkituz.  
Aurrera ta atzera ibilitzen geala iruditu zitzaion.

Trenak pasatzera ikustera ohitu zen  
gogoratu zuenian bere aitak  
behin esan ziona adi egon, adi egon hadi  
adi egon hadi, adi egon, adi egon,  
adi egon hadi, adi egon hadi,  
Antiojuak estutu, belarriak erne.

Egun batean hainbeste basartean neska bat topatu zuen.  
Ta maitatu ere inori kasu egin gabe.  
Inori kasu in gabe ezerra kaso in gabe ero maitatu zun.  
Bere aitak esan ziona behin gogorau gabe.

Baina poetak esan zuen behin ai ene bada!!  
Minutu batean bera aldatu zen, ez baita denbora gehio.  
Edo modatikan pasatuko zea, kantu zahar bat bezela.

## **KANUTO** (Oskorri)

Egun baten Kanuto  
kalera joan zan,  
karruak zapalduta  
etxera joan zan.

Amak esan ei eutsan  
lotara joateko,  
atzera kontestau eutsan  
ez dot nahi amatxo.

Kanuto Zizilindro,  
zilindro, Zilindro,  
Kanuto Zizilindro...  
pux! pux! pux!

## **KATEAK** (Jon Gurrutxaga)

Zauriak odoletan ditut azalean,  
zauriak odoletan zure mapetan.

Zenbat hego eta ipar behar,  
zu ta biok hesiz ta katez bereizteko.

Zauriak odoletan...

Esan, esan zenbat zeharkatu behar ditudan,  
izen galduak lez kateak erauzteko.

Zauriak odoletan...

Zure memoria ezaz harago,  
kate artean tai gabe datozen olatuen pare.

Zauriak odoletan...

# **KATUEN TESTAMENTUA** (Oskorri)

Hil da, hil da gure katue,  
ein dau, ein dau testamentue:

Amumantzako, amumantzako  
hankak eta burue,  
aititentzako, aititentzako  
abarkak eitteko narrue.

Mantxonintzako, Mantxonintzako  
tripa-barrue,  
horixe dala, horixe dala  
katuen testamentue.

## **KEA** (Zea Mays)

Atea itxita leihotik begira,  
gorriak ezpanak ilea urdina.  
Malko txiki bat zu gogoratzean,  
irribarre handia zoriontasuna.  
Oker ibiliko naiz baina dena aldatu da,  
oraingo geroa ez da izaten zena.  
Aldakorra naiz, agian buru arina,  
hotz ta beroa une berean.

Kea bezela airean  
hegan nabil gauean,  
dantza luze batean  
mihazkatuz haizea.

Horrela bada bizitza  
hartuko dut beti den moduan.  
Horrela bada bizitza  
beti aurrera egin beharko da.

Aldakorra naiz, agian buru arina,  
zuri ta beltza une berean.

Kea bezela...



## **KILLIN** (Mikel Urdangarin)

Banoa bakarrik ikusi arte  
ez nuke hasi nahi adio eske.  
Ez dira pasako urteak hainbeste  
nire ausentzian zaindu zaitezte.

Olerki batzukin nator zugana  
errekiema aspaldi idatzi zidana.  
Zugandik jaso zuri emana  
sortu ez dakidan halako zama.

Behin batean zure kaleetan sortu  
zertarako baina semetzat hartu.  
Gaztetan nintzaizun gogoz oldartu  
kitana batekin nintzen elkartu.

Baita piztu ere zure amorrua  
pobre izateak zuen errua.  
Hura sorgina eta ni deabrua  
han sortu genuen deskalabrua.

Gero jaio ziren seme-alabak  
haiekin batera barru ikarak.  
Laister ixildu ere herriko aldabak  
han amaitu ziren Killin-go gabak.

Orduz hasi nintzen erruz edaten  
ondoan nuenari gaizki esaten.  
Ito izan banintza ardo upel baten  
sorginak eurekin eroan nintzaten.

Agurrik ez, soilik ikusi arte  
denbora joan zait osasun truke.  
Sorginak urduri hainbeste urte  
nire bila edo esango nuke.

## **KINKIRI KUNKURU** (Oskorri)

Erran dut, erranen eta errango,  
ez naiz isilik egongo,  
plaza hontako dama gazteak  
ez dira moja sartuko.

Ala kinkiri, ala kunkuru,  
ala kinkiri kunkuru kanta,  
ala kinkiri kunkuru kanta  
gu bezalakoak dira, hola!

Erran dut, erranen eta errango,  
ez naiz isilik egongo,  
plaza hontako gizon gazteak  
ez dira fraile sartuko.

Ala kinkiri...

Erran dut, erranen eta errango,  
ez naiz isilik egongo,  
plaza hontako gazte guztiak  
ezkontzan dira sartuko.

Ala kinkiri...

## **KOILARAK** (Izaro)

Etxe bat bezala balitz nire bizitzaren armairua.  
Etxe bat bezala balitz nire bizitzaren gordailua.  
Jarriko nuke limoiondo bat gazi-gazia  
eta gero eraiki etxeko ataria.

Etxe bat bezala balitz nire bizitzaren armairua  
banatuko nuke hiru pisutan ene urteen pisu guztia.  
Eta eskailerak ahalik eta aldapatsuen  
eta azpian atsedeen ezkutalekua.

Eta gela guztietan oheak beti bikoitzak,  
bikoitzak oheak eta binaka gela bakoitzean,  
biren handitasun batek har dezan atsedeen,  
tamainan ta binan.

Eta gela batean bi ohe bakar pegatuta  
har dezaten arnasa izaretatik ebatuta.  
Eta aurrean, bilutsik eta garbi ikusteko elkar  
dutxa zuri bat.

Etxe bat bezala balitz nire bizitzaren armairua,  
lortuko nuke bizi bat etxeko solairu bakoitzean,  
eta koilarak beti handiak eta txikiak,  
eta paretetako arrakalak argazkiz josiak.

# KOLORE KOLORE (Mixel Ducau&Zaldibobo)

Kolore, kolore ta gustu guziak  
denontzat, denontzat ez dira berdinak.

Urdina... zuk nahi duzu urdina  
nik maiteago horia  
bien artean berdea sortuko da  
ezkerra, eskuina, gibel edo aintzina  
bakoitzak bere bidea berarentzat onena!

Kolore, kolore ta gustu guziak  
denontzat, denontzat ez dira berdinak.

Amaia, Jonekin maitemindua  
zoritxarrez Arantxa da  
Jonen amodioa, ze lastima!  
alboan beti dauzkat  
bai Olga ta bai Olatz  
eta nik maitatzen dut Amaia  
mundua gaizki egina da!

Kolore, kolore ta gustu guziak  
denontzat, denontzat ez dira berdinak.

## KOLPEZ KOLPE (Kortatu)

Zalditeria dabil (Kortatu)  
gure kontra gora, (Kolpez kolpe)  
pake pipa erretzeko (Kortatu)  
hau ez da denbora. (Kolpez kolpe)  
Geronimo gurekin zutik egongo da,  
gerrarako haizatuz lurpeko aizkora.

Gladiadore berriak betiko moduan,  
zirko berbera dabil gure inguruan.  
Bankuetxe, gobernu ta parlamentuan,  
orduko Julio Cesar hara non dagan.

Abordaje berri bat gaur dugu egingo,  
gure Drakkar zaharrearantz gara hiru vikingo.  
Adarrez hil ditugu mila santu-jainko,  
inperio zahar-berria dugu desegingo.

Aizkolari handia txikito Aiako,  
harentzat kirol zena gaur borrokarako.  
Kitarrariak zorrotz goikoen kontrako,  
basoan mila enbor utziz burubako.

## **KONPLIZE DITUT ETA** (Mikel Markez / Uxue Alberdi)

Emakume zuzenak, okerrak, kirtenak,  
moja txintxoak eta zerrama irtenak.  
Itsusiak, politak, atletak, herrenak:  
konplize ditut eta maite ditut denak.

Langileak, alferrak, lanik ez dutenak,  
tuntunak, mediokreak, klaseko lehenak,  
ale desegokiak, andre txit gorenak:  
konplize ditut eta maite ditut denak.

Ama onak ta txarrak, ama ez direnak,  
lurrera jausi arte mozkortzen onenak  
ta umeen merienda usaina dutenak:  
konplize ditut eta maite ditut denak.

Lotsatiak, ausartak, argalak, gizenak,  
iletsuak, soil-soilak, marimutilenak,  
katemeak, gorilak, panterak, zezenak:  
konplize ditut eta maite ditut denak.

Lehen munduko emeak, kapitalistenak,  
lur usaia daukaten andre indigenak,  
zuri, gorri, horiak, beltzetan beltzenak:  
konplize ditut eta maite ditut denak.

Markesaren alabak, neskame gizenak,  
printzesak ta sorginak, ogroak, sirenak,  
Maritxuak, Bartolo itxura dutenak:  
konplize ditut eta maite ditut denak.

# **KONTRAPAS** (Bernat Etxepare / Xabier Lete)

Garaziko herria benedikan dadila,  
Garaziko herria benedikan dadila.  
Euskarari eman dio behar zuen tornua,  
Euskarari eman dio behar zuen tornua.

Euskara, Euskara, jalgi hadi plazara!!

Bertze jendek uste zuten ezin iskriba zaiteien,  
orain dute forogatu engainatu zirela.

Euskara Euskara jalgi hadi dantzara!!

Bertzeak oro izan dira bere goien gradora;  
orain hura iganen da bertze ororen gainera.

Euskara Euskara jalgi hadi mundura!!

Oraindaino egon bahaiz inprimitu gaberik,  
hi engoitik ebiliren mundu guztietarik.

Euskara Euskara jalgi hadi plazara!!  
Euskara Euskara jalgi hadi dantzara!!  
Euskara Euskara jalgi hadi mundura!!

## **KOPLA BERRIAK** (Imanol)

Eskutxoek jo dute  
kriskitin-kraskitin;  
eskutxoek jo dute  
kriskitin-kraskitin.  
Haizea kiribiltzen  
dabil Mari Zikin;  
ala, morena!,  
dabil Mari Zikin...  
Eskutxoek jo dute  
kriskitin-kraskitin.

Behatz txikiak estu,  
txakurrak: "ai, ene!"  
Behatz txikiak estu,  
txakurrak: "ai, ene!"  
Ezinean da Pintto,  
ez kanpo, ez barne,  
ai!, oi!, ei!,  
ez kanpo ez barne...  
Behatz txikiak estu,  
txakurrak: "ai, ene!".



## **KOPLAK** (Imanol)

Lur nintzen eta lurtuz noa zugar bat egin arte,  
zurekin behin betikoz ezkontzen naizen arte,  
zurekin behin betikoz ezkontzen naizen arte.

Hasieran bat ginen eta denborarikan ez zen  
lainoak gure gainetik bezala bizi ginen.

Maite ninduzulako hemen nago bakarrik,  
zerbait eman nahi zenidan ta utzi nauzu hutsik.

Zuhaitzik gabeko baso plai hondargabea,  
zuen antzekoa dut mundu hontan suertea.

Zeruan ez dago izarrik alde egin du haizeak,  
negarrez erori dira basoko landareak.

Orain gaztea naiz eta lehen berriz mutiko,  
ihesi doan kea naiz ezkutatz betiko.

Debalde etorri nintzen eta debalde noa,  
dagoeneko prest daukat hilerriko zuloa.

Kirieleison luzea, kantu lehor zatarra,  
eguzkia badoa ta egin beza langarra.

# KORAPILATZEN (Olatz Salvador)

Begitxo hoiekin begiratzen zenidan  
esanez bezala 'ez zaitetz joan'.  
Ta ni zure gogoz berriz  
buelta ematerakoan.  
Sentituz momentu oro nola  
zure usaina nigandik badoan.  
Eskuak poltsikoetan eta  
zure zaporea ahoan, zaporea ahoan,  
zaporea ahoan, zaporea ahoan.

Korapilatzen jarraitzen badugu  
ez dugu jakingo nola askatu.  
Korapilatzen jarraitzen badugu...  
Korapilatzen jarraitzen badugu  
ez dugu jakingo nola asmatu.  
Korapilatzen jarraitzen badugu...  
...nola askatu?

Aaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa...

Begitxo hoiekin...

Korapilatzen...

# **KRISTOREN GONBIDAPENA** (Don Inorrez)

Halaxe esan zuen,  
halaxe esan zuen:

Jan ezazue,  
hau duzue nire gorputza.  
Eta haren ingurua  
bete zen milaka hienaz, uuuuu...

Halaxe esan zuen,  
halaxe esan zuen:

Edan ezazue,  
hau duzue nire odola.  
Edan ezazue,  
hau duzue nire odola, nire odola.  
Eta haren ingurua  
bete zen milaka banpiroz, uuuuu...

Milaka hienaz.  
Milaka banpiroz, uuuuu...

Xalalala lalalalala, xalalala lalalalala  
Halaxe esan zuen, xalalala lalalalala  
halaxe esan zuen.

## **KUKUA ETA PRIMADERA** (Imanol)

Jainkoak emaiten du hainbeste aholku  
urtearen barruan asko heldu zauku  
batzu alaiak eta beste batzu mutu.  
Kukuak primaderan egiten du kuku  
biziaren esperantza erakartzen dauku.

Esaera zahar bat berritzera nua  
kukua berrikitan baita isildua.  
Ez bada akabatzen guretzat mundua  
gu harekilan bainan denbora badua  
berriz e entzunen da kukuen oihua.

Askotan ikusi arbola batean,  
lagunak etzituen nahi bakean.  
Uda hor zen gainean hura joaitean,  
entzunen al dut berriz heldu den urtean  
ez dut gozorik berriz hura entzun artean.

## KUKUTZA III (Zea Mays)

Lehenengotik hirugarrenera,  
laugarren pisutik espaziora.  
Metro karratuetatik kilometroetara,  
ezerezatik osotasunera.  
Txikitasunetik handitasunera  
ametsetatik errealitatera.

Eskuak altxatuz erabakiak,  
eskuak batuz eraikia,  
eskuak nahastuz zabaldua.  
Kukutza, bihotz bat gure aurrean,  
hutsa betetzen duena.  
Taupadaka esnatuz geldirik gaudenak,  
taupadaka esnatuz lotan gaudenak.

Taupada bakoitzaz koloreztatuz zuri-beltza,  
taupada bakoitzaz irribarre bat.  
Taupada bakoitzaz koloreztatuz zuri-beltza,  
taupada bakoitzaz irribarre bat.

Ideiak bultzatuz erabakiak,  
ideiak batuz eraikia,  
ideiak nahastuz zabaldua.  
Kukutza, bihotz bat gure aurrean,  
indarrez betetzen gaituena.  
Ttaupadaka esnatuz etsita gaudenak,  
taupadaka esnatuz minduta gaudenak.

Taupada bakoitzaz...

Taupadaka esnatuz geldirik gaudenak,  
taupadaka esnatuz lotan gaudenak.  
Ttaupadaka esnatuz etsita gaudenak,  
taupadaka esnatuz minduta gaudenak.

Taupada bakoitzaz...

## **KUNBIA SOL MINORREN** (Joxe Ripiau)

Eskaparate haundi horren aurrean dago  
gure munduaren aurrean.

Eskaparate haundi horren aurrean dago  
gure munduaren aurrean.

Mexico DF, Río edo Managua,  
Sao Paulo, La Paz edo Bogotá.  
Bizitzen hasiz, hiltzen hasten da  
kaleko ume ahaztua.

Txakur beltz batekin egin du amets  
korrika hortzak estuturik.  
kale gorrian bankuetxe baten aterpean  
esnatu da izerditan blai.

Mexico DF, Río edo Managua,  
Sao Paulo, La Paz edo Bogotá.  
Bizitzen hasiz, hiltzen hasten da  
kaleko ume ahaztua.

## **KUPELA** (Epelde eta Larrañaga)

Gertakizun polit bat behin Asturiasen  
ez dakit guziekin gogorako naizen  
lagun bat eta biok andrekin hain zuzen  
sagardotegi baten afaria baitzen  
numero dotoreak ikusi ginuzen.

Kupela, kupela, sagardoen hotela.  
Kupela, kupela, zaindu ezak horrela.

Talde bat osatu zen mutil ta neskatxa  
festan pasa nahi zuten gurekin arratsa  
tragotikan tragora ze nolako martxa  
sagardoan daukate afizio latza  
gehiegi eran genduen hori zen akatsa.

Herrialde denetan ohiturak badira  
esneakin juan ziren sagardotegira  
handikan basoka bana ohituren neurrira  
gero sagardoari txotxetikan tira  
barrez egon nintzaien albotik begira.

Umorez jarri ginen ondorenean zer  
erderaz bertsoetan lo que hace el beber  
inguruko jendeak barrez egin zun leher  
erretiratu ginen emazteei esker  
txispatu ginen baina ez zen pasa ezer.

## LA DÉCADANSE (Serge Gainsbourg)

Biratu hadi, atxeki niri,  
dantza egin “La Décadanse”.  
Mugi itzan aldakak geldiro,  
nirearen aurrean geldi hadi hor.

Nire atzean dalandaka “La Décadanse”.  
Hire eskuetaz nire bularra ferekatuz,  
ta nire bihotza hirea denez gero...

Ene maite, betikotz pazientzia. “La Décadanse”.  
Nire behatzen tartean, urrun urrunera  
eramango haut bat batean.

Ur uherrak zentzumenak  
uhertzen dittuela “La Décadanse”.  
Galdutzat nenbilen ta hik hiltzen naun.  
Ene maite, esan, maite al naun?

Nik maite haunat bainan...  
zalantza karantza “La Décadanse”.  
Gure hilorduan arimak eta gorputzak,  
Elkartuko direnekoa baino gehiago dun oraino.

Jauna barka itzazu gure zorrak “La Décadanse”.  
Gure gorputz soraioak eta gure arima galduak  
kulunkatu ditunan.



## LA FELICIDAD (Izaro)

Tengo una pregunta tengo que me invade,  
me invade la curiosidad.

Tengo una pregunta tengo que me invade,  
me invade la curiosidad.

¿Quién será, ai, quién será, quién será la felicidad?  
¿Cómo será, ai, cómo será, cómo será la felicidad?

Panparabarabaraparai,... panparabarabaraparai,...

Tengo una pregunta...

Huele a tormenta de verano, seguro.  
Ojos color azul oscuro, seguro, seguro, seguro, seguro.

Hace un par de días la vi por la calle, por la calle la vi pasar.  
Hace un par de días la vi por la calle, por la calle la vi pasar.

¿Dónde irá, ai, dónde irá, dónde irá la felicidad?  
¿Qué buscará, ai, qué buscará, qué buscará la felicidad?

Huele a tormenta de verano...

Se giró y se me quedó mirando, lo juro.  
Me guiñó un ojo seguro, lo juro, lo juro, lo juro.

La felicidad, la felicidad, la felicidad, la felicidad.  
La felicidad, la felicidad, la felicidad, la felicidad.

## **LAGUN ETOR GUREKIN** (Guk)

Batez, mendi eta oihanetan  
pentze eta alorretan,  
bizi nahi dugu gure etxetan.  
Batez, laborarien auzia  
ezin da irabazian,  
nahi norbaitekin ta nor ez jakin.

Biez, langile guzien mina  
nagusientzat gaixtagina,  
senda ditakea gure indarrez.  
Biez, nun ez den ari gogorka  
ezin da egin burruka,  
nahi norbaitekin ta nor ez jakin.

Lagun etor gurekin  
denek elgarrekin badugu zer egin.  
Gu ez gira lotsatzen  
etsaia nun hasten han da gudukatzen.  
Gure odolez ta ontasunez  
gure izaitez dirade gosez.  
Elgartasunez erakuts hortzak  
elkarri josiz buru gorputzak.

## LA JAVANAISE (Serge Gainsbourg)

Gaizki izan nintzen, zu ere  
zure berri izan gabe, non zaude?

Dantzatu ginen ta kantua amaitu zen.  
Ginen maitatu, kantua zen amaitu.

Ni nintzen zure zubi erdia  
baina ezin zen ezkutatu egia.

Dantzatu...

Apirila alferrik lorez badator,  
berriz ezin saia lasai egoskor.

Dantzatu...

Maitasunik gabe bizi epela,  
baina zuk nahi izan zenuen horrela.

Dantzatu...

## LAINO ILUNAK (Delirium Tremens)

Laino ilunak ikusten  
goizean goizez zeruan,  
leihoak bustirik daude  
hotzak hiltzen jeiki naiz.  
Berririk ez dakar egun honek  
kezka gabe hartuko det,  
kafesne bat lasai lasai  
oraindik erdi lotan naiz.

Norbaitek ba ote du esan  
gaur zerbait gertatuko dan,  
gure bizimoduak poztutzeko  
edo agian aldatzeko.  
Eguzkia alde batetik irten  
eta bestetik sartzen da  
baina bien bitartean,  
inork ez daki zertan dan  
bakarrik berriz etorriko dela, jajaja!!

Laino ilunak, laino ilunak ikusten...  
goizean goizez zeruan,  
leihoak bustirik daude  
hotzak hiltzen jeiki naiz.  
Egun berri bat daukagu hemen  
orain bakarrik behar dugu,  
itxaropena zaindu eta inoiz ez galdu  
egun denak ez dira berdin!!!

## L'ANAMOUR (Serge Gainsbourg)

Nire gainean Boeing bat ere ez,  
nire eserlekuan itsasontzirik ere ez.  
Alferrik nabil atearen bila,  
alferrik bilatzen irteerako bidea.

Irratiantzako abesten det  
istorio arrotz honen kontakizuna.  
Zure behin behineko amodioaz,  
lotan dagon loti ederrraz.

Maite zattut ta galtzeko beldurrez nauzu.  
Ta lo belar haziak ereiten ditut, L'anamour.

Ondo dakizu Asiako argazki horiek  
hartu nituela berrehun "asa" bidez.  
Zu ez zaudeneko oraingoan,  
higatu dira beren kolore biziak.

Lau motorreko hegazkian baten helizea  
Aditu dudalakoan, hala ere, zorigaitza.  
Komisaldegiko sapaian,  
bentiladorea besterik ez da.

Maite zaitut...

## **LANIKAN EZIN EGIN** (Mikel Laboa)

Lotsagabekoa dun kopetan azala  
lanikan ezin egin lehenago bezala.  
Desapio egin nion beiro dun bestela;  
saltatu da neska ta hautsi du kristala.

Ama nuen Joakina, aita Joxe Fermin,  
Bordaberriko alaba ni naiz orain berriz,  
ahariak amarratzen hartu degu grina  
Frantziska maistra degu, emakume fina.

## **LARRU BELTZAK** (Hertzainak)

Neguairen bihotzeko begirada zaurituak,  
gurutzatzen ditugu plaza desolatueta.  
Gerla garaie mehatxuak aidean doaz,  
justiziaren larru beltzak sardezkatzuz.

Denboraren orratzak,  
plegatzen gabiltza.  
Larru beltzak josi asmoz.

Ez dago eskubiderik ahurretan hiltzen,  
denik gose ankerraren lautada hotzean.  
Ogi beharraren premiak sabeletan doaz,  
justiziaren larru beltzak sardezkatzuz.

Denboraren orratzak,  
plegatzen gabiltza.  
Larru beltzak josi asmoz.

Plaza desolatueta galdez daude denak,  
noiz ote diren beren haurrak itzuliko.  
Baina trenak umezurtzez beterik doaz,  
justizizaren larru beltzak sardezkatzuz.

Denboraren orratzak,  
plegatzen gabiltza.  
Larru beltzak josi asmoz.

## **LASTER ARTE, LAGUNA** (SS-77)

Aspaldi ez dudala zure izena ikusten  
enplegu bulegoko zerrendetan.  
Ta poztu egin naiz zugatik,  
benetan latza izan da egia jakitea.

Lagun zintudan atzo,  
gaur ordea beste txakur bat.  
Dirua, aitzaki leloa!!  
Gogoratzen al zaizu Pilatos?  
Behin eskuak garbitu zituen hura...

Enplegu bulegotik Arkautera,  
laister arte laguna!!  
barrikadetan ikusiko dugu berriz elkar,  
bakoitza bere lekuan.

Handiagoak jausi omen dira,  
salgai ohorea.  
Izan ere erakargarria ez al da  
indarraren arrazoiaren jabe izatea.

Jakin nahi nuke zer duzun gogoan  
zure porra nire gainetan apurtzerakoan.  
Ogibide bat beste edozein bezala,  
sinesten al dezu hori benetan?



## LAU TEILATU (Itoiz)

Hemen gaude ta poztutzen naiz,  
ta ziur zure aita ere bai;  
ta zer ondo... zelan dijua  
zure bufanda txuria.

Lau teilatu gainian ilargia erdian,  
eta zu goruntz begira,  
zure keia eskuetan  
putzara batekin... putz!  
Berehala etorriko da  
ta berriz izango gara, zoriontsu  
edozein herriko jaixetan.

Goxo goxo kanta egidazu,  
Benitoren Maria Solt.  
Ez negarrik txuri zaude ta malkoak  
zure kolorea kentzen dute.

Felix, Felix bihar berriz egongo gara,  
txanpain apur batekin;  
diru gabe baina izarrak gurekin daude,  
piano baten soinuaz.

## **LAZTANA** (Latzen)

Eztarriko korapil sendo hau  
nahi nuke askatzea kantu hau bukatzean.  
Ezagutu zenuen sumendia  
etengabe su jauzian itzaltzen doa orain.

Aitortzen dut haseran jolas soil bat zen  
haragiaren gosea, mila mozkorren azkena.  
Barkaidazu baina oraingo hontan ni naiz  
babes eske datorrena fideltasunaren ardura.

Aldatu naiz,  
zurekin pentsatzeak  
odola irakiten dit  
ezintasuna dakarkit, zu gabe.

Inoiz ez dut sinistu amodioan  
sexuaren indarrak estali dizkit begiak.  
Azkenik neri ere iritsi zait  
sentimendu garaia, sentitzeko garaia.

Aitortzen dut....

Burua galtzen hasi naiz  
inork ez bezela maite zaitudalako, benetan.

## LEHEN NEGUA (Mikel Moreno)

Haizearen hotsak ekarri du neguaren hitza,  
itzartu dira gizen laino negartiak.  
Nunbait eguzkia azkenekoz agurtuko al dugu  
ondoratu baino lehen urrun hortzimugan?

Farolen azpian igaro genuen gaua.  
Ezin azal zein eder agertu zaren  
gure lehen, lehen neguan.

Biharamunian ez dut besterik nahi,  
alboan zu, bazaude zu, neguan gu.

Kanta belarrira, biluztu gaitezen itsasoan,  
kresalak orbain ditzadan galdutako gudak.  
Inoiz ukatu zidaten maitasunaz  
begiratu nauzu gau luzean,  
elur malutak urtutzen gure azalean.

Farolen azpian igaro genuen...

Biharamunian ez dut besterik nahi, alboan zu, zu, gu.

Ihes egin ahal zenuke, nitaz ahaztu, ni desager.  
Aingeru bat dirudizu, aingeru bat dirudizu.  
Ihes egin ahal zenuke, nitaz ahaztu, nitaz gorde.  
Aingeru bat dirudizu, aingeru bat dirudizu.

Ezin azal, ezin azal, ezin azal, lehen negua.  
Zu eta ni hemen gauerdian,  
ezin azal kantatu hau zu gabe.  
Ezin azal zein eder agertu zaren  
gure lehen, gure lehen neguan.  
Besterik ez dut nahi biharamunian.  
Ez dut besterik nahi alboan zu,  
bazaude zu, neguan gu.

## **LEMAK, AINGURAK** (Berri Txarrak)

Pozik zirudien euriaren etorbidean,  
lorategiak zapaltzen eman dugu gaua.  
Harlauzen gainean oin-hutsetan saihesten  
euskaldunak dantzan jartzeko trabak.

Gure beldurren lema astuna hartu.

Pozik zirudien hodei ilunen kalian,  
poliki biluzten eman dugu gau osoa.  
Marrazten hasi da teilatuen ingerada  
ekarri marrubiak ezpainetara.

Gure beldurren lema astuna hartuz  
eta lotsaren aingura hondoratuz, hondoratuz.

Haize boladen mende bizi: izan.  
Haize boladen mende bizi: izan.

Botoirik sakatu ez tarte luze batez,  
helbide oro ahaztu.  
Dena dekoratu bat dela onartuta,  
azalen itun ero bat sinatu.

Pozik zirudien euriaren etorbidean,  
poliki biluzten eman dugu gaua.

## **LEPOAN HARTU** (Peio eta Pantxoa)

Trailara, trailara, la, la, trailara,  
Lepoan hartu ta segi aurrera!!

Gazte bat lurrean aurkitu dugu,  
lore gorriz beterik kolkoa...  
burdinen artetik ihesi dator,  
euskal gazteriaren oihua!!  
Mutilak, eskuak elkar gurutza!!  
ekin ta bultza denok batera!!  
Bidean anaia erortzen bazaik,  
lepoan hartu ta segi aurrera!!

Ez dugu beldurrik, ez dugu lotsarik,  
nor geran, zer geran aitortzeko!!  
Ez gaituk lapurrak, ez eta zakurrak,  
kataiaz loturik ibiltzeko!!  
Gizonak bagera, jo zagun aurrera,  
gure herriaren jabe egin arte!!  
Askatasunaren hegal azpian,  
kabia egiten ohituak gare!!  
Ibiltzen aspaldi ikasia dugu,  
otsoak eskutik hartu gabe!!

Arrotzek ezpataz hil nahi banaute  
izutuko gaituztelakoan,  
zutitu ta euskaraz mintzatuko naiz  
nere hiltzailearen aurrean!  
mutilak, ez gero nigarririk egin  
erortzen banaiz gau ilunean,  
izar berri bat piztutzero noa  
Euskal herriko zero gainean.

## **LIBRE** (Izaro)

Begirada bat kalean, hitz itsusiren artean,  
irrifarre konplize bat hitz joko basati bati.  
Nire izanik ez karteletan, nire izenik ez papeletan  
Ta esan dezagun argi, ez zarela behar beste egiten ari.  
Ez esan baietz, ez esan baietz, ez esan baietz.

Legedi berriak idatziko ditut azaletan  
behintzat irakur ditzazun biluzten nauzunetan.  
Agintea ahalmen egiten dizunetan  
aurkituko nauzu hemen, izango naiz kemen.

Ukitzen den gorputz oro mintzen den bihotz oro da nirea.  
Ustelduko zaitut libratzen zaituzten kartzeletan.  
Ustelduko zaitut libratzen zaituzten kartzeletan.  
Amaitu da ehiza, luzeegia da zure krimenen geriza.

Bizi nahi dut libre,  
zure legeen kontra,  
zure usteen kontraaaaa.

Legedi berriak...

Bizi nahi dut libre, bizi nahi dut libre,  
bizi nahi dut libreeeeee...  
Bizi nahi dut libre, bizi nahi dut libre  
Bizi nahi dut, bizi nahi dut libre...  
libre, libre, libre, libre...

## **LILIAN** (Bide Ertzean)

Ongizatearen gizartea  
ikusia zuen telebistan.  
Bertan hezi nahi zuen umea  
ustezko paradisu zurian.

Ikustezin izan nahi zuen  
ilgoran, ilbetean, ilbeheran.  
Paseatu lehen munduan  
oharkabean gure antzera.

Aske izan jendartean  
ikustezin gu bezala  
Lilian, Lilian, Lilian.

Bere azala, bere hizkera  
susmagarriak ziren argitan.  
Horregatik itsasoratu zen  
lur berrira gauaren erdian

Baina ez zen iritsi inoiz  
nigeriatik guganaino.  
Ito egin zen, ito egin zen Lilian  
Lilian, Lilian, Lilian.

## **LILI BAT** (Mikel Laboa)

Lili bat hartu,  
eta hostoz hosto erantzi.  
Eta harek zu ere amets,  
eta harek zu ere erantzi.  
Eta hostoz hosto hartu lili bat.



## **LILULAREN KONTRA** (Mikel Laboa)

Lilularik ez! Ez dago itzultzerik.

Eguna atean dago, haize hotza dakar  
ez da izango beste goizerik.

Eguna atean dago, haize hotza dakar  
ez da izango beste goizerik.

Tronpatzerik ez! Bizitza ez da huskeria.

Edan ase arte beretik ez da aski izango  
galtzear zaudelarik.

Edan ase arte beretik ez da aski izango  
galtzear zaudelarik.

Kontsolatzerik ez! Denbora ez da luzea.

Ustelak lurpera bizitza da haundiena  
galtzea, litzake galtzea dena.

Ustelak lurpera bizitza da haundiena  
galtzea, litzake galtzea dena.

# LISBOA (Anne Lukin & Gorka Urbizu)

Itsasoak ahaztua du zure izena  
gurea zen hondartza hartan.  
Olatuak ezabatuz zure irria  
orain ni naiz marea ta  
gorantz noa, gorantz noa.

Gomendatu zenizkidan filme hoietan  
zu zinen protagonista.  
Baina ni naiz gidoilari obra honetan  
antzezlanak bukatu da.

Gorantz noa, gorantz noa.  
Gorantz noa, gorantz noa.

Ta orain libre naiz haizea bezala libre noa.  
Ikusten al dituzu nire hegalek urrunean?

Lisboako karraketan eguzki printzak,  
ederra dago hiria.  
Laino batek estalia ikusten nuen zeru guztia,  
galdu egin nintzen baina

Ni gorantz noa, gorantz noa...

Ta orain libre naiz...

Berdin dute nire malkoek,  
berdin dute zure arrazoiek.  
Galaxiaren erdigune zara  
zulo beltz erraldoia.  
Ta ni, ta ni kometak bezala ihesi noa.

Ta orain libre naiz...

Itsasoak ahaztua du zure izena  
gurea zen hondartza hortan.

## **LIZARDI** (Mikel Laboa)

Lizardi, Rimbaud etorri duk hitaz galdezka  
eta gu ere hire zain geundela esan zioagu,  
ez hintzela aspaldi azaldu etxetik.

Eta belatzean eseri gaituk denok erlojuak janez  
baina mezularia bidali diagu Alosko torrera,  
eskilara luzetan beleak uxatzen  
ote hintzen ikus zezan.  
Gero kanpaiak entzun dizkiagu,  
zakurrak zaunkaka,  
orduan sortu haiz bidetik balantzaka.

Eta hirekin aurrez aurre jarri garenean  
zerraldo erori haiz gure oinetan  
eta gorpu gogor hintzen  
udazkenaren tronoan.  
Hertsi dizkiagu begiak, adiosik ez  
eta goizaldean muxika hezur batetan sarturik,  
o petit poete, piroteknariak gabe  
lurperatu haugu baratzen.

Lizardi, Rimbaud etorri duk...

## **LO** (Joxe Ripiau)

Goizean hartz nagusia kaiolatik askatu da.  
Goizean hartz nagusia kaiolatik askatu da.

Eta orain ene besoetan lo gelditzen ari zera,  
eta orain ene besoetan lo gelditzen ari zera,  
eta orain ene besoetan lo gelditzen ari zera,  
eta orain ene besoetan lo gelditzen ari zera.

Zetarrak ilargia hautsi du, hegan egin du itsasoan.  
Zetarrak ilargia hautsi du, hegan egin du itsasoan.

Eta orain ene besoetan lo gelditzen ari zera,  
eta orain ene besoetan lo gelditzen ari zera,  
eta orain ene besoetan lo gelditzen ari zera,  
eta orain ene besoetan lo gelditzen ari zera.

Hodeiek eguzkia gau hontan ez dute estaltzen.  
Hodeiek eguzkia gau hontan ez dute estaltzen.

Eta orain ene besoetan lo gelditzen ari zera,  
eta orain ene besoetan lo gelditzen ari zera,  
eta orain ene besoetan lo gelditzen ari zera,  
eta orain ene besoetan lo gelditzen ari zera.

## **LOA, LOA GARIA** (Joxe Ripiau)

Loa loa garia,  
loa loa garatza.  
Apurtzen zaitun haizea  
hegoalderuntz abiatu da.

Loa loa hontzuria,  
loa loa gauhontza.  
Loa kentzen dizuna  
euriakin desegin da.

Amets gaiztoa, lanbroa  
lanbro iluna, argi epela.  
Argi epela, berua  
ene txikitxo kuttuna.

## LOKARRIAK (Olatz Salvador)

Lokarriak askatuta agertu naiz bapatean.  
Inoiz ezagutu ez nauen leize heze eta hotzean.  
Sua piztu zaizu berriz eta orain itzali eze an.  
Baietzaren eta ezetzaren artean nagoen artean.

Nabil erantzunen saiakeran,  
galdera ikurrak zintzilik.  
Aho sabaian buruz behera.  
Ta berriz saguzarren antzera gauero bizirik  
hegoak doaz iparrera...aaaaaa  
hegoak doaz iparrera.

Haize bolada bat zara, ekaitzaren irrintzia.  
Ezin dut beti aukeratu hegan naraman piztia.  
Haur baten sen gaztea, entzun taupada bizi ak.  
Errealitate kolpe bat, armonien disonantzia.

Ta ni erantzunen saiakeran...

## LONDRESEKO PIZZERIAN (Gari)

Londreseko pizzeriarik hoberenera joan ginen  
Eta jendea lekuz gainezka egon arren  
kamarerua minutu batera etorri zitzaigun.  
Ze poza, bai poza, ze poza haundia.

Zer nahi duzue? esan zuen kamareruak  
Pizza mota guztiak dauzkagu Lasagnak, Spaghettiak.  
Ba al daukazue Fetuccinirik? Galdetu zenuen zuk.  
Ze poza, bai poza, ze poza haundia.

Ze jende da hori? Galdetu nizun kalea seinalatuz  
Eta operara zihoan jendea zela erantzun zenidan.  
Eta ze poza ematen zizun giroa hain animatua ikusteak.  
Ze poza, bai poza, ze poza haundia.

Ez, ez, abrigo gris eta bufanda txuriko horiez ez esan nizun  
Baizik eta autobus geltokian etzanda dauden horiek.  
Aizu, esan zenidan, oso pozik nago ezagutu izanaz.  
Ze poza, bai poza, ze poza haundia.

Bai ni ere bai, esan nizun, asko poztutzen naiz  
Baina autobus geltokiko horiek nor diren jakin nahi nuke  
Hoiiek eskaleak dira, Londreseko homeless famatuak  
Ze poza, bai poza, ze poza haundia.

Poztu egiten al zara eskale horiek ikusiz? Esan nizun.  
Ez berriro esaten dizut zu ezagutu izanak pozten nau.  
Benetan, benetan. Benetan, benetan.

Bizitzan pasa zaidan gauzarik onena izan da  
Benetan, benetan. Benetan, benetan.  
Ze poza, bai poza, ze poza haundia.

## LORE SORTU ORDUKO (Mikel Laboa)

Hogeigarren urthera ari naiz hurbiltzen  
eta nere oinetan tonba dut ikusten.  
Ni zertako mundura ethorria nintzen?  
Ondikoz ez sortzea neretzat hobe zen.  
Ni zertako mundura ethorria nintzen?  
Ondikoz ez sortzea neretzat hobe zen.

Sekulan zoriona zer den jakin gabe,  
hainitz dut nik lurrean izan atsekabe.  
Lore sorthu orduko histu baten pare,  
biziaren uztera guti naiz herabe.  
Lore sorthu orduko histu baten pare,  
biziaren uztera guti naiz herabe.

Mendian ur txirripa, harrien artean,  
auhen eta nigarrez jausten da bidean.  
Izan nahi baihuke zelhai ederrean  
hala nere egunak badoaz lurrean.  
Izan nahi baihuke zelhai ederrean  
hala nere egunak badoaz lurrean.



## LOREAK UDAN IHINTZA BEZALA (Bilintx)

Loreak udan ihintza bezela  
Maite det dama gazte bat,  
hari hainbeste nahi dioenik  
ez da munduan beste bat;  
inoiz edo behin pasatzen badet  
ikusi gabe aste bat,  
bihotz guztira banatutzen zait  
halako gauza triste bat.

Neskatxa gazte, paregabea,  
apirileko arrosa,  
izarra bezin dizdizaria,  
txoria bezin airoa;  
oraintxen baino gusto gehiago  
nik ezin nezakeen goza;  
Zorionian ikusten zaitut,  
nere bihotzak, hau poza!

Ez al didazu antzik ematen  
nik zaitudala nahiago,  
ai, marinela gau ilunean  
izarra baino gehiago?  
Nere ondoan zauzkadalako  
pozez zoraturik nago;  
zu ikusteak alegratu nau,  
triste nengoen lehenago.

# LORETXOA (Benito Lertxundi)

Mendian larrartean,  
aurkitzen da loretxo bat.  
Aurrean umetxo bat,  
loretxoari begira.

Loreak esan nahi dio:  
umetxo aska nazazu,  
jaio naiz libre izateko,  
ta ez loturik egoteko.

Umetxoak ikusirik,  
lorea ezin bizirik.  
Arantzak kendu nahi dizkio,  
bizi berri bat eman.

Orduan izango baitu,  
indarra eta kemena.  
Orduan emango baitu,  
ugari bere fruitua.

## LUIZIA (Anari)

Irentsi zintuen luizi haren aurretik  
heldutako harri solte hura zen  
ulertu behar zena.

Baino nola baden lurrikaritzen diren  
lekuetan lasai bizi den jendea  
zuk geratzea erabaki zenuen.

Beti zuloaren beldur  
eta zuloa irteera zen.  
artean ez zenekielako  
bizi oso bat botako zenuela  
hiru zabor poltsa haunditan  
baina ez da zu bezalako leku  
lurrikaratuetan ere eraiki daitekeela  
eta ihes betea hasi zen, etorkizun bat behar zenuen,  
nahiz eta zuk lehena nahi  
baina bidean haitz artean  
oinazez sortzen diren eta hazten diren  
lore desafiatzaile min eta ederra zinen  
zaharkitutako mapa baten, zeharo galduta zeunden  
eta zure gainean etzaten zirenak ere  
bertan galtzen ziren, bertan galdu zuten.

## **LURRUNDUKO DIRA** (Izaki Gardenak)

Inguratzen gaituen guztia  
kartoi-harriz eraiki da.  
Gure ezinegonean  
egonkortu gara, desagertu gara.

Arauk estu kalean  
lege itsuen artean.  
Itotzear, erotzear ez tandaren atarian  
egonkortu gara, desagertu gara.

Baina bihotz goibel itzaliak  
isilka okupatzera goaz.  
Aurreiritzi diruz lagunduak  
lurrunduko dira, lurrunduko dira.

Baina bihotz goibel itzaliak...

## **MADDALEN** (Tapia eta Leturia)

Zutaz oroitzen naiz,  
ene Maddalen.

Etxetik urrun nabil,  
maite zaitudan arren.

Festa bakar hartan,  
azaldu zinen.  
Dena esango dizut,  
maite zaitudan arren.

Salto eta algara,  
egin duzu aurten.  
Ia puskatu zaitut,  
maite zaitudan arren.

Baina bukatu da,  
seguru naiz zeren.  
Etxetik urrun nabil,  
maite zaitudan arren.

# MAGGIE DICKSON (Izaki Gardenak)

Hiltzen saiatu ginen  
guzti hura itzuli da.  
Itsutu ninduen beldur  
guztia garaitu dut jada.

Prest nago munstroari  
begietara begiratu eta  
birikak airez puzturik oihu egiteko.

Maggie, Maggie Dickson  
bezala itzuli da, itzuli da.  
Maggie, Maggie Dickson  
bezala berpzitu da, berpiztu da.

Mozten saiatu ginen  
lotura hark estu dirau.

Baztertu eta memoriaren  
txoko ilun batean txukun gorde  
Txukun gorde genituen oroitzapen guztiak  
agertu dira denbora pasa ondoren  
argazki albuma ireki izan bagenu bezala.

# MAITASUNAREN URTAROAK (Ganbara)

Udaberriko haizeak zure doinua du;  
zuri maitasun kanta darizu.  
Udaberriko argiak zure distira du;  
zuri islada itzela damaizu.  
Udaberriko ibaiak zure elur zaharra du...  
haize, argi, ibai, doinu  
bion artean, maite, berbizi ditzagun.

Udabeteko ihintzak zure irudia du;  
zugan zolin ta xalo dihardu.  
Uda beteko sapak zure ausardia du;  
zugan dager bortizki kementsu.  
Uda beteko ekaitzak zure oihartzuna du...  
ihintz, sapa, ekaitz, oihu  
bion artean, maite, gugana ditzagun.

Udazken mahats gozo zure barne;  
amodio ardotan biok has gaitezen.  
Udazken hosto orail zure ile;  
amodio haizetan biok joan gaitezen.

Udazken usain bitxi zure lore;  
amodio hatsetan biok piz gaitezen.  
Udazken arrats xume zure urre;  
amodio untzian biok sar gaitezen.

Neguko sute bero zure etxe;  
Ekaitz unetan, maite, bion babes.  
Neguko laztan epel zure ohe;  
bisuts latzetan, maite, bion amets.

## MAITASUN AROAK (Anje Duhalde)

Haurtxo nintzela kontatzen nuen  
nola maitemindua nintzen.  
Guztiek irri egiten zuten  
ta ikasi nuen isiltzen.

Gaztetxo nintzen eta nioen  
"ez dakit nork maiteko nauen!"  
Eta nekien hura oroitzuz  
eskolatik alde egin nuen.

Maitale baten isil oroimena  
entzuten ez den hasperena.  
Gogoan isil dabilena  
ahantztean gelditzen dena.

Heldu nintzela harrotzen nintzen  
"zutaz besterik ez dut maite!"  
Eta isilik neraman hari  
ezin erran "urrundu zaite!"

Maitale...

Azken-azkenik maite nautenek  
naramate beste mundura.  
Batek negarrik ez du egiten  
ene hilkutxan dator hura.



## **MAITASUN HITZAK** (Egan / J.M. Serrat)

Berak maite ninduen, nik bera ere bai.  
Oraindik oroitzen naiz bere begietaz.  
Oraindik oroitzen naiz zuhaitz lore artean  
berak esaten zizkidan maitasun hitz politak.

Maitasun hitzak, umil ta xamurrak  
besterik etzekin, hain gaztea zan.  
Etzuen mundua, gaiztoa ikusten  
oraindik ametsak, bizi zituan.  
Hiru gauza bakarrik zekizkin esaten,  
aintzinako ipuin xarmangarriak.  
Maitasun istori, poeten abesti,  
besterik etzekin, hain gaztea zan.

Egunak joan ta gero nabaritzen dudanian  
bakardade haundi bat neure bihotzean,  
Oraindik oroitzen naiz zuhaitz lore artean  
berak esaten zizkidan maitasun hitz politak.

# MAITASUN NORTASUN (Anje Duhalde)

Naizena senditu nahi dut,  
Senditzen dutana maite.  
Maite dutana kantatuz  
bi aldiz maita nezake.  
Ezin dut deus egin kantu  
benetan maitatu gabe.  
Dena dut zinez kantatu  
amodioa ere barne.

Maitasunarena, iparra hegoa  
maitasunarena, hango hemengoa  
nortasunarena ez dut banakoa  
soilik euskal herrikoa.

Ez naiz hemengo ez hango,  
barka ezin badut jasan.  
Ene bihotza inongo  
mugatzarrak molda dezan.  
Osoa dut maiteago,  
zenbat hautsiago izan.  
Aginterri ezin deno,  
behintzat herri bakar gisan.  
Maitasunarena...

Kantatu eta maitatu  
den dena ere ez noski.  
Tamalez maizegi jardun  
Izan dut hortz eta guzti  
izate geuk hautatua  
mozten zaiguno bortizki  
Behar dut erremin hori  
bihur dakidan abesti.

## **MAITATZEN ZAITUDALAKO** (Tapia eta Leturia)

Maitatzen zaitudalako, kantatzen dizut zuri.  
Zu zaitut negu beltzean, eguzki epel zuri.  
Sargori denean berriz, maitasunezko euri.  
Maitatzen zaitudalako, kantatzen dizut zuri.

Guk elkarri zenbait kontu, eta zenbait irrino!  
Iruditzen zait gerala, ilargitan bi laino.  
Iruditzen zait gerala, ilargitan bi laino.  
Egunez bihurtzen gera, zu ta ni bi txorino.

Elkarren begiratuta, hasten gera kantari.  
Orduan deitzen diogu, maitasun-haizeari.  
Orduan deitzen diogu, maitasun-haizeari.  
Eta harek jartzen gaitu, firi-firi dantzari.

Dantza dezagun, ba, dantza, maiteño bihotzeko!  
Mundura ez ginen jaio, gu triste bizitzeko.  
Baizik tristura guztiak, kantuz poz bihurtzeko.  
Dantza dezagun, ba, dantza, maiteño bihotzeko!

## MAITE DUT (Urtz)

Maite dut itsas debekatuen xarma,  
sirenen kantu tristeek  
ene bihotza zauritu arren.

Maite dut portu zaharren kresal usaina,  
nire itzuleraren zai inoiz  
neskarik egon ez arren.

Akordeoi melodiak  
taberna galdu batean...  
Horditurik, xuxurlatuz;  
maitale hilezkorren ezpainak ditut maite.

Maite dut izarren distira gauean,  
ekaitz ondoko bareak amets ortzia estali arren.

Maite dut hodeiertzeko ortzadarra  
desioen aingurak itsas ondora naraman arren.

Akordeoi melodiak taberna galdu batetan...  
Horditurik, xuxurlatuz;  
maitale hilezkorren ezpainak ditut maite.

Itsas debekatuen xarma;  
portu zaharren kresal usaina;  
izarren distira gauean;  
hodeiertzeko ortzadarra... ditut maite.

## **MAITE EDERRA** (Mikel Garikoitz)

Maite zaitut, maite, zoratzeraino!  
Ederragorik ez da zu baino!  
Zeurea dut nik begian argia,  
zurekin berriz penak zer dira?

Maite bat badut bihotzean  
gorri, berde eta urdina;  
ikusten dutenen ustean  
urre-jantzizko sorgina.  
Ez du parerik ederrean  
ene maiteño politak;  
ni asteroko hondarrean  
joaten natzaio bisitan.

Maite zaitut...

Amesten zaitut, amesten,  
ederretan ederrena,  
baina ez bazaitut ikusten  
ez zait asetzen barrena.  
Eta ikusten zaitudanero  
maitez hartzen zaitut laster;  
laztan eta fereka gero  
joan ohi naiz bazterrik bazter.

Maite zaitut...

Bere koloreak ez dira  
beste inorenak bezala:  
urdina du begi distira,  
gorri-berdea azala.  
Gauak koloreak jatean  
oheratzen naiz bakarrik:  
ez dago zeruko atean  
nirea adinako izarrik.

Maite zaitut, maite,  
zoratzerraino!  
Ederragorik ez da zu baino!  
Zeurea dut nik begian argia,  
bihotz nereko Hondarribia!!!

# MAITIAK GALDE EGIN ZAUTAN (Imanol)

Maitiak galdegin zautan,  
polita nintzanez.

Maitiak galdegin zautan,  
polita nintzanez.  
polit, polit nintzela bai na,  
larrua beltz, larrua beltz.

Maitiak galdegin zautan,  
premu nintzanez (BIS)  
premu, premu nintzela baina,  
etxerik ez, etxerik ez.

Maitiak galdegin zautan,  
boltsa banuenez (BIS)  
boltsa, boltsa banuela baina,  
dirurik ez, dirurik ez.

Maitiak galdegin zautan,  
lana banuenez (BIS)  
lana, lana banuela baina,  
gogorik ez, gogorik ez.

Gaixoa, hil behar dugu,  
guk biok gosez (BIS)  
gosez, gosez hil behar baina,  
elkar maitez, elkar maitez.

## MAKURTU GABE (Kortatu)

Kontserba latak eta kaferako filtro  
barazki poto eta olio lau litro.  
Eta gainera ere zenbait kilo irin  
azukre, arroz eta hortzetako zirin.

Lau gaileta pakete, bi tomate lata  
sobrezko zopak eta Italiako pasta.  
Lixiba egiteko pakete haundia,  
baxera egiteko bestea ttipia.

Zutik! Zutik! Makurtu gabe!!  
Zutik! Zutik! Makurtu gabe!!

Tetrabriketan ardo, eltzetan babarrun  
makailua jateko Kantauri da urrun.  
Ginebraren ondoan dago patxarana,  
ostikadaren kolpez lurrean etzana.

Arranoa zeruan mendian sugea  
ibaietako ura ahitzen ote da?  
Basotan perretxiko soroan garia.  
"nahiz hanka bana hautsi, berriak badira"

Zutik! Zutik! makurtu gabe!

## **MALEN** (Ken Zazpi)

Amatxo negarrez segi ezker  
malkoz bustiaz aitaren gutuna.  
Hark ezingo du berriz irakurri  
zenbat ta zenbat maite duguna.

Larunbata ta berriro bidean  
kamioiak pasa, kotxeak pasa.  
Infinitora jartzen naiz begira  
oroitzapenak nahasten dira.

Berrogei minutuz, milaka taupada.  
Begietara begiratzean  
hitz egin gabe ulertzen zaitut.  
Kristal lodiak ezin du aita  
gure irrifarra inoiz gelditu.

Iragana hain urrun ta hain hurbil,  
hitz egindakoak denak gogoan.  
Itsas haizea usainduz urruti,  
lur arrotz honek inperua dirudi.

Heldu gara kartzela atarira,  
amets gaiztoen kaiola hotzera.  
Oihuka dabilta gizon urdinak  
sumindu nahian gure odola.



## **MALKOAK** (Negu Gorriak)

Konturatzen naizenean nere errua dela  
ez didazu zertan aurpegira bota beharrik.  
Inoiz ez zaitut minduta sentitu nahi  
nahiz mina izan maiteminduen ezagugarria, ezagugarria.

Bi aldiz besterik ez zaitut negar egiten ikusi  
ta ez dut indarrik izango hurrengorik .  
Bi aldiz besterik ez zaitut negar egiten ikusi  
ta ez dut indarrik izango sufritzeko hurrengorik.

Zuk botatako malko bakoitzagatik  
labanaz ebaketa bana egingo nuke.  
Ni jasan nahian zure samina  
zuk pairatzen duzuna niregan har dezadan, har dezadan.

Bi aldiz besterik...

Konturatzen naizenean...

Erantzuidazu, mundu honetakoa naizen ala ez!!

## **MARAVILLAS** (Berri Txarrak)

Ostikoz bota digute atea.

Zein dira deitu gabe datozenak?

Zer nahi dute aita, zuzenean zuri begira?

Zein dira oihuka mintzo direnak?

Ta norbaitek oroituko ditu etorkizunian  
ahantzuraren zingira hontan gertatuak.

Ikara bortxaren bigarren izena.

Zein dira deitu gabe datozenak?

Gogoan dut orain aspaldiko aholkua:

ez fida herraren mirabe denaz.

Ta norbaitek oroituko ditu etorkizunian  
ahantzuraren zingira hontan ito dituztenak.

Abesti berriren batian, zuhaitz zaharren azaletan

Argaren zilar uretan, iluntzeetan.

Ostikoz bota digute atea.

Zein dira deitu gabe datozenak?

Agur ahizpak eta senitarteko guztiak,

agur lagunak ta jolasten ginen tokia.

Adio ene Larraga maitea.

Ta norbaitek oroituko ditu etorkizunian  
ahantzuraren zingira hontan ito dituztenak.

Abesti berriren batian, zuhaitz zaharren azaletan

Erriberako izarretan, Nafarroan, Nafarroan, Nafarroan.

# MARGARITA (Joxe Ripiau)

Atzo pasatu nintzan zure etxetik Margarita.

Atzo pasatu nintzan zure etxetik Margarita.

Zure ama ikusi nuen eta zera esan zidan:

Zure ama ikusi nuen eta zera esan zidan:

Ez zarela etxetik pasa azken hilabete hontan.

Ez zarela etxetik pasa azken hilabete hontan.

Ai Margarita, ai Margarita...

Atzo pasatu nintzan zure etxetik Margarita.

Atzo pasatu nintzan zure etxetik Margarita.

Zure ama ikusi nuen eta zera esan zidan:

Ez zarela etxetik pasa azken hilabete hontan.

Beti dantzatzen zabilta raggamuffin eta ska.

Beti dantzatzen zabilta Joxe Ripiau!!!

Ai Margarita...

# MARIA SOLT ETA KASTERO (Benito Lertxundi)

Maria Solt ta Kastero,  
bi amoros zahar bero.

Hirurogei-hamarna urtetan,  
hartü die amorío.  
Kastero jelostü gero,  
Maria Solt ezarri kanpo.

Maria Solt dia nigarrez,  
izorra dela beldürrez.  
Barnets-Bordako anderiak,  
kotsolatü du elez.  
Emazte zaharrik oküpü,  
agintzen eztela ez.

Maria Soltek arrapostü,  
Santa Elisabet badüzü.  
Santu zahar bateganik,  
oküpü agitü düzü.  
Kastero ere bada saintü,  
hala nizan beldür nüzü.

Kastero eztüzü saintü,  
Sobera bürhauti düzü.  
Elizalat juan eta,  
tabarnan egoiten düzü.  
Kastero denegatik saintü  
Maria Solt antzü zira zü.

# **MARTXA, NESKAK ETA 68ºKO EDARIAK** (Pottoka)

Gabon Euskalerria, ni naiz Pottoka,  
ta heldu naiz Nafarroatik kantu batzuk egitera.

Egunon denori larunbatean,  
eguzkia atera da leihopean.  
Gaur ez dut gogorik lan egiteko,  
gaur festa egin behar dut bihar lo egoteko...

Kontuz, edari freskuak,  
soinu, soinu martxatuak!  
Kontuz, edari freskuak,  
neskatxak egon goxo goxuak!

Astean larretara jetsitzen gara,  
menditik herrira neskak bilara.  
Gero egoten gara zuhaiztietan,  
nesken gorputzekin ametsetan.

Kontuz...

Batzuk bizitzen dira lanarengatik,  
batzuk bizitzen dira diruarengatik!!  
Ni pozik sentitzen naiz barra guztietan,  
ni pozik sentitzen naiz neskak besoetan!!

## MARYLIN (Itoiz)

Atzo gabaz irten nintzen  
ta ikusi ez neonezko argirik.  
Ameriketatik etorri zen  
artzain haren baserrin.

...Oh Marilyn, Marilyn  
larrosa eta klabelin  
ximeldu da hire oroimena.

Artzainaren mirespena  
debozio bihurtu zen.  
Marilynen ezpain luzeekin  
irudi haundi bat txintxilikatu zuen.

... Oh Marilyn, Marilyn,...

Ze festa eder ziran!  
sagardoa eta jazzmana.  
Rock'n roll-a, trikitixa eta  
'latino' latino' 'latino' ere.

... Oh Marilyn, Marilyn,...

# **MARINELAREN BAKARDADEA** (Mikel Markez)

Hogei urtekin alde egiten gurasoekin ez ongi  
bizi nahia baina lotura burua oraindik duzu argi.

Marinela izan nahi eta amets hori beti buruan  
buruan bakarrikan balitz baitere bihotz barruan.

Hogeiabat urte eskasekin bete zenuen ametsa  
zazpi itsasoak zeharkatuz handituaz bizinahia.

Mila emakumeren gorputza sarritan izan duzu  
baina ez duzu hauetako baten arima inoiz ezagutu.

Hirurogehi urte konplitu jadanik zaude trakets  
indarrak galdu dituzu eta itsasoa uzteko prest.

Zahartzaroarekin batera ideiak dira aldatu  
eta mundua zure inguruan egin zaizu ezkutatu.

Portuan utzitakoaz gaur sentitzen duzu pena  
lurrak bai bait ditu hainbat gauza itsasoak ez duena.

Itsasoa zen zure maitale lurrean arrotz zara  
ezin inori pena hau kontatu ta itsasoa ezin maita.

## **MARINELAREN ZAI** (Sorotan bele)

Arotzak zuen alaba bat,  
zan herriko xamangarriena.  
Bi gizonek nahi zuten jabe izan,  
haren bihotzak nola esan.

-Zer dun, zer dun ene alaba?  
-Mariñela maite dut aita.  
-Ez al dun ulertzen, ezinezkoa da.  
Jauntxoa da hiretzat maitia.

Orduan egarriak denak ziren ba,  
maitasun ukatuarentzat.  
Jauntxoa dator hire esku bila,  
marinela Irlandara doa.

Hala izan zan eskontz behartua,  
aberatsik ez ziren han.  
Ta guztiak dantzan, guztiak alai,  
mail ezberdinak ahaztuaz.

-Zer dun, zer dun ene alaba  
-Mariñela maite dut aita  
-Ez al dun ulertzen, ezinezkoa da  
jauntxoaren emaztea zara.

Gaur egun oraindik ikus dezakegu  
alaba hura lehioan  
mariñelaren zai, zai  
itsasoan du itxaropena.



## **MARTIN LARRALDE** (Ruper Ordorika)

Larre berdeak, etxe zuri, teila gorriak,  
jendarme auto bat bidean bildots artean pasatzen.  
Etxe elizetan otoitzak, betiko otoitzak,  
neguko kearen antzera leun igotzen.

Martin Larralde ez da sekula itzuli,  
baina itzuli balitz, arantzak barrurantz  
itzuliak lituzkeen sagarroian lez...  
Itzuli izan balitz, zer? Gaur igandea da.

Larre berdeak, etxe zuri, teila gorriak,  
jendarme autoa bidean, Bayonne 17 panopetik.  
Jendea familia erretratuetan bezala,  
larritasuneraino perfumaturiko arima erakutsiz doia mezeta.

Inork ere ez du dena ohitura, dena errua,  
dena barkamena, oroimenaren korapiloa deslotzen.  
Inork ez du dena ohitura, dena errua,  
dena barkamena, koblakaririk behar...

Martin Larralde honelako egun batez hil zen galeretan,  
begiak zabalik etzanda.  
Zerua itsaso zikin bat da.  
Zerua itsaso zikin bat dela esanez.  
Agian, zerua itsaso zikin bat dela esanez.

# **MARTXA BATEN LEHEN NOTAK** (Artze / Laboa)

Eguzkiak urtzen du goian  
gailurretako elurra,  
uharka da jausten ibarrera  
geldigaitza den oldarra.

Gure baitan datza eguzkia illuna eta izotza,  
urratu dezakeen argia urtuko duen bihotza.

Bihotza bezain bero zabalik besoak eta eskuak,  
gorririk ikus dezagun egia argiz beterik burua.

Batek gose diraueno ez gara gu asetuko,  
bat inon loturik deino ez gara libre izango.

Bakoitzak urraturik berea denon artean geurea,  
Eten gabe gabiltza zabaltzen gilzatasunari bidea.

Iñork ez iñor menpekorikan nor bere buruan jabe,  
herri guztiok bat eginikan ez gabiltz gerorik gabe.

Eguzkiak urtzen du goian gailurretako elurra,  
uharka da jausten ibarrera geldigaitza den oldarra.

# MASTURBAZIO (Julio Kageta)

Aurre sentitzen zaitut  
nere bakardadean.  
Goxo-goxo sentitzen dut  
zure gorputza nirearengan.

Maitasun joko bat  
nire eskuaren erritmora.

Ongi sentitzea lortzen du  
nere irudimenak.  
Bukatzean amets egiten dut  
egiaren itxaropenaz.

Maitasun joko bat...

## **MATALAZ** (Benito Lertxundi)

Dolü gabe, dolü gabe hiltzen niz,  
bizia Xiberuarendako emaiten baitüt.

Agian, agian, egün batez  
jeikiko dira egiazko Xiberutarrak.  
Egiazko eskualdünak  
tirano arrotzen hiltzeko,  
egiazko eskualdünak  
tirano arrotzen hiltzeko.

## **MEA CULPA** (Julio Kageta)

Denbora asko daramat,  
zure izena piropoz janzten.  
Jasaten duzun zapalkuntza,  
amorrutik bizirik salatzen.

Badakit errua nirea dela,  
nahiz eta aitzakiz.  
Liburu bat idazteko gai izan,  
liburu bat idazteko... gai izan.

Badakit akaso,  
ez dudala eskubide hori.  
Artzek idatzitakoa,  
mendarikatzen dut.

Badakit errua nirea dela...

## MENDEKUA (Ehun Kilo)

Aurpegi nekatuan,  
egiaren indarra.  
Haren begi itsuetan,  
minaren irudi bakarra.  
Mina soilik du gogoan.

Eguneroko lana,  
hamabi ordu kanpoan.  
Jo ta etxera buelta,  
han duela bere mundua.  
Bakea eta alaitasuna.

Non da maitasuna?  
Gaur ere dena hotza...  
Iluntasunean, bakardadea.  
Eden baten, beti ametsetan  
gehiago ezingo dut jasan  
lehertu ingo da.

Neguko egun baten  
goiz bueltatzerakoan,  
zerbait ohartu zuen  
besten bat zen bere tokian...  
...ez zela han gizon bakarra.

Etzuen nahi hura ahaztu,  
inondik ere ez barkatu.  
Odola eskuetan,  
mendekua bete zuela...  
...oroitu egin zion.

## **MENDIAN GORA** (Imanol)

Mendian gora haritza, ahuntzak haitzean dabilta,  
itsasoaren arimak dakar ur gainean bitsa.  
Kantatu nahi dut bizitza, usteltzen ez bazait hitza,  
mundua dantzan jarriko nuke Jainkoa banintza.

Euskal Herriko tristura, soineko beltzen joskura  
txori negartiz bete da eta umorez hustu da.  
Emaidazue freskura ura eskutik eskura,  
izarren salda urdina edanda bizi naiz gustura.

Euskal Herriko poeta kanposantuko trompeta.  
Hil kanpaiari tiraka eta hutsari topeka.  
Argitu ezak kopeta penak euretzat gordeta,  
goizero sortuz bizitza ere hortxe zegok eta.

Mundua ez da beti jai iñoiz tristea ere bai  
bainan badira mila motibo kantatzeko alai.  
Bestela datozen penai ez diet surik bota nahi  
ni hiltzen naizen gauean behintzat egizue lo lasai.

## **MEREZI OTE** (Gontzal Mendibil)

Etzetik ihes egiteko kalea zeharkatzea  
mutiko batek bakarrik egin lezake.  
Baina kaleak egunero ibiltzen dituen gizon hori  
jadanik ez da mutiko bat, eta ez doa etzetik ihes.

Badira udan eguzkia sartzen ari den plazak,  
hutsik geratzen direneko arratsalde batzuk.  
Eta landare alferrekoen etorbidetik  
heldu berri den gizon hori gelditu egin da.

Merezi ote bakarrik egoteak?  
Geroan ere, bakarrik egoteko.

Kalerik kale bakarrik, plazak eta kaleak hutsik,  
gelditzeko esan behar zaio andereren bati.  
Eta norberarekin bizi dadila eskatu behar zaio  
zeure buruarekin bestela mintzatuko zara.

Zure besoetan, maitia, eguzkiaren irrinoa  
mila bider handiago izanen da zazpi egunetako astean.  
Loreak ugaluko dira nire etxeko leihatilan,  
larrosaz ta klabelinaz apainduko dut baratza.

Horregatik batzutan gaueko mozkortia  
Berriketan hasi ohi da proiektuak adierazten.  
Kalerik kale ibilkiaz ere etxea jadanik,  
andere horrenean legoke, ta mereziko luke.

Zu gabe, esperantzarik ez legoke.  
zu gabe, atea itxiko lirateke.  
Zu gabe, ilunetan nengoke.  
Zu gabe, ezin iraun daiket.  
Zu gabe, ametsik ezin dut bete.  
Zu gabe, ezin bizi naiteke.



## **MIKELE** (Maixa ta Ixiar)

Denborak bezala mugarik ez dauka  
irri zuri horrek zeureak Mikele.

Uuuuu Mikele  
Uuuuu Mikele

Ipuinen kaiolan zaude lokartua  
dantzatuko genuke zurekin behin bederen.

Uuuuu Mikele...

Txarap, txarap, txarap, txarap, txarap, txarap, txarap.

Ez al da izango hartuko zaituen ankerrik  
festak ez beza aldegin zure erresumatik.

Uuuuu Mikele...

Suzko ile gorria non da zure egia  
gorde ezazu irria mundu harrigarria.

# MINAREN FUNTSA (Anari)

Negar itten dudanean,  
hor zaude zu beti.  
Hor geldi niri so, beti.

Ta nik ez dut sentitzen minik.  
Negarrak hegan doaz...

Ze hilda jaiotzen zaizkit,  
barrutik, lurra busti baino lehen, hilik.

Negar itten dudanean...

Ze hilda jaiotzen zaizkit,  
barrutik, lurra busti baino lehen, hilik.

Dena dago geldirik gugan,  
zure nire, gure baitan.

Hutsa bait da minaren funtsa,  
gu mintzen, mugitzen gaituena.

Hutsa, minaren funtsa.

## **MIN HAU** (Katamalo)

Min hau neure-neurea dudala badakit  
baina zauria ez dut topatzen inundik.  
Benetan al datorkit poza erraietatik  
ala ez ote nabil neu bere atzetik?

Honezkero ikasia nago gerizpean  
itzalari azalean eusteko bestean  
aldiz uzkurto eta puztu sahiespean  
bihotza somatzen dut eguzki eskean.

Berriz min hau, berriz min hau,  
berriz min hau, luze dirau.  
Berriz min hau, berriz min hau,  
berriz min hau ...

Gudu zelai bihurtzen denean norbera  
irabaztea zer da zer garela?  
Nik ez dut nahi hemendik onik atera  
baizik eta bizirik sentitzea bera.

# MUNSTROAREN HEZURDURA (Julio Kageta)

Apika, norbaitek pentsa lezake  
paranoiko bat naizela.  
Baina zeldako leihotik  
begiratu ezkerro,  
munstroaren hezurdura.

Gure espetxea gutxi balitz  
beste bat parean digute egin nahian  
eta yankiek beren abioiekin  
kriston zarata egiten dute.  
Monstruaren hezurdura.

Gainera inguruetan  
dauden koartel militarreko  
tronpeten hotsak entzuten dira,  
entzuten dira, gainera hori.  
Zoroetxetik hurbil ez egotea  
da gehien harritzen nauena.

## MOZTU ILEA (Beti Mugan)

Moztu ilea ispilu atzean,  
etzanda daude zure begiak.  
Moztu panpinen zilbor-hesteak,  
jolastorduko oroimen tristeaz.

Gau urdina zen zinematokian  
Julietteri so sentitzen zintudan.  
Denboraren arnas estuan  
zintzilik geunden narrazti guztiak.

Moztu ilea ispilu atzean  
zugan daukazu ihesbidea  
moztu panpinen zilbor-hesteak  
ez gera bizi filme batean.

Kafetegian hitzak idazten  
Cyril Collard-etaz nintzen pentsatzen.  
Ihes-ak jota gaixotuko banintz  
egingo al zenuke amets nerekin?

Moztu ilea ispilu atzean...

# MUGAK GUGAN DAUDE (Beti Mugan)

Gaurkoan ere presik gabe  
hegan egitea nahi zenuke.  
Lege guztiak ezabatuz  
Ohizko hormak zeharkatuz  
Eta ez, ez, mugak gugan daude!!  
Eta ez, ez, mugak gugan daude!!  
Mugak gugan daude!!

Gaixorik gaituk jaiotzetik  
ta dudan diat ez garen hil.  
Aldatu nahi baina ezin  
jarraitzaileak gera soilik.

Eta ez ez, mugak gugan daude...

Ekintzak dira gure giltzak  
hitzak ez hartu zilegitzat.  
Saiatzekotan saiatu orain  
iragana hil da geroa ere bai.

Eta ez ez, mugak gugan daude...

Beti berandu ta beti zain  
irten aurretik iritsi nahi.  
Itxura asko hitz gehiegi  
azken finean ezer gutxi.

Eta bai bai, mugak gugan daude...

# MUNDUAREN ESKER ONA (Mikel Laboa)

Haize hotzeko lurrera  
biluzirik heldu zintan  
ezer gabe, darda rez,  
andreak zapi bat ematen.

Premiazkoak izan gabe  
zuentzat larrosarik ez ziraden,  
mundura arrotzu zintan  
gogoko izan zuenean batek.

Haize hotzeko lurrera...

Munduak ez du zorrik zuekin  
joateko libre zerate;  
ezer ikusterik ez askokin,  
baiñan haurrak beti herabe.

Haize hotzeko lurrera...

Haize otzeko lurretik  
zoldaz beterik ba zoazte,  
denek mundua maitaturik  
lur puska bat izan baduzue.

Haize hotzeko lurrera...

# **MUNDURAT EMAN NINDUZUN** (Benito Lertxundi)

Ama, nola zure belaunetan  
nindadukazun artean,  
utz nezazu zure bularrean  
burua pausa dezadan;  
ene bihotzak zer sendi duen  
nahi baiterautzut erran,  
zure ezpain sakratuetarik  
ikasi nuen mintzairan.

Ene deia amodioaren  
bidez zinuen entzun,  
eta gero oinazeen erdian  
mundurat eman ninduzun;  
biziaren grazia lehenik,  
gero hainbertze maitasun,  
berant jakin dut, ama maitea,  
zendako eman dautasun.

Adierazi zerautanean  
odolak bere mintzoa,  
berriz gogoratu zitzerautan,  
o ama, zure altzoa;  
bai ta zure bularretik hartu  
esne on haren gozoa,  
orduz geroztik zurea naukan  
ene izaite osoa.



# MUÑAGORRIREN BERTSOAK (Benito Lertxundi)

Muñagorrik diona bere proklamian,  
gerrak ondatzen gaitu bostgarren urtian;  
igaz jarrikan Carlos Madrilko bidian,  
bultza zuten atzera, gerra bere gerra bere oñian.

Agintari onenak preso daduzkate;  
euskalduna izatia du bakoitzak kalte.  
Tejeiro ta Maroto guzien alkate:  
Zer gizon oyetatik espera gentzake.

Carlos agertu ezkerro probintzi auetan,  
beti bizi gerade neke ta penetan.  
Naiz kendu guk deguna beinere ezer eman;  
Bost negar egiteko, nunbait jaio giñan.

Semiak soldadu ta preso gurasuak,  
ezin pagaturikan kontribuziyuak.  
Trintxera lanetara gainiera auzuak.  
Dolorezkoak dira gaur gure pausuak.

Kordoiz inguraturik kostatik Ebrora,  
trabaz gaude josirik bera eta gora.  
Atzenikan frantsesak itxi du frontera.  
Gerrak ez dakar onik Iñundik iñora.

Atiak itxi eta ogia garesti;  
artua ere ari da igotzen poliki;  
dirua ezkututzen da egunero emendik.  
Nola bizi garen bada, arritutzen naiz ni.

# MUSIKAREN DOINUA (E.T.S.)

Musikaren errotik sortutakoa,  
azaldu ezinezko sentimendua.  
Musikaren itzalean dantzalekua.  
Musikaren doinua!!

Herri arteko loturan eragin dezala,  
gure barneko grinak konpondu ditzala.  
Azaleko liskarretan laguntzazkoa.  
Musikaren doinua!!

Irabazi edo galdu beti zuekin doa.  
Aldegin edo geratu beti zure barnean.  
Punk doinua, zein blusa edo ska musika.  
Berdin du erabakia musikaren zentzua.

Mundu libre bat dago zure aurrean,  
erabaki anitzezko aukera sorta.  
Emozio sortzaile badugu alboan.  
Musikaren doinua!!

Irabazi edo galdu...

# **NAFARROA ARRAGOA** (Xabier Lete)

Nafarroa, arragoa, argiaren pausaleku.  
Haizearen ibil-toki zabal, hesirik gabea.

Nafarroa, arragoa, sua eta ura,  
kondaira urratu baten oihartzun oihukatua.  
Amets bat baino gehiago, ez oparotasun osoa:  
nahiaren eta ezinaren borroka toki ekaitzez betea.

Nafarroa, arragoa, mahats eta gari,  
maitasun eta gorroto gezur eta egia gurea.  
Nafarroa, arragoa, lur beroen sabel emankorra,  
eta goiko mendi hotzen mendetako loa.

Nafarroa, Nafarroa, zuhur eta eroa, lurrik maitatuena,  
hormarik gabe utzitako etxea: erreka gardenen negarrez,  
ibai lodietara ixurtzen ari den odol bustiko arraren iturri bizia.

Nafarroa, arragoa, izen bat eta oinarri,  
eta oinaze eta bidean zure bila ibiltzea...  
Pinudiek usaintzen dituzten  
harri txigorrezko bidetan gora.  
O, Nafarroa, Nafarroa betikoa.

## **NAHIAGO NUKE** (Benito Lertxundi)

Nahiago nuke bideetako errautsa banintz  
ta behartsuen oinek zanpatua banindute.

Nahiago nuke isurian doan erreka banintz  
eta joileak nere ugaldean baleude.

Nahiago nuke ibertzeko makala banintz  
eta gainean zerua eta azpian ura baino ez banitu.

Nahiago nuke errotariaren astoa banintz  
eta hark kolpatu eta maitatuko banindu...

Nahiago hori, bizitzan zehar bere atzera begira  
penatua doana izan baino.

# NAHI GENUENA (Katamalo)

Ezpainak ardotan,  
irri aizuna  
pozten zarela baina  
ez nauzula gogoan.  
Ankerra berez,  
bihotz gabe ez bagina zinez.

Ikusi arte egongo gara.  
Zu naiz.  
Urtetan nahi genuena  
Zu naiz.

Urte bete gutun  
ez da iragan,  
lanbroak hartu dizu  
esperoa.  
Argi ontzi itsua  
bularrean daukat.

Zu naiz.  
Urtetan nahi genuena  
Zu naiz.  
Nahi genuena  
Zu naiz.

# NAHIZ ETA HERIOTZA (Mikel Laboa)

Nahiz eta heriotza helduko zaidala jakin  
ez dut haatik horren aurka  
buru-bihotzez borrokatzetik etsiko.

Ez nau ustekabeen harrapatuko,  
bizi naizeno bizitza  
bizi naizeno bizitza kantatuko dut.

Eta behar dudan denbora baino lehen hiltzen banaute  
nere hortzetan itzaliko den azken antzia,  
beste batenetan loratuko den lehen irria izango da.  
Beste batenetan loratuko den lehen irria izango da.  
Beste batenetan loratuko den lehen irria izango da.  
Beste batenetan loratuko den lehen irria izango da.  
Beste batenetan loratuko den lehen irria izango da.

Beste batenetan loratuko den lehen irria izango da.  
Beste batenetan loratuko den lehen irria izango da.  
Beste batenetan loratuko den lehen irria izango da.  
Beste batenetan loratuko den lehen irria izango da.  
Beste batenetan loratuko den lehen irria izango da.

Beste batenetan...

## NAIZENEZ GERO (Benito Lertxundi)

Naizenez gero, merezi luke  
izatearen mugagabea galtzea.  
Adimenaren hegoak zabaltzearekin  
funtsezko keinu sakratua eginaz,  
bizi arrazoi guztien gaindi  
bizi arrazoi guztien gaindi.

Egin bideak baztertuz,  
beste bat hautatzerakoan  
ohartuko banintz,  
hastapen amaiera arteko denborak  
hastapen amaiera arteko denborak  
mugatuko nauela...

Bakartasunetik iheska  
bakardadean galdurik,  
beldurraren irri krudelen menpeko,  
sinismen eta itxaropenen  
zutaberik gabeko aterpetan  
babestuko naizela...

Ohartuko banintz,  
ohartuko banintz ene baitan  
askatasun irudikatua marrastuz,  
ametsen argi izpiaren eskutik  
bidez bide eginiko laberintoa  
nintzatekeela...

Egin bideak baztertuz,  
beste bat hautatzerakoan  
une batez geldi banendi...  
eternitatea litzateke une hori,  
eternitatea litzateke une hori,  
une batez geldi banendi.

## **NAO ES TU, FACULTADE DE SENTIR** (Mikel Laboa)

Não és tu -facultade de sentir- um espaço  
Terminado por linhas ou superfícies,  
E não obstante chove sobre ti, na cidade,  
As gárgulas sorriem contra a tarde,  
A fadista tece com fio de algodão  
As suas lembranças, chove nas gretas,  
Os antiquários mudam de residencia  
Es os pássaros abrigam-se nos fechamentos,  
Agacham-se fatigadas as folhas amarelas  
E não estia, chove no molhado brando  
Da tua transparencia, teus labios,  
E tudo aquilo que é dominio do coração  
Encolhe-se no lago, no lago do tempo.  
Encolhe-se no lago, no lago do tempo.



## **NAPARTHEID** (Kojon Prieto y los Huajolotes)

Mexiko, Kuba eta Euskadi zaharra,  
askatasuna dugu helburu bakarra,  
hortarako gringoak bidali beharra,  
napartheiden daukagu hortako suharra.

Ardo gorri naparra, kubatar rona ta  
mexikar tekilakin badugu zarata,  
independentzi grina odolean eukita,  
aurrera Napartheid Che eta Zapata.  
Independentzi grina odolean eukita,  
aurrera Napartheid Che eta Zapata.

Che eta Zapata, Che eta Zapata,  
aurrera Napartheid Che eta Zapata.  
Che eta Zapata, uuuuu... Che eta Zapata.  
Che eta Zapata, uuuuu... Che eta Zapata.  
aurrera Napartheid Che eta Zapata.

Hiru anai zaharrok honuntza begira,  
begietan dauzkagu malkoen dizdira,  
izan beti ausartak ta ez eman bira,  
denean zabal bedi gora ta arriba.

Mexiko, Kuba eta Euskadi zaharra...

Ardo gorri naparra, kubatar rona ta...

## **NATURA** (Pikutara)

Lo lorolorololo lorololo rololo  
Loroloro loroloro loroloro loroloro  
Lorolalai loloro lololalai

Han urrutian ia galdurik ihes doan azken txoriak  
luma bat utzi du aidean Lemoiz gainean.

Natura, kezka datorkit burura,  
natura, kezka datorkit burura.

Zuhaitzek ikaraz uko egin diote hazteari  
lurpera itzuli nahi dituzte beren abadurak  
izuaren izuz aberastuko zaio kantauri itsasoari.

Ez du kolorerik ez gozorik ez usainik ez gustorik  
ukiezina da ta ikustezina,  
guk ez dugu nahi holako gauza zikina

Natura...

## **NAUFRAGOAK** (Anari)

Bihotz arrotzetatik erbesteratuak,  
ezpain lehorrez musukatzen mundua.  
Baina sutarako moztu zuhaitzak,  
telefonoaren azken hitzak,  
ez dizu itzalik ematen uda heltzean.

Ezetz esaten ez dakigulako esaten dut bai  
nahi dugun horren atzetik baino  
nola heldu naiz ni honaino.  
Nahi ez dugunaren ihesi ematen egunak.

Zoriontasunaren morroi ahulak,  
zerbaitengatik borrokatu orde  
beti zerbaiten kontra.

Gure besarkadek, larritasun minez  
maitatu ta bildu baino  
ito egiten dituzten bestea.

Ta ura garelako gara naufragoak  
rutinaren putzu geldian.  
Minak ez dio egia  
ondokoa itoz urazaleratzen gara.

## NEGUA DATORREAN (Urtz)

Udazkenan jaio berria hosto lehorren artean.  
Alaitasunaren hazia begi gardenetan zehar...  
Denari parrez, nola bestela?  
Kezkarik gabe bizi naizelaaaaaaaaaa.... ai

Ai amatxo, ez dut hazi nahi!!  
Ai amatxo, negua dut zaiiiiiiii!!

Nagusien moral zaharrak aldatzen gaitu  
gezur hutsa egi gisa irakatsiz  
eta ezin aske izan mundu horretan  
diru-gose hasegaitzak irentsita.

Ez dut inoiz lotsarik izan, ez dut inor lotsatu nahi.  
Ez dut mozkortu beharrikan, pozik izateko naiz gai.

Denari...

Pauso hotsak oihu latzak, euri artean.  
Gorrotoa kale arrotz bustietan.  
Arnas gabe, babes eske lasterka noa.  
Aginduz at, haur bezala bizi nahi dut.

## **NEGUA JOAN DA TA** (Zea Mays)

Elurrak joan direnean nire mendien artean,  
eguzkia teloian atzekaldean da.  
Ateratzeko beldur da, beldur eszenikoa,  
aspaldi antzestu ez duen obra honetan.

Izpi txiki txikiren bat agertuz doa gaurkoan,  
poztasun handi batek besarkatzen nau.  
Mesedez ozen esan negua joan egin dela,  
nire arima hotzak ez du sinizten eta.

Laztandu nazazu orain, ur urdinen artean,  
Orain lainorik ez da, aurpegi biluziak.  
Ta larrua jotzean garrasirik ozenena,  
gordin amaigabea, negua joan da ta.

Jaio berrien antzera taupaden beharra dut orain,  
belarriekin ikusteko nire begiek entzuten ez dutena.  
Mesedez ozen esan negua joan egin dela,  
izara guztiak erre ditut eta.

Soinu bakar bakarra zure bularraldean, negua joan da ta  
Borobildu zaizkit ertzak zure ondoan,  
Izpi lasaigarri bat, negua joan da ta, negua joan da ta...

# NEGU HURBILAK (Mikel Laboa)

Ez nau izutzen negu hurbilak,  
uda betezko beroan.  
Dakidalako irauten duela,  
orainak ere geroan.  
Nolabaitezko kate geldian,  
unez uneko lerroan.  
Guztia present bihurtu arte,  
nor izanaren erroan.

Ez nau beldurtzen egunsentian  
arnas zuridun izotzak  
nun dirudien bizirik gabe  
natura zabal hilotzak  
eguzki eder joan guztien  
argia baitu bihotzak  
eta begien milla ernegai  
iraganaren oroitzak

Ez nau larritzen azken orduan  
arnasa galdu beharrak  
bide xumea hesituarren  
amildegiaren larrak  
ardo berriak onduko ditu  
mahastietan aihen zarrak  
gure oraina arrazoiturik  
beste batzuren biarrak.

Ez nau illuntzen baratzatikan  
azken loreak biltzeak  
muga guztien arrazoi billa  
arnas gabe ibiltzeak  
arratsaldeko argi betera  
zentzu denak umiltzeak  
amets beteko loa baitakar  
behin betirako hiltzeak.

## **NEGUPRENOA** (Izaro)

Itsasoak olatuak periodoetan dakartzan bezala,  
dakartz bihotzak taupadak.  
Udazkena heltzeko beldurrari buruz  
hitz egin nizun, labar haretan.  
Hotzak atea jotzearen beldurrari buruz, ohea hutsik.

Azken uda egun hartatik itzuli nintzen udazkenean.  
Azken uda egun hartatik...  
Azken uda egun hartatik itzuli nintzen udazkenean.  
Azken uda egun hartatik...

Ta laister zaparradek mugituko dute leihoa  
ta ni aterpetik begira.  
Eta zu, ordea, zure irribarre epel horrekin,  
neoprenatzen negua.

Azken uda egun hartatik itzuli nintzen udazkenean.  
Azken uda egun hartatik...  
Azken uda egun hartatik itzuli nintzen udazkenean.  
Azken uda egun hartatik...

# **NEKROPOLIAN** (Don Inorrez)

Momiak atera dira paseatzera,  
mugiro bila dabilta nekropolian  
mugiro bila nekropolian.

Auzoak hustu ziren mende hasieran

Inditex izurriteak eraginda,  
turistak dira, turistak ugaztun berriak.

Kanpaiak entzuten dira  
hiriaren bestaldean  
hileta-martxa atsegin bat.

Jende desegokia, toki egokian  
mugiro bila dabilta nekropolian.

Kanpaiak entzuten dira  
hiriaren bestaldean  
hileta-martxa atsegin bat.  
Hiriaren bestaldean.

Momiak atera dira...



## NERE AITAK AMARI

Nere aitak amari gona gorria eka rri.  
Nere aitak amari gona gorria eka rri.

Berriz ere maiteko dio nere amak aita ri.  
Nere aitak amari gona gorria eka rri.

Gona gorri gorria zazpi jostunek josia;  
berriz ere maiteko dio nere amak aitari.  
Nere aitak Amari gona gorria ekarri.

Nere amak aitari praka berriak ekarri;  
berriz ere maiteko dio nere aitak amari.  
Nere amak aitari praka berriak ekarri.

Praka berri berriak zazpi jostunek josiak;  
berriz ere maiteko dio nere aitak amari.  
Nere amak aitari praka berriak ekarri.

## **NERE HERRIA** (Juan Carlos Perez)

Nik ez nun aukerau hemen jaiotzia  
baina ene amak esaten dit:

Ordun inork ezin izan zuela aukerau.  
eta hau dala ene herria,  
eta hau dala ene herria,  
eta hau dala ene herria.

Egun batian galdetu nion  
zer izango zinan nitaz.  
Istanbulen jaio izan banintz,  
jaio izan banintz adibidez.

Ordun inork...

Istanbulen jaio banintz adibidez,  
arrain saltzaileen Galata zubian.  
Gauero izarrei beira  
ze izango zen nitaz,  
ze izango zen nitaz  
galdetzen duena.

Ameriketean jaio izan banintz  
galdetzen duena izango nitzan.

# NERE HERRIKO NESKATXA MAITE

(Benito Lertxundi)

Nere herriko neskatxa maite,  
ahozko lorez zaitut gaur laztantzen.  
Itsaso garden, lur gozoko landare,  
kresalaren usain, zeru kolore.  
Nere bihotzaren taupaden hotsez,  
zure grazia dut kantatzen.

Bihotz minberen egunsentia,  
herri sufrituaren lamia.  
Ipuin zaharren piper eta eztia,  
erreka garbien kantu bitxia.  
Udazken lizunez zaude jantzia,  
izar zerutarren irria.

Lanbro artetik itsas geldira,  
leunki zoazen txori airosa.  
Amodiozko sentipenaren hatsa,  
zure ezpainenetan loratuz doa.  
Goizeko ihintzetan belardi zera,  
eguzkitan zilar dizdira.

# **NERE JUANETEAK** (Mikel Laboa)

Zapalketa gorriaren  
erahilketa bilutsiaren aurrean  
entzungo diezu erruki hitza aipatzen  
xurgatze amorratuaren  
jende gosetien aitzinean.

Entzungo diezu karitate hitza goratzen  
lantegiak geldieraziz  
herria kaleratzen denean.

Entzungo diezu bakea, bakea deihadarkatzen  
zapalduak oro batzen direnean  
eta lurra ikaran ezarri entzungo diezu:  
Ai, nere juaneteak!

# **NERE MUNDU POLI TXIKI HONTAN** (Xabi Solano)

Hego haizeak narama berriz zuregana.  
Oroitzapen asko dira zerura begira.

Eta orain hemen nago, geroz eta alaiago  
nire mundu polit txiki hontan.

Izar bati begiratzu zu zarela desiratzu,  
nirekin zaudela sentituz.

Nabil ametsetan nire ondoan zaudela  
eta esnatzian faltan somatzen zaitut.

Nabil ametsetan nirekin hemen zaudela  
eta esnatzian faltan somatzen zaitut.

Zure irudia dago zeruan izarrez  
beti zinen bezelaxen orain ere irribarrez.

Eta orain hemen nago...

## NESKA SOLDADUA (Hiru Truku)

Gaztiak kantuan ta  
zaharrak eragusian,  
hori da pasatzen dana  
bardin mundu guzian.

Etzetik urten neban  
maiatzeko hilean,  
hamasei urterekin  
neure txoramenean.

Soldadu sartu nintzan  
Agorraren bostean,  
Kabo edo sarjentu  
izateko ustean.

Nik lako fortunea  
nork du harrapatu?  
Hamaika hilabeteko  
sarjentu nonbratu.

Urtebete baino lehen  
nintzan teniente,  
rejimentutikan be  
nintzala ausente.

Rejimentu bi izan ditut  
hamar urte honetan:  
Angel de Ondasetan  
Buenas Airesetan.

Nerau emakumea  
ofizialea  
letrarik, eskolarik  
batere gabea.

Agustin Antonio  
izan da neure izena.  
Hori aitu dezutenok  
ez da neure izena.

Oraintxe da denborea  
izena mudatzeko  
Agustina Antonia  
naizela esateko.

Batetik lau balazo,  
bestetik enfermo,  
Jaunaren abisuak  
horiexek ditut klaro.

Moja sartzera noa  
komentu batera,  
Jesusaren esposa  
betiko izatera.

Hamar urtian errege  
serbitu detalako  
dotia gertu daukat  
moja sartutzeko.

## **NESKATOA HAUR BEHARRETAN** (Jojo eta Ramuntxo)

Amodioak gaitu huntarat ekarri,  
zer gertatua zautan erranen dut sarri:  
barnean senditzen dut, hau zaut lotsagarri!  
Sobera fidaturik izar faltsuari,  
jarri behar naiz orai denen irringarri!  
Jarri behar naiz orai denen irringarri!

Norbaiti eman nintzan maitearen maitez,  
hura ere maitale baitzen ene ustez.  
Zer on erran ditaike horrelako aitez?  
Aingeru bat utzi du amodio galdez,  
nihaurrek maita behar orai bien partez!

Hor erori naizena ni ez naiz lehena,  
jende maiteak, otoi, ez egun kondena!  
Ezin da errepara egin izan dena,  
sofritzen dutana ni ez bainaiz azkena,  
otoitz egin enetzat, Santa Madalena!

## **NIGARRA BEGIAN** (Benito Lertxundi)

Sumatuz euskaldunak, ospetsu nahian,  
guretik deus ez duen hizkuntza mihian,  
sofritzen egoiten naiz horien erdian,  
gutaz ahalgetua, nigarra begian.

Nehoiz etzeraukula, nik ez dut etsiko,  
gure kontzientzia atzartzen hasiko;  
egungo balentriak ez baitu betiko  
odolaren mintzoa ixilaraziko.

O, entzule maitea, otoi barkamendu,  
ez badut bozkarioz kantaldi hau ondu!  
jostetako gogoa dautate kendu,  
aunitz maite duenak aunitz sofritzen du.



## **NI NAIZ** (Izaki Gardenak)

Kale-zakur guztiek  
nigan bazka dute.  
Erraiak agerian  
hitz soil baten truke.

Dantza egin maitea!  
Ez al dituzu entzuten  
beleen mokokadak  
tenpoa markatzen?

Maskararik gabe, ni naiz, ni naiz.  
Biluzik, babesik gabe, ni naiz,...

Zugan itzaropena,  
nigan infernua.  
Lokatzetan hondora  
astiro noa.

Maskararik...

## **NI NAIZ** (Xabier Lete / Doctor Deseo)

Ni naiz, erreka zikinen iturri garbiak,  
aurkitu nahi dituen poeta tristea.

Ni naiz, beste asko bezala neguko eguzkitan,  
hotzez hiltzen dagoen gizon bakartia.

Ni naiz, historik gabe gelditzen ari den  
ardaska lehorra.

Ni naiz, pasio zahar guztiak kiskali nahi dituen  
bihotz iheskorra.

Ez zaidazu galdetu gauza ilun guztien arrazoi gordea,  
nora ote dijoan denbora aldakorrak daraman bidea,  
daraman bidea.

Ni naiz, borrokaren erdian ilunpetan etsita  
amur ematen duen pizti bildurtia.

Ni naiz, ezerezetik ihes munduaren erdian  
ezin aurkitutako amets urrutia.

Ni naiz, irrifar bakoitzean gaztetasun  
hondarrak galtzen dituen.

Ni naiz, itsasolo haizeak gogor astintzen duen  
lainoen negarra.

Ez zaidazu...

## **NI NAIZ NAIZENA** (Delirium Tremens)

Haur bat bakarrik ez nintzela  
uste nuen denok bezela,  
zerbait lortzeko erabaki bat  
bakarrik hartu behar zela.

Denborak erakutsi dit  
gauzak ez direla horrela.  
Eta hemen nago ni ere pringatzen  
zuek danok bezela.

Eta ni, naiz naizena.  
Ni, naizena naiz.

Ni naiz naizena,  
bat gehiago denen artean  
nahiz eta pixkat berezia nahi izan.

Ni naizena naiz  
nire akats eta guzti ez daukat  
nortasuna azaldu beharrik.

Ni naiz naizena, ni naizena naiz.

# **NI POETA KAXKAR BAT NAIZ** (Imanol)

Ni poeta kaxkar bat naiz  
ta kolore urdinez  
eskribitzen dut gauez,  
desio irrixtakorrak  
itsuturik doaz ihes  
gauaren leize-zulora,  
mundua azpikoz gora,  
dena jartzen dut aldrebes.

Zure lurralde oparoa ikusmiratzen dut lehenik  
gauaren zirrikutik zelatan eta haragiz koloreztatzen  
zure gorputzaren figura irudimenaren ispiluan,  
zure sabel borobilaren maldan behera amilduz.

Zure lurralde zabala indarrez goldetuz,  
denbora joanen herdoilak akestutako zure desioak  
zorrozten ditut, zorrozten ditut eta zorion-hazia botatzen  
etorkizun lainotuaren tartean oraino esperantza murriztuaren  
ildoaz luzatuz.

Nahiaren uholdeek bortizki astintzen naute  
ilunaren tintontzian hustutzen ditudan arte.

Ametsak gordintzen ditut gau grinatsuaren labean  
eta gero, eta gero, eta gero ixiltasun hezetuaren arnasa  
ezinaren eskaparatean gandutzen da doi-doi.

Azkenik, ixiltasun bustiaren oihartzun mutua  
bilutsik gelditzen da gau ilunaren apalean  
eta nik, eta nik, eta nik azpildurak josten dizkiot  
loak hartu arte.

## **NIREKIN** (Gozategi)

Emoixtaxux muxutxuek maitie.  
Hartuixu guruxun guztixe.  
Eroaixu bixotz tristie,  
zure bixotzarekin.

Emoixtazu porrutxue sorgine,  
ahatetxu baten berdine.  
Begitxu gorrixen samine,  
sendatuixu nirekin.

Oinak hotz gabien, berbak irratixen  
bero pixka bat gure neuke.  
Berbaixu bajutxu, eskuek helduixu  
ez utzi laztanik eiteke.

Gero esnatzien lagaeixu etxien  
Zure marrubi usaintxue  
ta ez eixu pentsa ez dela erreza  
gauza politxek pentsatzie.

Emoixtaxux muxutxuek...

## **NIRE FURGOI BELTZA** (Ruper Ordorika)

Lurrunak ez du oraindik kristala estali  
eta gogaitua nago honez gero autobusarekin  
eguraldiaren berri irratian eta zer dio alu horrek:  
Galdu zintudanetik.

Nondik nora datorkidan orain zure oroimena  
arraia laranja kolore beltza faltan ditut  
estazioetan ematen geroztik orduak:  
Galdu zintudanetik hutsean ari  
alperrik nabil , galdu zintudanetik.

Teloia jausi ta mikroak bildu  
gauetz etxaldera bakarrik zurekin  
herdoila seinaletan lo,  
hau bakarrik ibiltzearen ordaina  
galdu zintudanetik.

Behar bezala ez nabil ez aparta gintuztenetik  
non lo egin dezaket, esan zure altzoan izan ezik.  
Non gitarra gorde, erretzekoa, hau mixeria latza.  
Galdu zintudanetik neure furgoi beltza  
arraia laranjaz saldu zintudanetik.

## **NIRE POESIA** (Rogelio Botanz)

**Nire poesia oso merkea da.  
Herriaren ahotik hartu nuen debalde,  
eta debalde ematen diot herriaren belarriari.**

Nik ere ba dut nire egia.  
Eta bankero jaunarenak  
bezainbat edo baino gehiago balio du.

Nire poesia...

Munduko gauza guztiak gastatzen dira.  
Gastatzen da osasuna, maitasuna, deseo,  
Bizioa, gutizia, bizia, eta errezen gastatzen da.

**Munduko gauzarik iraunkorrena, gogorrena, dirua.**

Nire poesia...

Inork badio: nire etxean ez dago bakerik.  
Bila beza bakea auzoko etxean  
edo munduko bazterrik azkenean.

Baina etxea bakean balu,  
ez dezala gerrarik inon bila  
bakea eta etxea galduko baitu  
munduko bazterretan.

Nire poesia...

# **NI ZAIN GERATUKO NAIZ** (Deabruak Teilatuetan)

Zein luze trenaren karrilak.  
Zein luze zuri agur esatian.  
Zein luze, zein luze...

Zein labur zurekin egunak,  
oso labur orduak zure onduan.  
Baina bizitza halakoa omen da,  
joan ta etorri, etorri ta joan.

Ni zain geratuko naiz desiuak zenbatzen,  
ia zure begitan esnatzen naizen.

Eta bien bitartian galduko naiz berriz ere  
betiko tabernetan, gaua edanez.

Ni zain geratuko naiz desiuak zenbatzen,  
ia zure begitan esnatzen naizen.

Ni zain geratuko naiz desiuak zenbatzen,  
ia zure ezpainenetan berpizten naizen.



# NOIZ ITZULIKO ZARA (Hesian)

Beti berdin,  
iraganean preso bizi gara  
lurrera begira.  
Bihar ere,  
berdina pentsatzen  
jarraitzen badut.  
Noiz ikasi ko dut?

Hitzak, etorkizuna  
Bide laguna, itxaropen bizia.

Noiz itzuliko zara?  
Galdetzen diot gaur nere buruari.  
Non da zure irria, non zure abestia?  
Bihotzaren taupadek  
esan didate alboan zaitudala,  
iluntasun honetan ilargia zarela.

## **NOLA GALDU** (Anari)

Nola bizitzaren ur ertzean hondarturiko balea hura nola jaten eman eta esku-ahurrez ureztatzen zuna bere aldean berarengan itsu ta garbi sinesten zuna balea atera zen ta zu han geratu zinen eskuetan ura.

Eta orain zaintzen zaitut urrunetik begira ni lehorrak itotzen nau ta zu berriz urak.

Dena da horren erraza hasten baina horren nekeza hazten eta gero berriz ia ezinezkoa ahazten.

Eta orain zaintzen zaitut...

Zuk aurkitu zenulako nik bilatu nahi ez nuna baina nola ez dun beti jasotzen ereiten dunak.  
Zuk aurkitu zenun lehen nik bilatu nahi ez nuna baina nola ez dun beti jasotzen ereiten dunak.  
zuri ikasi nizun nik dakidan gauzarik baliotsuna baina nola ez dun beti jasotzen ereiten zaitunak.

## **NON DA MUGA?** (Biren)

Non da muga? Non da muga?  
Non da muga, aaa? Non da muga?

Itsas ilunean txalupak  
zeru magalean izarrak  
ta biak beltz, ta biak beltz,  
biak beltz, biak beltz,  
zerua eta itsasoa  
eta biak beltz, biak beltz.

Non da muga? Non da muga?

Eta biak argi, eta biak argi  
txalupak eta izarrak  
ta dena bat, ta dena bi.

Non da muga? Non da muga?  
Non da muga? Non da muga? Non da muga?  
Bustia eta lehorraren artekoa  
beharra eta nahiaren artekoa  
naizena eta zarenaren artekoa.

Non da muga? Non da muga?

Orain ilun dago eta ezin bereizi  
egunak argitu arte.  
Orain ilun dago eta ezin bereizi  
egunak argitu arte,  
eguzkia irten arte, irten arte,  
eguzkia irten arte.

# **NON GERATZEN DEN DENBORA** (Mikel Urdangarin)

Gure baitango lurraldeetan,  
non geratzen den denbora,  
non ez dagoen arnas biderik,  
non ez goazen inora.  
Non oihukatzen hurbiltzen garen,  
erraldoiaren ondora.  
Igo nazazu nire mendira  
zure gailurretik gora.

Egunez zu bizitzera arimak zenbatzera,  
lotan nabigatzera elur gazietan.

Igo nazazu nire mendira  
aurki dezadan bidea.  
Askatu nadin zure loturaz  
behar dezadan airea.  
Ez nadin izan jainko lurtiarra  
bai ezinen bidaidea.  
Igo nazazu nire mendira  
zu ez baitzara nirea.

Egunez zu bizitzera azken mugen ertzera  
lainoen agurtzera elur gazietan.

## **NOR DA?** (Ruper Ordorika)

Nor da gogoan daukazuna, nor da?  
Lo aurreko zure instanteen jabe, nor da?  
Bihotzean daramazuna, nor da?  
Zure begietan gorderik, nor da?  
Nor da gogoan daukazuna, nor da?

Tangerreko argi urrunak,  
ez dira aski zu ikusteko.  
Mendebaldeko haizea leuna,  
nahi nuke nik zu ezagutzeko.  
Nor da gogoan daukazuna, nor da?

Zuri buruzko galdera denak,  
urtu zaizkit eguzkitan.  
Amodioa ikusi dut gaur,  
zure leihopetik pasatzean.

Nor da gogoan...

# NOR NORI NORK (Gozategi)

Eusko Jaurlaritzak dio,  
dirurik ez dagoela.  
Baina zer kasualitate  
gurea falta zaiela.

Baina, laister ikusiko dute, joder  
potrotaraino gaudela, joder  
potrotaraino gaude.

Nor-nori-nork,  
baldintza ta subjuntibo, joder!!  
baldintza ta subjuntibo, joder!!  
baldintza badakigu.

Ertzainek erosi dute,  
kriston helikoptera.  
Baina zertako nahi dute,  
holako aparatua?

Baina...

## **NORA** (Izaro)

Inoiz kontatuko badute nire istoria,  
zenbat hondar aletan kabituko da nire memoria?  
Inoiz kontatuko badute eman dudan guztia,  
zenbat eman dudan kanpora?  
zenbat eman dudan barrura?

Jakin nahi nuke ze usain duen itsasoak barrutik.  
Ilargi guztiak agertu arte zurekin dantzan egin.  
Biluzik ispiluari keinu txiki bat egin  
Zer ikusten dudan kanpotik?  
Zer ikusten dudan barrutik?

Ez dezatela esan maite ez nintzenik.  
Ez dezatela esan maite ez nintzenik.  
Ez dezatela esan maite ez nintzenik.  
Ez dezatela esan maite ez nintzenik.

Inoiz kontatuko badizut nire istoria,  
zenbat hondar aletan kabituko zait nire memoria?  
Inoiz kontatuko badizut izan naizen guztia.  
Jakingo al dut kontatzen zein den egia?  
Jakingo al dut kontatzen zein den egia?

## **NORA** (Nøgen)

Lara, lara, la, hey, oooh, hey!!

Lara, lara, la, hey, oooh...

Beldur pauso bakoitza kontatzen etorri naiz.  
Bideak esango didanaren zain azkeneko aldi batez.  
Ezerri helduko banintz zutik itzuliko al zinake  
eguzkia joan baino lehen.

Lara, lara, la, hey...

Do you think you are alone in this?  
You are made of stone, you may not fear.  
Esku hutsik zatozen arren, gora gora gora!

Do you think you are alone in this?  
You are made of stone, you may not fear.  
Esku hutsik zatozen arren, gora gora gora begira!

Zauriz hazi ta minez hezi den norbera sena  
Kemena du zinez ederra, baina iluna izanez.  
Zergatik, zergatik, zergatik!!  
Eta azkenean ez dezu ezer egin...

Lara, lara, la, hey...

Do you think...



## **NORAEZEAN** (Izaki Gardenak)

Ez askatu, labirinto honetan  
nire itsuaurreko zoaz.  
Eta beldur naiz  
amildegi ertzean  
salto egiteko gogoaz.

Sena guztiz galdu duten  
tximeleten antzera,  
itsasertzetik hodeiertzera.

Sena guztiz galdu duten  
tximeleten antzera, hodeiertzera.

Aurrera goaz,  
iragana atzetik jarraika dugu, maitea.  
Eta, ezinbestean,  
azkenik iritsi gara amildegi ertzera.

## **NORBAITEK DIO** (Anje Duhalde)

Norbaitek dio: "nahi dut hitz egin"  
baina kasurik ez du nehork egin;  
astirik eza edota beldurra ote?  
Hetsi dituzte leiho eta ate.

Norbaitek dio: "nahi dut ulertu"  
ta denak dira isilik gelditu;  
ulertzailerik ez baitago hemen haizu,  
ez pentsatzea hobeagoa duzu.

Hau eromena, hau eromena,  
berekoikeriaren dema;  
hau eromena, hau eromena;  
setiatu dute sormena.

Norbaitek dio: "nahi dut maitatu"  
baina erotzat dute orok hartu;  
maitasun hitza hemen ez da ezaguna,  
barka, baina oker zatoz laguna.

Norbaitek dio: "ezin dut onartu",  
auzirik gabe dute kondenatu;  
bortxaren aurka nola altxatu haiz, lagun,  
ilunpean behar duk orain iraun.

## NORK DAKI (Morau)

Nork daki non izango zaren hau idazterakoan.  
Pobreen patua jakin badakizu.  
Nire osaba batek hiru auto ditu eta langilea dela dio.  
Nire osaba batek hiru auto ditu eta langilea dela dio.

Hala ere, pobreak maitemintzen gara aurrezki kutxen pozerako.  
Plastikozko eraztunak, bi aste Benidormen.  
Enpresarien putetxeak betetzen dituzten maitzaren lehenean.  
Enpresarien putetxeak betetzen dituzten maitzaren lehenean.

Coca cola lata bat, coca cola lata bat...  
...baino gehiago ote da utopia!  
...baino gehiago ote da utopia!  
...baino gehiago ote da utopia!  
...baino gehiago ote da utopia!

Nork daki zertan ibiliko zaren etorkinen kluba  
ekonomiaren alde erromantikoa.  
Jostailuz beteta daude eskaparateak, giza jostailuak.  
Jostailuz beteta daude eskaparateak, giza jostailuak.

Coca cola lata bat...

# NORK ERRATEN DU (Mikel Markez)

Nork erraiten du ni ez naizela  
ostatuetan ibiltzen?

Bai ibiltzen, edaten, mozkortzen,  
hirugarren egunian erretiratzen.

Zer erraiten dute etxekoek  
hirugarren egunian?

Aide boxa panpoxa ordia  
orai duka erretira tenoria.

Ixil ixilik egondu nintzen  
buru begiak apalik.

Aiba nun nin dirurik lagunik  
berriro ere joanen nindaike gogotik.

## **NO TIME FOR LOVE** (Jack Warshaw / Hertzainak)

Hoiien legea guretzat apartheid,  
gartzela, ihesa, hauspena ta isiltzea.  
Hoiien legea, zu ta ni heuren gisara eukitzea  
gordeak dituzu arma ta izpien kontrako altzairu atzean.  
Eta gu, negar gasen mende gaudenok, oker omen gaude.  
Ez dute uzten maitatzen gauean...

Tortura sufritzen, zeldatan usteltzen,  
gutunak idazten eta bertan hil.  
eutsi zioten minari baina bakardadeak irentsi.  
Gorteek justizia egin zieten matoi txukunen gisan,  
maiz borrokatuak iraun gogoz, baina maizago hiltzea nahi.

Ez dute uzten maitatzen gauean, ez agurrik ez negarrik gauean.  
Ezergatik ez norarik gabe, sirena garraixi bakarra gauean.

Eraman zuten Francis Hughes gaztea  
baita haren lengusu Tom McElwee ere.  
Etorri ziren Patsy Ohara, Bobby Sands ta lagunak bila.  
Bostonen, Chicagon, Saigonen; Santiagon, Varsovia,  
Gasteizen eta Belfasten, ta beste hainbat lekutan  
hau zerrenda amaigabea.

Zatozte anaiei borrokan lagundu nahi duten guztiak.  
Gerrara ohitu zintezke baina gerra egon badago.  
Arrainak itsasoa behar du ta herriak zu behar zaitu.  
gure gogoak iraun artian ez da beldurra nagusituko.

## OASIA (Izaki Gardenak)

Nora itzuli oraingoan,  
geunden lekua bazen arazoa?  
Euren pozoinez hiltzera doazen  
sugeak baino ez gara hemen.

Sirena hotsen erritmoan  
arrakalez jositako oasi honetan.

Kalte-orbain epiko bana,  
amaieran jasoko dugun bakarra.  
Ta inguru hau bonba zelai bat da  
bizi gaituzten amets guztientzat.

Sirena hotsen erritmoan  
arrakalez jositako oasi honetan.

Gezur olde pean.

# **ODOLAK SU GABE DIRAKI** (Beti Mugan)

Odolak su gabe diraki...

Odolak su gabe diraki  
eta zainak handitzen zaizkit.  
Ez!! errukirikan ez!!  
Inorrekin, inorrekin, inorrekin  
errukirikan ez!!

Burnizko lorategian lo  
herdoila zaizu errotuko.  
Ez!! ebaketarik ez!!  
besoetan, besoetan, besoetan  
ebaketarik ez!!

Laborategian xagu zuriak  
betaurreko beltzak begi gorriak.  
Ez!! azken gutunik ez!!  
inorentzat, inorentzat, inorentzat  
azken gutunik ez!!

Odolak su gabe diraki...

# OI AMA EUSKAL HERRI (Benito Lertxundi)

Anaia etxen da ezkün tü,  
bükatü niz oain joaitera.  
Ene opilaren egitera,  
Pariserat banüazü.

Oi ama Eskual Herri goxua,  
zutandik urrun triste banua.  
Adios gaixo etxen dena,  
Adios Xiberua.

Pariseko bizitzia,  
lan khostüzuriaz bagiazü.  
Bena berantzen zütadazü,  
zure berriz ikustia.

Oi ama Eskual...

Bena denbora da llaburxko,  
othoi ama entzün nezazü.  
Xokho bat haita izadazüt,  
Azken egun horientako.

Oi ama Eskual...



# OIES ERRONDAN DABIL (Mikel Laboa)

Oies errondan dabil  
berak baki nundik.  
Karmen gerri politen  
ate ondotxutik. Oies:  
Sarritxutan errondan  
ibilli zaitekez.

Itsasoko aldetik  
dauko bentanea,  
handixek erasten dau  
Karmenek sokea. Oies:  
Dirua emon nahi ta  
inork hartu nahi ez...

## OIHUAK (Beti Mugan)

Zauriak, buru-barneko zauriak  
ezin itxi direnak.

Oihuak, oihuak entzuten ditut  
amets zahar batean.

Norbaitek oihu  
Norbaitek oihu egin du.  
Zauri zaharrak  
ezin ditut gainditu.

Kateak, olatu handiak daude  
beti iparraldean.

Arnasa, arnasa hartzea al da  
bizirik egotea?

Norbaitek oihu...

## **OI KANTA BERRI** (Anje Duhalde/Benito Lertxundi)

Oi kanta berri ixilik nago orai duela aspaldi,  
zuretzat nuen kar bero hura suntsitu ez da dirudi.  
Beste lanetan iragan ditut ainitz egun ta gaualdi,  
bainan oraino ez dut ukatu Euskara ez da Euskadi.

Oi kanta berri bihotzetikan ezpainetarat jalaia,  
Euskal airean bihotzen zaitut, zu neure mezularia.  
Jende artean izatu banaiz beresle xamurgarria,  
izan zaite zu ene partetik bakezale den xoria.

Oi kanta berri izan zaite zu anai arteko zubia  
batasunetik libertatera gidatzen duen bidea.  
Kartzelan den abertzaleari emozu doi bakargia  
etsiturikan den bihotzari esperantzaun bizia.

Oi kanta berri gure herriak behar du bide eta zubi,  
etxetan ere baitezpadako argiarekin, ur garbi.  
Horiek denak ez dire aski bizi badien Euskadi,  
hainbat oraino beharko ditut kanta bat eta kanta bi.

## OI! PELLO PELLO (Mikel Laboa)

Oi! Pello Pello logale nauk eta  
jinen nizan ohera?  
Irun ezan eta gero gero gero  
irun ezan eta gero gero bai.

Oi! Pello Pello irun diat eta  
jinen nizan ohera?  
Astalka zan eta gero gero gero  
astalka zan eta gero gero bai.

Oi! Pello Pello astalkatu diat eta  
jinen nizan ohera?  
Harilka zan eta gero gero gero  
harilka zan eta gero gero bai.

Oi! Pello Pello harilka diat eta  
jinen nizan ohera?  
Jos ezan eta gero gero gero  
jos ezan eta gero gero bai.

Oi! Pello Pello josi diat eta  
jinen nizan ohera?  
Argia dun eta, bihar bihar bihar  
argia dun eta, jinen niz bihar.

# OINAK LURREAN (Izaki Gardenak)

Hau da urte berria?  
Beti bezain zahar darrai.  
Minez eta higuinez esnatu naiz.  
Egia handiegia irensteko ez naiz gai  
zalantzak prest dauzkat noiznahi.

Beldurrari beldur,  
ametsak ondo mugatu  
Itacak mapatik kendu.  
Sinetsita dugun zerutik  
ezin zaio zeruari...

Oinak lurrean beti,  
hori agindu digute  
eta guk indarrez bete.  
Hain gogor ezen gorputza  
astiro hondoratu den  
lurpean bizi arte.

Beldurrari beldur  
ametsak ondo mugatu  
Itacak mapatik kendu.  
Sinetsita dugun zerutik  
ezin zaio zeruari...

Otsoek hezi gaituzte  
isiltasuna goratuz,  
geldi egotea eta  
egonkortasuna nahastuz.

## OINUTSIK (Lurra)

Maite ditut zure oinutsak  
lurrez zikin jantzita.

Maite ditut zure oinutsak  
lurrez zikin jantzita.

Gustuko ditut zure oinak.  
Gustuko dut haiek magalean eukitzea  
katutxo izutuak bailiran,  
katutxo izutuak bailiran.

Maite ditut...

Hondartzetako kristal izkutuek  
utzitako orbainen orijinaltasuna,  
eta zure behatzek  
hamar izateko duten ohitura.

Maite ditut...

# ORAIN (Peiremans +)

Hamasei urtetan  
langile prestua izan zara,  
beraz eskerrik asko,  
ez dugu ahaztuko.  
Zure leialtasuna  
eredugarria izan da,  
beraz eskerrik asko,  
ez dugu ahaztuko.

Eta orain nahi duzuna  
egiteko libre zara,  
kalean zaude baina  
zure nagusia orain zu zara.  
Ta krisian bazaude  
zure burua kalera zenezake,  
ze orain nahi duzuna  
egiteko libre zara...

Orain, orain, orain,  
orain, orain, orain, orain,  
orain, orain, orain, orain.

## ORAIN BAI (Sorotan bele)

Hilabeteak pasa ondoren,  
azkenik ohartu nintzen.  
Zu zinela nire bihotza,  
zu zinela nire amets.

Maitasunezko joko hauetan,  
ni ez naiz oso trebe.  
Hanka sartzea lortzen badut,  
su emnago naiz hemen.

Abestiak dion bezala,  
"zer egiten nagoen".  
Maitemindu naiz hemen bertan,  
ni konturatu gabe.

Zigarro bat piztu ondoren,  
ez nago askoz hobe.  
Hobeto sentituko nintzen,  
txilibitua jotzen.

Aspalditik ez nintzela egoten,  
neska batekin ergel.  
Azkenik iritsi da eguna,  
eta ez nago batere prest.

Goizeko ordubi t'erditan,  
abesti hau jaio zen.  
Nire kontua inork ez daki,  
nola bukatuko den.



# ORBAIZETAKO ARMA OLAREN KANTUA

(Benito Lertxundi)

Orbaitzetako arma-olaren hor ma zaharrak  
suzko ekaitz dardartsu guziak jaurtikiaz jasanik,  
kondaira urratu baten ezaugarri bezala,  
xoilki, bakardadean geldituak.

Beren baitatik ohizko bidean erreka iheskorra badoa,  
harriez maitemin eta lehen-minez eten gabeko joanean,  
hezetasun orlegiz itzala jauntziaz,  
eta uraren murmurio zoroak  
hantxe du aurkitzen oihartzunaren lillura.

Nortasun sarkorra darion yaure sendoa,  
gure nahi eta ezinezko izate aurtsiaren irudi apurtua.  
Zahartuaegia dagoen gure ez izatearen mina  
ixurtzen ari den sabel sofritua.

Eta eguneroko bakardadean, ixil ixilean,  
nehor ere ohartu gabea, suzko, burdinezko, zizpazko  
oroitzapen zaharrak kopletan jalgitzen dira,  
hormetan erroak dituzten zuhaitzetan gora...

Oroitzapen zaharrak kopletan jalgitzen dira,  
eta basoilarrak kantatzen du Iratiko basoan!!

## OREINAK (Anari)

Behin izan zinenaren eta izango zarenaren artean begira duzun testigu bakarra zeu zara. Isilean galdu dituzun gerra guzti horiek denak eta zugar oraindik ikusi nahi ez duzuna, horiek denak.

Ihes egiten diozun eta jarraitzen zaituen horren artean bizi zara. Bide ertzeko seinaleetan bizi diren orein horien antzera.

Beraien bizitzatik behingoz salto egitera ausartzen ez direla eta denborarekin oraindik ez hura bihurtu zen honezkero ez hartutako erabaki gabeko erabakiz.

Isilean desagertzen diren espezie horien antzera itzaltzen ari zara, bera korrika ta zu berriz oinez. Minik egiten ez duten zauri horiek, marraztu dizkizuten parentesien artean bizi zara.

Mapa zahar bat zara eta zure basoetan barna oreinak ihes batetik bestera kotxeko argien artean. Eta zuk zeure burua behin nola harrapatu zenuen oinaze hura ospatzen.

Orgasmoei darraien tristura pizti horren zati bat baino ez bada ere, egun hartan zerbait ulertu zenuen.

# OREKA EZINA ZEN INDIBIDUO BATEN

## AZKEN PENTSAMENDUAK (Kerobia)

Aire erdian mantentzen den  
ur bolumen kubiko batetan  
salto batez haraino iritsi  
eta bertan hondoratzean  
hegan egiteko ametsa  
bete zezakeela pentsatu zuen...  
Uuuuuuuuuuu, ieeeeee...

"Gorputza inerte utzi dut  
oreka lortuko zain nago,  
geldirik egon ez gero  
beheruntz amilduko naiz,  
beste aukerarik gabe,  
lurra jo besterik ez dago", pentsatu zuen.

"Jakin izan bazenu nola den  
horren orekaezina sentitzea,  
argitu gabe geratuko da,  
tristezi edo zorionaz izan den".

Atlantiko erdian hondoratzen den  
kristalezko kubo batean  
ikusi zuen bere burua  
"ez da argirik, hotza dago  
baina oraindik arnastu dezaket", pentsatu zuen.

## OREKARIA (Mikel Moreno)

Erortzen argitu zen eszena,  
lurzoruan makuluak ez dira behar.  
Behin batez galdu zenun oreka  
behin betiko, irailan, behin betiko.

Abian, laino artetik abian,  
kometa bat antzeman eta esan zenion.  
Zein dira zein zure sekretuak  
haizearen sorbaldan ezartzeko?  
Orekan goruntz egiteko?

Igo. Igotzeko. Orekari igo. Igo.  
Ikasi zenuen bizitza eskuekin hartzen.  
Ikasi zenuen hiltzen! Maitasunez hiltzen!  
Hiltzen! Ostera berpizten!

Baina oraindik irailean,  
oraindik zaude berregiten.  
Irailan zaude. Irailan zaude.  
Behin betiko erortzeko.  
Behin betiko erortzeko.

## ORFIDENTALAK (Anari)

Bizi zaituen animalia izu hori  
zeru gorri baten pean mundua gurutzatzen.  
Azazkalak, ilea eta beldurrak  
baino hazten ez zaizkizuna animalia horrek  
bere bizkarrean idatzita daramatza  
laztanez eta harramazkaz itzalen izenak:  
Gizon eta emakumeenak, leku eta egunenak  
denak ederrez eta minez.

Izen horiek denek osatzen duten zerrenda  
zuk kaltetuen zerrenda, zuk eta zeu ere.  
Behin geuk eraikitako ametsen eraiste neurtuak,  
desertzio, desertuak, larrialdietako deiek  
denak banan-bana zure aurrekari penalak:  
zeru gorriak, oreinak eta orfidalak  
gehiegi luzatzen diren salbuespen egoeretarako  
emerjentziazko planak.

Denak banan-bana, zure aurrekari penalak:  
makrojuizio intimoak, sexua, heriotza eta orfidalak;  
gehiegi luzatu ziren salbuespen egoeretarako  
emerjentziazko planak.

Eta zuk bizitza deitzen diozun bide horrek,  
zuri beti sasitu izan zaizun arren,  
bere ederrak eta minak idatzi dituzten  
zure aurrekari penalak, guzti hoiek:  
zeru gorriak, oreinak, desertu ta maitaleak  
horiek denak bizkarrean karraio daramatzen  
animalia izu eta ederra zara.

## **OROIMENeko PORTUA** (Imanol)

Ifar aldeko portu zaharra ekar dezagun kantara:  
kale bustien sentimendua, edalontzien ikara.

Marinelen hitz arrotzak baina ginebra onaren dirdira,  
gau biluzia sartzen zitzaigun begi zabalen ninira.

Gau erdiaren eremuetan laban ahoak airera:  
izar isilen argi azpian odol beroa lurrera.

Txanpon berriez erosi eta amodioen jokora,  
ohe estutan etzaten ginen itsas lamien altzora.

Kanta lizunen alegrantzia, akordeoien tristura:  
ez gara egundo, ai!, itzuliko oroimeneko portura.

# **OROITZEN ZAITUDANEAN, AMA** (Mikel Laboa)

Oroitzen zaitudanean, ama  
sukaldean egoten zara  
mahaia bostentzat iminita.

Aulkian eseri eta leihotik begira,  
kristala lausotzen duen  
lurrina kendu gabe.

Eta nik badakit,  
zeure begien hondoan nagoela.

Eta nik badakit,  
zeure begien hondoan nagoela.

# OSPAKIZUN GAUEAN (Benito Lertxundi)

Ospakizun gauean nahasmenak zurgatua  
oker galderei erantzun bila zebilen otzandu gogoa,  
erantzun bila zebilen otzandu gogoa.

Ezagun bideetako zoldak hartua,  
beldurraren aurpegi zurbila hilotz haizea bezala,  
hilotz haizea bezala, sartzen zitzaion bihotzean.

Ta ezagutza ez dela jakintza ulertu zuenean.  
Ta ezagutza ez dela jakintza ulertu zuenean.

Besteen bideetan ibiltzea da ezagutza.  
Berjabe gogoaren kontzientzia.  
Berjabe gogoaren kontzientzi ta jakintza.

Aski da desikastea barne sena loratzeko.  
Aski da desikastea arrotz bideak uzteko.  
Aski da desikastea oro arimaren lurrinak.



# ORREAGA (Benito Lertxundi)

Zuhaitzetan den ederrena da  
oihan beltzian pagoa...  
Orreagako mendi gainetan  
badabil euskal-gogoa:  
Galernen eta gerlen artetik  
mendetan barna xut doa,  
pagadoietan ixi lik kontuz  
Europakoen gero a.

Zenbat gerlari, sarraskiz gose,  
odolez eta suz hordi,  
Europatarrak zanpatu nahiz  
iragan denik horgaindik!  
Ibañetako mendi lepoa  
heietaz mintza baladi,  
aipa letzazke lehen-lehenik  
Arrolan eta Karlandi.

Buru-gabetu, bihotzez hustu  
jendalde lehertuekin,  
mundu guztia nahiko zuten,  
beren azpiko bategin.  
Euskal jendeak, denen gatik xut,  
gogor jeikitzen du Jakin  
mendi gain hautan, burua gora,  
gizonak gizon dagotzin.

Indarkeriak ezarri mugak  
kraskatzen hasi orduko,  
Euskal gogoa noiz da  
jauziren arranoaren pareko?  
Azpilkueta bezein kartsuko  
eta jakintza gaitzeko  
gizon libroak noiz ote dire  
Orreagatik jaliko?

Zoin den pizgarri mendietarik  
jauzika doan xirripa...  
Euskal-semeak, Aiten gogoa  
bihotz guziaz hurrupa!  
Altxa burua, denek bat kanta:  
Euskal Gudua gaur aipa:  
Entzunik zuen irrintzina,  
xutik jar dadin Europa!

# OSTATUKO NESKATXAREN KOPLAK

(Oskorri / Joxe Austin Arrieta)

Isildu zaigu eguna  
larre ondoan asuna  
zure gomuta saminagoa  
bihotz nereko kutuna.

Belar gainean bildotsa  
haizeak leun du hotsa  
etsai-urratsen zarata hitsa  
gorrotoaren ostotsa.

Oilarrak harro kalparra  
zezena ez da koldarra  
Espaina aldean preso daukate  
nire senargai zangarra.

Eder basoan haritza  
pagoa lerdin bortitza  
bazter hauetan zenbait  
jaunskilok  
errez jan ohi du bere hitza.

Ibaia dator uholde  
haizea uraren golde  
euskal andra gizonen odola  
ez da ixuriko debalde.

Sagarrak daude ustelak  
mikaztu dira upelak  
lehengo aldean orain gara gu  
abertzale txit epelak.

Eperra garitzan kanta  
ehizeko zakurra zaunka  
teilatu gorriari dario  
nigar eta odol tanta.

Udako sasoiak uzta  
larrean eder irusta  
nire bularra zik laztan ezik  
ximelduriko masusta.

Artoa zaigu zoritu  
sagarrondoak gorritu  
zu noiz itzuli itxaropena  
ez zait gogotik akitu.

Euriak mardul dario  
elurrak dirudi liho  
nire bihotzak ez dezaizuke  
sekula esan adio.

Usoak dira igaro  
basoak dirau oparo  
nire magal gozoa dukezu  
zatozkenean abaro.

Zelaiak badu hesia  
ereina dugu hazia  
nire erraietan ernatuko da  
askazi ezin-hezia.

## OSTONDU SAKON POZA (Katamalo)

Ostondu sakon poza,  
bila dabilta, diotenez,  
mila polizia inguru.  
Mozorrotu trapu zaharrez  
ostatzean, seguru,  
minez behar dute goza.  
Minez behar dute goza.

Ostondu sakon poza,  
badatozkizu usnaka.  
Ospela eta bekaitza,  
bi hankatan edo launaka.  
Harri ta guzti dator ekaitza  
epeldu ezina izango da hotza.

Ostondu sakon poza,  
zure antzeko malerusik  
ez du nehork ezagutu.  
Malkoak ez dizu egin hutsik,  
ezin euripean lehortu  
pozminez duzun bihotza.

Ostondu sakon poza,  
zaude betiko atezuan.  
Lokartu barik atzarri  
dantzatu zaitte atzeskuan.  
Ez diezazutela igarri  
zoriontsu denaren lotsa.  
Zoriontsu denaren lotsa.  
Ostondu sakon poza.

## OTZANAK (Anari)

Geratu ta ibil naiteke mila kilometro zero,  
baso, erreka, zelai ta belazeak zeharkatu.  
Gauaren luzea ibili eta egun argiz ezkutatu  
hankak odoltzeraino neure mugak marraztu.  
Baina beste behin ere aldatu dut  
munduaren azalera zure azalarengatik  
nire harramazka zakarrak zure laztan barengatik  
eta neurea ez den itzal bati betirako lotu.

Lo zaudela imajinatzen dut ze animalia ginatekeen gu  
zuk jango nindukezun edo nik jango zintuzkedan zu  
nor noren harrapari, nor noren zelatan  
gure eremu babestua den honen mugatan  
edo isilean desagertzen doan  
espezie bereko bi piztia etzan  
elkarri itzala janez, elkarri hitzak janez  
elkarrekin desagertuz isilerantz...

# PAKEAN UTZI ARTE (Hertzainak)

Non bizi zen? Nondik zebilen?  
Noiz egin zituen etsaiak?  
Inoiz zoriontsua izan zen?  
Zer pentsatuko luke gutaz?  
Zerk ematen zion indarra?  
Ez gehiago bueltarik eman  
dakigu galtzen ditugunean.  
Egun batzuk horrela dira  
ahal dakigu gure heroen izenak?  
Joan gaitezke haien hiletara?

Periodiko guztietan, lehen orrian  
hilotzaren hondarrak karraxika.  
Estatuari gerra, gerra beti!!  
Pakean utzi arte, utzi arte.  
Pakean utzi arte, utzi arte.

Maitasuna ederrena ba da,  
zergatik hortaz iluntzian  
askatasunarekin larrutan?  
Maitale arriskutsuegia da  
hortik ibiltzeko kontutan.

Ez zeok bueltarik eman behar  
jazo behar dena jazo data,  
ez da inor onik denentzat.  
Nork ez du maite askatasuna  
nahiz ta leher dedin esku artean?  
Ezin zaitut begira gehiegi da  
hilotza karraxika etengabian.

## **PARADISU ZINEMA** (Joxe Ripiau)

Txikitan, maitasuna,  
erreprimitu egin ziguten.  
Pelikularen zati hori  
lagunek moztu ziguten.

Paradisu zineman ikusiko gara.  
Leku hau ametsak forjatzen diren  
materialarekin egina dago.  
Paradisu zineman ikusiko gara.  
"Alemaniarrak grisez jantzita eta zu urdinez..."

Oraindik ez da berandu  
xamurtasunari toki bat egiteko.  
Zabor-ontzira botatako musuak  
berreskuratu behar ditugu, maitia, maitia...

Paradisu zineman ikusiko gara...

## **PARIS** (Izaro)

Amets goxoak izan ahal dala nerekin, ahal dala Parisen.  
Soineko urdin batekin zuk hitz egin bizitzaz, zureaz ta nireaz.  
Hiru ordu joan dira zure eskuei begiraaaaa.

Dantzan, dantzan, muxuen hondartzan  
Notre Dameko plazan.  
Dantzan, dantzan, arimen balantzan  
Notre Dameko plazan.

Hartu zaitut besotik, oso gertu nigandik.  
Elkar eramateko ibai aldamenetik.  
Akaso ez dizut esan maite dudala  
bizitzak zure begietan egiten duen isla.

Dantzan, dantzan...

Galdetu, esan, ez geratu zalantzan.  
Zenbat maite zaitudan dantzan, dantzan  
Notre Dameko plazan, dantzan, dantzan...

Galdetu, esan, ez geratu zalantzan.  
Zenbat maite zaitudan dantzan, dantzan.  
Zena zen, ta Sena da.

Amets goxoak izan ahal dala nerekin, ahal dala Parisen.  
Soineko urdin batekin zuk jarraitu hizketan  
nik muxuak kopetan, zer egongo ote zaren zu amesten benetan.

# PASAIKO HERRITIK (Herrikoia / Mikel Laboa)

Pasaiako herritik dator notizia,  
zezen bat izan dala jeniyoze bizia.  
Kantatuzera nua bistan ikusia,  
alegratzeko triste dagoen guzia.

Santiago eguna Pasaian siñale,  
allegatu eztanak egin beza galde,  
Hasiyeran jendiya zezenaren alde  
azkenean etziran arrimatu zale.

Lendabizi plazari eman diyo jira,  
ate baten ondora joan da enseguida.  
Al duenak igesi bestiak erida,  
obia dalakuan engañatu dira.

Torillotik atera zuten lehendabizi,  
bei zar bat giyariya bandera ta guzi.  
Harrapatzen zuena purrukatzen hasi,  
azkenean kanpora plazatik igesi.

Gure Pasaia beti sonatua dago,  
errapiñ gabe ezta urte bat igaro.  
Hurrengoan jarriko dituztela nago,  
barrerak hestu edo zezena handiyago.

Hiru komertziantek plazatik kanpuan,  
poxpolo ta barkillo labaña tratuan.  
Pareta egon arren hamar oñ altuan,  
panparroi pasatu zen putzura saltuan.

Hoiek horrela eta gehiago ere bai,  
lurrian ziraldoka egin zuten lasai.  
Ezkonberriak eta zenbait dama galai,  
zezenaren mendian etzuten jarri nahi.

Plazatik itsasora salta da igeri,  
adarrak besterikan etzuen ageri.  
Bakerua begira bere zezenari,  
eserita jan ditu hiru libra ogi.



## **PEDRO MAYO** (Joxe Ripiau)

Alza la mano si te gusta el chocolate.  
Alza la mano si te gusta el chocolate.

Pedro Mayo, beti lanian.  
Pedro Mayo, eskua beteta.  
Pedro Mayo, besondo usaia.  
Pedro Mayo, berriz itzali zait ba!  
berriz itzali zait ba!  
berriz itzali zait ba!

Beti postura berdinean  
esku bat sakon eginda  
bestia gainean  
eta filtrua belarrian.

Pedro Mayo...

Kostua besterik ez du erretzen  
bere gurasoek ez dute ulertzen  
zipiak bere atzetik dabiltz  
ez dio inori kalte egiten baina.

Pedro Mayo...

## **PELLO JOXEPE** (Herrikoia)

Pello Joxepe tabernan dala,  
haurra jaio da Larraulen.  
Etxera joan ta esan omen du,  
ez da nerea izanen,  
ama horrek berak topa dezala,  
haur horrek aita nor duen.

Ai, hau pena ta pesadumbrea,  
senarrak haurra ukatu.  
Haur honentzako beste jaberik,  
ezin nezake topatu.  
Pello Joxepe, bihotz nerea,  
haur horrek aita zu zaitu.

Fortunosoia nintzela baina,  
ni naiz fortuna gabea.  
Abade batek eraman ditu,  
umea eta andrea.  
Haurra berea bazuen ere,  
andrea nuen nerea.

## **PILOTA EUSKAL JOKOA** (Erramun Martikorena)

Pilota, zure bidez orok euskaldunak  
bagarelako famak dituzte entzunak;  
zuk eginak gaituzu denen ezagunak,  
asko zor dautzu zuri gure nortasunak.

Zabaldu bazaituzte hemendik mundura,  
muga gabea bada zure hedadura,  
eskerrak ez daizkela erraiten mentura  
zu etzarela gure iturriko ura.

Beha pilota bati jo ta jo bi talde,  
denak beren nortasun osoaren jabe,  
gorputzaren nekez arduratu gabe,  
pilota daukatela otoitzaren pare.

Nork daki zonbat gogo han ote dabilzan  
gure pilotarien so baten peskizan?  
Gazte dohatu hoiek hartzen diren gisan,  
nork ez luke nahiko pilotari izan?

## **PIRATARENA** (Joxe Ripiau)

Haizeak landatzen dituenak  
ekaitzak jasotzen ditu.  
Horregatik tabloitik behera  
bota dugu kapitaina.  
Ondoren, kanoiak prestatuz  
herriari eman diogu sua.

Eta hau dena, zure begiak  
ikusi nintuelako segundu batez.  
Eta hau dena, zure ilea  
ikusi nuelako segundu batez.  
Eta hau dena, zure begiak  
ikusi nintuelako segundu batez.  
Eta hau dena, zure ilea...

Hamaika altxor lapurtu ditut  
kapritxoz bizitzak moztu.  
Kolonietako gobernadoreak  
dilindan ipini ditut.

Eta hau dena...

## **PIROMANIA** (Anari)

Eguna heze esnatu zen, behe-laino batek biltzen dena.  
Hala ere eguzkiak zulatzen zuen erak,  
beste egun sargori bat iragartzen zuen.  
Horrez gain arratsean hegoak gogor joko omen zuen...

Kotxean sartu eta jo zuen mendi aldera,  
basoaren ertz banatan su ttiki bat piztera.  
Etxera bueltatu eta iluntzea heldu arte itxaron.  
Sirena hotsa entzutean leihotik luze begira egon.

Eta zuk ulertzen duzu, zeure burua ikusten duzu.  
Basoa maite duzun eran sua ere maite duzu.  
Denborak egin duen basoa, bere pizti, bere sasi,  
Zuk hainbeste zaintzen duzuna, eder eta egi izan dadin...

Baina zuk ere nola basoa adina sua maite duzun...  
Baina zuk ere nola basoa adina sua maite duzun...  
...beste inoren ertzean su ttiki bat pizten duzun.

## **PIZTIEK SOMATU GAITUZTE** (Izaki Gardenak)

Gaur ematen du ezer ez dela  
dagokion norantzan hazten.  
Esklabuek ez dute libre izan nahi,  
ugazaba izan nahi dute.

Galdu ditugu hegalak  
Berriz ere beldar gara,  
beldur garen bezainbeste.  
Piztiek somatu gaituzte...

Leihoetatik begira egon  
eta ez dizute bihotza hautsiko.  
Baina bada garrantzi gehiago duenik  
zuhur jokatzek baino.

Galdu ditugu hegalak...

## **PIZTIEKIN** (Bap!!)

Han ziutatean, argiak itzaltzen direnean  
gau beltz ustela etzait laket  
eta heriotza bera ere nigandik  
nazkatuta aldentzen da presaka, presaka!!

Hemen ilargipean xaguxarrak ezsenatokiaz jabetuz  
eta beren hegalen plaztakoak entzuten dira.  
Ondoren hanketatik, zintzilik, sapaipen lokartzen dira.

Ni ondo nago, alderantziz zuek zaudete.  
Ni ondo nago, alderantziz zuek zaudete, oihukatuz!!

Eromena ez da inoren monopolio bihurtuko  
eta horrek benetan lasaitzen nau.

Horra nire ezjakinaren zalantza paregabea  
aldiz badaezpada, bihar eguzkiaren azken izpiekin  
abiatuko naiz mendialdera, piztiekin.

# PORNOGRAPHY (Beti Mugan)

Mezulari merkeak  
egunero entzuten  
ta doluaren espermak  
ejaculates the tv set  
I don't need preaches for my life  
nere bizitza bizi nahi.

Reality shows, pornography  
ez dago aukerarik!!

Saving my perception  
solo creo en lo que no veo.  
Our mental picture of the world  
propagandatikan dator.

Your violence is my pornography.

La distorsión es la ficción,  
de una realidad mejor.



## **POSITIVE BOMB** (Joxe Ripiau)

Neure burua, Positive Bomb.  
Bilakatu nahi dut, Positive Bomb.

Neure burua, Positive Bomb.  
Bilakatu nahi dut, Positive Bomb.

Positive Bomb, Positive Bomb,  
Positive Bomb, Positive Bomb,  
Positive Bomb, Positive Bomb,...

Laralaralaralaralala,...

Pentsatu nahi dut, Positive Bomb.  
Eztanda egingo dut, Positive Bomb.

Pentsatu nahi dut, Positive Bomb.  
Eztanda egingo dut, Positive Bomb.

Positive Bomb, Positive Bomb,...

## **PRIMADERAKO LILIAK** (Benito Lertxundi)

Primaderako liliak  
goizik ziren loratuak.  
Urthe hartan gertatu zen,  
Pazko erramu baino lehen.

Gaituzte ezkontarazi  
maite ninduzun hain gutti  
Ezkontarazi gaituzte  
ez zintudalarik maite.

Ginuelarik elgarri eman biziko uztarri.  
Ezkilak zeuden ixilik nik ez baitakit zergatik.

Ez zuten egin boieran menturaz ziren Erroman;  
Ez ziren gure lekuko ez izanen bataioko.

Nonbait balinbada zeru gure haurra da aingeru  
Aingeru zeruan bainan umerik ez ohantzean.

Bihotza hotzez kaskaran nago beroaren menturan.  
Etor bedi primadera kanpoak ditene berriz lora.

Gaituzte ezkontarazi, elkarrekin behar bizi;  
Ezkontarazi gaituzte, behar dugu elkar maite.

## RADIO MARÍA (Peiremans +)

Beti zure atzetik...

Hitzez hitz dena eraitsi,  
aditzak berrerabili,  
egin senak agintzen dizun hori... beti.  
Ekiten duenak dauka bakarrik  
saiatzea sari.

Ta egunen batean, ateri denean,  
euriaz ariko gara,  
baina bitartean jarraitu bidean  
kondena ederrean.

Ta erabaki dugu ezetz,  
ez gaudela maite ez gaituztenekin  
denbora galtzeko...  
Ez gaudela maite ez gaituztenekin  
denbora galtzeko...

Egin gabe uzten dituzunak  
beti zure atzetik.  
Ez espero beste bidaidetik.  
Esan gabe uzten ditugunak  
beti gure atzetik, gure atzetik...

## RASTAMINTXO (Pikutara)

Goiz goizetik baratzera doa,  
Poliki poliki marihuana bila.  
Bere ile luzea, kolore jokoa, kolore jokoa.  
Aurpegi iluna du , aurpegi iluna du,  
gure Rastamintxok,  
gure Rastamintxok.

Rasta mintxo, tripi ta porru asko.  
Rasta mintxo, edaten kalimotxo.  
Rasta mintxo, reggae bat dantzatzen du.  
Rasta mintxooo...

Tabernaz taberna beti dabil mozkor,  
Edozein ertzetan hasten zaigu lotan.  
Eta hoberena, hoberena, ezagunei deitu  
haiek beti ez, mozkorra baitago  
mozkorra bai, mozkorra.

Rastamintxo...

## **ROCK ETA ROLLIN' (Errobi)**

Biziaren bidea deitzen genuen  
lilura eta amets sortzen baitzuen.  
Bere irudi hotsez asetzen ginen  
hain miresgarriak ziren.  
Geroztik, Union Jack, egin duk biderik  
baduk hiregatik nor engainaturik.  
Elvis ta Marilyn dituk ehortzirik  
ez duk aurkitzen biderik.  
Joan dira lilurak ta mitoak  
gure gaztetako kontuak.

Rock eta rollin' digute alde egin.  
Rock eta rollin' gure ametsekin.

Nekatuak dituk hire teoriak  
nekatuak ere hire profeziak.  
Dylanek bigundu ditik abestiak  
ez dik barkatzen biziak.  
American Way of Life, galdu duk bidea  
beldurgarria duk hire boterea.  
Onik egin baduk hor daukak ordea  
egiten dukan kaltea.

# **SAGARROIA** (Izaki Gardenak)

Nire baitan  
kiribiltzen naiz,  
nik beste inork ez dit  
minik emango orain.

Arantzak kontrako  
Norabidean  
hazi zaizkion  
sagarroia naiz.

Orbel artean  
ezkututzen naiz  
eta ez zarete iritsiko  
salbatzeko garaiz.

Arantzak...

## **SALDA BADAGO** (Hertzainak)

Gaur, beti bezala, euria ari du hemen,  
eta denok estalita goaz belarritaraino.  
Salda pixkat da behar duguna, goazen Txatora,  
edo hobe hire etxera, lasai egitera.

Ostia, hi!! berotu eskuak beste leku batetan,  
izoztu egingo naun ta... Salda badago!!

Salda badago!! Egun grisa, hotza kolean,  
negu gogorra herri puta hontan.  
Bizitzak emandako plazer txiki hauengatik ez balitz...  
Norbait erotuta badabil hortik, gu zuzendu nahiez baina,  
bizitzak emandako plazer txiki hauengatik ez balitz...

Norbait erotuta badabil hortik, gu zuzendu nahiez baina,  
formazio uzten badu, hor dugu aukera.

Ostia, hi!!...

Kristaleen lurrunaren atzetik jendea hain hotz dago...  
Mugitu egin behar dira, berotzen hasi dira,  
batzuek zerbait esateko dute, begira txakurrak datoz!!

Egun grisa...

# **SAN SIMON ETA SAN JUDA** (Xabier Lete)

San Simon eta San Juda  
joan zen uda, eta negua heldu da.

Ez baletor hobe, bizi gara pobre  
eremu latz honetan  
ez gara hain onak benetan

Ez dugu zaldirik, ez gara zaldunak  
ez dugu abererik, ez gara aberatsak  
euskara guk dugu, gu gara euskaldunak  
euskara guk dugu, gu gara euskaldunak.



## **SARRI SARRI** (Kortatu)

Ez dakit zer pasatzen den azken aldi hontan,  
jendea hasi dela dantzatzen sarritan.  
Zerbait ikustekoa du bi falta direlako  
«Recuento generalean».

Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri,  
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri askatu,  
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, bi batu.

Irratikoak han ziren emititzen zuzenean  
paella jango zutela eta Piti eta Sarri bere muturretan  
saltsan zeudela konturatu gabeak.

Zaila dugu sortzea doinu gozoagorik,  
Sarri dio herriak txanpainaz ospaturik.  
Iruñeko entzierroa desentzierroa ere,  
zapi gorriak zerua du estaltzen.

Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, bi badoaz,  
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, hanka kalera  
Sarri, Sarri, Sarri, Sarri, bafleetatik...  
kriston martxa dabil!

## **SCACCIAPENSIERI** (Bap!!)

Goizero esnatu behar duk ahora ezer emateko.  
Ez dago batere erraza krisia omen dago.  
Hozkailua hutsa, jatekorik ez da.  
Irtenbide bakarra lapurretan hastea.

Ofertan dauzkak, kutixirik onenak.  
Hartzea besterik ez duk...  
Ofertan dauzkak, kutixirik onenak.  
Hartzea besterik ez duk...  
eta on dagiala.

Jende mordoia korrika hiperazokatik zehar.  
Merkeena bilatzen denak daude erotzear.  
Poltsikoa hutsa, xentimorik ez da.  
Une larrietan eroena izaten da onena.

Ofertan dauzkak...

Ostutzen habil eta ez haiz bakarra  
mota guztietako lapurrak baidaude,  
saltzaile onenak: jo lasai, izorra  
inor ez da errugabea.

## **SEGIKA DITUT** (Don Inorrez)

Argiak dardaraka errepidean,  
gasolina usaina bide ertzean.  
Behin izan nintzena ihes betean,  
zaratak bihotzeko dialean.

Segika ditut, segika ditut.

Manager bat, diskoetxeko morroiak,  
talderik gabeko baxujoleak.  
Inoiz izan ez nituen groupie-ak,  
zapuztutako guru txiolariak.

Segika segika ditut,  
segika segika ditut, ditut, ditut.

Labanaren distira  
erretrobisorean,  
itzal guztiak ehiztari dira gau ilunian,  
itzal guztiak ehiztari dira gau ilunian.

Argiak dardaraka errepidean,  
gasolina usaina bide ertzean.

## **SEI SEGUNDU** (Elurretan)

Hogei urtez, egunero sei segundu geltokian,  
neska bera bakarrikan egitazko aurpegia.  
Bere baitan murgilduta bere logelan bailitzan,  
ikusi dut bizitza bat poztasun eta tristurak.  
Momentu hau nahikua da ezagutzeko arima.

Egun haizetsu hauetan burumakur ibiltzen da  
horrelaxe dao beti gogoratzen duenian.  
Bihotzeko pena handi hori haize egun baten izan zan.  
Lainoz ta bero denian irribartsu dao berriz,  
horrelako egun batez ikusi zun lehenengo aldiz.

Eta haizetsu denian ni ere triste jartzen naiz,  
ezin dut burutik kendu zerbait gertau zitzaiola.  
Baino lainoei begira penak arintzen zaizkit,  
irrifarre handi batekin begiratzen bait dit.

## **SEND FLOWERS** (Peiremans +)

Mundua zein haundi ta zein txikia,  
postal urdin hartan esaten zenidan.  
Zein pozik bizi garen betiko tokian,  
galdutako irlak aurkitu ondoren.

Eta nire berrietara  
bidaltzen ditugu ele zaharrak.

Nerabe...

Afrikako hiriburu guztiak,  
buruz ikasi nahi nituzke segidan.  
Ta kafe goxoa hartu lagunen artian  
gerri ezberdiñak oratu ondoren.

Eta nire berrietara bidaltzen ditugu ele zaharrak.  
Itxi gabeko zaurekin, irribarreak egin nahian.

Ihes egin dezagun urrutira,  
amesten duzunetik bi metrora.  
Eta akatu ditzagun erlojuak,  
hondarretan ito arte.

Nerabe... nerabe...

## **SET DRUGS FREE** (Hertzainak)

Ikusi nuen azkenengoetan arratsalde osoak  
pasatzen zituen begirada oker  
eta hitz ustelen izkina hartan.

Ikusi zuen azkena, komuna ezezagunetako  
baldosa urdin eta hotz haiek.

Ikusi nuen, baita ere, bizitza galtzen  
euren gorputz hotza berotu nahiean.

Ordurako hain urrun zituzten  
amets haien arindurak biltzen, arindurak biltzen.

Inork aukeratzen ez dituen pasaiak ikustea  
suertatu zitzaizula dio historiarik gabekoen liburuak.

Besteek ikustea ere pentsatzen ez dutena  
ezagutzea tokatu zitzaizula.

Hilerrri bat eduki zenuela azken laguna.

Orain, beranduegi beti bezala  
telefono ajendan aurkitu zaitut  
ta zure izena bertatik tatxatu beharrean nago.  
Nola gertatu zaizun galdetzen diot ene buruari.

Orain, zoritxarrez orain,  
zergatik ez zitzaizun suertatu beste historia bat?  
galdetzen diot ene buruari berriro ere.

Eta berandu beti bezala, bioleta koloreko  
egun hartan esaten zenidana errepikatu behar dut:  
Free free, free, set drugs free. Set drugs free...

## **SIGARRILLOS AMARILLOS** (Hertzainak)

Nik enkargatua izan nahi nuen,  
bainan denok izatez jaiotzatik  
puta seme batzuk besterik ez gara.  
Peninsularesekin hasi nintzen oso gazte biziotan  
gero hamazortzi zigarro horiek paketeko idealesekin.

Bainan “la vida sigue igual” zerak esaten zuenez:  
Shakespearek? Ez, Julio Iglesias lerdoak.  
Ta gaur 13 urteko edozein umek tripi bat jaten du  
ta berehala klaseko kide guztiek proba dute.  
Hauxe duk hauxe, destinu petrala, hauxe.

Nik enkargatua izan nahi nuen,  
bainan denok izatez jaiotzatik  
puta seme batzuk besterik ez gara.  
Lehenengo mozkorra Pablo,  
hire gurasoen ezkontzan harrapa nuen  
han monagilloa nintzelarik, hi egin gabe hintzen oraindik.

Bainan “la vida sigue igual” zerak esaten zuenez:  
Shakespearek? Ez, Julio Iglesias lerdoak.  
Ta gaur 22 urte, 9 hile, ta egun bat geroago  
hemen gaude hire eguna ospatzen, mozkorrik  
Hauxe duk hauxe, destinu petrala, hauxe.

Gaur gauean ez banauzu ikusten,  
ohean egongo nauk edo ondoko komisarian  
Langabe nago, ezin diat Gasteizen paratu  
Beloradora joango nauk, Beloradotik Malagara  
Malagatik Ceutara ta Ceutatik txironara,  
destinu petrala, hauxe duk hauxe...

## **SIMA** (Pasadena)

Sima hotz batera bota zenituen,  
bihotzean traba egiten zizuten  
guztien gorpuak sima hotz batera.

Baina gaur piztu da  
argi bat zuloan.

Gauean zain dago  
ilunetan, bazterretan, bizirik.  
Argitan lo dago haizeak atek itxirik.

Sima hotz batera bota zenituen,  
arima biguntzen zizuten doinuak  
mailu ziren hitzak sima hotz batera.

Baina gaur entzun da  
soinu bat zuloan.

Baina gaur piztu da  
argi bat zuloan.

Eder den guztia hondora jaurtia,  
sima hotz batera.



## **"SING-SING-ATI"KO FOLK&ROLLA** (Sorotan Bele)

Bizilagunen musika, zaratatsua eta aguantaezina.  
Txakurra zaunkaka dabil, noizbait ixilduko da.  
Telefonoaren txirrinak, goizero-goizero esnatzen nau.  
Burbuxa baten barruan bizi nahiko nuke.

Atzoko ogi gogorra, hortzak puskatzeko moduan.  
Benetan nazka ematen dit kutxako kola luzeak.  
Kaña bat edango nuke, baina medikuak galerazi dit.  
Itsasoaren sabelean bizi nahiko nuke.

"Sing-Sing-ati"ko Folk & Rolla,  
Bizitza gartzela da eta denok preso gaude.

Hirurak eta laurden, eta orandik nago bazkaldu gabe.  
Telebista pizten dut, betiko marrazki bizidunak.  
Lagunekin gelditzen naiz, ordu t'erdi itxaron beharra.  
Mendi tontorraren puntan bizi nahiko nuke.

Beranduago furgonetan, txorakeritaz diskutitzen.  
Bakoitza bere rolloan sartuta dago barruraino.  
Eta orain Folk & Rolla jotzen, hobeto sentitu nahian,  
"Sing-Sing-ati"ko gartzelan bizi nahiko nuke.

"Sing-Sing-ati"ko Folk & Rolla,  
Bizitza gartzela da eta denok preso gaude.

# **SI VIS PACEM PARA BELLUM** (Hertzainak)

Egun guztia irauten duzu  
zure kainoari lotuta.  
Beldurrak zaitu maskaratu  
eta inork ez daki nor zeran.  
Ez du inporta galant ederra  
mundu guztiak izena dauka  
eta zurea, txakurra!

Odolaren usaina!  
Odolaren usaina, biolentziaren erresumena.  
Si vis pacem para bellum  
dio zure brigada txuskerok.  
Si vis pacem para bellum  
beatzi milimetroak zuretzat.

Zure omenez negarren gaineratik  
gorrotoko oihuak dabilta.  
Protokolo guztia ta azkenian  
erakusteko zer zeran.  
Bat gutxiago edo agian  
derrigor aurkeztu behar den azken numeroa!!

Si vis pacem para bellum  
noiz arte jarraituko du dantzak...  
Si vis pacem...

## **SORGINDU NAHI NINDUZUN** (Joxe Ripiau)

Begi zeharka beiratu zenidan  
sorgindu nahi ninduzun zu maitatzeko.  
Baina beharrik ez zoro maite zintudan jada.

Konjuroa egin zenidan  
zutaz kontu egiteko.  
Eta nik ordurako  
ez nuen beste inor ikusten uouo...

Begi zeharka beiratu zenidan...

Piña tarta batian  
edabe magikoa bota zenun.  
Enkantatu nahi ninduzun  
nola ordea sorgindu gehio? uouo...

Begi zeharka beiratu zenidan...

## **SORTERRIKO KOBLAK** (Mikel Laboa)

Ohianeko pagoak blai,  
aideratuz hiru elai.  
Ostadarraren harian dira,  
hirurak pausatu nahi,  
hirurak pausatu nahi.

Larrosak dira gorriak edo bestela xuriak.  
Hagitzez dira ederragoak neskatilaren irriak.

Maldan behera urratsa betiko bidean latsa.  
Hodei ilunak gaua belzten du udazkena ez da bedatsa.

Usapalak ostantzean huts bat badut bihotzean.  
Zatoz maitea gure etxera dostatzera arratsean.

Eder basoan haritza haran aldean garitza.  
Fruitu antzera ontzen da hemen gizasemeen bizitza.

Sagar gorriak dilindan damea dago ganbaran,  
maite laztanez hartzeko eta elkartzeko ohantzean.

Isiltasuna abailtzen da luma galdu bat bezala,  
begiak uso, mingaina arana zure bihotza ene aingura.

Hurrun gauhontzak uluka zakur deslaiak zaunkata.  
Mende oso bat iraganen dut zure ondoan koblaka.

## **SORTIRRIA** (Anje Duhalde)

Dena beltz, dena ilun den egunetan  
erre eta erre baizik egiten ez dudanean,  
hor zaude nire tresna guzien artean  
eta nik ezin aurki nola zu jarri martxan.

Nahi nuke ulertu dezazun batzuetan  
nire gitarrak ezetz erantzuten didanean,  
nire eskua ezin idatziz denean  
ez nagoela batere ongi egun horietan.

Nitaz zira nardatu, lotsatu, aspertu  
eta hemen nago uzkur nork behar ote otoiztu.  
Zoaz, nahi baduzu, zoaz ta barkatu  
baina ez zaitez nigandik betiko urrundu.

Ahantzi dut aspaldi txoriaren kanta,  
bertzeekin ibiltzeak badakarki bere tranpa.  
Erruduna naizela ezin dut nik uka  
mendeka zaitez baina noizbait ezazu barka.

# **SOUS LE SOLEIL EXACTEMENT** (Serge Gainsbourg)

Capricornio ala Cancer tropiko  
puntu zehatz batean.

Ahantzi egin dut gero zein lekutan  
Eguzkipean zuzenki, ez ondoan ez nonnahi  
Eguzkipean eguzkipean bere argipean zuzenki.

Zein herritan, zein auzotan?  
itsaldeko bazterrean agian.

Ahantzi egin dut...

Nuevo Mexicon izango ote?  
Cabo de Hornos-en, Cabo Verde-an?  
Uharte gunee batean al zen?

Eguzkipean...

Amets erotiko bat ziur aski  
Bertan begi irekietaz  
Baina benetazkoa izango balitz

Eguzkipean...

# **SUA AMAITZEAN** (Nora Peña / Herrikoia)

Sua amaitzean,  
hautsaren epelean,  
ilunaren arnasa  
entzun ixilean.

## **SU EMAN** (Unidad Alavesa)

Atzera, aurrera ta gora begiratzuz,  
inor ez dago lehengo toki berean.  
Posizioak hartuz goaz denok.  
Kamuflajearen garaietara egokitutako  
haragijale hutsak gara,  
moralista desnaturalizatuak.

Baina pozik hartzen ditut  
egun berriaren lehen eguzki printzak.  
Azken finean bizi naizenaren seinale dira.

Negarraren antagonismoa naiz,  
konplexu denen arerio  
ta etorkizuneko gizaseme perfektua.

Eta orain gauero ibiltzen naiz  
bide ilun eta desolatuetan,  
inongo beldur izpirik gabe.

Lanarekiko atxekimendu falta  
ikaragarri handitzen ari zait baina  
batere ez nau arduratzen horrek.

Zeren pozik hartzen ditut...

Ta denek galdetzen didate  
zer egin ote dezaketen?

Su eman eta behetik hasi  
geruza zahar denak txikituz,  
ta denboraren aizkora hura  
gorantz mantenduz.

Su eman eta behetik hasi...



## **SUMENDI MAGALEAN** (Pasadena)

Sumendi magalean  
itxaropen hutsaren esperoan.  
Muga garaiz igaro genuen,  
egiak ez du inoiz ere bizirauten.

Ez dute bakerik nahi,  
guztiok gara etsai.

Azken ekaitzaren zain,  
zauri irekien sai.  
Etsita doaz heroi garaituak,  
bizia galdurik, eta beste zerbaiten bila.

Ez dute bakerik nahi...

Ezagun genuen guztia sutan.  
Errautsetan lo, negar hutsal ibaietan.

Maite ditudan denak  
betiko dauzkat hurbil.  
Euren hilobiak salbu daude  
zuen gisako piztia krudelengandik.

Ez dute bakerik nahi...

# **SUSTRAIAK HAN DITUENAK** (Mikel Laboa)

Nekez uzten du bere sorterria  
sustraiak han dituenak.  
Nekez uzten du bere lurra zuhaitzak  
ez bada abaildu eta oholetan.

Ez du niniak begia uzten  
ez bada erroi edo arrubioen mokoetan.  
Nekez uzten du gezalak itsasoa  
ez hare harriak basamortua.

Ez du liliak udaberria uzten  
ez elurrak zuritasuna.  
Bere sorterria nekez uzten du  
sustraiak han dituenak.

Nekez uzten du bere sorterria...

## **SUTEA** (Izaki Gardenak)

Kearen garratzak ito nau.  
Jan dizkit begiak.  
Garretan iragana,  
sortzear dira garai berriak.

Sute handiak garbituko du guztia.  
Harro zeutzan basoihanak beldur dira.

Trumoiek dakarte itxaropen  
zorrotzezko izpi bat.

Eta ur erauntsiez joan dira  
gure beldur gorriak.

Sute handiak...

## **TABERNAKO ARGIAK** (Mc Onak)

Zazpi itsasoetako olatuak sentitu ditut txalupa zaharrian.  
Orain hemen gaude mozkorturik abesten  
Kantauriko kai txiki honetako txoko ilun batian.

Karibeko gardenetan dzangan Terranovan hazurrak dardarka.  
Itsas bilak asko, baina ez naiz iritsi.  
Itsasoa ta zerua batzen diren marra hortara.

Ez al dakizu arnasa falta zaidala  
errekan gora noan bakoitzian,  
arrainen antzera itota itsasotik apartatzian.

Harrapatu gaituzte tabernako argiak  
marinel bakartion bizimodu tristia.  
Kamarero, atara eizu azkeneko rondia  
Egunsentiarekin daukagu partitzia.

Portuetako lamien lilura, marrazo gosetien hortzkada.  
Lapurtutako bihotz zati txikiak  
dauzkat itsas labar ilun eta ozeano azpian.

Ez naiz txintxo, pekatu gabia etxean nahi duten printzipia.  
Inpernuko atea zabaldu arte  
itsasoari zor diot nere gorputz ta izatia.

Ez al dakizu arnasa falta zaidala...

# TATUATU ZENIDAN ZERUA (Lorelei)

Etzanda zu nigan bezala.

Leihotik beha somatu zaitzaket  
euriak behera egin digu atzera.  
Busti gintuen hiria ardo onaren antzera  
iragan minaz ito da fadoaren akordeen pean.  
Tatuatu zenidan zerutik doa nahiaren itzala.

Lisboa urrun somatu dezaket  
mapa erreak sortzen didan lausoaz.  
Utzi zintudan auzoak poema hilen ferekak  
eskegita daramatza gurutze krabelinduen pean.

Tatuatu zenidan zerutik noa nahiaren itzalaz...  
Tatuatu zenidan zerutik noa nahiaren itzalaz...

Etzanda zu nigan bezala.

# TAXI HORIAK (Itoiz)

Laster autobidera altxatuko naiz  
"dedo" egin edo tren bat hartu  
ze jende xelebren estazioetan!

Gutxizat botakoituz arrats bakartik  
zinema hutsetan  
gauak, goizak, eta ere jendea.

Fenderraren tipoa kalean jotzen  
paranoikoen hiri-babes batentzako  
doinu ezkutak, Viscontik sekula ez,  
ez du ametsetan egingo beraz.

Ene agurrentzako taxi horiak  
nahi ditut ikusi nik  
ez zapi txuriak, ezta malkoak.

Ari dira hitzak, ari dira hots, ari dira zaratak...  
nazkatzen ari naiz hiri honetaz!

Ari dira hitzak, ari dira hots, ari dira zaratak...  
nazkatzen ari naiz hiri honetaz!

Zo ro re re re, zo ro re re re ro, xa la la la la.

## TA ZER EZ DA BERDIN (Hertzainak)

Ez dut ezer, ez dut ezer ez dut ezer inoiz, ezer inoiz.  
ez dut ezer inoiz zuri esateko, zuri esateko.  
Ohiturazko egunkari eta irratiek ere,  
ez lukete hobe eginen, hobe eginen.  
Euskadin rockandroll-ak ez du inoiz dirurik emanen,  
inun baina alaigoa izanen da.

Ta zer ez da berdini!! Inun baina alaigoa izanen da.  
Ta zer ez da berdini!!

Porobo porobo porobo porobo, porobo porobo pooooo...  
Ta zer ez da berdini!!

Ezin zaitut, ezin zaitut, ezin zaitut inoiz,  
ezin zaitut inoiz, ezin zaitut inoiz zu bisitatu.

Munduan ez da kokolorik ez zeruan ere,  
ni bezain gaizki eginen lukenik, eginen lukenik.  
Euskadin rockandroll-ak ez du inoiz dirurik emanen,  
inun baino alaigoa izanen da. Ta zer ez da berdini...

Ez dut ezer esateko, ezin zaitut bisitatu.  
Rockandroll-ak ez du dirurik emanen.  
Berdin zaidala, zintzilik nago. Ta zer ez da berdini!!

Inun baina alaigoa izanen da... Noiz joango gara Jamaikara ?  
Inun baina alaigoa izanen da. Ta zer ez da berdini!!

## **TRECE ROSAS ROJAS** (Bide Ertzean)

Isiltasunaren hilobira udaberria iritsi da.  
Hamahiru arrosa gorriak berriz ere loratu dira.  
Egunguentian, berriz loratu dira.

Isiltasunaren zauriak ixteko garaia iritsi da  
bakea galdu zuten haiek egiaren egarri dira.  
Egunguentian egiaren egarri dira.  
Egunguentian berriz loratu dira.

Askatasun haiziak arnasa eman die.

Zein eder dauden  
zein eder dauden  
arrosa gorriak,  
egunguentian loratu dira.

Egiaren, egiaren egarri dira.

Zein eder dauden  
zein eder dauden  
arrosa gorriak,  
nire begitan erne dira.



## **TRENA IRISTEN ARI DA** (Lorelei)

Gutun isilak ziren garai hartakoak,  
agur baten ostean idatzitakoak.  
Helbiderik gabeko kantoizkutuak eta  
estazio ertzetan karril arrailduak.

Zu ta ni arrotz arrotzen herrian,  
zintzilik erbestearen erdian.  
Orain elurrak lurra jantzi du,  
Orain tren ziztuen aiduru.

Iristen ari naiz inora doan trena hartzeko.  
Iristen ari naiz inora doan trena hartzeko.  
Iristen ari naiz inora doan trena hartzeko,  
trena hartzeko, trena hartzeko...

Itzal sakonetatik datorkit eki gaua  
izan gintezkeenaren lokarri haustua eta  
begirada urrunen kantu lokartuan  
amiltzen da betiko nire bekatua.

Zu ta ni...

Orain, orain, ...  
Orain, orain trena iristen ari da.

## **TRISTE BIZI NAIZ ETA** (Bilintx)

Triste bizi naiz eta hilko banintz hobe,  
badauzkat bihotzean hainbat atsekabe.  
Dama bat maitatzen det bainan haren jabe,  
sekulan izateko esperantzik gabe.

Nire bihotz gaixoa penatua dago,  
ezin egon liteke ai penatuago.  
Pasatzen ditudala aspaldian nago,  
eguna triste eta gaua tristeago.

Nere maitatua da guztiz dama fina,  
bihotz soineko eta ondo hitz egina.  
Bentaja guztiakin zeruak egina,  
mundua pasatzeko lagunak egina.

Bihotz baten lekuan mila banituzke,  
zuretzako maitia izango lirake.  
Baina milan lekuan bat besterik ez det,  
har zazu ba maitia bat hau mila bider.

Nere maite polita nola zera bizi?  
Zortzi egun hauetan etzaitut ikusi.  
Uste det zabiltzala nigandik igesi,  
ez didazu ematen atsekabe gutxi.

# TTURRUKUTTUKUTTU (Bap!!)

Tturrukuttukuttu,  
Leitzaran ez ikuttu.

Tturrukuttukuttu,  
Leitzaran ez ikuttu.

Ttarrakattakatta,  
autobia da kaka

Ttarrakattakatta,  
autobia da kaka

Ai, ai, ai... autobia erokeria.

## **TXALAPARTA** (Gorka Knörr)

Tiriki-trauki, hiru ta lau dira zazpi,  
xurru xumurru bat batean dira urrun,  
tiriki-trauki, ezker eskubi  
bien artean dago zubi.  
Hots bare-bare, hor leiho sare,  
hiru ta lau dira bi.

# TXANPON BATEN TRUKE (Alaitz eta Maider)

Ezagutzen dut gizon bat kale kantoian jarrita  
ipuin harrigarriak kontatzen dituen  
txanpon baten truke.

Dragoi eta printzesaren ezinezko maitasuna  
zahartutako basoko loti ederraren azken eguna  
printze urdinak abandonatuta.  
Txano Gorritxuren dibortzioa otsoaren suizidioa.

Ezagutzen dut...

Jendea presaka dabil, ordea  
entzuteko astirik ez dauka.  
Aspaldiko garaietan, urrutiko lurraldeetan  
gertatutako istorioak.  
Txano Gorritxuren dibortzioa otsoaren suizidioa.

Ezagutzen dut gizon bat kale kantoian jarrita  
ipuin harrigarriak kontatzen dituen txanpon baten truke.

Txanpon baten truke... txanpon baten truke...  
txanpon baten truke... txanpon baten truke...  
txanpon baten truke...

## **TXANTXETAN** (Hertzainak)

Demasa atera zen ta eguraldi berriaz,  
kantautorea erre zen eguzkia zelarik.  
Eta urtarrila erdian kakalerdo batzuk,  
mahukutsik kaleratzen ziren bitartean.

Bazeuden beste batzuk azkarragoak,  
kontuari errenta atera nahiean.  
halere arbola gaixoa hor dirau oraino,  
txantxetan nabil berdin dio.

Negar egin nuen han nire zuloan,  
ez zuen ulertu ezer ondoko ergelgoak.  
Eta horrela utopia handitzen dijoa,  
zergatik izan behar nik horren bozeramalea.

Han baita bazebilen profeta gaia,  
aidean iragartzen mirakulua.  
Zenbat postal salduko zituen gerokoan,  
berriz txantxetan nabil orain.

Ero nengoen bainan ninduten sinetsi,  
horrelako graziagatik ez dut barrik merezi.  
Txorrada baten aldeko banderak altxata  
imitazio arruntenak errez salduko dira.

Beldurgarria zait baina dena berdin da,  
hau da hitzak gastatzeagerra merketan.  
Hainbeste gerra inportante izango dira  
ta gu txantxetan, hemen txantxetan axola gabe.

# TXATXAMATXALINATXU (Mikel Urdangarin)

Txatxamatxalinatxu jaio zan urtian,  
herria ta kofradia hasarratu ziran.

Txatxamatxalinatxu jaio zan urtian,  
herria ta kofradia hasarratu ziran.

Tirikitiena beltza morena,  
ontza bat txokolate goizian onena.

Tirikitiena beltza morena,  
ontza bat txokolate goizian onena.

Txikia izan arren izan leike abila,  
Biba Elantxobeko tanbolintxerua.

Txikia izan arren izan leike abila,  
Biba Elantxobeko tanbolintxerua.

Tirikitiena...

## TXATXO (Zarama)

Batzuk, esaten eben diru  
mordoa zeunkala gorderik  
auskalo non daukazun zuloa.

Beti berdin jantzirik eta zigarrokina,  
ezpainen artian dardarti ta amatatua.

Beti bakarrik triste ikusten zindudazan,  
albarka zarrez bidean eta euritakoa eskuetan.

Beti bakarrik haizeari egiten berba,  
batek daki nondik eta norantz.

Txatxo, non zaoz Txatxo,  
beste mundura joan zinen,  
hoi probatu barik.

Neska zalia bazinen baina,  
inork etzuen inoiz,  
zugaz dantza egin nahi.

Gutxik, ezagutu zinduezan  
bainan hileta eta mezarik ez da izan zu agertu gabe  
lagun minik ez bizitzan ta orain hiltzean  
herrian goguan ez dautxuenik ez da.



## **TXINAURRIA** (Mikel Laboa)

Primadera hastetik uda-azkenerat  
txinaurria txuhurra landa bazterrerat.  
Txori papo gorri bat arbol batetarat  
egun oroz jiten zen kantuz aritzerat  
txinaurria trufa irri egiterat.

Txinaurria lotzen da goizetik lanari  
egun guzietako duen guduari  
karga ezin altxatuz nigarrez da ari  
txoriak itzalpetik trufa eta irri  
txinaurriak derauko zerbait erran nahi.

-Hauxe diat txoria, hiri erraiteko.  
-Nik ere bi beharri hire aditzeko.  
-Kanpuan baduk orain gauza ainitz biltzeko,  
emak zoko batean neguan jateko  
lanari lotzen bahiz ez zauk dolutuko.

-Txinaurri lepho mehe itsusi txirtxila,  
ez nauk heldu hi ganat ni deuseren bila.  
Lanian ez duk ari ihizi abila  
utzak, utzak hik ere lan hori, ergela  
urte oroz heldu duk berdin uztarila.

# **TXORIA TXORI** (Mikel Laboa)

Hegoak ebaki banizkio  
neria izango zen,  
ez zuen alde egingo.

Bainan, horrela  
ez zen gehiago txoria izango.  
Bainan, horrela  
ez zen gehiago txoria izango.

Eta nik... txoria nuen maite.  
Eta nik... txoria nuen maite.

Larai laralai laralai lala,  
La laralai laralai lala.

Larai laralai laralai lala,  
La laralai larala.

## **TXORI TTIKIA** (Benito Lertxundi)

Txori ttikia, nintzelarik  
esan zidaten,  
kaiolan bizitzeko  
sortua nintzela.

Gero arrano bihurtuko nintzanean  
kaiola hautsita aldegingo  
nuen beldurrez,  
libro nintzela sinistarazi  
nahi zidaten.

Horregatik iriki zizkidaten atea  
egin nezan hegaz.  
Bainan luze gabe ohartu nintzen  
hanka harkaitz bati lotu zidatela  
kate motz eta astun batez.

## **UDABERRIA** (Iker Lauroba)

Non dago zu ulertzeko behar den hiztegia?  
Non duzu eraikitako ametsak botatzeko amildegia?  
Udaberria eta negu zaharra, lausoa da bien arteko marra.  
Desenkusak ta mila istorio, aitzakiari gezurra dario, gezurra darizu.

Bapatean, sutea piztu zaigu eraikinean.  
Bitartean, zu katu beltza laztantzen magalean...  
Eta ni itzali nahian ur basoaz, zu, berriz,  
kea ikusi ta basoaz. Eta basoaz...

Udaberria eta negu zaharra, lausoa da bien arteko marra.  
Desenkusak ta mila istorio, aitzakiari gezurra dario.  
Etxeak hotela dirudi orain, eta ni mandataria propina zain.  
Ohean sentitzen naiz arrotza, gauero tokatzen zait alde hotza.

Leihoko loreak ureztatzea ez ahaztu, uuu,  
ez ahaztu, uuu, ez ahaztu, uuu, ez ahaztu, uuu.

Udaberria eta negu zaharra, lausoa da bien arteko marra.  
Desenkusak ta mila istorio, aitzakiari gezurra dario.  
Etxeak hotela dirudi orain, eta ni mandataria propina zain.  
Ohean sentitzen naiz arrotza,  
gauero tokatzen zait alde hotza... ta bi alde ditu.

Bi aste erantzun gabe zure mezu isilak,  
irentsiz egi errukior ta gezur borobilak.  
Ez dut nahi zure hutsunea sentitu.  
Denborazko ahaztearen hesi zahar honek bi alde ditu.

# UDABERRIKO AZKEN MUGAN

(Don Inorrez)

Maletak ohe gainian  
maindireak harrotuta  
irteteko garaia da.

Geografia berri bat geure esperoan da.

Maletak ohe gainian  
maindireak harrotuta  
joateko garaia da.

Karrika arrotzetan bion zain dago ekaina.  
Sortaldetik argiak haize leuna dakar.

Udaberriko azken mugan  
aske dabilta gure oinak  
norabide berean.

Udaberriko azken mugan  
eskuak, begiak, ezpainak  
norabide berean.

Eskuak, begiak, ezpainak..  
Udaberriko azken mugan  
aske dabilta gure oinak  
norabide berean.

# UDAZKEN KOLORETAN (Benito Lertxundi)

Udazken koloretan  
landen lurrinak zeharkatuz,  
hitaz oroit ta higan nauk.

Udazken koloretan,  
landen lurrinak zeharkatuz,  
hitaz oroit ta higan nauk.

Zuhaitz biluziaren gerizpean orpondoa,  
orbelaren hilobi, horiz eta gorriz  
dena lokarturik, dena lokarturik.

Eskuratu hostoa xume bezain eder,  
hain soila bere heriotzean,  
zuhaitz guztiaren bizkortasunez hain betea,  
non erortze honen duintasunak  
hiri kantatzera naraman.

Berrero zuhaitzari so natzaiok, kezkatu ote?  
joate askearen oparotasunean,  
betikotasunaren irria zirudik, irria zirudik.

Gatibu naukan denborak,  
bere baitan egositako  
ametsetaz isekaz bailegoan.

Udazken koloretan, landen lurrinak zeharkatuz,  
hitaz oroit eta higan nauk, hain soil hire heriotzean,  
hain xume, adiorik gabeko partitzean.

# UKATU EGIN BEHAR NIZUN ZORIONA

(Katamalo)

Ukatu egin behar nizun zoriona.  
Maitatu ditudanak ahantzi  
eta bakarra inposatu behar nizun.  
Maitatu duzun bakarra,  
joan zitzazun bakarra.  
Bakardadean bakartiago  
esnarazten zaitu ena.  
Fidela izateari utzi egin diozulako.

Ukatu egin behar nizun zoriona.  
Haragia azalaren gainetik  
izan dudan honek.  
Altzoan daroazun,  
altzoan daroazun honek.

## UNE ETENGABEAK (Hertzainak)

Kontutan, kontutan hasi zara eta ez dizut entzuten.  
Lanik ez dagoela, gauzak gero eta okerrago dituzula  
eta soilik larunbatetan irtetzen zarela.  
Telebistak, irratiak edota egunkariak  
ez dutela betiko huskeria baizik adierazten.

Hitz egiten zabiltz baina nik ez dut entzuten, zeren  
neure denbora lasaiagoa doa ta une etengabea dakar.  
Une etengabea, une etengabea dakar.  
Une etengabea, une etengabea dakar.

Alfer huts bat eginda nagoela esaten dit attak  
Uzteko bizimodu txar ta txorakeria hauek.  
Edadea badudala neure buruari aurre egiteko  
ikus dezadala adibidez anaien jarrera  
ez da ixiltzen! Baina nik ez diot entzuten  
zeren nire denbora lasaiagoa da  
ta une etengabea dakar.  
Une etengabea, une etengabea dakar.  
Une etengabea, une etengabea dakar.

Nigan pentsatzen dut batzuetan ere  
nere helburuak amets batean bezala  
errealizatzen dira, urduri, urduri!  
Gaurko eguna azkena izango dela  
ta hemendik aurrera zuzen zuzen joko dudala esanaz  
baina entzun nazazu ondo zeren egiaren ordua  
heldu da ta egiaren ordua.



# **URAK DAKARRENA** (Benito Lertxundi)

Urak dakarrena urak daroa,  
lurrak emandakoa lurrean gelditzen da.  
Eta gu hemen, beti gu hemen.

Zuhaitzak bezala lurrean,  
kantuak bezala haizean,  
muinak bezala erroetan,  
ura bezala itsasoan.

Urak dakarrena...

Ekaitzak botarazten  
ipar eta hego aldetik  
gizon izateko hasi behar da  
gizon izaten hemen.

Urak dakarrena...

## **URPEKONTZIAK** (Izaki Gardenak)

Sorgin ehiza berriak datoz  
helburu zaharrei jarraitzeko.  
Merke lapidazioak  
ez da inor onik irtengo.

Azalera irtetea zama honekin  
lan nekeza denez, itsasoan guztiok  
hondoa jo arte atsedetik ez.

Denean daude urpekontziak,  
gure joana zelatatzen.

Leku segururik jada ez dago hemen.

Kartoizko kaiola bustiak  
buru ahul hauei eusteko,  
itxaropen ondo neurtu bat  
taupadek lasai jarraitzeko.

## **URTAROA FALTA DUGU** (Katamalo)

Ez dira antzarak itzuli.  
Neguagatik ez ziren joan,  
ta ez zituen hotzak ikaratu.

Ez dira itzuli antzarak  
hotzak ez zituen ikaratu.  
ez ziren joan neguagatik.  
Ez ziren joan neguagatik.

Antzarak ez dira itzuli  
Ez zituen ikaratu hotzak  
eta ez ziren neguagatik joan.  
Eta ez ziren neguagatik joan.

# URRUNDIK HELDU NAIZ (Benito Lertxundi)

Urrundik heldu naiz luze ibiliz,  
bidez bide eta bidetako  
hautsak garia sortarazi du  
ene oinetako behatz artetik...

Ene burua untzaz ari da  
estaltzen, eskuetako  
behatzetan madariondoaren  
hosto xamurak loratzen...

Bizkarrean... ortzian barna...  
magali mikatzen kimuak  
txertatzen ari zaizkidalarik, zaizkidalarik...

San Migeletan... itsasoa...  
ñabarra ludia ttipitzen duen itxasoa...

Ene baitan urriaren  
egohaizearekin batera,  
hazi busti eta emankorra  
ari du... ari du...

Zilegi bekit adiskide, pentsatzea, esatea,  
harek ez du goroldio baizik sortuko  
gure harrizko buruetan...

# URTSUAKO KANTA (Mikel Laboa)

Goiti zazu burua,  
ene arreba Juana.  
Ez dezaket goratu,  
anai Batista jauna,  
anai Batista jauna.

Izorra omen zara,  
ene arreba Juana.  
Zertan ezagutzen nauzu,  
nere anaia jauna?  
Nere anaia jauna?

Zazpi errota berri,  
zortzi jauregi txuri:  
horien guziengatik  
nik ez Urtsura nahi,  
nik ez Urtsura nahi.

Urtsuan zazpi leiho,  
zazpiak lerro-lerro;  
Lantainako alaba  
Urtsuan defuntu dago,  
Urtsuan defuntu dago.

Urtsuan defuntua  
Santa Anan kausitua  
adio erran gabe  
etxetik partitua,  
etxetik partitua.

## **URTXINTXAK** (Pantxoa eta Peio)

Urtxintxak oihanian jauzika,  
aldaxkatik aldaxkarat...  
zuk erradazu, ama zendako  
ez diren erortzen lurrera?

Nik ere nahi nuke izan urtxintxa bezala!!  
Hain gora, hain trebe, izaiteko libre!!

Urtxintxak oihanian zintzilik,  
buruz behera buztanetik!...  
zuk erradazu, ama, zendako  
ez duten buruko minik?

Nik ere...

Urtxintxak ohianian karruxkaz,  
neguko bildu heltzaurrekin...  
zuk erradazu, ama, zendako  
ez dezaketan egin berdin?

Nik ere...

## ÜRZO APAL BAT (Haizea)

ÜRzo aphal bat badügu herrian tristerik  
nigarrez ari düzü kaloian barnetik  
bere lagün maitiaz beit' izan utzirik  
kotsola ezazie ziek adixkidik.

Oi ene izatia dolorez beterik  
mündian ez ahal da ni bezain tristerik  
ni bezala maitiak traditü dianik  
habil amodioa ürrün ene ganik.

Tunba bat nahi dizüt lürpian ezarri  
ene korpitz tristia gorde mündiari  
ene ixter begiek egin dezan irri  
haieki zira zü ere hain sarri.

# USO XURIA ERRAZU (Txomin Artola/Amaia Zubiria)

Uso xuria, errazu,  
nora joaiten ziren zu.  
Nafarroako bortiak oro  
elurrez betiak dituzu,  
gaurko zure ostatu  
ene etxean baduzu,  
ene etxean baduzu.

Ez nau izützen elurrak  
are gutxiago gau ilunak.  
Maitea gatik pasa nezazke  
gauak eta egunak;  
gauak eta egunak,  
desertu eta oihanak,  
desertu eta oihanak.

Usoa eder aidian,  
ederrago oihanean.  
Maitia, zure parerik ez da  
España guzian ezta  
ere Frantzian,  
iguzkiaren azpian,  
iguzkiaren azpian.



## USTELA (Itoiz)

Nire lagun xelebreena  
nire mailu urdina.  
Farretan irabazle  
usteltzen ari da da da  
inpotentzia aurrean  
lege onena izandakua...  
ez dut sinisten legeaz  
gizon lege mailu gabe naiz ni.

Usteldu bahaiz zer egingo dieee  
mailu behar zaitut... ez usteldu.  
Usteldu bahaiz zer egingo dieee  
mailu behar zaitut... ez usteldu.

Ez pentsa izarrak edo metaforak  
kolpatzea nahi dudana,  
ezta ere poemak egin  
gaizki joaten zaidanean.  
Mahaiak, kristalak... apurtzea baizik.  
Defentsa onena zara  
legeen gorilen aurrean.  
Usteldu bahaiz zer egingo didate  
mailu behar zaitut... ez usteldu.

## UXO ZURIA (Sorotan Bele)

Doinu ixil bat dut buru barnean  
gidatzen ari nau munduan zehar.  
Kale estuen barnetik naramanean  
goibel sentitzen naiz hots, magalean.

Uxo zuria dago hortik hegaka  
jadanik ez ditu luma zuririk.  
Nire buru barneko ideien artean  
badabil idei bat lumez betea.

Egon naiz bai pentsatzen ni  
noizbaitean aldatuko ote naiz  
nire ezker bularrak eskatzen dit:  
Oihu egizu!! Azkenean!!

Bakea nahi dut nire barnean,  
ez inolaz erraza bakean bizitzea.  
Ingurunean zuk lortzen ez baduzu...uxo zuriarekin.

Zeru grisean gaude gaur murgildurik  
zuhaitzen hostoak gorritz jantzirik.  
Bake oihartzun bat nik sentitzen dut  
baina su gorritan kiskali egin dut.

Oihu baten muga zein den jakinik  
negar baten kezka sentitu barik.  
Bidean etzanda geldituko naiz  
bizitza honetan bai nekaturik.

## **UZTAREN GARAIA** (Juan Carlos Perez)

Ta gogoratu zuen egun batean autobusez  
Bodrumetik Usaino bidai bat egin zuela  
Ta egunsentia ikusi zuen Turkiako zelaietan  
Ta bide ertzean lanera zijuazen nekazariak.

Lotan zeudenen isiltasuna airean  
Bambu kaleko borbuaren motor soinu etengabeaz  
Uztaren garaia heldu zen gau zoroetara  
Ta haizeak azken aldiz kulunkatzen zun garia.

Muhadiyen kantua laino artean noraezean  
Gogoratu hainbeste poz harengandik datorrela.  
Uztaren garaia heldu zen gau zoroetara  
Ta haizeak azken aldiz kulunkatzen zun garia.

Ta gogoratu zuen egun batean autobusez  
Bodrumetik Usaino bidai bat egin zuela  
Ta egunsentia ikusi zuen Turkiako zelaietan  
Ta bide ertzean lanera zijuazen nekazariak.

# VINU, CANTARES Y AMOR (Anari / Nacho Vegas)

Oin entzungo duzun hau, oin entzungo duzun hau,  
oihukatzen zun auzoak, funtzionariari langileak, tabernariari mozkorrak.  
Oin entzungo duzun hau, esan zuen presoak  
oihukatu maitaleak, mahats ahienak lurrari, erizainari gaxoak.

Oin entzungo duzun hau, oin entzungo duzun hau,  
entzun zen behin Irulegin, entzun zen Oionen entzun zen Erriberrin.  
Ta gertatzear zena ez da inoiz gertatuko, gertatzen ari delako  
ta bada garaia erreka oso bat edateko.

Kantatu, maitatu eta dantza ezin bada, ez da gure iraultza.  
Berreskuratzeko dugunagatik topa egiteko ez bada botila hori  
eta ez badu uzten kantu bat ezpainetan inoiz ez dezagun sekula ezer esan.

Kantatu, maitatu eta dantza ezin bada, ez da gure iraultza.  
Ez badugu bihotzetan odolik Cavernet Sauvignon bat bezain gorri  
eta ez badute mila eztarrik kantatzen ta denak batera eztandan lehertzen.

Kantatu, maitatu eta dantza ezin bada, ez da gure iraultza.  
Aaaaaaaaaaaaaaaaaa... Bezeroari putak esan zion.  
Aaaaaaaaaaaaaaaaaa... Artistak bere bakardadean zion.

Kantatu, maitatu eta zalantza... ez badu ez da gure iraultza.  
Aaaa....

Entzun berri duzun hau, esan zuen herri batek, esan zion munduari  
Suhiltzaileak suizidari pizti gautarrak hontzari.

# **XALBADORREN HERIOTZEAN** (Xabier Lete)

Adiskide bat bazen orotan bihotzbera,  
poesiaren hegoek, sentimenduzko bertsoek  
antzaldatzen zutena.

Plazetako kantari, bakardadez josia,  
hitzen lihoa iruten, bere barnean irauten  
oinazez ikasia... ikasia.

Nun hago, zer larretan Urepeleko artzaina,  
mendi hegaletan gora oroitzapen den gerora,  
ihesetan joan hintzana.

Hesia urraturik, libratu huen kanta,  
lotura guztietatik, gorputzaren mugetatik  
aske sentitu nahirik.

Azken hatsa huela, bertsorik sakonena,  
inoiz esan ezin diren, estalitako egien  
oihurik bortitzenak... bortitzenak.

Non hago, zer larretan Urepeleko artzaina,  
mendi hegaletan gora oroitzapenen gerora,  
ihesetan joan hintzana.

# XORI ERRESIÑULA (Mikel Laboa)

Xori erresiñula üdan da kantari,  
zeren ordian beitü kanpuan janari;  
neguan ez da ageri; balinban ezta eri!  
udan jin baledi, konsola nainte ni.

Xori erresiñula ororen gehien,  
bestek beno hobeki har´k beitü kantatzen;  
harek dü inganatzen mündia bai tronpatzen;  
bera eztüt ikusten, bai botza entzüten.

- Amak ützi nündizün bedats azkenian;  
geroztik nabilazü hegalez airian.  
Gaiak urtuki nündizün sasiño batetara,  
han züzün xedera, oi! ene malürra!

- Xoria, zaude ixilik, ez egin kantürik;  
xoria zaude ixilik, ez egin kantürik;  
eztüzü profeitürik ni hola penatürik,  
ez eta plazerik ni tunban sartürik.

- Bortiak xuri dira elür dienenian,  
Sasiak ere ülün osto dienenian.  
Ala ni malerusa! Zeren han sartü nintzan?  
Jun banintz aitzina, eskapatzen nintzan.

- Xoria, zaude ixilik, ez egin nigarrik;  
Zer profeitü dükezü hola aflijitürik?  
Nik eramanen zütüt, xedera laxatürik,  
Ohiko bortütik, ororen gaiñetik.

# **XORIAK (XORIEN IHESA)** (Mikel Laboa)

Zuen begiak, eta zuen etxeetako leihoak,  
eta zuen eskuak zabaltzen dizkiezue.  
Xoriak laudatu egiten dituzue,  
lausengu lirikoak ere dedikatzen dizkiezue.

Zuen begiak, eta zuen etxeetako leihoak,  
eta zuen eskuak zabaltzen dizkiezue.  
Xoriak laudatu egiten dituzue,  
lausengu lirikoak ere dedikatzen dizkiezue.

Zuen begiak, eta zuen etxeetako leihoak,  
eta zuen eskuak zabaltzen dizkiezue.  
Xoriak laudatu egiten dituzue,  
lausengu lirikoak ere dedikatzen dizkiezue.

Baina xoriak zuengandik beti ihes doaz.  
Baina xoriak zuengandik beti ihes doaz.

## **XORIERI MINTZO ZEN** (Erramun Martikorena)

Xorieri mintzo zen, mintzo zen errekari.  
Oihaneko zuhaitzeri ta zeruko izarreri.  
Mintzo zen haizeari, xoro batentzat zaukaten.  
Xorieri mintzo zen, xoro batentzat zaukaten.

Ez zakien irakurtzen gizonen liburutan,  
bainan ongi bazakien zeruko seinaletan  
zeruko seinaletan ta jenden bihotzetan.

Xorieri mintzo zen...

Hurrek zuten harrikatzen zahar gaztek trufatzen.  
Etxekoek berek ongi laneko baliotzen.  
Laneko baliotzen eta gosez pagatzen.

Hil da xorua bakarrik bakarrik da ehortzi.  
Ez zeri han Kristau bat ere salbu lau hilketari,  
salbu lau hilketari ta apeza kantari.

Hil hobian ezartzean haizea zen gelditu.  
Xoriak ziren ixildu, zerua zen goibeldu.  
Zerua zen goibeldu ta jendea oroitu.



## **XUMEA** (Txuma Murugarren)

Xumea da nire barnea,  
xumeak nire oin lurtarrak.  
Xumea dut jantzia  
eta begien kolorea xumea.

Xumea halaber nire gorputz maxkala,  
xumeak hezurak eta errainak.  
Oxigenoa xumeki iragazten dutenak,  
xumeak dira nire birikak.

Xumea naiz itxuraz, xumea naiz egiaz,  
udaberriko graminea harrotuen modura.  
Haize epelarekin batera,  
harat-hunat kulunkaria.

## **XURIAN XURI** (Ganbara)

Xurian xuri, gorrian gorri  
zoragarria zira zu;  
lipar batean in al badaike  
bi erresumaren jabe,  
hoiek guziak deus ez lirazke,  
maite bihotza, zu gabe  
maite bihotza, zu gabe.

Zure ikustera hemen heldu niz  
nola ziraden, maitea,  
bizitze on bat opa dereitzut  
dohain orotaz bethia  
eta ondoren, hiltzen zelarik,  
paradisuan sartzea,  
paradisuan sartzea.

# YANKEE GO HOME (Hertzainak)

Maite dugu gure herria  
ta askatasun eguzkia.  
Itzal egiten digu horrek baina  
bai baina kantua dugu alaia.

Maite dugu gure herria...

Yankee kanpora, hoa etxera yankee go home.  
Hoa hemendik yankee utzi pakean!!  
Yankee kanpora, hoa etxera yankee go home.  
Fuera el yankee, libro gaitian betiko.

Yankeetzar hori, hemen gure garraxia.  
Entzun ezak: Geurea diagu herria!!  
Ta onenan alde ezartzen diagu bizia.  
Galtzekotan, galdu dadila hirea.

Yankee kanpora...

Elkartu gaiten gure artean lehenbizi,  
besteen menpe ezin diagu inola bizi.  
Gure etxean, gure etxean gu nagusi  
ta beharbada piztiari burua hautsi.

## ZAHARRA ZARA BILBO (Gari)

Neoizko argiak erdi zintzilik  
daude taberna gainean.  
Urratu den, aurpegi den  
pareta gorrian.

Zubiak gora zutitzen ziren  
Portsmoutheko ontzientzat.  
Lehen "euskalduna", gaur palazioa  
eta biharko laino beltzak.

Eta, begiratzen zaitut zuloaren gainetik.  
Zerbait esan nahi dizut zugar galdu aurretik.  
Zaharra zara Bilbo, zaharra zara Bilbo.

La Vieja sartu da Nerbioi erriberan  
oinak ur beltzetan, loreak baineran,  
oinak ur beltzetan, loreak baineran,  
mozkortzen nauzu ta ezin zaitut edan.

Neoizko argiak erdi zintzilik  
daude taberna gainean.  
Egin nazazu zurea  
kantak dirauen artean.

Gerritik heltzen ondoen dakien  
beso luzearen jabe.  
Guapa etorri, irri batekin  
ziurtatua ez al gaude?

Eta, begiratzen zaitut...

## **ZAINAK ZAIN** (Izaki Gardenak)

Erdibitzen zaituen bakardade zuria  
egunero dastatu. Beldurrak...  
Neure burua ikusi zeure begietan  
eta ez ezagutu. Beldurrak... Beldurrak...

Dena hobetuko da uste baino lehenago,  
eseri eta itxaron. Gezurrak...  
Oso gutxi falta dugu zoriontsu izateko,  
dena normala da. Gezurrak... Gezurrak...

Bide bazterrean, zeren zain? zeren zain?  
Odol berri bila, zainak zain. Zainak zain. Zainak zain.

Ur zikinez beterik ditugu erraiak  
hareaz eta hautsez. Hezurrak... Hezurrak...

Bide bazterrean...

## **ZAINDU MAITE DUZUN HORI** (Ruper Ordorika)

Iritzi helduak, uste haundikoak, gure herriaz.  
Goiz eta arrats berriketan gure herriaz.  
Nik ere nahi nituzke halako segurtasunak eduki.  
Baina, gauzak zer diren, kontuak ez zaizkit ateratzen ongi.

Hori suertea nonnahikoak diren hoiena!!  
Sasi guztien gainetikan dabilta hegan.  
Inork ez zidan esan Euskaldun izatea zein nekeza dan,  
Hobe nuela hautatzea munduko hiritar izatea.

Kantu leunak nahi nituzke jarri.  
Eguzkia ainubian denari.  
Zaindu maite duzun hori.

Hala esaten didate:  
Zertan zabilta maite kontuetan?  
Elkarbizitza jokuan eta zu,  
berriz, bertso ttikietan.

Kantu leunak...  
Zaindu maite duzun hori.  
Zaindu gorroto duzun hori.

## **ZANGALATRABA** (Izaro)

Argi gehiegi loa eusteko,  
izar gehiegi ez amesteko.  
Lo hartuko nuela ez nuen ba  
benetan usteko benetan usteko.

Arratsaldeko lau arnasetan  
bizi ninteken hanka puntetan.  
Erdi lo dauden lehen laztanetan,  
tarara tarara tarararara.

Baina gaur ez dit balio,  
gainezka interpretazioz.  
Hainbat gau eman nizkion,  
eta bueltan eta bueltan eta bueltan eta bueltan doazkio.

Zangalatraba eseri nintzen  
zure helmugaren azken hatsetan.  
Laranjondoen itzalerdien  
gezurretan urteetan, urteetan, urteetan.

Behin irekita usteltzea besterik ez duten  
loreen antzera.  
Arrainen blup-en itsasoan  
urdintzera, urdintzera, urdintzera, urdintzera.

Elkarren larruz ez bada, ez duzu ezer ikasiko.  
Aspalditik muxu nizun, nirekin ta zu gabe,  
ta nirekin ta zu gabe naiz biziko.

## **ZATI TXIKI BAT LAm-EN** (Itoiz)

Hil hil hil ilunabarrero  
edo ametsak hautsiz sosega nadin,  
esna nadin, kontura nadin  
eta haizearen kontra urtu nadin.

Hirugarrenez ahantzi ditut  
nire atzamarrak zure adatsean,  
urrezko purpurinapean  
ageri duzun goxotasuntzan.

Zure begien binetetan  
arnasa eutsiaz lasaitzen nauzu,  
islatzen nauzu, deitzen nauzu  
eta zoli-zoli naramazu.

Planeten hitzetan zintzilik  
zure oihartzuna eta epeltasuna,  
dasta ditut nire altzoan  
apurtzen ari direnen hotsak.



# **ZAUDE LASAI** (Mikel Laboa)

Askatuko zaituen  
zai bazaude  
zaude lasai,  
zaude ziur  
askatuko zaituela.

Kateak itsusiak baitira  
hilotzaren gorputzean!!

Kateak itsusiak baitira  
hilotzaren gorputzean!!

Kateak itsusiak baitira  
hilotzaren gorputzean!!

Kateak itsusiak baitira  
hilotzaren gorputzean!!

## **ZAZPIAK OHIAL BATETIK** (Xalbardin / Laja eta Mikel)

Mundu guztiak aditutzen du euskaldunaren negarra  
alde batera nahiago nuke ez banintz hemengotarra.  
Enpeinatzea ez bada libre alferrik dugu indarra  
hau da txoria gari tartean goseak egon beharra.

Antzerki hontan lau pertsonaia ta jokalaria bakarra  
arbolak berak erakusten du ostoa eta adarra.  
Enpeinatzea ez bada libre alferrik dugu indarra  
hau da txoria gari tartean goseak egon beharra.

Sutan pizturik darrai oraindik sugai berriz lehengo gerra  
oharkabeen ez zen mintzatu Txirrita poeta zaharra.  
Enpeinatzea ez bada libre alferrik dugu indarra  
hau da txoria gari tartean goseak egon beharra.

Zazpi ahizparen gai den oihala ebakirikan erditik  
alde batera hiru soineko utzirikan lau bestetik.  
Guraiziakin bereizi arren bakoitza bere aldetik  
ezagutzen da jantzi direla zazpiak oihal batetik.

Oihal bera da gure jantzia sortu gintuzten unetik  
ez du munduak kemenik sortu kentzeko gure soinetik.  
Guraiziakin bereizi arren bakoitza bere aldetik  
ezagutzen da jantzi direla zazpiak oihal batetik.

## **ZEBRA** (Anari)

Lehen guztiari beldur nion nik,  
orain berriz baso itsuari.  
Ezagunari baino ezezagunari.  
Egunak beltz, gauak zuri  
galderak niri, erantzunak zuri.

Nekez nau hainbeste aldatu  
zebra naiz oraindik,  
lehen zuria arra beltzez  
ta orain beltza arra zuriz.

Ta jan ditudan hitzek jaten naute oin ni,  
urtaroek dena mugatzen hau izan ezik.

Ta ezin zaitudanez ahaztu  
beharko dut nahastu, nahastu...  
Zuria bada, dena zuriz,  
beltza ere berdin, ez dut maite grisik.

Baina noizbait zaldi izan nahi  
berriz zaldi zuri, nahiz ta agian  
ez naizen izan, zebra erdi baizik.

Lehen zuria arra beltzez  
ta orain berriz beltza arra zuriz.  
Ta ezin dudanez ahaztu,  
beharko dut nahastu, nahastu!

## **ZEINEN EDERRA IZANGO DEN** (Zetak)

Zeinen ederra izango den  
eguzki izpiak zure itzala belarretan marrazten.  
Muxu bat Larrunen,  
garagardo bat zerura eroritakoen omenez.

Herri txikietako festetan esnatuko bagina bihar  
dantzatuko genuke plazetan sekula-santan ez bezala.

Eta kantu bakoitzean utziko genuke eztarria,  
azkenengoa bailitzan edota denetan lehenengoa.

Gu zorionekoak, gordetako ametsen kutxa irekiak.

Zeinen ederra izango den...

Ilobak amona ezagutzean haritz bat jaioko da Urbanan.  
Urteekin ohartuko gara betirako biziko zela.

Lagun minekin ilunabarra eternala bihurtuko da.  
Xuxurlatuko digu ilargiak oraindik denok ez gaudela.

Gu zorionekoak...

Zeinen ederra izango den...

## **ZENBAT GERA?** (Benito Lertxundi)

Zenbat gera, lau, bat, hiru, bost, zazpi.  
Zenbat gera, lau, bat, hiru, bost, zazpi.

Zer egin degu, ezer ez,  
zer egiten degu, elkar jo,  
zer egingo degu, elkar hil,  
zer egingo degu, elkar hil.

Gure asmoak, esperantzak,  
herria, askatasuna,  
justizia, pakea,  
egia, maitasuna,  
mitoak, ta hitz hutsak.

Hori ez, hori ez, hori ez,  
hori ez, hori ez, hori ez...

## **ZENBAT MIN** (Ken 7)

Aske naiz isilpean, irria begietan.  
Ilusio lainoetan itsututa amildegi ertzean.

Barearen ostean ekaitza dator bero.  
Aurrez aurre ikustean  
barne suak itotzen nau berriro.

Zenbat negar, ta zenbat min  
ta zenbat gau, lo egin barik  
zenbat musu eman gabe, zenbat malko...

Zalantzak beldurtzen nau  
beldurrak babesten nau.  
Zu nun zauden pentsatzeak,  
saminduta gorrotoz betetzen nau.

Zenbat negar, ta zenbat min  
ta zenbat gau, lo egin barik  
zenbat musu eman gabe  
zenbat malko... maite zaitudalako.

Zu gabe... nun zaude,  
zu gabe... nun zaude,  
zu gabe... nun zaude.

Zenbat negar, ta zenbat min  
ta zenbat gau, lo egin barik  
zenbat musu eman gabe  
ta zenbat hitz... esan gabe.

## **ZERBAIT GARRANTZITSUA** (Katamalo)

Zerbait garrantzitsua  
esan gura dut, aitortu zidan.  
Aintzat ez nauzuenok  
isilarazteko bestekoa.

Azkarrenak moteltzeko,  
belarririk gabeko eztabaidan.  
Arrazoiak musututs uzteko.

Garrantzitsua zaizuen  
zerbait esan gura dut.  
Ezen zuetako inork  
ez al nau maitatu behar?  
galdetzean oihartzunak  
ihardesten dit,  
ezen lagunak eta egunak  
eskutik desagertzen zarete?  
Itauntzean etxerako tenorea dakartzue.

Halakorik baduzu,  
gorrak minduko dituen  
berbaren jabe bazara  
utxidazu, mailegatu  
astebetez ez gehiago  
osorik itzulikoizut,  
osorik itzulikoizut.

## **ZERGATIK** (Imanol / Georges Moustaki)

Zergatik ikasi ahanztekotz gero ikasiak oro?  
Zergatik ikhusi hainbertze lurralde,  
hainbat, hainbat jende?  
Zergatik ikasi ahanztekotz gero ikasiak oro?

Ezer ezin eutsi... zergatik laztandu?  
Zergatik higuindu?  
Bihar edo etzi ni non naiz izango?  
Ai, ez naiz ordongo,  
Ezer ezin eutsi... zergatik laztandu?  
Zergatik higuindu?

Nigar dagit asko soin'ta bihotz-minez,  
irazeki minez.  
Zergatik, zertako —nork erranen eni?—  
hemen... hor... han... ni.... (ni?)

Nigar dagit asko soin'ta bihotz-minez,  
irazeki minez.

Zergatik ikasi ahanztekotz gero...



# **ZERGATIK UTZI KANTATZEARI** (Benito Lertxundi)

Nere bizitza, munduko arranguren  
gainetik, amaiezinezko  
kantu batean, airos doa  
nere bizitza kantu batean.

Zergatik utzi behar ote diot,  
zergatik utzi kantatzeari?

Urrun bada ere, sorkuntza berri bat  
iragartzen duen doinu hori  
entzuten dut, arrabots eta  
borroka ororen artean.

Ekaitzak ondoan ziztuka  
ari bada, zer axola!  
Egia bizirik dela badakit  
bizirik dela badakit.

Zer axola nere inguruan  
iluna hertsitzen bada?  
Gauean kankak sortzen ditu,  
gauean kankak sortzen ditu.

Nere pake kuttunena  
izutuko duen trumoirik ez da.  
Harkaitz horri lotzen natzaion  
lotzen natzaion bitartean.

Amodioa zeru-lurren  
jauna bada, jauna bada  
Zergatik utzi behar ote diot,  
zergatik utzi kantatzeari?

# ZER GARA GU, NOR GARA GU,

## GUAYTARRAK GARA GU (Peiremans +)

Zein ondo bizi gera, parekorik ez da.  
Osasuna bada zeinen hobea!  
Pozik da nagusia, lanik ez da falta  
Ordu extrak eginaz hau da soldata!

Etxia erostekotan gaude  
garesti xamar dauden arren,  
baina aurrezki kutxa hire esku  
Errenta ordain genezake.

Zein ondo bizi gera, ez dugu etxerikan.  
Apolitikoak gara, betidanikan.  
Sinetsi ez arren ezkontzekotan gaude  
Elizatik bada ere, guri axolik ez!  
Sinesten ez dugunaren...

Zein ondo bizi gera...

## ZINGIRAK (Izaro)

Zingirako uretan aspaldi da gelditu,  
denboraren orbaina hoba ez entenditu.  
Pasatakoa iragan, esperoan zein etorkizun,  
oraina ere bilduta agur baten eman nizun.

Parabapara, parabapara,  
Parabapara, parabapara, papara,...

Jakina da denborak guztia sendatzen du,  
baina esaidazu zuk orain denbora nork sendatuko du.  
Nik ere maite zaitut baina ez nago seguru,  
nahiago dut banoa benetan barkaidazu.

Erlojurik gabe ere denborak arnasten du,  
gaueko aterpetan ezin nauzu ezagutu.  
Hankak lurrean eta zeruarekin dantzatu,  
harezko gazteluak egin eta zingiretan bainatu.

Parabapara, parabapara,  
Parabapara, parabapara, papara,...

Eeeeeeeeeeeeeeeeeeeeeee...

Aaaaaaaaaaaaaaaaaaaaaa...

## ZINTZILIK (Olatz Salvador)

Amestea zer ote den  
galdetu zenidan zuk behin  
nik jakingo banu bezala.

Inork askatu baino lehen  
sarri airean galtzen den  
burbuilu horietako bat da.

Inork zapaldu ez dituen  
ostadar guzti haien  
kolore asko doaz hara.

Eta ohartu baino lehen  
noraeezan berriz ere  
beraiekin galtzen gara... airean... aaaaaaa  
Bitarte hontan... airean... zintzilik...  
zintzilik... zintzilik...  
zintzilik... zintzilik...

Amestea zer ote den  
ahaztu zitzaizun beste behin  
nik jakingo banu bezala.

Ta inork eskatu gabe ere  
ezinbestean galdera horrek  
sarri galera bat bakar.

Galtzean... aaaaaaa, zintzilik...

## ZOAZ EUSKAL HERRIRA (Zarama)

Berriz nongoa nintzen galdetu zidaten,  
berriro aho bete hortz geratu ziren.  
Abertzaleak baditugu ere, hor aberririk ez.  
Egunkaritan gaude baina mapetan ez.

Gazte-gaztetandikan herritik kanpora,  
extranjeri aldean pasa det denbora.  
Herrialde guztietan toki onak badira,  
baina urdailak dio: Zoaz Euskal Herrira!!

Zoaz Euskal Herrira hor duzu jaia!!  
Zoaz Euskal Herrira eta bei ra!!  
Zoaz Euskal Herrira atsedeen bila!!  
Sartu gure kilker kaiolan!!

Araban bagare, Gipuzkun bagera,  
Xiberun bagire eta Bizkaian gara...  
Gare, gara, gire, gera, lau bat hiru bost zazpi.  
Galdetu haizeari eta esango du: "ez dakit"

Zoaz Euskal Herrira...

*"Tots els colors del verd sota un cel sempre gris..."* edo kutsaturik?  
aita-semeak tabernan daudeama-alabak ere...

Zoaz Euskal Herrira...

## **ZORATZEN NAIZELA** (Hertzainak)

Zoratzen ari naizela, hasi naizela dirauts psikoanalistak  
zukanako amodioaren berri ematerakoan.

Zure begi okre horien lama geldoa ene  
bihotza kiskaltzen ari delako  
zoratzen ari naizela sinisterazi nahi didate.

Krabelinen eta larrosa gorrien petaloen ordez  
psikoanalistaren batoi zuriaren  
zurea ez den batoi zuriaren  
fragantziaz ase nahi ez dudalakotz  
zoratzen ari naizela hala dirauts psikoanalistak.

Zubipeko ur kantarien ahots zoliaren  
pareko zitzaidan zure mintzoa  
hiru zurito ta lau txupito edanez  
gure ezpainak zubi ondoan hezetu ziren.  
Maite zaitut, maite zaitut!!  
Lau txupito eta zure ezpain hezeak.

Zoratzen ari naizela hala dirauts psikoanalistak.  
Zoratzen maite zaitut, zoratzen maite zaitut.

## ZORTZIAK BAT (Peiremans +)

We are plenty in here  
Euzkadiak eginak  
and we want to advertise  
pasatzen diran egiak.

Parapapa papapa,  
parapapa papapa,  
parapapa papapa,  
pasatzen diran egiak.

Today-ko gaztiak  
janzten dira pretty,  
powder ipini eta  
enseguida all ready.

Parapapa papapa... enseguida all ready.

Side-walkien pasatzen dan  
people guztiari  
begia ginatu ta  
come on right, in honey.

Parapapa papapa...

## **ZORTZI ORDUKO EKAITZA** (Sorotan bele)

Zeruan hodeiak daude,  
itsasoan txalupak.  
Zapatak gustiz bustiak,  
gorputz osoa dardaka.

Neguko eguraldia dago,  
eta uda oraintxe hasi da.  
Trumoiak sumatzen dira,  
itsasertze honetan.

Hemendik ikusten zaitut,  
etortzen zaren moduan.  
Beldurra ematen didazu,  
ikusten zaitudanean.

Hondarraz beteta nago,  
nonbait txukundu beharra.  
Goitik behera bustia,  
euriaren errua da.

Haizeak erakusten digu,  
bere indar guztia.  
Tximistak marrazkiak dira,  
ekaitzen bakardadean.



## **ZUBEROA I** (Benito Lertxundi)

Zuberoa, Zuberoa emakume  
edo igali ispiluen ispilu.  
Ez dakit zure baitan  
erresiñolaren bat lo ote datzan.  
Ez dakit zure belardi-azpian  
inor pitxiak lantzen  
ari ote den, astiro.  
Ez dakit ere arto-sailik ba ote duzun,  
ez eta zein ote den ere  
zure sagar-azalen kolore.

Zuberoa, Zuberoa emakume  
edo igali ispiluen ispilu.  
Noiz dagi euri Zuberoan?  
Nola dute begiratzen Zuberoan?  
Nola da hiltzen Zuberoan? Nola?  
Zutaz ez dakit deus ere, ez zaitut ezagutzen.  
Bakarrik, zure kantaren bat entzun dut  
eta horregatik zaitut maitatzen,  
horregatik, bakarrik, nauzu zure alde.

## **ZUBEROA II** (Benito Lertxundi)

Zuberoa, gure herriaren  
hondamendi garratzaren eredu.  
Jainkozko mundua, zure azken hatsetan  
ihauteriari zara lotzen,  
Ihauteri, bizitzaren soka-dantzan  
lehenbiziko jauzi natura eta bizi-indarren  
eraberritze kosmoskoan bizi sinestearen oinarri.

Zuberoko herria, hondatzen eta bersortzen  
diren naturen arteko  
etengabeko borrokan beti garaile.  
Zuberoko herria, lurrezko jakinduria  
jatorrizko bihia, munduko ardatza  
gure ardatzaren mundua,  
zuk asmatu dituzun kanta eta dantza  
klasiko-aurrekoaren  
eta betikotasunaren orantza...  
Jinkoak benedika zaitzala.

## **ZUBIAK** (Anari)

Dena utzi eta berriz ihes egin duzu,  
eta zuri deika atzean utzi nauzu,  
pizti herabeen moduan ari natzaizu, gauez kantuan.

Ta hautsi duzu, eraikitako zubia deusestatu  
eta orain harri pilo bat baino ez dugu,  
min egiten duten milaka harri dugu elkarri botatzeko.

Eraikitako zubia amildegi egin zaigu,  
eta ibaia erdian harro pasazten zaigu;  
denbora bailitzan dena eman ez, ezabatuz.

Eta denboraz, azkenean geu ere harri bihurtu,  
ez dugu sinesten ta ezin sentitu,  
hitzak sugeak bailiran lotzen zaizkigu eta ezin askatu.

Eraikitako zubia...

Denbora bailitzan ibaia, ibaia bailitzan denbora.

## **ZUEN EGUZKIA** (Izaki Gardenak)

Kanpoko guztiaz salbu gotortu naiz  
izara hauen artean,  
ez daukat ateratzeko asmorik.

Ez dut salbatuko nauen deirik nahi,  
errukiaren atzean  
eskuak amorruez beterik.

Zuen eguzkia ezkutatzean,  
behin eta betiko,  
gurea orduan aterako da.  
Eguna helduko da.

# ZUENTZAT (Deabruak Teilatuetan)

Zuentzat dira  
abesti honen lerroak,  
kantu honen leloa.  
Zuentzat ere gure begirunea,  
besarkada beroena.

Zuentzat kantu bat  
osatzeko ahalegin hau da  
gure mireспен guztia,  
gure mireспен guztia.

Zuentzat ez da  
filmerik eginen,  
telebistarik izanen.  
Isiltasuna, itsukeria eta  
egurra, besterik ez.

Dena den, denborak  
bakoitza bere lekuan  
ipintzen omen du,  
ipintzen omen du.

Zuentzat da gure kantua,  
zuentzat da gure oihu a.  
Zuentzat da gure kantua, zuentzat...

Zuentzat... Zuentzat...Zuentzat... Zuentzat...  
Zuentzat... zuentzat...zuentzat!!

# ZU, BI MUNDU ARTEAN (Beti Mugan)

Zu, argazki bat zera denboraren horman,  
gorputz bat zuri beltzean arima kolorgea,  
izotza xurgatzen zuen mingain ubeldua.

Zu, harrizko arraia zinen zeruaren ispiluan,  
itolarrarian uneoro ta sutan berpiztua,  
deabruaren sehaskan amestera behartua.

Zu, hilerrian dantzan fruitarbol artian,  
sustrai aberatsak desehortzi nahiean.  
Gauerdiak ez dakar argi izpirik  
eta ez gaitezen murgildu usteldu diren uretan.

Etzenuen lortu ezagupenik,  
izakiak ez baitu ez bururik ez bihotzik.  
Etzaitez makurtu zure itzalaren aurrean,  
par egiten jakin behar da lur azpian zein gainean.

Zu, haur txiki bat zinen helduen munduan,  
arrazoiaren sareetan erabat mailatua  
sekula gauzatu etzen amets baten geroa.

Zu, hilerrian dantzan fruitarbol artian,  
enbor aberatsak besarkatu nahiean.  
Gauerdiak ez dakar indar berririk  
eta ez gaitezen erotu ahultzen duten borroketan.

Ta etzenuen lortu zuregana iristerik  
izakiak ez baitu ikasbide ziurrik,  
eta ez naiz makurtuko oroimenen aurrean.

Bi mundu artean dirauzu, bi mundu artean ni bezala.  
Bi mundu artean dirauzu, bi mundu artean ni bezala.

## **ZU EZ BAZAUDE** (Beti Mugan)

Ezin ezer, ezer ikusi  
berunezko begi honekin.  
Bizkar gainean daramat eta  
ezin dut jasan berekin, berekin.

Ez dago inor zu ez bazaude.  
Ez dago ezer, ez dago inor.

Ezin ezer, ezer ulertu  
buru laukitu honekin.  
Lepo gainean daramat eta  
ezin dut jasan berekin, berekin.

Ez dago inor zu ez bazaude...

Ezin ezer, ezer ikuitu  
gorputzadar zahar hauekin.  
Poltsikoan daramazkit eta  
ezin dut jasan beudekin, beudekin.

## **ZU GABE** (EH Sukarra)

Salmoi koloredun lau pareten artian  
ohe txiki baten barnian,  
barrutik usteltzen nauten buruhaustek,  
txakur baten zaunka bizia.

Bakardadearen hatzapar gogorretan  
atrapaturik aurkitzen naiz,  
nire zabarkeria mendekatzen dabil  
zure berotasun premia.

Zu gabe, zu gabe, zu gabe, zu gabe!! (BIS)



## **ZU ZAITUT ZAZPIEN ARTEAN** (Ehun Kilo)

Zazpi haritz badira ene baitan  
Bata daukat heldurik isilpean  
Bere baso ta oihanak, erreka, mendiak  
gorroto dituztenen menpean.

Horregaitik zaitut abesten  
kantari gara hau ezagutzen,  
kantari ezagutzen, aspaldian.  
Horrela gara gu moldatzen  
ez naiz inoiz ere damutzen.  
inoiz ere damutzen, inoiz ez.

Kanta honen bitartez nahi detzat,  
haritz zaharrenari omendu.  
Baita bere herriari gogorki garrasi  
ez gaudela oraindik galdurik.

Hegotik iparrera badator  
gure arrano beltzaren hegaldia.  
Euskal Herriak behar du  
nahiz nekez kemenez  
Nafartarren adore guztia.

Horregaitik zaitut abesten...  
...inoiz ere damutzen, inoiz ez.  
...inoiz ez, inoiz damutzen,  
ez naiz damutzen.

## ZUGANAKO BIDEAK (Anari)

Hiria lokartu da  
ilunabarraren eskilaretan,  
haize boladak abailtzen  
eta hostoak joka gure ateetan.

Zuhaitzik ez dagoen arren  
gure amets izoztuetan,  
hostoak ateratzen ta  
joka dugu gure ateetan.

Kale zabalen bakardadea  
neurtzen da aulki hutsetan  
ta ihes atera zen jendea  
esertzen da orain bertan.

Udazken hilezkor honen  
hosto infinitoan pean,  
ezabatzen zaizkit niri  
zuganako bideak!!

## **ZUK ESAN** (Bide Ertzean)

Nora ote goaz? zuk esan.  
Aurrera, atzera? zuk esan.  
Jokoa nola den, zuk esan.  
Garailerik baden, zuk esan.

Joan zinen joan gabe  
eta orain zer?

Zer egingo degu? zuk esan.  
Etxea margotu edota  
erortzen laga bere hortan  
utzikeriak jota, zuk esan.

Joan zinen...

Emaidazu seinale bat  
lehen baino lehen,  
seinale bat arren, arren.

Nora ote goaz...

## **ZURE AMAK BADAKI** (Sorotan Bele)

Zer egiten nagoen galdezka nabil  
behin ta berriz neure burua ri.

Gaur ez naiz ni goiz jeiki, biraka nabil  
buelta eman ez hola nabil ni.

Egiten dut nik gaur ihes  
gezur sorta nik eman ditut mundu guztiari  
neure buruari, hola nabil ni.

Ez al naiz inoiz ni konturatuko?  
Egin behar den guztia ez dut nik egingo.  
Gezur bakar bat nahikoa izaten da,  
hankaz gora uzteko sinisten nuena,  
izanen da, aaaaaa...

Neuk eraman behar izan nuen  
gurutz haren zama bizkar gainean.  
Pausoka aldentzen joan nintzen  
erakutsitako ohituretatik.  
Azkenik askatu nituen barruan  
neramatzan malko... uouououo...

## **ZURE BEGIEK** (Mikel Laboa)

Zure begiek, ene maitia,  
badute biek dirdir eztia.

Zeruko lore miresgarriak,  
izarren pare xoragarriak.

Gazte-gaztia zira oraino,  
egun guztia nago zuri so.

Zure begiek erotzen naute,  
eta guztiek nahi luzkete.

Gaua delarik mundurat jausten,  
Jauna zerutik da urrikaltzen.

Zure begien gozono hori,  
egon dadien eder ta garbi.

Ene nahia, zinez haundia,  
zu izaitia neure andria.

## **ZURE BEGIEK** (Mikel Markez)

Zure begiek mintzen naute,  
zure ahoak beldurtzen nau.  
niretzako nahi zinduket,  
sentimendu mugaezina.

Urontzi bat naiz,  
noraezean dabilen urontzia.  
Mila arroken kontra jo dut,  
baina beti korronteak  
zure kostaldetara narama.

Zure begiek...

Zu gabe ez naiz ezer.  
Zu gabe zertarako bizi.  
Bizitza hontan ditudan  
helburu guztiak ez dira ezer  
lortuz gero, zurekin  
konpartitzen ez baditut.

Zure begiek...

## **ZURE ERTZA** (Anari)

Ez dudan arren badakit hor nonbait dela  
nire zeruertza zure ertzen bat dela  
itsasontzia erre dut berriz,  
utzi sartzen, badakit ezetz esan nizula.

Azala trukutzen dizut mila galderengatik  
zuri helduta baino ez naiz askatzen nigandik;  
zauria mihizten didazu oraindik  
sendatua den arren aspaldi, ez da beldurtzen nauena.  
Ta aurrean ezer ez balitz  
eta nahiaren maitale, beti nekea.

Ez nuke nahi berriro erori  
baina gauza guziek ez dute kontrakorik.  
Niretzat orain da beti dena zuretzat  
inoiz ez dela jakin badakit.  
Emaidazu, arren, ertzarena,  
ez du zertan izan amildegi.

## ZURE EZPAINEN ITSASOAN (Izaro)

Ura ez da gardena, beteta dago.  
Kresala ez da gazia, ez da itsasten.  
Kalatxoririk ez da, kalak bakarrik  
zure ezpainen itsasoan, zure ezpainen itsasoan.

Zure ezpainen itsasoan, kulunkan dantzan  
lo hartuko nuke zure eskuen balantzan.  
Ta zure paparrean, bihotza entzutean,  
taupada bakoitzean moteltzen dittuzu segunduak.  
Denbora ez da gelditzen, hala ere, baina etzait axola.  
Ez diot ta beldurrik zure alboan zahartzeari.

Ura ez da gardena...

Zure hortzen artean urtzen da nire harea,  
eta nire labarrak zure bizkarrean.  
Zure besoak dira itsasontzien eztenak  
ziztadaka zure gorputzetik galtzen diren azkenak,  
galdu eztenak.

Ura ez da gardena, beteta dago.  
Kresala ez da gazia, ez da itsasten, eeeeeeeeeee...

Ta izan nahi nuke irla txiki bat bertan,  
atseden hartzeko mundu honetaz.  
Ez naute nekatzen mareek, ezta korronteeek.  
Ez du inoiz ulertuko galdu eztenak zure ezpainen itsasoan.  
Zure ezpainen itsasoan, zure ezpainen itsasoan.



## **ZUREKIN BATERA** (E.T.S.)

Zenbat aldiz marraztuko nuke  
zure besoetan etorkizuna.  
Zenbat aldiz aurkituko nuke  
zure usainaren oroitzapena.  
Zenbat aldiz itxarongo nuke  
aurrez aurre egoteko hitzordua.  
Egunak hobeak baitira zurekin batera.

Zenbat aldiz emango nizuke  
kafe bat hartzeko dudan denbora.  
Zenbat aldiz asmatuko nuke  
zurekin egoteko aitzaki bat.  
Zenbat aldiz entzungo nituzke  
zure ahotik gure istorioak.  
Egunak hobeak baitira zurekin batera.

Ta elkartuko gara berriro, gure betiko lekuetan.  
Zabalduko ditugu besoak, besarkatuz gure arimak.  
Ta amestuko dugu gauean, oraindik gelditzen zaiguna.  
Egunak hobeak baitira zurekin batera, zurekin batera.

Zenbat aldiz ospatuko nuke  
behar dudanean zu hor zaudela.  
Zenbat aldiz ulertuko nuke  
zure begiradetan aholku bat.  
Zenbat aldiz esango nizuke  
besterik gabe maite zaitudala.  
Egunak hobeak baitira zurekin batera.

Ta elkartuko gara berriro...

# **ZUREKIN DANTZATU NAHI NUKE** (Bide Ertzean)

Zurekin dantzatu nahi nuke,  
gaizki moldatzen banaiz ere.  
Zurekin dantzatu nahi nuke...  
...zure oinak, zure oinak, ezin bestela  
zapaltzeko beldurrik gabe.

Zurekin dantzatu nahi nuke,  
ezagutzen ez garen arren.  
Plazer handia litzateke...  
...nire bihotza, nire bihotza, berriz ere  
zapaltzeko beldurrik gabe.  
Beldurrik gabe, berriz ere beldurrik gabe.

Zurekin dantzatu nahi nuke  
rock and roll bat gau ilunean.  
Zurekin gustura egingo nuke.

## ZURETZAKO HITZ EDERRAK (Peiremans +)

Bi milagarrenez,  
paper zuri-zuria lez  
hitzen bila zinez,  
zoritxarrez gaurkoan ere beldurrez.

Ta bere buruaz beste egiten du eguzkiak  
zuretzako hitz ederrak utzi ditu idatziak...

Bi milagarrenez, paper zuria lez,  
hitzen bila zinez, zorionez,  
bihar itzultzeko minez.

Ta bere buruaz beste egiten du eguzkiak,  
zuretzako hitz ederrak utzi ditu idatziak.  
Gustura irakurriko lizkizute ilargiak,  
baina lainoak estali dituen eguzkiak...

Izen ondo berriak landatu nahi...  
aditzondoak ureztatu nahi...  
bainan ospelegia duk herria hau,  
eta antzua hiztegia!

Ta bere buruaz beste...

## **ZURI BEGIRA** (Izaro)

Nigana hurbiltzen bazara zure marrubizko ezpaineekin,  
ez dut utziko hurbiltzea zuri ona eta argia besterik.

Zenbat itsasotan zenbat ur ertzetan  
nahiko lukete izan zulako porturik.

Iparraldeko klima hotzetan izan zulako berokirik.  
Erleak ere zuri begira dabiz gozoa zara ta azukrerik barik.

Nigana hurbiltzen bazara zure marrubizko ezpaineekin,  
egingo dizut ohe bat eraiki nire azalaren azpitik.

Zenbat lurretan nahiko lukete  
zulako euririk, zulako euririk, zulako euririk.

Zenbat begiradek, nireak behintzat beti,  
nahiko lukete izan zulako helmugarik.  
Txoriak ere zuri begira dabiz,  
zure sorbaldetan kabiak egin nahirik, iiiiiiiiii

Nigana hurbiltzen bazara zure marrubizko ezpaineekin,  
hartuko zaitut altzoan emeki,  
nik zainduko zaitut, zuk hartu lo trankil.

## ZUTIK IRAUN (Peiremans +)

Ez nuen nire burua hain erraz entregatzeko asmorik.  
Bihotzean zakur zaunkak begietan galdera-ikur gehiegi.  
Ze burua banuen hain erraz entregatzeko asmorik.

Haizea iragan aldetik, zeruak ez zekarren ezer onik.  
Etsipen doinu ilunak ez zuen ni limurtzeko indarrik.  
Ze burua banuen hain erraz entregatzeko asmorik.  
Iraun, iraun, iraun, iraun... erori edo iraun.

Eguzkilo bat ipini dut etxeko atarian  
Itzalak uxatu, argi izpiak erakarri ditzan  
Zemuz daukat, ez daukat hain erraz entregatzeko asmorik.

Iraun, iraun, iraun, iraun... erori edo iraun.  
Iraun, iraun, zutik iraun... argitu arte iraun.

Indarrak batu eta, indarrak batu eta argitu arte iraun.  
argitu arte iraun, argitu arte iraun.

Iraun, iraun, iraun, iraun... erori edo iraun.  
Iraun, iraun, zutik iraun... argitu arte iraun.  
Iraun, iraun, iraun, iraun... erori edo iraun.

## **ZUTZEAN** (Izaki Gardenak)

Normaltasun terminala:  
gailentzen den eritasuna.

Zin egidazu gu ez garela  
inoiz ariko eguraldiaz.

Ezeren beharrik ez duzu,  
zalantzen jokoan ez sartu.  
Zutzean zara su.

Aaaa aaa aaaaaa.

Gar txiki bat eman nizun nik,  
eta zuk sute handia itzuli.

Marraz dezakegu,  
nahi baduzu elkarrekin,  
babestuko gaituen zirkulu hori.

Ezeren beharrik ez duzu.  
Zalantzen jokoan ez sartu.  
Zutzean zara su.

**KANTU BILDUMA ENTZUNGA**



